

I. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.2. Foru Dekretuak

24/2007 FORU DEKRETUA, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculumazartzen duena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 6.2 artikuluan ezartzen du Gobernuak finkatu behar dituela Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen ekainaren 3ko 8/1998 Lege Organikoko lehen xedapen gehigarriko 2 ataleko c) letrak aipatzen dituen gutxieneko irakaskuntzak.

Horregatik, argitaratua denez abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretua, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntza finkatzen duena, eta kontuan hartuz Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 47. artikulua eta abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretua, irakaskuntza ez-unibertsitarioaren arloko eginkizun eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzea onetsi zuena, Gobernuari dagokio bere eskumenen esparruko lurralderako curriculumazartzea.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioko hezkuntza etapetako curriculumak ezartzen dituzten foru dekretuak prestatzerakoan, ikasleen prestakuntza eta hezkuntza garapenari koherentzia eta jarraitasuna ematen dioten hezkuntza-printzipioak hartu dira oinarri, eta ez dira banakatutik hartu behar baizik eta bere osotasunean. Hauek dira oinarri horiek:

Kalitateko hezkuntza, ikasleen aniztasuna kontuan izanzen duena eta haien premia guztiei erantzuteko modukoa, haur-haurretatik premia horiek zein diren aztertuta.

Hezkuntza-prozesuak honetara zuzendua behar du: ikasleek ohiko informazio iturriak eta teknologia berriak erabiliz modu autonomoan ikasteko trebetasunak bereganatzea.

Oinarritzko gaitasunak curriculumaren arlo guztietan zehar garatzea.

Oro har ulertzeko irakurketa, idazketa eta ahozko adierazmena etapetako arlo guztietako ikasketan zehar.

Curriculumeko hizkuntza-arloen koordinazioa hizkuntzen ikasketa integratuaren bitartez.

Hezkuntza-etapen arteko koordinazioa, etaparen helburuei eta oinarritzko gaitasunei dagokienez ikasleen ikasketaren kohesioa bermatzeko.

Nafarroaren hizkuntz berezitasuna, etapetako hizkuntz eredu desberdinen arabera.

Nafarroaren aniztasun geografiko, historiko eta kulturalaren eza-gutza, desberdintasunekiko begirunea eta ondare natural eta artistikoa aintzat hartzea.

Baliabide naturalen erabilera zentzuzkoa, ingurumenaren gaineko ardura, norberaren eta taldearen osasunaren babesa, kontsumo neurrikoa eta zirkulazio arauei men egitea.

Honako hezkuntza-balio hauen sustapena: norberaren ezagutza, autoestimua, emozioen kontrola, iraunkortasuna, erroreetatik ikasteko eta arriskatzeko gaitasuna.

Sormen, konfiantza, erantzukizun eta zentzu kritikoz banaka nahiz taldean prestatutako proiektuak imajinatu, abian jarri, burutu eta ebaluatzeko gaitasunaren garapena.

Bizikidetasuna eta elkarrenganako errespetuan oinarria duten balio eta praktika demokratikoen bidez gatazkak konpontzea.

Indarkeriaren aurkako jarreraren garapena, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna bultzatzea eta eskolaren esparru guztietatik kultura desberdineganako hurbiltzea eta errespetua bultzatzea.

Ebaluazioa, bai barnekoa bai kanpokoa, puntu sendoak eta hobetzeko esparruak atzemateko.

Eskolako liburutegia euskarri mota guztiak antolatutik dituen baliabide zentroa da, curriculumeko arlo guztietako ikasketan lagungarria eta irakurtzea bultzatuko duena.

Familien eta ikastetxeen arteko elkarlana, bereziki, hau dela edo bestea dela, babes handiagoa behar dutenekikoa.

Hezkuntza-komunitateko kideen arteko giro positibo eta elkarlanean.

Irakasleen errekonozimendu soziala, haien lanaren aintzatespena eta autoritatearen babesa ikasgelan eta ikastetxean egunero lanean dihardutenean.

Foru dekretu honetan Lehen Hezkuntzako curriculumazartzen da, eta bertan daude oinarritzko gaitasunak, helburuak, edukiak eta ebaluaziorako irizpideak. Curriculum hori ikastetxe bakoitzak garatu eta osatu du bere autonomiaz baliatuz.

Oinarritzko gaitasunak, etaparen curriculumean lehenbizikoz aztertzen baitira, baliagarriak dira ikuspegi integratzaile eta lortutako ezagupenak aplikatzera zuzendutako batetik nahitaezkoztat jotzen diren ikasketak zein diren jakiteko. Gaitasun horiek bereganatuz gero, gai izan behar dute ikasleek beren errealizazio pertsonalerako, herritar gisa aktiboki parte hartzeko, helduarora modu egokian iristeko eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko. Oinarritzko gaitasuna, beraz, eskaera konplexuei erantzuteko eta askotariko eginkizunak modu egokian gauzatzeko ahalmena da. Trebetasun praktikoak, ezagupenak, motibazioak, balio etikoak, jarrera, emozioak eta beste zenbait osagai sozialen konbinazio bat da, batera lan egiten baitute eraginkortasunari begira.

Lehen Hezkuntzaren helburuak etapa osorako jarriak dira. Arlo bakoitzean oinarritzko gaitasunen garapenerako zer balio duen azaltzen da. Arloaren edukiak gaitasunetan daude zehaztuta, edukiak zikloetan daude antolatuta, eta ebaluazio irizpideak, lortutako ikasketaren mota eta maila baloratzea ahalbidetuz gain, funtsezko erreferente bihurtzen dira oinarritzko gaitasunen garapena balioesteko.

Hezkuntzako esku-hartzeak askotariko ikasleei arreta ematea du printzipiotzat; izan ere, aniztasun hori bai ikasteko moduetan bai ikas-prozesua bera baldintzatzen duten ezaugarri pertsonaletan agertzen da. Aniztasunari arreta emateko neurriak ahalbidetzen baitute kalitatezko hezkuntza ikasle guztientzat bermatzea, haien arrakasta lortzea eta sortzen diren premiei erantzutea, zailtasunak hauteman bezain laster aplikatzeko moduan planteatzen dira. Hurrengo hezkuntza-etapara sartzeko ahalik eta baldintzarik hoberenetan gerta dadin, guzti-guztiak aplikatu beharra ezartzen da.

Kanpoko ebaluazioari dagokionez, diagnostikorako ebaluazioa da azpimarratzekoa, prestakuntzarako eta orientaziorako baliagarria izanzen baita, eta ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesuen analisisan laguntzeko eginen baita, eta halaber ikastetxeko bakoitzeko ikasketa prozesuetan laguntzeko. Hori guztia, gainera, beharrezko liratekeen hobekuntzarako neurriak hartzeko aukera dagoen etapa-une batean eginen da.

Hori horrela, Hezkuntza kontseilariak proposaturik, Nafarroako Eskola Kontseiluak aurrez irizpena eman duelarik, eta Nafarroako Gobernuak 2007ko martxoaren 19ko bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

1. artikulua. Aplikazio esparrua.

Lehen Hezkuntzako curriculumazartzen duen foru dekretu hau Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, ikastetxe pribatuetan eta ikastetxe pribatu itunduetan erabiliko da.

2. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Lehen Hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da. Sei ikasturte ditu, normalean sei urtetik hamabi urte bete bitarte egitekoak. Oro har, sei urte betetzen dituzten urte naturalean sartuko dira ikasleak Lehen Hezkuntzako lehen ikasturtera.

2. Lehen Hezkuntzak hiru ziklo ditu, bina urtekoak, eta arlo orokor eta integratzaileetan antolatzen da.

3. artikulua. Helburuak.

Lehen Hezkuntzaren helburua da haur guztiei beren garapena eta ongizatea sendotzeko moduko hezkuntza ematea. Lehen Hezkuntzak, halaber, aukera eman behar die ahozko adierazpen eta ulermenari buruzko eta idazketari eta kalkulari buruzko trebetasunak bereganatzeko eta gizarterako trebetasunak, lanerako eta ikasteko ohitura, zentzu artistiko, sormena eta afektibitatea bereganatzeko.

4. artikulua. Lehen Hezkuntzaren xedeak.

Haurrengan honako gaitasun hauek garatzen lagundu behar du Lehen Hezkuntzak:

a) Elkarbizitzaren balioak eta arauak ezagutu eta preziatzea, haien arabera jokatzeko ikasi, herritar gisa jarduteko prestatu eta giza eskubideak eta gizarte demokratiko batek berezko duen aniztasuna errespetatzea.

b) Taldeko nahiz bakarkako lanerako ohitura, ikastean ahalegina egiteko eta erantzukizunez aritzeko, eta norberarengan konfiantza, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-nahia, interesa eta sormena ikasketaren prozesuan.

c) Gatazkei aurrea hartu eta modu baketsuan konpontzeko trebetasunak bereganatzea, horrela familian eta etxe barnean eta berekin harremanak dituzten gizarte taldeekin autonomiaz moldatzeko.

d) Kultura desberdinak eta pertsonen arteko desberdintasunak ezagutu, ulertu eta errespetatzea, eta halaber emakume eta gizonen arteko eskubideak eta aukeren berdintasuna eta ezaiztasunen bat duten pertsonak ez diskriminatzea.

e) Gaztelania modu egokian jakin eta erabiltzea (eta, dagokionean, berdin euskararen kasuan) eta irakurtzeko ohitura bereganatzea.

f) Atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, oinarritzko komunikazio gaitasuna bereganatzea, mezu errazak adierazi eta ulertzeko eta eguneroko egoeretan moldatzeko aukera emanen diena.

g) Oinarritzko matematikako gaitasunak bereganatu eta kalkulu eragiketa oinarritzaileak, geometria-egagupenak eta estimazioak egitera behartzen duten problemak ebazten hastea, eta horiek guztiak eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzeko gauza izatea.

h) Norberaren ingurunea, bai natur, bai gizarte eta bai kultur ingurunea, ezagutu eta aintzat hartzea, bai eta haren gaineko ekintzarako eta zainketaarako posibilitateak ere.

i) Historia inibertsaleko eta Espainiako historiako gertaerarik garantzitsuenak ezagutzea.

j) Nafarroaren geografiaren eta historiaren hastapenak ezagutu eta Nafarroa berezi egiten duten hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasunaren berri izan.

k) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasketarako erabiltzen hastea, eta jasotzen eta lantzen diren mezuen aurrean jarrera kritikoa hartzea.

l) Irudikapen eta adierazpen artistikoak erabili eta ikusmen arloko proposamenak gauzatzen hastea.

m) Higienea eta osasuna aintzat hartu, norberaren eta besteen gorputza onartu, desberdintasunak errespetatu eta gorputz hezkuntza eta kirola garapen pertsonal eta sozialean lagungarri gisa erabiltzea.

n) Bizidunak, eta bereziki gizakiak hurbilen dituen animaliak eta landareak ezagutu eta aintzat hartu, eta haiek zaintzeko portaerak bereganatzea.

ñ) Nortasunaren arlo guztietan eta besteez harremanetan ahalmen afektiboak eta indarkeriaren, edonolako aurreiritzien eta este-reotipo existentien aurkako jarrera garatzea.

o) Bide hezkuntza eta zirkulazio istripuen prebentzioan eragina duten begirune-jarrerak bultzatzea.

5. artikulua. Ezagupen arloak.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 18. artikulua ezartzen duenaren arabera, etapa honetako ziklo guztietan ematen diren Lehen Hezkuntzako arloak, honako hauek dira:

–Natur, gizarte eta kultur ingurunearen ezagutza.

–Hezkuntza artistikoa.

–Gorputz hezkuntza.

–Gaztelania eta Literatura eta, dagokionean, Euskal Hizkuntza eta Literatura.

–Atzerriko hizkuntza.

–Matematika.

2. Etaparen hirugarren zikloko mailetak batean, aurreko atalean sartutako arloei Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza gehituko zaie.

3. Arlo guztietan arreta berezia emanen zaio gizon eta emakumeen arteko berdintasunari.

4. Etaparen hirugarren zikloan, Hezkuntza Departamentuak atzerriko bigarren hizkuntza ikasteko baimena eman dezake, ezartzen diren baldintzekin.

5. Beste ezagupen batzuetarako tresna diren arloek arreta berezia izanen dute.

6. Etapako arloetakoren batean tratamendu berariazkoa ematea ezertan galarazi gabe, arlo guztietan landuko dira irakurriaren ulermena, ahozko eta idatzizko adierazmena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta balioetan oinarritutako hezkuntza.

7. Arloetako antolamenduak ez du ezertan galarazi behar etaparen orokortasuna; izan ere, ikasleen esperientzia eta ikasketak bateratu egin behar dira adin hauetan.

8. Hezkuntza-ekintza ikasleen esperientziak eta ikasketak bateratzea zuzenduko da etapa honetan eta, lan erritmoei dagokienez, banakako ezaugarrietara edota ikasketa-estiloetara egokituko da.

6. artikulua. Curriculumak.

1. Hezkuntza-etapa honetako oinarritzko gaitasunek, helburuek, edukiek, metodo pedagogikoez eta ebaluazio irizpideek osatzen duten multzoa da Lehen Hezkuntzako curriculumak.

2. Ikastetxeek foru dekretu honetan eta hauxe garatzeko arauetan ezarritako Lehen Hezkuntzako curriculumak garatu eta osatuko dute. Zehaztapen hori Hezkuntza Proiektuaren zati izanen da, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 121.1 artikuluan ezartzen denaren arabera.

7. artikulua. Oinarritzko gaitasunak

1. Foru dekretu honen I. eranskinean jasotzen dira oinarritzko hezkuntza ikasleak bereganatu beharreko oinarritzko gaitasunak; izan ere, hori lortzen lagundu behar du Lehen Hezkuntzak.

2. Foru dekretu honek ezartzen duen irakaskuntza baliagarria da oinarritzko gaitasunen garapena bermatzeko. Ezarritako curriculumak eta ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan egiten duten zehaztapena gaitasun horiek garatzera zuzenduko da.

3. Ikastetxeen antolamendua eta funtzionamendua, hezkuntza-jarduerak, hezkuntza-komunitatea osatzen dutenen artean ezartzen diren harremanak eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak ere baliagarriak izan daitezke oinarritzko gaitasunak garatzeko.

4. Hizkuntza gaitasuna funtsezko faktorea da curriculumeko arloetako ikasketa guztiak garatzeko. Ikastetxeek, beren irakaslan antolatzean, irakurketarako tarte bat sartu behar dute arlo guztietan eta etapako kurso guztietan, bereziki Gaztelania eta Literatura arloan (dagokionean, Euskal Hizkuntza eta Literaturarenean ere bai), eta Natur, gizarte eta kultur ingurunearen ezagutzarenean, nahiz eta horrek ez dituen galaraziko irakurketa bultzatzeko ezartzen diren saio gehigarriak.

8. artikulua. Helburuak, metodologia eta ebaluazio irizpideak.

Foru Dekretu honen II. eranskinean finkatzen da arlo desberdinen helburuak zein diren, oinarritzko gaitasunak garatzeko nola laguntzen duten, eta ziklo bakoitzeko arlo bakoitzerako zer ebaluazio irizpide dauden.

9. artikulua. Ebaluazioa.

1. Ikasleen ikasketa-prozesuen ebaluazioa etengabea eta globala izanen da, eta curriculumaren arloetan oro har egiten duten aurrerapena hartuko du kontuan.

2. Ebaluazioa curriculumaren elementu desberdinak kontuan hartuz eginen da.

3. Arloetako ebaluazio irizpideak funtsezko erreferente izanen dira ikasleek oinarritzko gaitasunak zenbateraino bereganatuak dituzten neurtzeko. Ikasketa-adierazleek ziklo honetarako ezartzen diren ebaluazio irizpideak zehaztuko dituzte.

4. Etengabeko ebaluazio prozesuaren testuinguruan, ikaslearen aurrerapena egokia ez denean, hezkuntza-neurri osagarriak ezarriko dira. Neurri horiek zikloaren edozein unetan hartuko dira, zailtasunak atzeman bezain laster betiere, eta ikasleak hezkuntza-prozesuan aurrera jarraitzeko nahitaezkoak dituen ikasketak bereganatzera zuzenduko dira.

5. Maisu-maistrek, ikasleen ikasketaz gain, irakaskuntza-prozesuak eta beren irakaslan ere ebaluatuko dituzte.

10. artikulua. Kursoz igarotzea.

1. Zikloetako bakoitza bukatzean, eta ebaluazio prozesuaren ondorioz, taldean eskola ematen duten irakasleek erabakiak hartuko dituzte ikasleak kursoz igarotzeko buruz, eta irakasle tutorearen informazioa eta iritzia hartuko da bereziki kontuan.

2. Hurrengo kurtsora igarotzeko, funtsezko gaitasunak behar adina bereganatu eta heldutasun maila egokia lortua behar du izan ikasleak. Kursoz igaroko da ikaslea, halaber, lortu gabeko ikasketek hurrengo zikloa aprobetxamenduz jarraitzea galarazten ez badiote. Horrelakoetan, ikasleak behar adinako laguntza osagarria izanen du haiek lortzeko.

3. Aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen ez dituenak beste urte bat egin beharko du ziklo berean. Neurri hau behin bakarrik har daiteke Lehen Hezkuntza osoan zehar, eta ikastetxeak prestatutako berariazko plan osagarria ere behar da aldi berean, Hezkuntza Departamentuak ezartzen duenaren arabera, betiere.

4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igarotzeko, funtsezko gaitasunak behar adina bereganatu eta heldutasun maila egokia lortua behar du izan ikasleak. Hara igaroko da ikaslea, halaber, lortu gabeko ikasketek hurrengo zikloa aprobetxamenduz jarraitzea galarazten ez badiote. Horrelakoetan, ikasleak behar adinako laguntza osagarria izanen du haiek lortzeko.

Aurreko lerrokadan adierazten diren baldintzak betetzen ez direnean, ezin izanen da hurrengo etapara igaro, baldin eta ez badira agortu foru dekretu honen 9.4 eta 10.3 artikuluetan ezarritako neurriak.

5. Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.2 artikuluko e) letran ezarritakoarekin bat, guraso edo tutoreek beren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuaren bilakeran parte hartu eta beren babesa emanen dute, eta jakin beharko dute zein diren ebaluazioari eta kursoz igarotzeko buruzko erabakiak, eta lagundu egingen dute ikastetxeek haien hezkuntza-aurrerapena errazteko hartzen dituzten neurrietan.

11. artikulua. Etapen koordinazioa.

Hezkuntza Departamentuak Haur eta Lehen Hezkuntzaren arteko koordinazioa bermatzeko irizpideak ezarriko ditu eta baita Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren artekoak ere.

12. artikulua. Tutoretza

1. Lehen Hezkuntzan tutore lanak zuzenduko du ikasleen hezkuntza-prozesua, bai bakoitzarena, bai taldearena.

2. Irakasle tutoreak irakasle taldearen esku-hartzea koordinatuko du eta harreman iraunkorra izanen du familiarekin Hezkuntzarako Es-

kubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 4.1. artikuluko d) eta g) letretan onartutako eskubideez baliatzea errazteko.

13. artikulua. Ikasketaren txostena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 20.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, etapa bukatzean ikastetxeek ikasle bakoitzaren txostena eginen dute eta bertan aztertuko da ikasgaiak zenbateraino bereganatuak dituen ikasleak. Bereziki ikasleen hezkuntza-aurrerapena gehien baldintzatzen duten gorabeherak aztertuko ditu, eta baita bakoitzarentzako arreta bermatzeko garrantzizkotzat hartzen diren beste zenbait gai, Hezkuntza Departamentuak prestatutako ereduaren arabera. Txosten hori Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzen duen 994/1999 Errege Dekretuan ezarritakoari lotuko zaio.

14. artikulua. Aniztasuna kontuan hartzea.

1. Hezkuntza lanak kontuan izan behar du ikasleen aniztasuna, eta gai izan behar du guztien hezkuntza-garapenez eta bakoitzaren premiez arduratzeko aldi berean.

2. Hezkuntza Departamentuak behar diren neurriak ezarriko ditu curriculum eta antolamenduan, ikasle guztien premiei eta bereziki hezkuntza-premia berariazkoak dituztenei erantzuteko modukoak.

15. artikulua. Ikastetxeen autonomia.

1. Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen autonomia pedagogiko eta antolamenduzkoa bultzatuko du, eta irakasleen talde lana eta hezkuntza-praktikatik abiatuko den ikerketa lana erraztuko ditu. Gainera, irakasleek beren lanaren garrantzia sozialari dagokion tratua, aintzatespena eta begirunea jaso ditzaten ahaleginduko da.

2. Ikastetxeek Hezkuntza Departamentuak ezarritako curriculum eta aniztasunaz arduratzeko neurriak garatu etaosatzean, beren ikasle-enzugarrietara eta beren hezkuntza-errealiterara egokituko dituzte, guztien premiak asetzeko, bai zailtasun handienak dituzten ikasleentzat, bai ikasteko gaitasun edo motibazio gehiena dutenenak.

3. Familiek etapa honetan duten funtsezko erantzukizuna errespetatu eta bultzatzearen, ikastetxeak beraiekin elkarlanean estu arituko dira, eta beren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzera bultzatzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte. Aldi berean irakasleen autoritatea sendotuko dute.

4. Zuzendaritza taldeak hezkuntza komunitateko kideen arteko giro positibo eta elkarlanean bultzatuko du.

5. Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, esperimentazioak, lanerako planak, antolamendu moduak edo eskola-ordu gehiago egiteko ahalmena dute, Hezkuntza Departamentuak ezarri bezala betiere, baina inola ere ezin ezarriko zaizkiek familiei edo Hezkuntza Departamentuari ekarpen edo eskakizun bereziak.

16. artikulua. Etapako ebaluazioa.

1. Diagnostikorako ebaluazioa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legearen 21. artikuluan arautua, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa bukatzean eginen dute ikasle guztiek eta ez du ondorio akademikorik izanen. Ikastetxeek hezkuntza eta orientaziorako erabiltzeko izanen da, eta familiek eta hezkuntza-komunitate osoak informazioa izan dezaten.

2. Hezkuntza Departamentuak, bere ebaluazio planaren arabera, Lehen Hezkuntzako zikloetako edozein bukatzean egin ditzake ebaluazioak.

3. Hezkuntza Departamentuak bidezko ereduak eta laguntza emanen dizkie ikastetxeei, ebaluazioak modu egokian egin ahal izan ditzaten.

4. Ikastetxeek Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ikasle guztiek oinarritzko gaitasunak lortzera zuzendutako neurri osagarriak antolatzeke erabiliko dituzte, besteak beste, ebaluazio horietako emaitzak.

5. Ebaluazio horiek aukera emanen dute, irakaskuntza-prozesuen eta irakaslanaren ebaluazioarekin batera, hezkuntza-jarduketak aztertu eta baloratzeko, eta are berrorientatzeko, behar izanez gero.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenbizikoa.–Nafarroako euskalkiak.

1. Hezkuntza Departamentuak Nafarroako eskualde jakin batzuetan mintzatzen diren euskalkiak irakastea eta eskolan erabiltzea bermatuko du.

2. Hezkuntza Departamentuak ahaleginak eginen ditu irakasleek Nafarroako euskalkiak jakin ditzaten. Halaber, 1. puntuaren ezarritakoa bete dadin beharrezkoak diren baliabide didaktikoak prestatu eta argitaratuko ditu.

Bigarrena.–Hizkuntzen tratamendu integratua.

Curriculumeko hizkuntzen ikaskuntzari modu integratu eta koordinatuan ekin behar zaio, ikasleen hizkuntz gaitasunen hobekuntzari begira, betiere foru dekretu honen II. eranskinaren eta gerora hau garatzen duten arauen arabera.

Hirugarrena.–Atzerriko hizkuntzetan ematen diren irakasgaiak.

1. Hezkuntza Departamentuak baimena eman dezake curriculumeko arloetako zati batzuk atzerriko hizkuntzetan irakasteko, eta horrek ez du zertan ekarri inolako aldaketarik foru dekretu honek arautzen dituen curriculumeko oinarritzko aspektuetan. Etapan zehar, ikasleek bi hizkuntzetan jasoko dute arloetako oinarritzko terminologia berariazkoa.

2. Curriculumeko arloetako zati bat atzerriko hizkuntzetan ematen duten ikastetxeek, betiere, ikasleak onartzeko ezarritako irizpideak aplikatuko dituzte. Irizpide horietan ez da sartuko hizkuntz beharkizunik.

Laugarrena.–Erlijio irakaskuntzak.

1. Erlijio irakaskuntzak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera sartuko dira Lehen Hezkuntzan.

2. Hezkuntza Departamentuak behar diren neurriak hartuko ditu, ikasturtearen hasieran, ikasleen familiei beren seme-alabek erlijio irakaskuntzarik jasotzea nahi duten ala ez adierazteko aukera izan dezaten bermatzeko.

3. Ikastetxeek, Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen irizpideekin bat, antolamenduzko neurriak garatuko dituzte, erlijio irakaskuntzak aukeratu ez dituzten familien seme-alabek behar den bezalako hezkuntza-arreta jaso dezaten, horrela ez baita inolako diskriminaziorik izanen beste aukera bat egin dutenen kasuan. Arreta horrek ez du inola ere ekarri erlijio egintzaren ezagupenekin loturiko edo etapako beste edozein arlotako curriculumeko edukiak ikastea. Hezkuntza Departamentuak berak ezarritako esparruan ikastetxeek beren Hezkuntza Proiektuetan sartu behar dituzte autonomia pedagogikoaz baliatuz hartzen dituzten antolamenduzko neurriak, guraso eta tutoreek behar adinako aurrerapenez izan dezaten haien berri.

4. Erlijio katolikoaren irakaskuntzaren curriculum eta Estatu espainiarrekin hezkuntza arlorako Lankidetzaren Hitzarmenak sinatuak dituzten gainerako konfesioen erlijioaren curriculumak elizaren hierarkiak eta erlijio bakoitzeko agintariek ezarriko dituzte, hurrenez hurren.

5. Erlijio katolikoaren irakaskuntzaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako gainerako arloetakoak egiten diren bezalaxe eginen da eta haiek dituzten ondorio berdinak izanen ditu. Gainerako konfesio erlijiosoen irakaskuntzaren ebaluazioa Espainiako Estatuak izenpetutako Lankidetzaren Hitzarmenaren ezarritakoari lotuko zaio.

6. Ikasle guztientzat berdintasunaren eta lehia librearen printzipioak bermatzeko, erlijio irakaskuntzen ebaluazioetan lortutako kalifikazioak ez dira kontuan hartuko espediente akademikoak lehiatzen diren deialdietan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.–Aplikatzeko egutegia.

Harik eta hezkuntza sistemaren antolamendu berria osatu arte, maiatzaren 3ko 100/1992 Foru Dekretuak agintzen duenari men egiten dio Lehen Hezkuntzak, hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezartzen duen ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuarekin bat, zeina ezarri baitzuten Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.–Arauk indargabetzea.

1. Foru dekretu honetan ezarritako Lehen Hezkuntzaren antolamendu berria hedatu ahala, indarrik gabe geldituko da martxoaren 16ko 100/1992 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duena.

2. Indarrik gabe gelditu dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.–Arauen garapena.

Baimena ematen zaio Hezkuntza kontseilariari foru dekretu hau bete eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.–Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2007ko martxoaren 19an.–Nafarroako Gobernuako lehen-dakaria, *Miguel Sanz Sesma*.–Hezkuntza kontseilaria, *Luis Campoy Zueco*.

I. ERANSKINA

Oinarritzko gaitasunak

Oinarritzko gaitasunak curriculumean sartzeak bide ematen digu ezinbestekotzat hartzen diren ikaskuntzak azpimarratzeko, ikasitakoa aplikatzera bideratutako planteamendu integratzaile batetik abiatuta. Horregatik dira oinarritzkoak. Derrigorrezko irakaskuntza bukatzean gazte batek eskuratutako izan behar dituen gaitasunak dira, bere burua gauzatu, herritar aktiboa izan, helduragoan modu egokian sartu eta bizitza osoan zehar ikasten segitzeko bidea ematen diotenak.

Oinarrizko gaitasunak curriculemean sartzeak helburu batzuk ditu. Aurrenik, ikasitakoak integratzea, hala formalki ikasitakoak, arloetan edo irakasgaietan sartuak, nola informalki ikasitakoak eta ikasketa ez-formalak. Bigarrenik, ikasitakoak integratu, eduki mota desberdinekin lotu eta egoera eta testuinguru desberdinetan behar dutenean modu erangikorrean erabiltzea ahalbidetzen die ikasleei. Eta, azkenik, irakas-kuntza orientatzen du, ezinbesteko edukiak eta ebaluazio irizpideak identifikatzen lagundu eta irakatsi eta ikasteko prozesuari buruzko erabakiak inspiratzen baititu.

Curriculumeko arlo eta irakasgaiekin ikasleek hezkuntzako helburuak lor ditzatela lortu nahi da, eta, beraz, oinarrizko gaitasunak eskura ditzatela. Hala eta guztiz ere, ez dago zuzeneko loturarik arlo edo irakasgai batzuen irakaskuntzaren eta gaitasun jakin batzuen garapeneraren artean. Arlo bakoitzak laguntza ematen du gaitasun batzuk garatzeko, eta oinarrizko gaitasun bakoitza arlo edo irakasgai batzuk lantzearen ondorioz lortzen da.

Oinarrizko gaitasunak lortzeko, curriculumeko arloetan eta irakasgaietan egindako lanari garapenerako beharrezkoak diren antolamenduaren eta funtzionaltasunaren esparruetako neurri batzuk erantsi behar zaizkio. Beraz, ikastexeen eta ikasgelen antolaketa eta funtzionamendua, ikasleen parte-hartzea, barne arauak, metodologia eta baliabide didaktiko batzuen erabilera edo eskolako liburutegiaren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua eta beste elementu batzuk lagungarri edo oztopo izan daitezke komunikazioari, inguru fisikoaren azterketa, sormenari, elkarbizitza eta herritartasunari nahiz alfabetatze digitalari lotutako gaitasunak garatzeko. Orobat, tutore-jardun etengabea funtsezko laguntza izan daiteke ikasketen erregulazioari, garapen emozionalari edo trebetasun sozialei dagozkien gaitasunak garatzeko. Azkenik, jarduera osagarriak eta eskola kanpokoak planifikatu gero, oinarrizko gaitasun guztien garapena bultzatzen ahal da.

Europar Batasunak egindako proposamenaren esparruan, eta azaldu diren gorabeherei jarraikiz, oinarrizko zortzi gaitasun hauek ezarri dira:

- 1.–Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.
- 2.–Matematikarako gaitasuna.
- 3.–Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna.
- 4.–Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.
- 5.–Gaitasun soziala eta herritartasuna.
- 6.–Arte eta kultur gaitasuna.
- 7.–Ikasten ikasteko gaitasuna.
- 8.–Autonomia eta ekimen pertsonala.

Eranskin honetan gaitasun horien deskripzioa, helburuak eta ezau-garriak azaldu eta ikasle guztiak horietako bakoitzean lortu behar duten oinarrizko maila ezartzen da. Nahiz eta erreferentzia derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran izan, haien garapenak eskolaldiaren hasieratik beretik hasi behar du, pixkanaka eta modu koherentean eskuratu ahal izateko. Horregatik, Lehen Hezkuntzak hemen aipatzen diren gaitasunak hartuko ditu erreferentziatzat, ikasle guztiak lortu beharreko helburuak biltzen baitituzte. Gaitasun horiek etapa honetan lortu behar ez diren alderdi batzuk badituzte ere, komeni da horiek ezagutzea, geroko garapen hori arrakastatsua izateko oinarriak finkatzeko.

Curriculumak jakintza arloetan egituratzen da, eta horietan bilatu behar dira gaitasunak etapa honetan garatu ahal izateko erreferenteak. Horiek horrela, arlo bakoitzean, haren xede nagusi diren oinarrizko gaitasunak lortzeko ematen duen laguntza aipatuko da berariaz. Bestalde, bai helburuek, bai edukiaren hautapenak gaitasun guztien garapena bermatzea dute xede. Ebaluazio irizpideek haiek lortzeko bidean aurrera egindako urratsak baloratzeko balio dute.

1.–Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.

Gaitasun hau hizkuntza ahoz eta idatziz komunikatzeko, errealitatea irudikatu, interpretatu eta ulertzeko, ezagupenak osatu eta komunikatzeko eta pentsamendua, emozioak eta portaera antolatuta eta autoerregulatzeko tresna gisara erabiltzeari dagokio.

Gaitasun honetako ezagupenek, trebetasunek eta jarrerak bidea ematen digute pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak azaldu, hizketan aritu, zentzu kritikoa eta etikoa osatu, ideiak sortu, ezagupenak egituratu, solasari, ekintzei eta lanei koherentzia eta kohesioa eman, erabakiak hartu eta entzuten, irakurtzen eta ahoz nahiz idatziz adierazteko atsegina hartzeko, eta horrek guztiak autoestimazioa eta konfiantza garatzen laguntzen du.

Komunikatu eta hizketan aritzeko, beharrezkoa da besteekin eta inguruarekin loturak eta harreman konstruktiboak ezartzeko eta ezagutzen diren heinean onartzen diren bestelako kulturetara hurbiltzeko gaitasunak garatzea. Horregatik, hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna elkarrekin bizi eta gatazkak konpontzeko trebetasunaren barruan dago.

Hizkuntzak, errealitatea ulertu eta irudikatzea tresna den aldetik, berdintasunerako baliabidea behar du izan, alegia, emakumeen eta gizonen artean berdintasuneko harremanak ezarri eta estereotipo eta

esapide sexistak baztertzeko. Hizkuntza bidezko komunikazioak eskola komunitatean gatazkak modu lasaian konpontzeko tresna izan behar du.

Entzun, azaldu eta solas egiteko beharrezkoa da hitzezko interakzioaren mota desberdinez ohartzea, hala nola komunikazio egoera desberdinetan trukatzeko diren ahozko mezuak azaldu eta ulertzeko gero eta gaitasun handiagoa izan eta komunikazioa testuingurura egokitze gaitasuna izatea. Halaber, beharrezkoa da hizkuntzako eta hizkuntzaz kanpoko kodeak eta trebetasunak eta egoera bakoitzean komunikatzeko arauak aktiboki eta eraginkortasunez erabiltzea, komunikazio egoera bakoitzari egokitutako ahozko testuak produzitzeko.

Irakurri eta idazteak bidea ematen digute informazioa bilatu, bildu eta prozesatzeko eta asmo komunikatiboa edo kreatiboa duten testu mota desberdinak sortu eta erabiltzeko. Irakurteak idatzizko hizkuntza erabili ahal izateko kodea interpretatu eta ulertzea ahalbidetzen digu, eta, gainera, atseginarekin iturria da, bestelako inguruneak, hizkuntzak eta kulturak ezagutzeko bidea eta fantasiaren eta jakinduriaren sorburua, eta horrek guztiak komunikatzeko gaitasuna mantendu eta hobetzeko laguntza ematen du.

Hizkuntza bidezko komunikazioko ekintzei (elkarriketari, irakurketari, idazketari eta abarri) helburu batzuk aplikatzeko gaitasuna loturik dago gaitasun horren funtsezko ezaugarri batzuekin, adibidez errealitate irudikatu, interpretatu eta ulertzeko trebetasunekin eta ezagupenak eta ekintzak antolatuta, autoerregulatu eta koherentzia ematekoekin.

Ulertzea eta komunikatzen jakitea jakintza praktikoak dira, hizkuntzaren funtzionamenduaren eta hura erabiltzeko arauen gogoetazko ezagutza oinarritu behar diren eta hizkuntza behaketarako eta analisirako tresnatzat hartzeko trebetasuna barne hartzen dutena. Testuinguru sozial eta kultural bakoitzeko komunikazio egoerara egokitutako solas mota desberdinak sortu eta interpretatzeko, beharrezkoa da hizkuntza sistemaren funtzionamendu arauak eta ahozko jardun egokia izateko estrategiak ezagutu eta erabiltzea.

Gaitasun horrek barne hartzen du hizkuntzaren konbentzio sozialez, balio eta alderdi kulturelez eta testuinguruaren eta komunikazio asmoaren arabera moldakortasunaz ohartzea. Berarekin dakar beste pertsonen tokian jartzeko gaitasun enpatikoa, irakurri, entzun, analizatu eta bereak ez bezalako iritziak sentsibilitatez eta izpiritu kritikoaz onartzeko, mamiari eta formari dagokienez ideiak eta emozioak egoki adierazteko eta kritikak egin eta izpiritu positiboaz onartzeko.

Atzerriko hizkuntzen kasuan, eta jakite eta formalizazio maila desberdinekin, gaitasun horrek berarekin dakar horietako baten bat –bereziki idatziz– komunikatzeko erabiltzeko trebetasuna, eta horrekin batera, harreman sozialak aberastu eta norberarena ez bezalako testuinguruetan aritzea. Orobat, informatu, komunikatu eta ikasteko iturriak zabaldu eta dibertsifikatu egiten dira.

Labur esateko, derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran hizkuntza gaitasuna garatzearen ondorioz, ahozko eta idatzizko hizkuntza testuinguru desberdinetan menperatzen dira eta gutxienez atzerriko hizkuntza bat funtzionalki erabiltzen da.

2.–Matematikarako gaitasuna.

Gaitasun hau ondoko hauei dagokie: zenbakiak erabili eta erlazionatzeari, haien arteko oinarrizko eragiketak eta arazoibide nahiz adierazpen matematikoen motak erabiltzeari, bai informazio mota desberdinak sortu eta interpretatzeko, bai errealitatearen alderdi kuantitativoei eta espazialei buruzko ezagutza handitu eta eguneroko bizitzako eta lan munduko arazoak konpontzeko.

Matematikako gaitasunaren osagaia da informazioak, datuak eta argudioak argitasunez eta zehazki interpretatu eta adieraztea, eta horrek bidea ematen du bizitza osoan zehar ikasten egiteko, hala eskola munduan nola hortik kanpo, eta gizartean parte-hartze eraginkorra izateko.

Halaber, gaitasun honek barne hartzen du oinarrizko elementu matematikoak (zenbaki motak, neurriak, sinboloak, elementu geometrikoak eta abar) ezagutu eta eguneroko bizitzako benetako edo itxurazko egoeretan erabiltzea, hala nola arazoak konpondu nahiz informazioa lortzeko balio duten arazoibide prozesuak abian jartzeko. Prozesu horiei esker, gero eta egoera eta testuinguru zabalagoetara aplikatzen ahal dugu informazio hori, argudio kateak ulertzen ahal ditugu funtsezko ideiak identifikatu, eta argudioen eta informazioen logika eta balioa juzgatzen ahal dugu. Hortaz, matematikako gaitasunak berarekin dakar pentsamenduaren prozesu batzuei (indukzioa, dedukzioa, eta abar) jarraitu eta kalkulurako algoritmo edo logika elementu batzuk aplikatzeko trebetasuna, eta horrek arazoibideen egokitasuna identifikatu eta arazoibide egokien emaitzen ziurtasun maila baloratzeko ahalbidetzen digu.

Matematikako gaitasunak barne hartzen ditu informazioarekiko eta matematika elementuak edo euskarriak dituzten egoerekiko (arazoak, gauza ezezagunak eta abar), hala nola behar denean erabiltzeko, jarrerak positiboak eta segurtasun eta konfiantza gero eta handiagoak; segurtasun eta konfiantza horien oinarriak dira ziurtasunaren errespetua eta gustua eta haren bilaketa arazoibidearen bitartez.

Gaitasun honek errealitatea eta zentzua hartzen du elementu eta arazoibide matematikoak haien beharra duten eguneroko egoerei aurre egiteko erabiltzen direnean. Beraz, haren barruan daude egoera horien identifikazioa, arazoak konpontzeko estrategien aplikazioa eta daukagun informazioetik abiatuak errealitatea irudikatu eta interpretatzeko teknika egokien hautapena. Azken batean, matematika jarduerak testuinguru askotarikoetan erabiltzeko ahalmen benetakoak. Horregatik, derrigorrezko hezkuntzan haren garapena lortuko da baldin eta matematika ezagupenak bestelako jakintza arloetatik eta eguneroko bizitzatik heldu diren egoera desberdinetan naturalki aplikatzen badira.

Matematikako gaitasunaren garapenak, derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran, berarekin dakar matematikazko arazoibideak esparru pertsonalean eta sozialean naturalki erabiltzea, informazioa interpretatu eta sortzeko, eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko. Azken batean, matematikako arazoibideak erabili, matematikako argudioak ulertu eta matematika-hizkuntzaren bidez komunikatzea ahalbidetzen diguten trebetasunak eta jarrerak aplikatzea da kontua, eta hori euskarri egokiak erabiliz eta matematika-ezagupenak bestelako ezagupenekin lotuz, konplexutasun maila deseberdinekin bizitzak planteatzen dizkigun egoerei erantzuteko.

3.-Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna.

Mundu fisikoarekin, bai haren alderdi naturalekin, bai giza jardunak sortutako horiekin, elkar eragiteko trebetasuna da, gertaerak ulertu, ondorioak aurreikusitu eta nor bere bizitzaren, beste pertsonen eta gainetako izaki bizidunen bizi-baldintzak hobetu eta zaintzeko bidea ematen diguna. Labor esanda, bizitzaren eta jakintzaren arlo desberdinetan (osasuna, lana, kontsumoa, zientzia, prozesu teknologikoak eta abar) autonomiaz eta ekimen pertsonalez jardun eta mundua interpretatzeko trebetasunak hartzen ditu barne; zeregin horietarako beharrezkoa da tartean sartutako jakintza-arlo desberdinetatik fenomenoak analizatzea ahalbidetzen diguten oinarriko kontzeptuak eta printzipioak aplikatzea.

Beraz, gaitasun honen osagaia da bizitza eta giza-jarduna garatzen direnoko espazio fisikoa, bai eskala handian, bai ingurune hurbilean, egoki hauteman eta inguruko espazioarekiko interakzioak izateko trebetasuna: bertan higitu eta objektuak eta haien kokapena barne hartzen dituzten arazoak konpondu.

Orobat, espazio fisikoarekiko interakzioan jarduteko gaitasunak berarekin dakar espazio horretan pertsonak egotearen eraginaz ohartzea, haien kokapena, jarduerak, eragiten dituzten aldaketak eta ondoriozko paisaiak aztertu eta ikastea zer garrantzitsua den gizaki guztiak garapenaren onuradun izatea, garapen horrek aniztasun eta baliabide naturalak zaintzea eta elkartasun globala eta belaunaldien arteko mantentzea. Halaber, barne hartzen du errealitatea hauteman eta informazioko nahiz publikizateko mezuak aztertzekeo izpiritu kritiko bat, hala nola eguneroko bizitzan kontsumo arduratsuko ohiturak izatea.

Gaitasun honi esker, eta giza gorputza, natura eta gizonek eta emakumeek harekin duten interakzioa ezagutzetik abiatuak, bizimodu desberdinen ondorioei buruzko arazoibideak egin eta inguru natural eta sozial osasuntsu batean bizitza fisiko eta mental osasuntsua izateko jarrera sustatzen ahal dugu. Orobat, osasunaren bi aldeak - banakakoa eta soziala - aintzat hartu eta nor bere burarekiko eta besteekiko erantzukizun eta errespetuzko jarrerak izatea ahalbidetzen digu.

Gaitasun honek bidea ematen digu galdera nahiz arazoak identifikatu eta frogetan oinarritutako ondorioak lortzeko, mundu fisikoa eta gizakiaren jardunak ingurumenarekin eta pertsonen osasunarekin eta bizikalitatean eragiten dituen aldaketak ulertu eta haien buruzko erabakiak hartu ahal izateko. Barne hartzen du ezagutza eta prozedura horiek erabiltzea, pertsonen, erakundearen nahiz ingurumenaren eskakizunei edo beharrei erantzuteko.

Aurretik ulertutako nozio, kontzeptu zientifiko eta tekniko eta teoria zientifiko batzuen aplikazioa ere hartzen du barne. Horretarako, beharrezkoa da analisi sistematiakoaren eta ikerketa zientifikoaren prozesuak eta jarrerak praktikan jartzea: arazo garrantzitsuak identifikatu eta planteatzea; zuzeneko nahiz zeharkako behaketak egitea, haien gidari den esparru teorikoaz edo interpretaziozko jakitun izanik; galderak egitea; informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bilatu, aurkitu, aztertu eta irudikatzea; har litezkeen konponbideak edo hipotesiak planteatu eta egiaztatzea; konplexutasun maila desberdineko iragarpenak eta inferentziak egitea; eta galdera zientifikoei erantzun eta testuinguru desberdinetan (akademikoa, pertsonalean eta sozialean) ondorioak lortu, interpretatu, ebaluatu eta komunikatzeko eskura dagoen ezagutza teorikoak eta enpirikoak identifikatzea. Halaber, barne hartzen du ikertzekeo jardueraren ezaugarriak, ahalbideak eta mugak ezagutzea, historian zehar jakitate osozko tresna izan den aldetik.

Gainera, gaitasun honek eguneroko bizitzako eta lan munduko beharrik asetzeko konponbide teknikoak planifikatu eta erabiltzeko trebetasunak ematen dizkigu.

Laburbilduz, gaitasun honek berarekin dakar pentsaera zientifiko-teknikoa erabiltzea, jasotzen den informazioa interpretatu eta aurrerapen teknologikoen eta zientifikoek pertsonak, gizarte eta natura na-

barmen eragiten dituzten mundu honetan autonomiaz eta ekimen pertsonalez erabakiak hartzeko. Era berean, barne hartzen du ezagutza zientifikoa bestelako jakintza-arloetatik bereizi eta baloratzeko gaitasuna, eta baita zientziari eta garapen teknologikoari lotutako balio eta irizpide etikoak erabiltzeko ere.

Orain arte azaldutako trebetasunen eta gaitasunen ildo beretik, oinarriko gaitasun honetan sartzen dira baliabide naturalen erabilera arduratsua, ingurumenaren zaintza, zentzuzko kontsumo arduratsua eta osasun pertsonala eta kolektiboaren babesa, pertsonen bizi kalitatearen funtsezko elementuak baitira.

4.-Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.

Gaitasun hau informazioa bilatu, lortu, prozesatu, komunikatu eta jakintza bihurtzeko trebetasunarekin datza. Trebetasun batzuk hartzen ditu barne, informazioa bilatzetik hasi eta hura tratatu ondoren euskarri desberdinen bitartez transmititzeari buruzkoak, barne hartuz informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, informatu, ikasi eta komunikatzeko funtsezko elementua baita.

Informazioa bilatu, hautatu, erregistratu eta tratatu edo aztertzeari loturik dago. Informazioa lortzeko teknika eta estrategia batzuk erabiltzen ditu, aukeratzeko den iturria eta erabiltzen den euskarria zein den (ahozkoa, inprimatua, ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia). Oinarriko hizkuntza berariazko batzuk (testu bidezkoa, zenbakizkoa, ikono bidezkoa, ikusizkoa, grafikoa eta soinu bidezkoa) eta haiek deskodetu eta transferitzeko jarraibideak menperatzea eskaten du, hala nola informazio mota desberdinen, haien iturrien, ahalbideen, kokapenaren eta hura adierazteko maizenki erabiltzen diren hizkuntza eta euskarrien ezagupena egoera eta testuinguru desberdinetan aplikatzea.

Informazioa izateak ez du automatikoki jakintza sortzen. Informazioa jakintza bihurtzeko beharrezkoa da hura antolatu, erlazionatu, aztertu eta sintetizatzea, hala nola konplexutasun maila desberdineko inferentziak eta dedukzioak egiteko trebetasunak izatea, labur biduz, hura ulertu eta lehendik ditugun ezagupen-eskemen barruan sartzeko trebetasuna. Haren barruan dago, halaber, lortutako informazioaren eta ezagupenen komunikazioa, horretarako berariazko hizkuntza eta teknika desberdinak, hala nola informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten ahalbideak barne hartzen dituzten adierazpen baliabideak erabiliz.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak lan intelektualeko tresna gisa erabiltzen trebea izateko beharrezkoa da beren funtzio bikoitzean erabiltzea, alegia, informazioa eta jakintza transmititzeko eta sortzeko. Funtzio sortzailea erabiltzen da, adibidez, matematika, fisika, gizarte, ekonomia edo arte arloetako prozesuen ereduaren tresna gisa erabiltzen direnean. Orobat, gaitasun honek bidea ematen du informazio ugaria eta konplexua egoki prozesatu eta kudeatzeko, benetako arazoak konpondu eta erabakiak hartzeko, hala nola ikasteko komunitate formal eta ez-formaletan parte hartzeko komunikazio inguruak zabalduz, lankidetzaren taldeetan aritu eta produkzio arduratsuek eta kreatiboak sortzeko.

Gaitasun digitalak barne hartzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzean etekin handiena lortzea, eta horretarako beharrezkoa da sistema teknologikoen ezaugarriak, funtzionamendua eta arlo horretako aldaketek pertsonen eta lanaren munduan duten eragina ezagutzea. Halaber, haren osagaia da softwarean eta hardwarean sortu ohi diren arazoak identifikatu eta konpontzeko estrategia berrien erabilera. Gainera, teknologia horiek ematen duten informazioa aprobetxatu eta modu kritikoz aztertzekeo bidea ematen du, bai norberaren lan autonomoaren bidez, bai lankidetzaren arituz, sinkronikoki eta diakronikoki, eta gero eta zabalagoak diren ingurune fisiko eta sozialekin harremanak ezartzeko. Gaitasun honek informazioa antolatu eta prozesatzeko balio du, hala nola informazio hori ikasketen, lanaren eta aisialdiaren arloetan aurretik finkatutako xedeak lortzera bideratzeko.

Horiek horrela, gaitasun digitala benetako arazoei konponbide egokia emateko baliabide teknologikoak normaltasunez erabiltzean datza. Era berean, bidea ematen du informazio iturri berriak eta berrikuntza teknologikoak agertu ahala, haiek ebaluatu eta aukeratzeko, berariazko eginkizunak nahiz helburuak lortzeko egokiak diren heinean.

Labur esateko, informazioaren tratamendua eta gaitasun digitalak beraiekin dakarte informazioa eta haren iturriak eta baliabide teknologikoak hautatu, prozesatu eta erabiltzean pertsona autonomoa, eragin-korra, arduratsua, kritikoa eta gogoetsua izatea, bai eta eskura dagoen informazioa baloratzeko jarrera kritikoa eta gogoetazkoa izatea eta behar denean informazioa egiaztatzea ere, hala nola informazioa eta haren iturriak euskarri desberdinetan erabiltzeko gizartearen adostutako jokabide arauak errespetatzea.

5.-Gaitasun soziala eta herritartasuna.

Gaitasun honi esker, bizi garen gizartearen errealitatea ulertzen dugu, eta gai gara lankidetzan aritu, elkarrekin bizi, gizarte anitz batean herritartasun demokratikoaren araberako jokatu eta gizarte hobetzeko konpromisoa hartzeko. Parte hartu, erabakiak hartu, egoera jakin ba-

tzuetan nola jokatu hautatu eta hartutako aukeren eta erabakien erantzukizuna hartzea ahalbidetzen diguten ezagutzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu.

Oro har, barne hartzen du gizartearen bilakaerari eta antolaketa eta sistema demokratikoaren ezaugarriari eta balioei buruzko ezagutzen erabilera, gizartearen ongi moldatzeko, hala nola hautatu eta erabakiak hartzeko zentzu moralak erabili eta herritarren eskubideak eta betebeharrak modu aktiboan eta arduratsuan betetzea.

Gaitasun honek munduaren errealtate historikoa eta soziala, haren bilakaera, lorpenak eta arazoak ulertzea errazten digu. Errealtate modu kritikoan ulertzeko, beharrezkoa da esperientzia eta ezagupenak izan eta errealtate hori aztertzei ikuspuntu desberdinak daudela jakitea. Berarekin dakar analisi multikausalerak eta sistemikora jotzea, gertaera eta arazo historikoei buruzko iritzia eman eta haiei buruzko gogoeta kritikoak eta globalak egiteko, hala nola benetako egoeren gaineko arrazoi bide kritikoak eta logikoak egin eta besteekin hizketatzeko, haiekin batera errealtatearen ulermena hobetzeraren.

Ondoko hauek ere hartzen ditu barne: gaur egungo gizartearen ezaugarriak eta haien aniztasuna, gero eta handiagoa dena, eta arazoak ulertzea; kultura desberdinek gizartearen bilakaerari eta aurrerapenari egindako ekarpenen hartzea; eta bizi garen gizartearen kide izatearen sentimendu komuna izatea. Labor esateko, tokian tokiko identitatearekin bateragarria den herritartasun global bat izatea.

Halaber, gaitasun honen funtsezko osagaiak dira ondoko trebetasun sozial hauek: balioen eta interesen arteko gatazka elkarbizitzaren parte direla ohartarazi eta haiek modu konstruktiboan konpontzeko bidea ematen digutenak, hala nola erabakiak modu autonomoan hartzea ahalbidetzen digutenak, horretarako, alde batetik, gizartearen buruzko ezagupenak erabiliz, eta, bestetik, gogoeta kritikoaren bitartez eta eskualde, herrialde nahiz komunitate bakoitzaren oinarriko kultur ereduaren barruan garatutako elkarriketaren bitartez eratutako balio eskala bat erabiliz.

Gaitasun honen alderdi etikoak barne hartzen du ingurunearen balioak ezagutu, ebaluatu eta afektibitatearen eta arrazoiaren bidez beregitea, pixkanaka nor bere balio sistema eratu eta gatazka nahiz erabaki bati aurre egiterakoan haren arabera jokatzeko. Horretarako, beharrezkoa da jakitea ezen jarrera pertsonalak etikoak izateko, Giza eskubideen deklarazioak biltzen dituenak bezalako printzipio edo balio unibertsalekiko errespetuan oinarritu behar direla.

Hortaz, gaitasun honetan, besteak beste, ondoko trebetasun hauek aurki ditzakegu: elkar ezagutu eta baloratzea, testuinguru desberdinetan komunikatzen jakitea, nor bere ideiak azaldu eta besteak entzutea, beste jarrera onartu eta, gurea ez bezalakoak badira ere, haien ikuspuntuak ulertzea, eta komunitatearen bizitzaren maila guztietan erabakiak hartzeko gai izatea, norberaren eta taldearen interesak batera baloratuz. Gainera, barne hartzen du desberdintasunen balorazioa eta kolektibo guztien eskubideen berdintasuna aitortzea, bereziki emakumeen eta gizonen artean. Halaber, akordioak lortu eta gatazka konpontzeko elkarriketa eta negoziazioa praktikatzeko, bai esparru pertsonalean, bai sozialean.

Azkenik, gaitasun honen osagaia da herritartasun aktiboa eta integritate izatea, eta horretarako beharrezkoa da estatu eta gizarte demokratikoen oinarri diren balioak, haien funtsak, antolaketa eta funtzionamendua ezagutu eta ulertzea. Gaitasun honek bidea ematen digu demokrazia, askatasun, elkartasun, erantzukidetasun, partaidetza eta herritartasun kontzeptuei buruzko gogoeta kritikoak egiteko, arreta berezia emanez nazioarteko adierazpenetan, Espainiako Konstituzioa eta autonomia erkidegoetako legerian ezarritako eskubideei eta betebeharrari eta erakundeek horiek betetzen ote dituzten aztertzeari; halaber, balio demokratikoen modu koherentean jokatzeko ahalbidetzen digu, eta horrek, bestalde, barne hartzen du nor bere pentsamenduen, balioen, sentimenduen eta ekintzen kontzientzia izan eta haiek kontrolatzea.

Herritartasun elkarbizitzan aktiboki eta bete-betean parte hartzeko trebetasunak behar ditu. Halaber, beharrezkoa du elkarbizitzarako balio demokratikoei loturiko arauak ezarri, onartu eta erabiltzea, herritarren eskubideak, askatasunak, erantzukizunak eta betebeharrak betetzea eta beste eskubideak defendatzea.

Labor esateko, gaitasun hau izateko beharrezkoa da bizi garen gizartearen errealtate ulertu, elkarbizitzari eta gatazkei aurre egiteko balio eta praktika demokratikoetan oinarritutako zentzu etiko erabili eta herritartasuna erabiltzea, nor bere irizpideen arabera jokatzeko, bakea eta demokrazia eratzeko laguntza emanez eta jarrera positiboa, solidarioa eta arduratsua hartuz herritarren eskubideak eta betebeharrak betetzeari begira.

6.–Arte eta kultur gaitasuna.

Gaitasun honek bidea ematen du kultur eta arte agerpenak ezagutu, ulertu, estimatu eta baloratzei, hala nola aberastu eta gozatzeko iturri gisa erabili eta herrien ondarearen osagitzat hartzeko.

Kultura oro har, eta, bereziki, artea estimatzeak berarekin dakar haren agerpenetara hurbiltzea ahalbidetzen duten trebetasunak eta ja-

rrerak izatea, hala nola horiek ulertu eta baloratzei eta haiekin hunkitu eta gozatzeko pentsaeraren, pertzeptzioaren eta komunikazioaren arloko trebetasunak eta sentsibilitatea eta estetikaren zentzua izatea.

Gaitasun honek barne hartzen ditu pentsaera dibergenteak eta konbergenteak trebetasunak, izan ere, beharrezkoa da ideia eta sentimendu propioak eta besteak berlantz, ulertu eta adierazteko iturriak, moduak eta bideak aurkitzea eta, bai eremu pertsonalean, bai akademikoan, helburuak lortzeko behar diren prozesuak planifikatu, ebaluatu eta egokitzea. Hortaz, adierazi eta komunikatzeaz gain, arteko eta kulturako errealtate eta produkzio desberdinak pertzibitu, ulertu eta haiekin aberasteko bidea ematen du gaitasun honek.

Beharrezkoak ditu kode artistikoei jarraikiz adierazteko ekimena, irudimena eta sormena, hala nola, kontuan hartuz kultur eta arte jarduerak talde-lanean egiten direla askotan, beharrezkoa da lankidetzan aritzeko trebetasunak, azkenean emaitza batzuk lortzen lagundu eta besteekin elkarrekin eta elkarpenak onartzearen garrantziak ohartzeko.

Gaitasun artistikoko arte hizkuntza desberdinen tekniken, baliabideen eta konbentzioen oinarriak eta kultur ondarearen lan eta adierazpen garrantzitsuenak ezagutzeko bidea ematen du. Gainera, barne hartzen du agerpen horien eta gizartearen –agerpenak sortzen diren garaiko pentsamoldea eta ahalbide teknikoak– nahiz haiek sortu dituen pertsonaren edo taldearen arteko loturak identifikatzea. Horretarako, beharrezkoa da pentsaeraren, korronte estetikoen eta moda eta gustuen bilkaeraz, hala nola estetikak pertsonen eta gizartearen eguneroko bizitzan irudikatu, adierazi eta komunikatzeko duen garrantziak ohartzeko.

Orobat, arte baliabideen bitartez (musika, literatura, ikus-entuzkoak eta arte eszenikoak, herri-arteak) ideiak, esperientziak edo sentimenduak adierazteak dakarren sormena estimatzeko jarrera ere hartzen du barne. Berarekin dakar adierazteko askatasuna, kultur aniztasunerako eskubidea, kulturen arteko harremanen garrantzia eta besteekin partekatutako arte esperientziak baloratzea.

Labor esateko, gaitasun hau osatzen duten trebetasunek barne hartzen dituzte artearekin eta gainerako kultur agerpenekin gozatzeko ahalbidea, hala nola nor bere arte produkzioak egiteko adierazpen artistikoen baliabide batzuk erabiltzeko; berarekin dakar adierazpen kultural eta artistiko desberdinei buruzko oinarriko ezagutza, pentsaera dibergenterako eta talde-lanerako trebetasunen aplikazioa, adierazpen artistiko eta kulturalen aniztasunarekiko jarrera irekia, errespetuzkoa eta kritikoa, nor bere gaitasun estetikoa eta kreatiboa lantzeko nahia eta asmoa eta bizitza kulturean parte hartu eta bertako komunitatearen nahiz beste komunitateen ondare artistikoa eta kulturala zaintzen laguntzeko interesa.

7.–Ikasten ikasteko gaitasuna.

Ikasten ikasteko beharrezkoa da ikasten hasteko trebetasunak izatea, eta baita nor bere helburuen eta beharren arabera gero eta modu autonomoagoan eta eraginkoragoan ikasten jarraitzekoak ere.

Gaitasun honek bi alderdi nagusi ditu. Alde batetik, nor bere trebetasun intelektualean, emozionalean eta fisikoan eta haiek garatzeko estrategien kontzientzia hartzea, hala nola batek bere kasa eta beste-lako pertsonen nahiz baliabideen laguntzaz zer egin dezakeen jakitea. Eta bestetik, motibazioa, autokonfiantza eta ikasteko atsegina sortzen dituen gaitasun pertsonaleko sentimendu bat izatea.

Barne hartzen du batek dakienaren eta ikasi behar duen horren kontzientzia izatea, nola ikasten den jakin eta ikasteko prozesuak modu eraginkorrean kudeatu eta kontrolatzeko bidea ezagutzea, horiek optimizatu eta helburu pertsonalak lortzera bideratzeko. Haren osagaiak dira nor bere ahalbideak eta gabeziak ezagutzea, lehenbizikoak erabili eta bigarrenak arrakasta ikuspuntu batetik gainditzeko motibazioa eta asmoa izatea, horrela ikasteko erronka berriei aurre egiteko segurtasuna handitzen baita pixkanaka.

Hori horrela, beharrezkoa da ikasteko behar diren trebetasunen (besteak beste, arretaren, kontzentrazioaren, oroimenaren, hizkuntza ulermenaren eta adierazmenaren eta motibazioaren kontzientzia izan eta haiek ahalik eta hobekien aprobetxatzeko estrategia eta teknika batzuk erabiltzea, adibidez: ikasteko teknikak, gertaeren eta haien arteko loturen behaketa eta erregistro sistematikoa egitekoak, lankidetzan eta proiektuen arabera aritzeko teknikak, arazoak konpontzekoak, jarduerak eta denbora eraginkortasunez planifikatu eta antolatzeak, informazioa bildu, aukeratu eta tratatzeko baliabideak eta iturriak, baliabide teknologikoak barne).

Halaber, barne hartzen du nor bere buruari galderak egin eta egoera edo arazo baten aurrean har daitezkeen erantzunak identifikatu eta erabiltzea, eta horretarako, eskura dagoen informaziotik abiatuta eta modu arrazional eta kritiko batez, erabakiak hartzeko estrategia eta metodologia desberdinak erabiltzea.

Gaitasun honen osagai dira, orobat, informazioa nor bere kabuz nahiz besteekin laguntzarekin lortzeko, eta, bereziki, ezagupen propio bihurtzeko trebetasunak. Horretarako, beharrezkoa da informazio berria lehendik dauzkagun ezagupenei eta esperientziari lotu eta ezagupen eta trebetasun berriak antzeko egoeretan eta testuinguru desberdinetan aplikatzen jakitea.

Bestalde, gaitasun honek eskatzen du epe motzean, ertainean eta luzean lortzen ahal diren helburuak planteatu eta ikastearen xedeak pixkanaka eta modu errealistan handitzea.

Beharrezkoa du, halaber, ikasten irauten jakitea, hala nola ikastea bizitza pertsonala eta soziala aberasteko elementutzat hartu eta, neurri horretan, ahaleginak merezi dituela ohartzea. Berarekin dakar nor bere burua ebaluatu eta erregulazeko trebetasuna, erantzukizun eta konpromiso pertsonalak, ahaleginak administratzen jakitea, akatsak onartzea eta besteengandik eta besteekin ikasten jakitea.

Laburki, ikasten ikasteko beharrezkoa da, gaitasun edo eraginkortasun pertsonaleko sentimendu batetik abiatuta, nor bere trebetasunez eta ezagupenez kontzientzia hartu eta haiek kudeatu eta kontrolatzea, eta haren barruan daude bai pentsaera estrategikoa, bai lankidetzan aritu, autoebaluatu eta lan intelektualeko baliabide eta teknika batzuk eraginkortasunez erabiltzeko trebetasuna; hori guztia ikasteko banakako nahiz taldeko esperientzia kontzienteen eta atsegingarrien bitartez gauzatzen da.

8.-Autonomia eta ekimen pertsonala.

Gaitasun honen osagaiak dira, alde batetik, elkarri lotutako balio eta jarrera pertsonal batzuen kontzientzia-hartze eta erabilera (adibidez, erantzukizuna, jarraitutasuna, autoezagutza eta autoestimazioa, sormena, autokritika, emozioen kontrola, hautatu, arriskuak kalkulatu eta arazoei aurre egiteko trebetasuna, hala nola beharrak berehala asezteko premia atzeratu, akatsetatik ikasi eta arriskuak hartzekoa).

Beste alde batetik, barne hartzen du nor bere irizpideari jarraituz hautatu, proiektuak sortu eta aukera eta plan pertsonalak gauzatzeko behar diren ekintzak aurrera eramateko trebetasuna, azken hori banakako nahiz taldeko proiektuen esparruan eta haien erantzukizuna hartuz, bai esparru pertsonalean eta sozialean, bai lanarenean.

Barne hartzen du ideiak ekintza bihurtzeko gaitasuna, alegia, helburuak ezarri eta proiektuak planifikatu eta gauzatzekoa. Hortaz, beharrezkoa du aurretiko planteamenduak berregitea edo ideia berriak landu, konponbideak bilatu eta horiek praktikan jartzea. Gainera, gaitasun honen osagaiak dira ahalbideak eta mugak aztertu, proiektu baten garapen faseak ezagutu, planifikatu, erabakiak hartu, jardun, egindakoa ebaluatu, autoebaluatu, ondorioak atera eta hobetzeko ahalbideak baloratzea.

Hori horrela, barne hartzen du erronken eta aukeren ikuspegi estrategikoa izatea, horrek bidea ematen baitu helburuak identifikatu eta betetzeko eta hasitako zereginen arrakasta lortzeko motibazioari eusteko, grina pertsonal, akademiko eta laboral osasuntsu batez. Halaber, ikasketen, lanaren nahiz asialdiaren arloetan eskura dauden aukerak norberaren gaitasunei, nahiei eta proiektuei lotzeko gaitasuna.

Gainera, aldaketen eta berrikuntzen aldeko jarrera bat, planteamenduen malgutasuna eskatzen duena, behar du, hala nola aldaketa horiek aukera gisa ulertu, haietara modu kritikoa eta eraginkorren egokitu eta abiarazten diren bizi proiektu bakoitzeko arazoei aurre egin eta konponbideak bilatzeko trebetasuna.

Autonomia eta ekimen pertsonalek maiz bestelako pertsonak ukitzen dituzten heinean, gaitasun honek harremanetan sartu eta lankidetzan aritzeko trebetasun sozialak behar ditu: besteen jarrera ulertzea, besteen ideiak baloratzea, hizketatu eta negoziatzea, besteei norberaren erabakien berri emateko asertibitatea eta lankidetzan malgutasunez aritzeko gaitasuna izatea.

Gaitasun honek beste alderdi bat du, ikuspegi sozial horri lotuago dena, proiektuen buruzagitzari loturiko trebetasunez eta jarreraz osatua, horren barruan sarturik nor bere buruarekiko konfiantza, enpatia, hobetzeko gogoia, hizketan eta lankidetzan aritzeko gaitasuna, denboraren eta egitekoen antolaketa, eskubideak baieztatzea eta defendatzeko trebetasuna eta arriskuak hartzekoa.

Labur esateko, autonomia eta ekimen pertsonalek barne hartzen dute banakako nahiz taldeko proiektuak edo ekintzak sortu, abiarazi, garatu eta ebaluatzeko gaitasuna, eta hori sormenak, konfiantzak, erantzukizunak eta zentzu kritikoa lagunduta.

II. ERANSKINA

Lehen Hezkuntzaren arloak

NATURA, GIZARTE ETA KULTUR INGURUNEAREN EZAGUTZA

Arlo honetan aipatzen den ingurune nozioak giza bizitzaren agertokia osatzen duten gertakarien multzoa adierazten du, baina, horrekin batera, baita gizakien eta gertakari horien arteko elkarrenergina ere. Ingurunea pertsonen inguruan izaten diren elementu, gertakari, faktore eta prozesuen multzoa da eta, era berean, ingurune horretan txiki dauka zentzua gizakien bizitzak eta ekintzak. Haurrak bere esperientzia sensorial zuzen edo zeharkako bidez hobekien ezagutzen duen eremua da ingurunea, ezaguna baitu eta denboran zein espazioan hurbil, nahiz eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzearen ondorioz hurbiltasun hori geroz eta gutxiago dagoen distantzia fisikoaren mende.

Arlo honetako curriculumak arreta jarri behar du ikasleen garapen fisiko, sensorial eta psikikoan, sei urtetik hamabi urtera bitarteko haurren pentsamendu zehatzean, ikasteko duen gaitasun eta interes zabalean inguruneko elementuekin afektuzko harremanak ezartzen ditueanean, bai eta etaparen bukaera aldean pentsamendu abstraktua lantzen hasteko beharrean ere.

Natur, gizarte eta kultur ingurunearen ezagueraren arloak jakintzaren esparru desberdinak biltzen ditu, horietako bakoitzaren koherentzia errespetatzen du, ikaskuntzaren berariazko prozesuetan arreta jartzen du eta jakintza arlo guztiak helburu bateratu batera bideratzen ditu: gizakiaren ingurunea osatzen duen alderdi eta dimentsioak hobeki ulertu eta azaltzen laguntzea. Horregatik, arlo honetako curriculumak diziplinartekoa da funtsean, eta ikaskuntzak elkarren lagungarri izatera eta ikaskuntza esanguratsua lortzera bideratzen diren harremanak ezartzen ditu.

Curriculumaren antolaketa lotuta dago gizakia/gizartea, ingurune fisikoa/ingurune soziala, natura bizia/bizigabea, natura/kultura gisako elkarrenergina planteamendu kontestudun eta integratu batekin, eremuaren eta denboraren neurrien barnean betiere, eta ikasleen esperientzia zuzen edo zeharkakoetatik abiatuta. Dela eskolan dela eskolatik kanpo izaten dituzten zeharkako esperientziei dagokienez, ezinbestekoa da kontuan hartzea pisu handia dutela norberak inguruneari buruz duen ikuskeran. Hori hala izanik, arlo honetan bereziki, aintzat hartu behar da haurrei ikus-entzunezko baliabideen eta baliabide teknologikoen bitartez egunero iristen zaie informazioak duen garrantzia.

Edukiak hautatzerakoan, beraz, era askotako alderdiak izan dira kontuan. Lehenik, Lehen Hezkuntzaren helburu orokorrak lortzen eta oinarrituko gaitasunak garatzen laguntzen duten edukiei eman zaie lehentasuna, zenbait alderdi bereziki nabarmenduz, hala nola norberaren autonomiaren eta gizarteko parte-hartzearen garapena, ingurunea interpretatzeko eta bertan modu aktibo, kritiko eta askean esku hartzeko gaitasuna, ikertu eta miatzeko gaitasunak garatzea eta eguneroko esperientziarekin zerikusia duten arazoei konponbidea bilatzea edo norberaren garapena orekatua eta solidarioa izateko jarrera eta balioak eskuratzea.

Bigarrenik, arloaren xedea da, munduari buruzko zenbait informazio emateaz gainera, haurrei tresna batzuk ematea informazio horiek ulertu eta interpretatzeko gai izan daitezten. Arlo honetako curriculumak bidea ematen du adin horietako ikasleek erantzun egokiak eman diezaieten sortzen diren galderei, erantzun horiek irizpide zientifiko eguneratuarekin bat etorri behar dutela ahaztu gabe, oinarri zientifiko urria baina esperientziaren aldetik pisu handia duten alde aurreko ideiak, halakorik bada, gaindituz, horrela ezagutza zientifikoa nola eratzen den ikasten has daitezten.

Arloak pisu kontzeptual argia baldin badu ere, kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak erabat erlazionatuta daude eta, hala, kontzeptuak normalean lotuta agertzen dira horiek eskuratzeko beharrezkoak diren prozedurekin eta kontzeptu horien ondoriozko jarrerekin. Arlo honetako ikaskuntza propioetako prozedurak ondokoek estekatuta daude: behaketari, informazioa bilatu, bildu eta antolatzeari, informazio hori prestatu eta komunikatzeari eta ikaskuntza prozesuari buruzko gogoetari, metodo zientifikoaren oinarri den aldetik. Beste alde batetik, jarrerak norberaren identitatearen, sozializazioaren eta bizikidetzaren, osasunaren eta ingurumenaren inguruan egituratzen dira.

Edukiak multzotan batu dira, eta multzo horien bidez arlo hau osatzen duten esparru nagusiak identifikatzen ahal dira. Antolamendu horrek ez du zerikusirik inolako hierarkia ordenarekin edo edukien tratamenduko ordenarekin eta, hortaz, ez da antolaketa didaktikorako proposamen baten gisara hartu behar.

1. multzoa, Ingurunea eta ingurune hori zaintzea. Edukiak: espazioaren pertzepzioa eta irudikapena, horrekin batera unibertsoa, klima eta bere eragina, ura eta bere aprobetxamendua, bai eta pertsonen naturan jarduteko duten gaitasuna ere. 2. multzoa, Izaki bizidunen aniztasuna. Izaki bizidunei buruzko ezagutza eta horiekiko begirune eta estimua. 3. multzoa, Osasuna eta garapen pertsonala. Ezagutzak, abileziak eta trebetasunak biltzen ditu eta, horrela, nor bere gorputza ezagutzetik abiatuta, arrisku jokabideei aurrea hartu nahi zaie eta portaera arduratsuak eta bizimodu osasungarriak garatu eta indartzeko ekimenak bultzatu. 4. multzoa, Pertsonak, kulturak eta gizartearen antolaketa. Multzo honetako edukiak gizartearen funtzionamendua ulertzera bideratuta daude eta, horretarako, hurbileko organizazioak aztertu eta Espainiako eta Europako erakundeak ezagutuko dira. 5. multzoa, Aldaketak denboran zehar. Honen bidez Historia ikasten hasten da, eta denbora neurtzeari eta denbora historikoaren kontzeptualizazioa hurbiltzeari buruzko edukiak ditu; hori lantzeko, garai historikoetako gizarte batzuen eta Espainiaren historiako gertakari eta pertsonaia garrantzitsu batzuen karakterizazioa egiten da. 6. multzoa, Materia eta energia. Multzo honetako edukiak fenomeno fisikoak eta gai eta aldaketa kimikoak buruzkoak dira, eta geroko ikaskuntzen oinarri. Azkenik, 7. multzoa, Objektuak, makinak eta teknologiak. Berritasun gisa sartu dira informazioaren eta komunikazioaren teknologietan alfabetatzearen inguruko edukiak, bai eta aparatuak aurretik ezarritako xede batekin munta-

tzearen inguruak ere, betiere osagaien oinarrizko propietateak ezagututa. Multzo honetako edukiak lantzen direnean, neskek eta mutilak objektuak, makinak eta teknologiak erabili behar dituztenean berdintasunez parte hartzeko ahaleginak eginen dira. 8. multzoa, Nafarroako Foru Komunitatea. Nafarroari buruzko edukiak sartzen dira multzo honetan. Multzo bereizi batean agertu arren, dagokien gai multzoetan txertatu behar dira eta ezarrita dauden ebaluazio irizpideen arabera ebaluatu.

Azken batean, arloko curriculumaren bidez etapa honetako ikasleek gaitasun intelektualak garatzea nahi da, ezagutza, abilezia eta jarrera egokiak ematea gaur egungo gizartea eta mundua hobeki ulertzeko eta mundu horretara heldutasunez eta arduraz iritsi ahal izateko. Baina, gainera, arloak funtsezko laguntza ematen dio haurren sozializazioari, ohitura demokratikoak ikasteari eta bizikidetzara garatzeari. Azken helburu hori arlo guztiek badute ere, honek, Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza arloarekin batera, funtsezko zeregin du helburu horri begira.

Arloak oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzea.

Natur, gizarte eta kultur ingurunearen ezagueraren arloak, izaera orokorra baitu, oinarrizko gaitasun gehienak neurri batean edo bestean garatzen laguntzen du.

Gaitasun sozialari eta herritartasunari dagokionez, norberaren erreializazio bi esparruk zerikusi zuzena dute arloarekin. Alde batetik, harreman hurbilen esparrua dago (familia, lagunak, ikaskideak, etab.), besteetik emozio eta sentimenduen ezagutzea dakarrena berarekin. Arloaren helburu bat zenbait jarrera garatzea da: elkarriketaren aldeko jarrera, gatazkak konpontzeko, asertibitatearena, eta, horri lotuta, komunikazio ona eta taldean ongi egotea errazteko abileziak eta moduak erabiltzea eta gizarteko arauak ezagutu eta erabiltzea. Arlo hau, beraz, eremu pribilegiatua da gatazken gainean gogoeta egiteko, taldeari buruz ardurak hartzeko, bizikidetzako arauak eman eta onartzeko, bai egunero konponbidea behar duten benetako egoeretan bai bakoitza bizi den gizarte esparrukoetan.

Beste esparruak harreman hurbilak gainditu eta auzoa, herria, erki-degoa, estatua, Europar Batasuna eta abar biltzen ditu. Horien antolamendua, eginkizunak, herritarrek parte hartzeko moduak eta halakoak ezagutu behar dira. Alde horretatik, curriculumak alderdi kontzeptualatik haratago jotzen du, trebetasun eta abileziak garatzeko eta, batez ere, jarrerak. Ingurunearen ezagueraren arloak, Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza izeneko arloarekin batera, oinarriak jarri nahi ditu etorkizuneko herritarak munduari begira bizi eta solidarioak izan daitezen, jakin-mina eta informazioa izan eta gizartean parte hartuz eta modu demokratikoan joka dezaten.

Gainera, arlo honek bakoitzaren inguruko gizartea ulertzen laguntzen du, gizarte horren funtzionamendua eta ezaugarriak nolakoak diren erakusten baitu, baita bertako aniztasuna ere, eta, era berean, denboran zehar izan diren aldaketak ulertzen hasiko dira ikasleak arlo honen bitartez, horrela gaur egungo gizartean sustrai historikoetara hurbiltzen hasteko jarraibideak bereganatu dituzten.

Arlo honek funtsezko laguntza ematen du mundu fisiko ezagutu eta harekin elkarrengaitzeko gaitasunean, zeren eta biltzen dituen ikaskuntza askoren ardatz nagusia gizakiak bere inguruko munduarekin duen elkarrengaitza baita. Mundu fisiko interpretatzen laguntzen duten kontzeptuak bereganatuz lortzen du ikasleak gaitasuna eraikitzea, eta, horrekin bezala, ezagutza zientifikoa eraikitzeko metodoaren zenbait ezaugarritara hurbilduz: problemak zehazten jakitea, izaten ahal diren konponbideak aintzat hartzea, estrategiak prestatzea, ikerketa txikiak diseinatzea, emaitzak aztertu eta jakinaraztea.

Laguntza nabarmena ematen dio, halaber, Informazioaren tratamenduari eta gaitasun digitalari. Lehenik, informazioa arlo honetako ikaskuntza askoren ezinbesteko elementua da, informazio hori kode, formatu eta hizkuntza desberdinetan agertzen da eta, hortaz, ulertzeko prozedura desberdinak eskatzen ditu. Mapa bat irakurtzeko, grafiko bat interpretatzeko, fenomeno bat behatzeko edo iturri historiko bat erabiltzeko prozedura desberdinak eskatzen ditu bilaketa, hautaketa, antolaketa eta interpretaziorako, eta horiek arlo honetako ikaskuntzaren helburu nagusiak dira. Bestalde, arloan berariaz sartzen dira alfabetatze digitalera bideratutako edukiak; ezagutza hori arlo honetan eta gainerakoetan aplikatzeko gaitasun digitala garatzen lagunduko du. Ordenagailuaren oinarrizko erabilera, testu prozesadore bat erabiltzeko eta Interneten bilaketa gidatutako egiteak ere laguntza erabakigarria ematen diote gaitasun honen garapeneri.

Arlo honetan informazioak duen pisuak nabarmendu egiten ditu Informazioaren tratamenduari eta gaitasun digitalari eta hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasunaren artean dauden harremanak. Arlo honek berariazko hiztegia aberasten nabarmen laguntzen du baina, horretaz gainera, komunikazio trukeetan azalpenaren argitasuna, hitzak zuzen erabiltzea, diskurtsoa egituratzea, laburpena, etab. baloratzen diren neurrian, gaitasun hau garatzen ariko dira ikasleak. Berariazko arreta eskatzen duten informazio, azalpen eta argudiozko testueta-

ranzko ezinbesteko hurbiltzea dago arlo honetan, gaitasun honi laguntza eman diezaioten.

Arlo hau ikasten ikasteko gaitasuna garatzeko lagungarri izan dadin, ikasteko eta informazioa antolatu, memorizatu eta berreskuratzeko teknika garatzearen aldera bideratu behar da; teknika horiek izaten ahal dira laburpenak, eskemak edo adimen mapak, oso egokiak baitira arlo honetako ikaskuntza prozesuetan. Bestalde, ikasi denari eta ikasteko moduari buruz gogoeta egitea eta ahoz eta idatziz kontatzeko ahalegina ere lagungarri izanen da gaitasun hau garatzeko.

Arlo honek arte eta kultur gaitasunerako ere ematen du laguntza, batez ere kultur adierazpenak ezagutzuz, horien aniztasuna baloratuz eta kultur ondarea osatzen dutenak aintzat hartuz.

Arlo honen barnean norberaren autonomia eta ekimena garatzeari lotutako edukiak sartzen dira, nork bere burua ezagutzetik abiatuta erabakiak hartzen erakusten baita, bai eskolaren esparruan bai aisialdiko jarduerak modu autonomo eta sortzailean planifikatu behar direnean.

Arlo honek, azkenik, erabileraren testuinguru esanguratsuetan tresna matematikoak erabiltzeko aukera ematen du, hala nola neurriak, eskalak, taulak edo irudikapen grafikoak, horrela matematika gaitasuna garatzen laguntzeko.

Helburuak.

Etapan honetan irakasten den Natur, gizarte eta kultur ingurunearen ezaguerak gaitasun hauek garatzea izanen du helburu:

1. Ikaslearen adinerako egokiak diren testu zientifiko, historiko eta geografikoak ahoz eta idatziz zuzen ulertu eta adieraztea. Arlo honetako berariazko hiztegia egoki eta zehatz erabiltzea.
2. Naturaren, gizartearen eta kulturaren ingurune elementu nagusiak identifikatzea, beren antolaketa, ezaugarriak eta elkarrengaitza aztertuz eta gero eta konplexuagoak diren eremuak pixkanaka menderatuz.
3. Nafarroaren identitate geografiko, historiko, kultural eta artistikoa ezagutzea eta bertako aniztasunak sortzen duen aberastasuna baloratzea.
4. Giza gorputza ezagutu ondoren osasun ohiturak izanez eta nork bere burua zainduz jokatzeko, eta pertsonen arteko desberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna) onartu eta errespetatzeko jarrera agertzea.
5. Taldeko jardueretan parte hartzea, portaera arduratsu, eraikitzaile eta solidarioak izanez eta funtzionamendu demokratikoaren oinarriko printzipioak errespetatuz.
6. Ezaugarri propioak dituzten gizarte eta kultur taldeetako kide izatea onartu eta aintzat hartzea, beste talde batzuekin alderatuta dauden desberdintasunak eta Giza Eskubideak errespetatu beharra baloratuz.
7. Gizakiek ingurunean egiten dituzten esku-hartzeetakoren batzuk aztertzea, horiei buruzko balorazio kritikoa egitea eta eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatu eta berreskuratzeko eta kultur ondarea zaintzeko jokabidea izatea.
8. Denboraren joanari lotutako aldaketa eta eraldaketak ikustea naturaren, gizartearen eta kulturaren ingurunean, eta aldebereotasunaren eta segidaren erlazio batzuk arakatzea, ezagutza horien bidez beste garai historiko batzuk ulertu ahal izateko.
9. Naturaren, gizartearen eta kulturaren ingurune gertaerak, kontzeptuak eta prozesuak interpretatu, adierazi eta irudikatzea zenbakizko kodeak, kode grafikoak eta kode kartografiak eta beste batzuk erabiliz.
10. Ingurune elementu esanguratsuekin zerikusia duten galdera eta arazoak identifikatu, planteatu eta argitzea, horretarako informazioa bilatu eta tratatzeko estrategiak erabiliz, aieruak azalduz, horiek probatuz, konponbide alternatiboak aztertuz eta ikaskuntza prozesuari buruzko gogoeta eginez.
11. Proiektu, gailu eta aparatu errazak planifikatu eta egitea, alde zuretik ezarritako helburu batekin, material, gai eta objektu batzuen oinarrizko propietateen ezagutzaz baliatuta.
12. Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko nahiz ezagutzak partekatzeko tresna gisa.
13. Trafikoko arauak ezagutu eta portaera arduratsua izatea oinezko gisa eta etorkizuneko gidari gisa.

Lehen zikloa

Edukiak.

1. multzoa.–Ingurunea eta ingurune hori zaintzea
 - Ingurune fisiko elementuak eguzkiaren arabera orientatzea.
 - Naturako elementu eta fenomeno batzuk hauteman eta deskribatzea: ilargia, izarrak eta eguzkia, eguna eta gaua.

- Fenomeno atmosferiko batzuk behatzea eta irudikatzeke lehen moduak.
 - Ingurune fisikoaren oinarriko elementuak: airea eta ura. Ura arduraz erabiltzea eguneroko bizitzan.
 - Ureko edo lurreko ekosistema zehatzen bat behatu, aztertu eta horri buruzko lan errazak egiten hastea.
 - Ingurunekeko elementu natural eta gizatiar batzuk behatu eta hautematea.
2. multzoa.–Izaki bizidunen aniztasuna
- Era askotako bizitza moduak behatzea. Izaki bizidunen eta objektu bizigabeen arteko desberdintasunak identifikatzea.
 - Animaliak eta landareak zuzenean eta zeharka behatzea. Elementu behagarrien araberrako saikapena, identifikazioa eta izena ematea.
 - Landareen eta animalien ezaugarri fisikoak eta jokabideak beren inguruneekin lotzea (kamuflajea, kolorea eta ilearen loditasuna aldatzea, etab.)
 - Gizakien, landareen eta animalien arteko erlazioak.
 - Izaki bizidunak zaindu eta errespetatzeko ohiturak garatzea.
 - Egindako esperientziak ahoz azaltzea, irudien eta testu idatzi laburren laguntzarekin.
3. multzoa.–Osasuna eta garapen pertsonala.
- Giza gorputzaren zatiak identifikatzea. Norberaren gorputza eta besteena dauzkan muga eta ahalbideekin onartzea.
 - Arnasa hartzea bizitzeko funtzio gisa. Arnasa ongi hartzeko ariketak.
 - Beharrezkoak diren eguneroko janariak identifikatu eta deskribatzea.
 - Norberaren higieena, atsedena, aisiaren erabilera egokia eta norberaren gorputzarekiko ardura baloratzea.
 - Norberaren emozio eta sentimenduak identifikatzea.
 - Eritasunei eta etxeko istripuei aurrea hartzeko ohiturak.
4. multzoa.–Pertsonak, kulturak eta gizartearen antolaketa
- Familia. Familiako kideen arteko harremanak. Etxeko zereginak modu orekatuan banatzea eta ardurak hartzea.
 - Hezkuntza komunitateko kideen zeregin eta ardura nagusiak. Denen parte-hartzearen garrantzia baloratzea.
 - Pertsonak taldean dituzten eskubideak eta betebeharez ohartzea. Taldean komunikazio trukea egiteko eta hartutako erabakiak onartzeko kontuan izan behar diren oinarriko arauak erabiltzea.
 - Bizikidetzako egoerak eta gatazkak simulatzea.
 - Inguruan dauden kulturen agerpenetara hurbiltzea, aniztasunaren eta aberastasunaren erakusle baitira.
 - Lanbide desberdinak aintzat hartzea, sexu estereotipoak saihestuz.
 - Ingurune hurbileko antolaketa moduak: eskola eta herria. Herriko erakundeen ardura eta zereginak zein diren ikasten hastea.
 - Joan-etorriak eta garraio-bideak. Oinarriko arauak betetzeko ardura, hala oinezko gisa nola erabiltzaile gisa. Mugikortasunak eguneroko bizitzan duen garrantzia.
 - Gizarte ingurune hurbilean eta irudien irakurketaren bidez datuak eta informazioa bilatzen hastea.
5. multzoa.–Aldaketak denboran zehar
- Denboraren oinarriko nozioak (lehen-gero, iragana-oraina-geroa, iraupena), neurketa unitateak (eguna, astea, hilabetea, urtea) erabiltzea.
 - Iragan hurbilaren memoria berreraikitzen hastea, familiako iturrietatik abiatuta.
 - Iraganeko eta oraingo gertaera batzuk eta beren esperientziatik hurbil dauden alderdi historiko batzuekin erlazionatzea.
 - Ahozko iturriak eta familiako objektu eta oroitzapenek emandako informazioa erabiltzea iragana berreraikitzeko.
6. multzoa.–Materia eta energia
- Materialen aniztasuna. Oinarriko irizpideen araberrako saikapena: eransketa, testura, kolorea, forma, plastikotasuna, etab.
 - Indar bat aplikatzearen ondorioak behatzea. Indarrak norabide berean. Ukipeen indarrak eta urrutikoak.
 - Soinua hautematea. Soinua baliabide desberdinen bidez transmititza. Zarata eta zarataren ondoriozko kutsadura.
 - Jarrera kontzienteak, banakakoak eta taldekoak garatzea ingurumenekeko zenbait arazoren aurrean.
 - Objektuak eta substantziak murriztu, berreraibili eta birziklatzea.
7. multzoa.–Objektuak, makinak eta teknologiak
- Inguruan dauden era askotako makinak identifikatzea.
 - Objektu sinpleak muntatu eta desmuntatzea.
 - Objektuen eta makinaren funtzionamendua behatu eta aztertzea. Arriskua sor dezaketen elementuak identifikatzea.
 - Materialak, substantziak eta tresnak arduraz erabiltzea.

- Segurtasun pertsonalari eta energia aurrezteari lotutako jokabideak hartzea.
 - Ordenagailu baten oinarriko osagaiak identifikatzea. Ordenagailua erabiltzen hastea. Baliabide informatikoak zaintzea.
 - Garraioa eta bide hezkuntza:
 - Auzoan joan-etorriak egitea. Trafiko arauak, oinezko batentzat eta beste norbait ondoan duen bidaiari batentzat.
 - Istripuei aurrea hartzea: nor bere gorputza menderatu eta kontrolatzea. Entzumenak eta ikusmenak trafiko egoeretan duten garrantzia.
8. multzoa.–Nafarroako Foru Komunitatea:
- 8.1. Batasuna aniztasunean:
- Paisaiaren aldetik garrantzitsuenak diren eremuak: Mendialdea, Erdialdea eta Erribera.
 - Nafarroako natur parkeak: Bertizko jaurerria, Urbasa-Andia mendilerroa eta Errege Bardea.
 - Eskolako liburutegian informazioa bilatzea Nafarroako eremu geografikoetan gehien nabarmentzen diren animalia eta landareetako baten bati buruz.
- 8.2. Nortasunaren ezaugarriak:
- Nafarroako herrietako festak:
- Sanferminak: pertsonaia, tradizio eta ekitaldi nagusiak.
 - Bakoitzaren herriko festak.

Ebaluazio irizpideak

1. Ingurune fisikoko funtsezko elementu eta baliabideen adibideak jartzea (eguzkia, ura, airea), eta horiek pertsonen bizitzarekin duten lotura ikustea, arduraz erabili behar direla jabetzeaz batera.

Ebaluazio irizpide honen bidez ikusi nahi da ikasleek zer gaitasun duten ingurune fisikoko zenbait elementu eta izaki bizidunentzat ezinbestekoak diren baliabideak (airea, ura, lurra) behatu, deskribatu eta azaltzeko. Pertsona guztiek eta tokiko erakundeek ingurunea babesteko neurriak hartzearen garrantzia baloratzeke duten gaitasuna ere aintzat hartuko da, Nafarroako ingurumen politikan arreta berezia jarri.
2. Oinarriko irizpideez baliaturik, beren inguruko animalia eta landare nabarmenenak ezagutu eta saikatzeta, bai eta zenbait bidetarik lotutako informazioari esker ezagutzen diren beste espezie batzuk ere.

Irizpide honen bitartez ebaluatu nahi da ikasleek zer gaitasun duten saikaperenerako oinarriko irizpideak ezartzeko (tamaina, kolorea, mugitzeko modua) eta animaliak eta landareak ezarrita dauden multzoen arabera identifikatzeko, Nafarroako kontuan hartuta bereziki. Iturrien erabilera, batez ere baliabide teknologikoen bidez lortzen direnena, irakasleak ongi bideratu beharko du, baina ikasleak gai izan beharko du informazioa saikaperenari begira integrazteko, erabiltako iturria bat ala beste izan.
3. Higieneari, elikadura orekatuari, ariketa fisikoari eta atsedenera lotutako adibideak jartzea, osasuna eta ongizatea izateko eta gorputzak funtzionamendua ona izateko beharrezkoak diren aldetik.

Irizpide honen bidez ikusi nahi da ongizatearen eta zenbait ohitura izatearen arteko lotura ezagutu eta baloratzen duten. Ohitura hauek: era askotako janariak jatea (frutak eta barazkiak edo zerealak bezalako janariak identifikatuz), norberaren higieena, ariketa fisiko erregulatu eta gehiegikeriarik gabeta edo eguneroko zortzi edo bederatzir orduko egitea.
4. Inguruko pertsonen lanbide eta ardura nagusiak ezagutu, identifikatu eta horiei buruzko adibide errazak jartzea.

Irizpide honen bidez, inguruko pertsonen lanak zenbateraino ezagutzen dituzten ebaluatu nahi da; era berean, lanbide desberdinen, horiek gizarteari egiten dioten ekarpenaren eta lanbideek eskatzen duten arduraren garrantzia positiboki baloratzen duten ere aztertuko da.
5. Eskolaren, herriaren eta autonomia erkidegoaren esparruko kultur adierazpen batzuk ezagutzea, beren aniztasun eta aberastasuna baloratuz.

Irizpide honek ebaluatu nahi du nor bere herriko eta autonomia erkidegoko kultur agerpen garrantzitsuenak ezagutzen dituen (herriko festak eta Nafarroaren ikurrak), bai eta eskolan ikusten dituen beste hizkuntza eta kultur errealitate batzuen aniztasunaren balio kulturala hautematen duen eta interesa eta errespetua agertzen duen ere.
6. Inguruko garraio-bide ohikoak identifikatzea eta oinezkoiei eta garraio-bideen erabiltzaileei dagozkien oinarriko arauak zein diren jakitea.

Irizpide honi esker ebaluatuko da inguru hurbilean erabiltzen diren garraio-bideak zenbateraino ezagutzen dituzten eta horien erabilgarritasunari buruz zer balorazio egiten duten. Oinezkoiei eta erabiltzaileei dagozkien oinarriko arauak zein diren badakiten eta errespetatzen dituzten ere ebaluatuko da (semaforoak, bidea gurutzatu aurretik begiratzeta edo segurtasun uhala jartzea).
7. Familiako bizitzan edo inguru hurbilean garrantzizkoak diren gertaera batzuk denboraren arabera ordenatzea.

Familako bizitzari dagozkion zenbait alderdi deskribatzeko gaitasuna neurtu nahi da irizpide honen bitartez; deskribapen hori behaketako metodo errazak eta denbora neurtzeko oinarriko nozio eta unitateak erabiliz eginen da.

8. Materialen oinarriko propietateek izaten dituzten desberdintasunak identifikatzea, propietate batzuk beren erabilerekin erlazionatuz, eta indarrek objektuen gainean izaten dituzten ageriko ondorioak eza-gutzea.

Irizpide honek ebaluatzen du propietate fisiko behagarriak (usaina, zaporea, testura, pisua/masa, kolorea, gogortasuna, egoera edo uretan disolbatzeko gaitasuna) identifikatzeko gai diren, bai eta material batzuen ezaugarrien eta beren erabileren arteko lotura adibide zehatz eta ezagunen bidez azaltzeko ere.

Indarren ideia mugimendurekin lotuta intuizioz antzematen duten ere baloratuko da. Norabide bereko indarrak aplikatzen direnean eta ukipen indarrak edo urrutikoak izaten direnean zer gertatzen den adibide batzuen bidez azaldu beharko dute.

9. Objektu eta aparatu errazak muntatu eta desmuntatzea eta beren funtzionamendua eta arretaz erabiltzeko modua deskribatzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi dira makinak eta objektu errazak (balantza, bizikleta, aizturrak...) muntatu eta desmuntatzeko eskuzko trebetasunak garatu dituzten, eta ea badakiten nola funtzionatzen duten, zati bakoitza zertarako den eta erabileran zein muntatzean eta desmuntatzean arriskurik ez izateko zer segurtasun neurri hartu behar den.

10. Galdera egokiak egitea behaketa baten bidez informazioa lortzeko, tresna batzuk erabiltzeko eta erregistro argiak egiteko.

Irizpide honekin ebaluatuko da behaketa baten aurrean jartzeko gaitasuna, ikasleak aldez aurretik eta behaketaren unean galderak planteatzen dituela informazio garrantzitsua lortu ahal izateko. Tresna batzuen erabilera ere, luparena esate baterako, baloratuko da eta, horrekin batera, ereduak erabiliz oinarriko testu idatziak egitea.

11. Ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea esperientziak kontatzeko, pentsamenduak azaltzeko eta gizarte eta naturako egoeraren alderdi desberdinei buruz ikertzeko. Arloari dagozkion testuak irakurtzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da arloko testuen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna, eta ikasi den berariazko hiztegiaren erabilera nolako den. Kontuan hartuko da eskolako liburutegiko liburuen erabiltzean erakusten duten abilezia.

Bigarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.—Ingurunea eta ingurune hori zaintzea
 - Orientazioa espazioan: puntu kardinalak.
 - Auzoko edo herriko planoak erabiltzea.
 - Lurraren mugimenduak eta ilargiaren faseak. Urtaoak.
 - Aldagai meteorologikoak: tenperatura, hezetasuna, haizea, prezipitazioak. Aparatu meteorologikoak erabiltzea eta eguraldiari buruzko erregistroak eta irudikapen grafikoak nolakoak diren ikasten hastea.
 - Harkaitzen identifikazioa eta oinarriko sailkapena.
 - Atmosfera. Jardunbideak, atmosfera kutsa ez dadin.
 - Uraren zikloa.
 - Erliebezko formak eta gorabehera geografikoak. Inguru hurbilean eta Espainiar garrantzitsuenak direnak kokatzea.
 - Ekosistemeko elementuen, hondatze faktoreen eta birsorkuntzaren arteko loturak.
 - Paisaia mota ezberdinak behatu eta deskribatzea: naturaren eta gizakien arteko elkarreaginak.
 - Ingurumena errespetatu, babestu eta hobetzea.
2. multzoa.—Izaki bizidunen aniztasuna
 - Animalia ornodunak eta omogabeak. Hegaztiak, ugaztunak, narrastrak, arrainak, urlehortarrak. Oinarriko ezaugarriak, ezagutzea eta sailkapena.
 - Landareak: belarrak, zuhaixkak eta zuhaitzak. Ezaugarriak, ezagutzea eta sailkapena.
 - Animalien eta landareen elikatzea, harremanak eta ugalketa. Animaliak eta landareak bizitzeko funtzioen arabera sailkatzea.
 - Izaki bizidunak zuzenean behatzea, tresna egokiekin eta ikus-entzunezko baliabideekin eta baliabide teknologikoekin.
 - Nekazaritza. Labore batzuen azterketa.
 - Abeltzaintza. Espezie batzuen hazkuntza aztertzea.
 - Izaki bizidun guztien behaketa eta azterketarako interesa.
 - Modu aktiboan jokatzea landareen eta animalien kontserbazioan eta zainketan.

3. multzoa.—Osasuna eta garapen pertsonala
 - Bakoitzak bere gorputzaren kanpoaldeko morfologia nolako den jakitea. Bizitzako etapetan izaten diren aldaketak.
 - Zentzumenak, beren zeregina deskribatzea eta ohikotasunez zaintzearen garrantzia. Beste gizaki batzuekin eta munduarekin harremanak izatea.
 - Higienea izateko, atsedena hartzeko eta elikadura osasuntsua izateko azturak identifikatu eta hartzea. Dieta orekatuak. Osasunerako arriskuak detektatu eta prebentziozko neurriak hartzea.
 - Garapen osasuntsuari kalte egiten dioten eta osasunez bizitzeko jokabide arduratsua oztopatzen duten ohitura sozialen aurrean jarrera kritikoa izatea.
 - Emozioak eta sentimenduak identifikatu eta deskribatzea.
 - Aisia jarduerak, banakakoak edo talde batenak, modu autonomo eta sormenezkoan planifikatzea.
4. multzoa.—Pertsonak, kulturak eta gizartearen antolaketa
 - Familia egiturak. Familian ardurak hartzea.
 - Hezkuntza komunitatearen antolaketa eta ikastetxeko jardueretan parte hartzea.
 - Komunitate bateko kideen arteko harreman mota ezberdinak (adiskidetasuna, auzokidetasuna, etab.)
 - Bizikidetzara arauak eta arau horiek betetzea. Lankidetzara eta elkarriketara baloratzea, gatazkak saihestu eta konpontzeko bide diren aldetik.
 - Landa eta hiri inguruneetako ezaugarri demografiko eta ekonomiko batzuk behatu, identifikatu eta deskribatzea.
 - Ingurunean elkarren ondoan izaten diren herri agerpen kulturalak identifikatzea, denboran zehar izan duten bilakaera ezagutzea eta gizarte kohesiorako elementu gisa baloratzea. Gizakien beharrei erantzuteko ondasunak eta zerbitzuak. Oinarriko produktu edo zerbitzuren baten jatorriaren, eraldaketaren eta merkaturatzearen deskribapena.
 - Oinezko gisa eta garraio bideen eta beste zerbitzu batzuen erabiltzaile gisa dagozkien arauak betetzean arduraz jokatzea.
 - Administrazioak, zerbitzu publikoen bermatzaile. Herritarrek erakunde funtzionamendurako egiten duten ekarpenaren garrantzia baloratzea.
 - Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez informazioa lortzea, eta edukia baloratzea.
 - Publizitateko mezu batzuk aztertzea eta kontsumo arduratsurako jarrerak garatzea.
 - Espainiar Estatuaren lurralde antolamendua. Autonomia erkidegoak.
5. multzoa.—Aldaketak denboran zehar
 - Denbora neurtzeko unitateak erabiltzea (hamarkada, mendea) eta segidaren, ordenamenduaren eta aldebereketasunaren nozioak erabiltzen hastea.
 - Familiaren iragana eta iragan hurbila erregistratu eta irudikatzen teknikak erabiltzea.
 - Garai historiko batzuetako gizarteetara hurbiltzea, eguneroko bizitzako zenbait arlo ezagutzetik abiatuta.
 - Eguneroko bizitzako arloren batek denbora tarte luze batean izan duen bilakaera; gertaera historiko garrantzitsu batzuekin duen lotura.
 - Lehenago garaiek ingurunean utzi dituzten aztarna batzuen esanahia ezagutu eta baloratzea (tradizioak, eraikinak, objektuak).
 - Idatzizko eta ikusizko dokumentuak erabiltzea informazio historikoa lortzeko eta lan batzuk egiteko.
 - Gizonek eta emakumeek historian izan duten zeregina identifikatzea.
6. multzoa.—Materia eta energia
 - Objektu eta material ezberdinak konparatu, sailkatu eta ordenatzea propietate fisiko behagarrietatik (pisua/masa, egoera, bolumena, kolorea, testura, usaina, erakarpen magnetikoa) eta erabilerarako aukeretatik abiatuta.
 - Objektuak mugiarazten edo deformarazten dituzten indar eza-gunak identifikatzea. Erakarpen edo aldarapen indarrak. Grabitateak.
 - Energia eta aldaketak. Energiaren iturriak eta erabilerak. Energiak eguneroko bizitzako aldaketetan nola esku hartzen duen behatzea.
 - Energia iturriak planetan arduraz erabiltzearen balorazioa.
 - Hondakinak sortzea, kutsadura eta ingurumenaren gaineko eragina.
 - Norberak energia aurrezteko duen erantzukizuna.
 - Nahasketak identifikatzea.
 - Gorputzek argiaren arabera duten jokabidea. Argiaren islapena eta argi zuriaren deskonposizioa.
 - Esperientzia errazak planifikatu eta egitea edozeinek erabiltzen ahal dituen materialen propietateak eta energia aldaketetan izaten duten jokabidea aztertzeko, eta emaitzen gainean azalpenezko iragarpenak egitea.

▪ Laneko tresnen eta materialen erabilera, segurtasun eta kontserbaziorako arauak errespetatzea.

▪ Garraioa eta bide hezkuntza: bideetako zirkulazioaren arauak hiria: bideak eta seinaleak; oinezkoaren jokabidea.

7. multzoa.–Objektuak, makinak eta teknologiak

▪ Lanbideak erabiltzen diren material, tresna eta makinaren arabera identifikatu eta deskribatzea.

▪ Makinek behar dituzten energia iturriak identifikatzea.

▪ Erraz egitekoa den objektu edo makinaren bat planifikatu eta egitea.

▪ Operadore mekaniko batzuk ezagutzea (ardatza, gurpila, polea, plano makurtua, engranajea, balazta, etab.), bai eta beren egitekoa ere, makina batean edo beste batean egon.

▪ Ingurumena errespetatzen duten aplikazio teknologikoak erabiltzearen garrantzia ezagutzea.

▪ Asmakizun handi batzuen garrantzia eta bizi baldintzak hobetzeko eman duten laguntzaren balorazioa.

▪ Tresnak, aparatuak eta makinak erabiltzeko eskuzko trebetasunen garrantzia aintzat hartzea, estereotipo sexistak gaindituz.

▪ Jarraibideak emateko eta azalpeneko testuak prestatzea, proiektu baten garapenaren berri emateko, ahoz eta idatziz.

▪ Testu tratamenduaren oinarriko erabilera: izenburua, formatua, testu bat gorde eta berreskuratzea, aldaketak, ordezpenak eta inprimatzea.

▪ Lanak paperean edo euskarri digitalean txukun aurkezteko interresa.

▪ Emandako sekuentzia baten jarraipena egitea Interneten informazio zehatz bat aurkitzeko.

8. multzoa.–Nafarroako Foru Komunitatea:

–Batasuna aniztasunean:

–Nafarroako aniztasun geografikoaren elementu garrantzitsuenak: erliebea, klima, landaredia eta ibaiak.

–Nafarroako eremu geografikoetan ohikoenak diren animalia eta landareak:

1.–Ugaztunak: orkatzak, oreinak, muxar grisa eta marmota. Guxtiago ageri diren animaliak (hartz arrea, basakatu, azeria, basurdea, etab.)

2.–Hegaztiak (ugatza, basoilarra, saia, arrano beltza, miru gorria, koartza hauskara, basahatea, amiamokoa, galeperra, pagausoa, hegaxabala, etab.)

3.–Isurialde atlantikoko eta mediterraneoko arrainak.

4.–Landaredia: pinua, pegoa, haritza, artea, makala, etab.

–Aniztasun sozio-ekonomikoa:

1.–Nafarroako populazioaren ezaugarri demografiko batzuk behatu, identifikatu eta deskribatzea.

2.–Sektore ekonomikoak eta horien banaketa.

3.–Landa ingurunea eta hiri ingurunea: ezaugarriak eta banaketa.

4.–Etxebizitza motak

–Aniztasun kulturala:

1.–Euskara

2.–Eskolako liburutegian informazioa bilatzea (entziklopediak, monografiak, DVDak, web orriak, etab.) folkloreak eta herri tradizioen alderdi baten bati buruz, esate baterako:

a) Herri musika: Nafarroako jota eta euskal kantu herrikoiak.

b) Herri dantzak: Erriberako jotatik hasita Iturengo Zantantzarraino.

c) Tradizioa inaute garaian eta Aste Santuan: Lantzeko inautetik Tuterako bajada del angel-eraino.

3.–Ondoko gaietako baten bati buruzko informazioa bilatzea (bibliografia, ahozko transmisioa, etab.):

a) Eskualdeko jantziak.

b) Gastronomia: Nafarroako produktu eta jaki tipikoak.

Ebaluazio irizpideak

1. Ingurune fisikoko faktore batzuen (erliebea, lurzorua, klima, landaredia...) eta pertsonen bizimodu eta ekintzen arteko loturak ezaugu eta azaltzea datuak bilduz eta neurketa aparatuak erabiliz, eta orkeka ekologikoa errespetatzeko jarrerak baloratzea.

Irizpide honekin jakin nahi da gai ote diren etxebizitza motak, laboreek, paisaiak, janzerak eta halakoek klimarekin, erliebearekin, animalia eta landare espezie batzuk izatearekin eta abarrekin dituzten loturez ohartzeko, horrela habitataren kontzeptura hurbildu ahal izateko. Era berean, orkeka ekologikoari eustearen, ingurunearekin errespetuzko jarrerak hartu behar diren eta baliabide horiek (bereziki ura) kontserbatu behar diren garrantziaz ohartzen diren ere baloratuko da. Ikasleek trebetasun horiek erakutsiko dituzte, halaber, Nafarroako ingurune fisikoa bertako jendearen bizimoduarekin lotuz.

2. Animaliak, landareak eta harkaitzak irizpide zientifikoen arabera identifikatu eta sailkatzea.

Ebaluazio irizpide honen bidez jakin nahi da irizpide zientifikorik ezagutzen duten izaki bizidun edo bizigabeak sailkatzeko: hala nola izaki bizidunen elikatze edo ugaltzeko modua edo beren morfologia, edo harkaitz eta mineralen gogortasuna, esfoliazioa edo distira. Ebaluazio honek erakutsi behar du gai direla espezie bat zein den jakiteko beharrezkoa den ezagutza aplikatzeko, gako edo jarraibide errazen laguntzarekin bada ere. Trebetasun hori Nafarroako naturaren esparruan aplikatu beharko dute.

3. Elikatzeko ohitura batzuek, higieenak, ariketa fisikoak eta atsendenak norberaren osasunean eta garapenean dituzten ondorioak identifikatu eta azaltzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da gai ote diren osasunari eta nortasunaren garapen orekatuari on egiten dioten jarduerak eta kalte egiten diotenak bereizteko, hala nola litxarriak jatea, bizkar-zorroko pisu gehiegi izatea, joan-etorriak oinez egitea, telebistaren, bideo-kontrolen edo ordenagailuko jokoen erabilera mugatua, etab. Gainera, beren adinerako eta gorpuzkerarako egokia den bizimodu zehazten ari diren ere baloratuko da, horretan sartuz gatazkak konpontzeko gaitasuna, autonomia, beren burua ezagutzea edo aisian osasunerako onak diren jokabideak hartzerakoan erabiltzeko gaitasuna izatea.

4. Eguneroko bizitzako adibideetatik abiatuta, pertsonen natur baliabideez egiten dituzten erabilera nagusietako batzuk identifikatzea, abantailak eta eragozpenak azalduz, eta ondasun edo zerbitzuren batek jatorritik kontsumitzailearengana iritsi arte izandako prozesua aztertzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek ezagutzen ote dituzten ingurune fisikoko funtsezko elementuak eta horiek pertsonen bizitzarekin duten lotura, bai eta ingurune fisikoko elementuen eta ingurunea nahiz baliabideak modu desegokiak erabiltzearen ondorioen arteko oreka ere. Era berean, elikagaiak ekoizteko prozesu batzuk eta elikagaiak kontserbatzeko teknikak eta prozedurak eta merkaturatzeko modua zenbateraino ezagutzen dituzten ere ebaluatuko da. Ongizatearen gizarate garatzeari begira teknologiak erabiltzeak munduko ekonomia-erantzak duen garrantzia azaltzeko adibideak jartzen badakiten ere baloratuko da.

5. Administrazioen eta erakundeen eginkizun batzuk azaltzea, bai eta horiek gizaratearen funtzionamenduari zer ekarpen egiten dioten ere, erantzukizun kolektiboetan pertsona bakoitzak parte hartzearen garrantzia baloratuz.

Irizpide honen bitartez ebaluatu nahi da ba ote dakiten nolako den hurbileko erakunde batzuetako organoen funtzionamendu orokorra, administrazioek zerbitzu publiko garrantzitsuenen bermatzaile gisa duten zeregina, herritarren bizitza hobetzeko. Halaber, parte hartzearen eta ardurak hartzearen aldeko jokabideak ere baloratuko dira, gelako bizikidetzeta eta ikastetxeen parte-hartzea hobetzen laguntzen baitute.

6. Espazioaren nozioak eta puntu kardinalak erabiltzea ingurunean kokatzeko, objektuak eremu mugatuetan non dauden deskribatzeko, eta eskala grafikoa duten planoak eta mapak erabiltzea hara-hona mugitzeko.

Ebaluazio irizpide honekin egiaztatu nahi da espazioaren nozioak bereganatu dituzten, puntu kardinalak kokatzen badakiten eta espazioan puntu horien arabera eta eskala grafikoa duten planoak eta mapak erabiliz kokatzen eta mugitzen badakiten.

7. Adibidez zehatzekin azaltzea eguneroko bizitzako arloren batek gertaera historiko garrantzitsuekin lotuta izan duen bilakaera, iraupearen, segidaren eta aldebereotasunaren nozioak identifikatuz.

Denbora historikoaren oinarriko nozioak zenbateraino bereganatu dituzten egiaztatu nahi da irizpide honen bidez: oraina-iragana-geroa, aurrekoa-ondorengoa, iraupena eta aldebereotasuna (baino lehen, ondoren, aldi berean, bitartean...). Ikasleek, segidaren, iraupearen eta aldebereotasunaren irizpideei jarraikiz, zuzen kokatu beharko dituzte gertaera historiko garrantzitsuek, hain zuzen ere biziraupenaren eta gizarate antolamenduaren moduekin lotura dutenak, baita eguneroko bizitzako zenbait arloren bilakaerarekin lotura dutenak ere, hala nola lan egiteko modu desberdinak, etxebizitza motak, komunikabide eta garraiobideak, bai eta iraganeko gizarateak ere.

8. Nafarroako kultur aniztasuna identifikatzea hizkuntzen, folkloreak, tradizioen eta abarren bitartez, eta aniztasun horren aberastasuna eta kontserbazioa baloratzea.

Irizpide honekin norberarena bezala identifikatu nahi da Nafarroako eremu guztien eta agerpen guztien aberastasun kulturala, Nafarroaren identitate osatzen duten era askotako zatiak diren aldetik.

9. Energia iturri komunak eta energia lortzeko prozedura eta makinak identifikatzea, energiaren erabilera praktikoan adibideak jartzea eta planetako energia iturrien erabilera arduratsuen garrantzia baloratzea.

Irizpide honen bitartez ebaluatuko da energia iturri ohikoenak (haizea, eguzkia, erregea, etab.) identifikatzeko gai diren eta energia eguneroko bizitzako ohiko tresnekin erlazionatzen duten (irabiagailua,

ile-lehorgailua, berogailua, aire girotua, etab.), beroak prozesu fisiko behagarrietan energia-transferentzia gisa jokatzeko duela badakiten, energiaren eraldaketa sinpleak deskribatzen dituzten (motor bateko konbustioa automobil bat mugitzeko, energia elektrikoa lanpara batek argia emateko, etab.). Halaber, energia iturriak arduraz erabiltzeko baina eta taldean izan behar diren jokabideen adibideak jarri beharko dituzte.

10. Objektuen eta makinaren zati nagusiak eta horietako bakoitzaren zereginak aztertzea, eta objektuen bat eraikitze prozesu erraz bat planifikatu eta gauzatea, talde lanean parte hartzeko eta segurtasuna kontuan hartzeko jarrerak erakutsiz.

Irizpide honekin ebaluatuko da makina baten zatiak (poleak, palankak, gurpilak eta ardatzak, engranajeak...) ezagutzen dituzten eta zati horiek nolakoak diren eta zer eginkizun duten azaltzen badakiten. Ezagutza horiek objektu edo aparatuen bat (adibidez, ibiltzen den auto bat) eraikitze lanean erabiltzen badakiten ere baloratuko da, kontuan hartuz zuzen aplikatu behar dituztela oinarritzko eragiketa matematikoak aurretiazko kalkuluan, bai eta teknologikoak ere: lotu, moztu, dekoratu, etab., ondorioak zergatiak lotzen jakinda betiere. Funtsezkoa da talde lana eta eskuzko trebetasuna baloratzea, eta aintzat hartuko da norberaren segurtasuna eta ikaskideena zaintzen den, tresnak ere zaintzen diren eta materialak egoki erabiltzen diren.

11. Aurrez mugatutako gertaera edo fenomeno berruzko informazio garrantzitsua lortzea, gertakari natural eta sozialei buruzko iragarpenak egitea, behaketa zuzeneko eta zeharkako datuak integratuz oinarritzko iturriak aztertze abiatuta, eta emaitzen berri ematea.

Irizpide honen helburua da ikasleek aieruak ezartzeko zer gaitasun duten ebaluatzea; hots, bai modu naturalean izaten diren gertakari buruzko aieruak bai saiakuntza edo esperientzia baten bidez eraginda izaten direnei buruzkoak. Arrazoituen koherentzia baloratuko da asmatzea baino gehiago. Ideia bat faltsua noiz den ohartzeko gai diren ere baloratu behar da. Arreta berezia jarriko zaio emaitzak ahoz eta idatziz jakinarazteari, irudiak, taulak, grafikoak, eskemak, laburpenak eta abar erabiliz betiere. Kontuan hartuko da eskolako liburutegiko liburuak erabiltzeko zer trebetasun duten.

12. Errealitate sozial edo naturaleko alderdi batzuk azaltzeko ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea. Arloari dagozkion testuak irakurtzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da arloko testuen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna, eta ikasi den berariazko hiztegiaren erabilera nolako den. Eskolako liburutegiko liburuaren erabilera egokia ere baloratuko da.

Hirugarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.—Ingurunea eta ingurune hori zaintzea
 - Eremu ezagunak hautematea eta eskalan irudikatzea.
 - Eremu berari buruzko irudikapen mota desberdinak erabili eta interpretatzea (planoak, airetik hartutako argazkiak, krokisak eta beste baliabide teknologiko batzuk).
 - Unibertsoa. Eguzki sistema.
 - Elementu klimatologikoak konbinatzea. Eguraldiaren eta klimaren arteko desberdintasuna. Eguraldia irudikapen desberdinetan irakurri eta interpretatzea.
 - Bakoitza bizi den tokiko klimaren eta klima nagusien ezaugarriak. Paisaian eta gizakien jardueran duen eragina.
 - Harkaitzak eta mineralak identifikatu eta sailkatzea.
 - Ura naturan, uraren kutsadura eta ura xahutzea. Uraren aprobetxamendurako ekintzak.
 - Munduko geografia fisiko eta politikoaren elementu garrantzitsuak irudikapen kartografiko desberdinetan identifikatu eta kokatzea.
 - Gizakiak ingurumeneko zati gisa, eta naturaren gainean jarduteko duten ahalmena.
 - Espainiako lurraldeetako paisaien aniztasuna eta aberastasuna baloratzea, eta beste toki batzuetako paisaiak ezagutzeko interesak.
 - 2. multzoa.—Izaki bizidunen aniztasuna
 - Landareen egitura eta fisiologia.
 - Animaliak eta landareak identifikatzeko gako eta gidak erabiltzea.
 - Izaki bizidunen bizitzari lotutako prozesuren bat behatu eta erregratzea. Emaitzak ahoz eta idatziz jakinaraztea.
 - Zelularen oinarritzko egitura. Lupa binokularra eta beste baliabide teknologiko batzuk erabiltzea antzemateko.
 - Beste bitzta modu batzuetara hurbiltzea: bakterioak, birusak, algak eta ondoak.
 - Izaki bizidunei eta beren bizi baldintzei buruzko informazioa bilatzea.
 - Animalien eta landareen behaketan eta horri dagozkion lanak prestatzen zehaztasunez eta zorrotztasunez jokatzeko sentsibilitatea.
 - Laneko tresnen eta materialen erabilera eta segurtasunerako arauak errespetatzea.

3. multzoa.—Osasuna eta garapen pertsonala
 - Giza gorputzaren funtzionamendua. Anatomia eta fisiologia. Aparatuak eta sistemak.
 - Elikatzea (arnas, digestio, zirkulazio eta iraitz aparatua).
 - Ugalketa (ugaltze aparatua).
 - Harremanak (zetzumen organoak, nerbio sistema).
 - Lehen laguntzak ematen jakitea, bakoitzak bere buruari eta beste lagundu ahal izateko.
 - Bizimodu osasungarriak garatzea. Organo eta aparatua zaindu eta mantentzeaz gogoeta egitea.
 - Garapen osasungarria eta jokabide arduratsua bideratzen edo oztokatzen duten faktore eta ohitura sozialen aurrean jarrera kritikoa izatea.
 - Nortasuna. Nor bere burua ezagutzea eta autoestimua. Autonomiaz jokatzeko ekintzak eta zereginak planifikatu eta gauzaten direnean. Erabakiak hartu behar direnean ekimena garatzea.
 - 4. multzoa.—Pertsonak, kulturak eta gizartearen antolaketa
 - Gizartearen funtzionamendua ulertzea, antolakunde hurbiletako egoera zehatzak aztertze abiatuta.
 - Espainiako eta Europar Batasuneko populazioa. Gaur egungo munduan migrazioek demografian, kulturen eta ekonomian duten garrantziaz ohartzea.
 - Espainiako kultura eta hizkuntzen aniztasuna ezagutu eta baloratzea.
 - Estereotipoak eta bereizkeria mota guztiak baztertzea eta besteekiko enpatia garatzea.
 - Gizakien beharrei erantzuteko ondasunak eta zerbitzuak sortzea. Zerbitzuen sektorearen garrantzia. Kontsumoan dauden desberdintasunak.
 - Komunikazioek eta garraioek jardura pertsonal, ekonomiko eta sozialetan duten zeregina.
 - Autonomia erkidegoetako eta estatuko gobernu erakundeetara hurbiltzea: gizarte, ingurumen eta ekonomia arazoak eta antzekoak konpontzeko dauzkaten arduretako batzuk.
 - Europar Batasuneko lurralde antolamendua eta antolamendu politikoa.
 - Iturri desberdinetako informazioa biltzea egorak eta arazoak aztertze.
 - Publizitateak kontsumoaren gainean duen eragina ezagutzea eta horren aurrean jarrera kritikoa izatea.
 - 5. multzoa.—Aldaketak denboran zehar
 - Datak eta aldiak zehazteko arauak (K.a., K.o., aroa).
 - Teknikak erabiltzea denboran eta espazioan iraganeko gertaerak kokatzeko, gertakizunen iraupena, aldiberekotasuna eta batzuen eta beste arteko lotura ikusteko.
 - Gizakien ekintzak, gertakizun historikoak eta aldaketa sozialak azaltzeko faktoreak.
 - Garai historiko desberdinetako gizarte batzuen ezaugarriak ematea, bizimoduen azterketa eginez: historiaurreko garaia, klasikoa, erdi arokoa, aurkikuntzen garaia, garapen industrialarena eta XX. mendekoa.
 - Espainiako historiako gertakizun eta pertsonaia nabarmenak.
 - Ondare historiko eta kultureko agerpen garrantzitsuak ezagutu, baloratu eta errespetatzea.
 - Iturri historikoak, geografikoak, artistikoak, etab. erabiltzea, eduki historikoa duten txostenak eta beste lan batzuk egiteko.
 - Gizonek eta emakumeek historiako subjektu gisa izan duten zereginak baloratzea.
 - 6. multzoa.—Materia eta energia
 - Material batzuk beren propietateen arabera aztertu eta sailkatzea (gogortasuna, disolbagarritasuna, agregazio egoera, eroankortasun termikoa).
 - Gorputz baten masa eta bolumena neurtzeko prozedura desberdinak erabiltzea.
 - Fenomeno fisiko behagarriak dentsitate desberdintasunen bidez azaltzea. Ingurune likido batean flotatzeko gaitasuna.
 - Indarren edo energia ekarpenen ondorioz gorputzen mugimenduan, forman edo egoeran izaten diren aldaketak iragartzea.
 - Energia iturri berriztagarriak eta ez-berriztagarriak. Energia garapena, iraunkorra eta bidezkoa. Norberak arduraz jokatzeko energia kontsumitu behar duenean.
 - Energiaren formak. Energiaren eraldaketa sinpleak.
 - Nahaste baten osagaiak ondoko bidez bereiztea: destilazioa, iragazketa, lurrunketa edo disoluzioa.
 - Erreakzio kimikoak. Konbustioa, oxidazioa eta hartidura.
 - Beroa, bere ondorioen hautematea eta behatze sistematikoa: tenperatura igotzea eta dilatazioa. Egoera aldaketak eta itzulgarritasuna.

▪ Zenbait esperientzia planifikatu eta gauzatzea ohiko erabilera duten materialen propietateak aztertzeko, bai eta argiaren, soinuaren, beroaren, hezetasunaren eta elektrizitatearen aurrean duten jokabidea ere aztertzeko. Prozesua eta emaitzak ahoz eta idatziz jakinaraztea.

▪ Laneko tresnen eta materialen erabilera, segurtasun eta kontserbaziorako arauak errespetatzea.

7. multzoa.—Objektuak, makinak eta teknologiak

▪ Materialen propietateen eta aplikazio zehatzetan duten erabilerearen arteko lotura.

▪ Objektuen eta makinaren aplikazioak ezagutzea eta, berdin, gizakien jarduerak errazteko duten baliagarritasuna.

▪ Arazo bat konpontzeko funtzio edo baldintza bat betetzen duten egitura errazak erakitzeko pieza modulatuak erabiliz.

▪ Zirkuitu elektriko sinpleak. Elektrizitatearen ondorioak. Eroaleak eta isolatzaileak.

▪ Txosten bat prestatzea, laneko plan baten erregistrorako eta emaitzen ahozko eta idatzizko jakinarazpenerako teknika gisa.

▪ Garapen teknologikoak bizi eta lan baldintzetan duen eragina baloratzea.

▪ Informazioaren teknologiek eskaintzen dituzten baliabide errazak erabiltzea komunikatzeko eta elkarlanean aritzeko.

▪ Sarean informazioa gidatuta bilatzea.

▪ Testu tratamendua geroz eta modu autonomoagoan erabiltzea (orrialde egokitzea, ilustrazioak edo oharrak sartzea, etab.)

▪ Entretanimendu denbora informazioaren eta komunikazioaren teknologiek kontrolatu beharraz jabetzea eta horrek sortzen duen mendekotasuna.

▪ Garraioa eta bide hezkuntza: trafiko arau eta seinaleak oinezkoarentzat eta gidariarentzat arriskutsuak diren inguruabar eta egoerak identifikatzea; bizikleta.

8. multzoa.—Nafarroako Foru Komunitatea:

8.1. Batasuna aniztasunean:

Nafarroako eremu geografikoak eta beren arteko desberdintasunak (klima, erliebea, ibaiak eta landaredia)

8.2. Nafarroaren nortasunaren ezaugarriak. Forua:

▪ Definizioa

▪ Nafarroako Foruaren jatorria eta berezitasuna

▪ Nafarroako erreinuaren sorrera

▪ Gaztelan sartzea. 1512

▪ 1841eko Lege Itundua

▪ Kontraforuak

▪ 1982ko Foruaren Hobekuntzari buruzko Legea

8.3. Nafarroako erakundeak: Parlamentua, Nafarroako Gobernuak, Lehendakaria, Nafarroako Auzitegi Nagusia eta Comptos Ganbera.

8.4. Nafarroaren bereizgarri diren udal entitateak

8.5. Arte ondarea: Nafarroa Done Jakue bidean:

▪ Jatorria eta tradizioa

▪ Nafarroako ibilbideak

▪ Nafarroak Donejakue bidean dituen monumentu nagusietakoren bati buruzko informazioa bilatzea eskolako liburutegian (monografiak, entziklopediak, DVDak, web orriak, etab).

8.6. Pertsonaia garrantzitsuak:

▪ Nafarroako erregeren bati buruzko informazioa bilatzea eskolako liburutegian (biografiak, entziklopediak, DVDak, web orriak, etab), adibidez: Eneko Aritza, Antso VII.a Azkarra, Karlos III.a Noblea, etab.

▪ Nafarroako pertsonaia ezagunenetakori bati buruzko informazioa bilatzea eskolako liburutegian (biografiak, entziklopediak, DVDak, web orriak, etab), adibidez: Yehuda Ha-Levi, Benjamín de Tudela, Pedro Axularkoa, Martín Azpilicueta, Frantzisko Xabier, José Yanguas y Miranda, Francisco Navarro Villoslada, Julián Gayarre, Pablo Sarasate, Santiago Ramón y Cajal, etab.

Ebaluazio irizpideak

1. Giza jokabideak ingurumenean izaten duen eragin positibo edo negatiboaren adibideak ematea; pertsonen, animalien, landareen eta beren inguruneen kutsaduraren ondorio batzuk deskribatzea, kutsadurari aurrea hartzeko edo murrizteko aukerak adieraziz, eta ura bezalako baliabideak zahutzearen adibideak ere ematea eta, horrekin batera, jarrera kontserbazionistak azaltzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da etaparen bukaeran lortu ote dituzten ingurumen zientziekin lotutako ezagutzak; gizakiek Lurreko baliabide naturalak erabiltzeko moduaz ezagutza praktikoa dutela erakutsi beharko dute, eta eguneroko bizitzan erabiltzen diren baliabide fisiko batzuk identifikatu ditzaketela eta baliabide horiek, ura bereziki, kontserbatu beharrez ohartzen direla. Ingurumeneko aldaketek, bai prozesu naturalen ondoriozkoek bai gizakien jarduerak eragindakoek, izaki bizidun eta bizigabeengan zer eragin duten eta oreka nola alda dezaketen ahoz eta idatziz azaltzeko gai izan beharko dute. Halaber,

maiz izaten diren kutsadura mota batzuen ondorioak zein diren eta nola aurre hartu edo murriztu ditzakegun badakiten baloratuko da. Aintzat hartuko da gizakien jarduerak ingurumenean eragin positibo edo negatiboa izan dezakeela ohartzen diren, horren adibideak emanez; uraren erabilerrari begiratuko zaio bereziki.

2. Espainiako eta Nafarroako paisaia nagusien ezaugarriak ematea eta horiek osatzen dituzten agente fisiko eta gizatiar batzuk azaltzea, eta gizakien jarduerak lurraldearen duten eraginari eta lurraldearen kontserbazioak duen garrantziaz buruzko adibideak jartzea.

Irizpide honek neurtu nahi du espainiar lurralde desberdinetako paisaia nagusiak nolakoak diren ba ote dakiten, paisaien arteko berdintasun eta desberdintasunak ezartzeko gai diren, funtsezko elementuak bereitzeko gai diren, Espainiako herrialdeetan gizakiak nola finkatu diren badakiten (finkatze mota garrantzizkoenak) eta gizakien esku-hartzeak paisaia naturalen aldaketan edo kontserbazioan daukan garrantzia ulertzen duten. Trebetasun hori Nafarroako paisaiak ezagutzeari aplikatuko zaio eta herrialde honek naturaren aldetik daukan aberastasuna zaindu beharrekoa dela ulertu beharko dute.

3. Giza gorputzaren bizitzeko funtzioetan parte hartzen duten organo nagusiak identifikatu eta kokatzea, horien eta osasun ohitura batzuen artean funtsezko lotura batzuk ezarri.

Irizpide honen bidez baloratu nahi da giza gorputzaren funtzionamenduari ikuspegi orokorra baduten, zelula, ehun, organo, aparatu eta sistemak dagokienez: horien kokaketa, forma, egitura, funtzioak, zaintza, etab. Era berean, bizitzeko ohitura batzuk gorputzaren funtzionamenduari egokiarekin lotzen dituzten baloratuko da. Hala, bizimodu osasungarriak hartzen dituzten ebaluatzeaz gainera, beren bizimoduak, bai eskolan bai eskolatik kanpo, osasunarentzat dituen ondorioez jabetzen diren ikusi nahi da.

4. Komunikazioek eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpenarekin lotutako jarduerak ekonomiko berriak sartzeko gizakien bizitzan eta ingurunean sorrarazi dituzten aldaketa batzuk aztertzea, ondasun eta zerbitzuetara iristeko diferentziak eragiten dituzten desberdintasunak gainditu beharra baloratuz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai ote diren komunikazioek eta garraioek jarduerak pertsonal, ekonomiko eta sozialetan eragin dituzten eragin guztietako aldaketak aztertzeko. Ezagutu beharko dira jarduerak ekonomiko berriek ingurunean eta pertsonen bizitzan sortu dituzten aldaketak, landa inguruneko bizimoduaren eta hiri ingurunekoaren artean eta herrialde batzuetakoaren eta beste batzuetakoaren artean oraindik ere badiren desberdintasunak, eta ondasun eta zerbitzuetara iristerakoan sortzen diren desberdintasunak gainditu beharra.

5. Udalerriko, autonomia erkidegoetako, Espainiar Estatuak eta Europar Batasuneko gobernu organo eta eginkizun nagusiak ezagutzea, herritarrentzako zerbitzu publikoen kudeaketaren interesa eta parte-hartze demokratikoaren garrantzia baloratuz. Nafarroaren nortasunaren ezaugarriak, Foruaren jatorria eta berezitasunak eta Nafarroako gaur egungo erakundeak ezagutzea, daukaten balio historikoa ulertuz eta horiei irauaraztea baloratuz.

Irizpide honen bidez ebaluatuko da administrazio publikoetako gobernu organoetari buruz ezagutzen dutena, bai eta zerbitzu publikoen kudeaketaren kalitateak pertsonen bizitzarako duen garrantzia ulertzen duten ere, adibidez zehatzak jarrita betiere. Nafarroaren berezitasun politikoak ezagutzen dituzten eta nortasun historikoa zaintzearen garrantziaz ohartzen diren ere baloratuko da.

6. Eskala handiko plano eta mapak egin, interpretatu eta erabiltzea, zeinu konbentzionalak eta eskala grafikoa kontuan hartuta.

Espazioaren irudikapen grafikoa egin eta interpretatzeko gaitasuna ebaluatuko da irizpide honen bitartez. Espazioaren irudikapenak (airetik hartutako argazkia, planoak, mapa...) emandako informazioa xehetasunak interpretatzeko lortzeko gaitasuna ebaluatu beharko da; horrekin batera, espazioaren irudikapenen helburuari eta irudi horien erabilera aukerari buruzko azalpen orokor bat emateko gaitasuna. Planoein eta mapekin egiten den laneko ohar eta interpretazioak besteei ahoz eta idatziz azaltzeko gaitasuna ere kontuan hartuko da.

7. Espainiako gizarteak lehenagoko garai batzuetan—historiaurrean, klasikoan, erdi aroan, aurkituntzen garaian, garapen industrialekoan eta XX. mendean— zituen ezaugarri nabarmen batzuk identifikatzea, eta gertaera garrantzizkoak denbora ildoen arabera kokatzea.

Ebaluazio irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleek zenbait azterna, erabilera, ohitura, jarduerak eta tresna ezagutzen dituzten, garai historiko zehatz batzuetako bizimoduaren adierazle diren aldetik. Kontuan hartuko dira gertaera batzuen eta gertaera horiek denbora une batean gertatzearen arteko loturak; hau da, aldibereotasunaren eta segidaren denbora-kontzeptuak nola erabiltzen diren, gertaerak garai historiko zehatz batean aurrean edo ondoren kokatuz. Aipatu diren garai historikoen gainean egin beharko da ebaluazioa, kontuan hartuta gizateriaren garai historikoen mugapena konbentzio historiografiko baten ondorio dela eta, batzuk goiz samar kontzeptualizatzen has badaiteke ere, beste

batzuk mugatzen dituzten irizpideak, denboran hurbilenak direnak nahitaez, eskuratzen zailak direla Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.

Elkartzete hutsa ez denez xedea, ez litzateke egokia izaneren ebaluazioa ezaugarri batzuk garai historiko zehatz batekin lotzeko gaitasunean oinarritzea, baizik eta bilakaeraren alderdi batzuei gainean azalpen bat (ez oso landua) emateko gaitasunean, eta, nolana ere, lotura hori egin ahal izateko arrazoibidean.

8. Ikerketa errazak planifikatu eta egitea gorputzek argiaren, elektrizitatearen, magnetismoaren, beroaren edo soinuaren arurrean zer jokatzen duten aztertze, eta emaitzak adierazten jakitea.

Ebaluazio honen bidez ebaluatu nahi da arlo honetako fenomeno fisiko eta kimiko desberdinei buruzko esperientzia errazak eta ikerketa txikiak egiteko zer gaitasun duten: arazoak planteatu, hipotesi bat adierazi, beharrezkoa den materiala hautatu, muntatu, egin, ondorioak atera, emaitzak adierazi, horietako bakoitzean eta zatiak egituratzean gaitasuna erakutsiz, bai eta fenomeno horien gaineko oinarritzko legeak ezagutzea ere.

9. Objektu eta aparatuko erakitzeko planifikazioa egitea aurrez emandako helburu bat gogoan izanda, horretarako energia iturriak, operadoreak eta material egokiak erabiliz; beharrezkoa den eskuzko trebetasuna erakutsiko da eta batzuetan banakako lana eta beste batzuetan talde lana egingen.

Objektu edo aparatuen bat erakitzeko proiektuko planifikatu eta gauzatzeko gaitasuna ebaluatu nahi da irizpide honekin. Energia iturri desberdinen ezagutza ebaluatuko da, bai eta horietako bat aparatuen funtzionamendurako egokia izateagatik hautatzeko gaitasuna ere. Operadoreen ezagutza ere baloratuko da (gurpila, balazta, etengailua, biela, engranajea, malgukia, polea, etab.), bai eta talde lanean lankidetzarako eta berdintasunerako jarrera agertzen den ere, norberaren eta besteentzako segurtasuna zaindu beharra aintzat hartuz.

10. Arazo edo egoera zailtasun gabeei buruzko txosten bat aurkeztea paperean eta euskarri digitalean; horretarako iturri desberdinetako informazioa bildu behar da (iturri zuzenak, liburuak, Internet), laneko plan bati segitu eta ondorioak adierazi. Nafarroako kultur eta arte ondarearen inguruko gaien buruzko ikerketak egitea, eskolako liburutegiko materiala erabiliz.

Irizpide honez baliaturik ebaluatu nahi da ikasleek zer gaitasun duten informazio zehatz eta garrantzizkoa bildu, hautatu eta antolatzeko, emaitzak aztertze, ondorioak ateratzeko, esperientziaren berri emateko, segitu den prozesuari buruzko gogoeta egiteko eta ahoz eta idatziz adierazteko. Dokumentu idatziak kontsultatu eta erabiltzea eta irudiak, grafikoak eta taula estatistikoak ateratzea ere izanen da ebaluazioaren xede. Kontuan hartuko da eskolako liburutegiko liburuak erabiltzean erakusten duten abilezia. Lanak paperean eta euskarri digitalean txukun, argi eta garbi aurkezteari ere arreta berezia jarriko zaio.

11. Ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea esperientziak kontatzeko eta pentsamenduak azaltzeko gizarako edo naturako egoeraren alderdi desberdinei buruz. Arloari dagozkion testuak irakurtzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da arloko testuen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna, eta ikasi den berriazko hiztegiaren erabilera nolako den. Eskolako liburutegiko liburuaren erabilera egokia ere baloratuko da.

HEZKUNTZA ARTISTIKOA

Arte agerpen desberdinak etengabe agertzen dira pertsonen ingurunean eta bizitzan. Alde horretatik begirata, Arte Hezkuntzaren arloak ikasleek hautemate eta adierazpen estetikoak izaten lagundu nahi du, eta beren prestakuntza orokor eta kulturalerako ezinbestekoak diren edukiak bereganatzeko aukera eman nahi die.

Arte Hezkuntzaren arloan zentzumenen eta adimenaren alderdia, alderdi soziala eta emozioen, afektuaren eta estetikaren alderdiak sartzen dira, eta horrek zenbait mekanismo sorrarazten ditu, gaitasun desberdin eta konplexuak garatzeko bidea ematen dutenak, ikasleentzako prestakuntza integrean eragin zuzena duen hezkuntza proiektioarekin, arreta garatzen laguntzen baitu, hautematea, adimena eta memoria suspertzen baititu epe labur eta luzera, irudimena eta sormena bultzatzen baititu eta ordena, parte-hartzea, lankidetzeta eta komunikazioa garatzeko bidea ematen baitu.

Arlo hau bi hizkuntza motek osatzen dute: plastikarenak eta musikarenak. Biak bi ardatzen inguruan egituratuta daude: hautematea eta adierazpena. Lehenengoan sartzen dira zentzumenaren, ikusmenaren, entzumenaren eta gorputzaren bidezko ezagutza izateko gaitasunei lotutako alderdiak, arte agerpenak ulertzen laguntzen dutenak, bai eta ekoizpen plastiko eta musikal desberdinak nolakoak diren jakin eta horiekin gozatzeko gaitasuna ere. Bigarrena kode eta teknika artistikoak ezagutu eta erabiltzearen bidez ideiak eta sentimenduak adierazteari buruzkoa da.

Arloaren barruan, elementu plastikoak behatzeari eta musika entzuteari buruzkoa da hautematea. Behaketaren zeregin nagusia natur ingurunea eta giza jarduera zein sormena interpretatu, ikertu eta azter-

tzea da; jarduera eta sormen hori ulertu behar da eguneroko bizitzako objektu eta elementuen eta adierazpen artistiko huts-hutsak direnen sortzaile gisa. Bestalde, entzutearen oinarria da musikaren interpretazio eta sormeneko prozesuetan eta grabatutako edo zuzeneko musika lanen entzunaldietan entzuten dena bereizi eta ulertzeko gaitasunak garatzea.

Adierazpenak, berriz, hizkuntza plastikoaren eta ikus-entzunezkoaren elementuak aztertzera eramaten du, bai eta materialen tratamendura eta hauteman eta sentitzen dena adierazteko aukerak lantzerako, prestatze prozesuan plangintza bati jarraituz betiere. Interpretazio musikala ere aipatzen du, ahozko eta musika-tresna bidezko interpretazioarekin eta gorputz adierazpenarekin eta dantzarekin lotutako trebetasun teknikoak eta gaitasunak garatuz. Hizkuntza bat zein bestea erabiltzea ekoizpen plastiko edo musikal desberdinak asmatu eta sortzeko pizgarri da.

Bai hizkuntza plastikoak bai musika ezaugarri propioak dituzten arte esparruak dira, baina, bi esparru horietako ekoizpenak eta ulermenak alderdi komunak dituztenez, arlo bakar batean sartu dira etapa honetan, horrela arte adierazpenaren eta irudikapenaren modu desberdinen arteko lotura estuak kontuan hartuko dituen ikuspegi orokorra eman ahal izateko. Hori dela eta, eta bereziki aipatzen direnak musika eta adierazpen plastikoak izan arren, dantzaren eta antzerkiaren edukiak ere sartzen dira arlo honen barnean.

Arlo honen bi ardatz nagusietatik abiatuz (Hautematea eta Adierazpena), lau multzotan banatu dira edukiak. 1. multzoak, Behaketa plastikoak, eta 3. multzoak, Entzutea, hautemateari buruzko edukiak biltzen dituzte hizkuntza plastikorako eta musikalerako, hurrenez hurren. 2. multzoak, Sormen eta adierazpen plastikoak, eta 4. multzoak, Interpretazio eta sormen musikala, adierazpenari buruzko edukiak biltzen dituzte bi hizkuntzetarako.

Edukiak bi ardatzen inguruan banatzearen helburua edukiak modu koherentean antolatzea da. Ez du, beraz, batak bestearen gaineko lehenetasunik, eta ez dago horietako batekin lehenbizi hasi beharrik ere. Bien edukien arteko lotura oso estua da eta, horregatik, batzuk bai hautematean bai adierazpenean sartzen dira, esate baterako kolorearen, eritimoaren edo formaren kasuan.

Antzeko zerbait gertatzen da multzoekin. Edukiak multzo berezietan sartzeak oinarritzko zer ikaskuntza landu behar den argiago finkatzen laguntzen du. Arloko eduki multzoa egituratzeko modu honek ez du esan nahi batzuk besteetatik bereizita garatu behar direnik; hori argi gertatzen da beren arteko erlazioa ikusita.

Behaketa plastikoaren izeneko multzoa ingurune naturalaren eta giza jardueraren sormenaren interpretazio, ikerketa eta azterketan oinarritzen da. Espazioari lotutako gaiak eta irudien esanahiaren interpretazioari eta mezu ikonikoen azterketari buruzko beste batzuk lantzen dira. Eduki horietan, hautemateari lotuta, Sormen eta adierazpen plastikoaren izeneko multzoa hornitzen dute. Multzo horretan sartzen da hizkuntza plastikoaren eta ikusizkoaren elementuen miaketa eta materialen tratamendua, eta hautemateko adierazteko aukera batzuk azaltzen dira, prestakuntza prozesuko plangintza bati jarraituz betiere.

Entzutea multzoan, entzunaldietan entzuten dena bereizi eta ulertzeko gaitasunaren garapenean oinarritzen dira edukiak, baina Interpretazio eta sormen musikala izeneko multzoan, berriz, interpretazioari lotutako trebetasun teknikoak eta gaitasunei heltzen zaie, eta asmatzea bultzatzen da, mugimendu eta soinuak aztertu, hautatu eta konbinatzearen ondorioz ateratzen diren ekoizpen musikal batzuk inprobisatu eta sortuz. Musikaren elementuak eta haren kultur erreferenteak ez dira inoiz ere harengandik bereizten eta, beraz, multzo desberdinetan erabiltzen den erreperitorioan sartzen dira. Horregatik, bai hizkuntza musikalen edukiak bai kultur adierazpen gisa hartuta musikari berari dagozkionak zeharka ageri dira bi multzoetan.

Oro har, Lehen Hezkuntzako Arte Hezkuntzak ikasleei aukera eman behar die inguruko errealitatearen ikusizko eta entzunezko elementuak hautematen eta horiekin elkarreragileak izaten. Horrek berarekin dakar kontzeptu, prozedura eta jarrerari ikuspegi integratu eta desartikulatua ez den baten ikuspegitik heldu beharra. Prozesu hori errazteko, prozedura gehienetan kontzeptuak eta jarrerak zehaztuta daude.

Arloak oinarritzko gaitasunak garatzen laguntzea

Arte Hezkuntzaren arloak oinarritzko gaitasun batzuk lortzen laguntzen du.

Arlo honek arte eta kultur gaitasunerako zuzeneko laguntza ematen du, hori osatzen duten alderdi guztietan. Etapa honetan, kode artistikoak ezagutzea eta horiei dagozkien teknika eta baliabideak erabiltzea izanen da garrantzizkoena, eta ikasleari laguntza emanen zaio inguruan duen mundua hautematen eta ulertzen hasteko, bai eta adierazteko eta besteekin komunikatzeko daukan aukerak zabaltzeko ere. Hizkuntza artistikoak ematen dituzten baliabideak erabiliz, ideia bat modu pertsonalean irudikatu ahal izateak ekimena, irudimena eta sormena bultzatzen ditu eta, aldi berean, beste pentsamendu eta adierazpen modu batzuk errespetatzen erakusten du.

Arlo honek, inguru hurbileko eta beste herri batzuetako kultur eta arte agerpenetara hurbiltzen laguntzen baitu, zenbait tresna ematen dizkie ikasleei agerpen horiek baloratze eta ezagutzan geroz eta gehiago oinarritzen diren iritziak emateko. Hala, baliozko irizpideak osa ditzakete pixkanaka kultur produktuei dagokienez, eta aisiarako aukerak zabaldu.

Azterketa eta ikerketa aukerak zehazteko mekanismo bihurtzean, konponbideak bilatu eta ezagutzak lortzean, nabarmen bultzatzen da norberaren autonomia eta ekimena. Haurra hasierako azterketatik azken produkturaino eramaten duen prozesuak aurretiazko plangintza bat eskatzen du, bai eta emaitza originalak, ez estereotipatuak, lortzeko ahalegina ere. Bestalde, baliabideak lortu nahi den produktuaren adierazpen xedea kontuan hartuz hautatzea eskatzen du eta, hori bezala, prozesuaren fase bakoitzean egiten dena etengabe berrikustea, beharrezkoa bada hobetu ahal izateko. Sormenak autonomiaz jokatzeko eskatzen du, ekimenak abian jartzea eta aukera eta aterabide desberdinak kontuan hartzea. Prozesuak originaltasunari eta forma berritzaileak bilatzeari laguntzeaz gainera, malgutasuna ere sortzen du, zeren eta kasu baten aurrean erantzun desberdinak ematen ahal baitira.

Gaitasun soziala eta herritartasuna garatzeko ere bide ona da arlo hau. Arte Hezkuntzaren esparruan, interpretazioa eta sormena talde lanari lotuta daude askotan. Horrek eskatzen du lankidetzaz izatea, ardurak hartzea, arau eta jarraibideak betetzea, materialak eta tresnak kontuz ibili eta zaintzea, teknika zehatzak aplikatzea eta espazioak egoki erabiltzea. Baldintza horiek betetzearekin batera ikasleak hezten dira besteekiko konpromisoan, talde lanak duen beharrezkoan eta taldearen ahaleginaren ondoriozko produktuak sortzen duen gogobetetasunean. Azken batean, akordioa bilatzearen alde adierazteak errespetu, onarpen eta adostasunezko jarrerak abian jartzen ditu eta, hortaz, gaitasun hori garatzeko bide ona da arlo hau.

Mundu fisikoak ezagutu eta harekin elkarreragiteko gaitasunari dagokionez, arlo honek inguruneaz ohartzen laguntzen du, hain zuzen ere naturguneetan eta gizakien lanetan dauden soinuak, formak, koloreak, lerroak, testurak, argia edo mugimendua hautematearen bitartez ohartzen. Halaber, arlo honek bitartekoa aitzakia gisa erabiltzen du sormen artistikorako, aztertu, manipulatu eta erantsi egiten du, gozamaña emanen duen eta pertsonen bizitza aberasten lagunduko duen dimentsioa emateko berreginez. Horrekin batera, garrantzitsua den beste dimentsio bat ere kontuan hartzen du, hots, bizitzaren kalitatea hondatzen duten erasoak dagokienez, hala nola hotsaren bidezko kutsadura edo espazio, objektu edo eraikinaren soluzio estetiko ez oso egokiak, eta haurrei erakusten die ingurune fisiko atsegin eta osasungarria babestearen garrantziaz ohartzen.

Ikasten ikasteko gaitasunari dagokionez, zenbait prozesuri buruzko gogoeta egiten laguntzen du: objektuen manipulazioa, teknika eta materialekin egiten diren saiakuntzak eta soinu, testu, forma edo espazioen zentzumenezko arakatzea, eta horren helburua da lortutako ezagutzak haurrei nahiko baliabide ematea egoera desberdinetan erabili ahal izateko. Behaketarako gaitasuna garatzeko gaitasun hori bideratuko duten jarraibideak ezartzea komeni da, behaketak garrantzizkoak eta behar adinakoa den informazioa eman dezan. Alde horretatik, arlo honek ikasteko gaitasuna ematen die ikasleei, beste ikaskuntza batzuetan erabiltzen ahal diren prozesuak ikertu eta planifikatzeko protokoloak eskaintzen baititu.

Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna lortzen laguntzen ahal da, arlo guztietatik bezala, ondokoen bitartez: sortzen diren komunikazio trukeen aberastasuna, horien gaineko arauen erabilera, garatzen diren prozesuen azalpena eta arloak ematen duten berariazko hiztegia. Abestiak edo dramatizazio errazak, bereziki, hitz berriak ikasteko eta hizketarekin lotutako gaitasunak (arnasketa, hitz egiteko modua edo ahoskera) garatzeko bide egokiak dira. Gaitasun hau garatzen da, orobat, laneko prozesuak deskribatzen direnean, hartutako irtenbideen gaineko argudioak ematen direnean edo artelana baloratzen denean.

Informazioaren tratamenduaren eta gaitasun digitalaren gaitasuna garatzen laguntzen da teknologia erabiliz, musikaren eta ikusizko arteen inguruko prozesuak erakusteko tresna den aldetik, eta ikasleak arte ekoizpenak sortzera eta irudiaren zein soinuaren azterketara eta horiek zabaltzen dituzten mezuetara hurbiltzeko tresna den aldetik. Arte agerpenei buruzko informazioa bilatzeko gaitasuna ere garatzen da, horri esker artea ezagutu eta arteaz gozatzeko, iraganeko eta oraingo, hurbileko edo beste herri batzuetako esparru kulturaleri buruzko informazioak hautatu eta trukatzeko.

Arlo honek matematika gaitasuna garatzen ere laguntzen du, neurri txikiagoan bada ere, kontzeptu eta irudikapen geometrikoak lantzen baititu, hain zuzen ere arkitekturaren, diseinuan, altzarietan, eguneroko objektuetan eta naturgunean dauden eta artelana espazioan antolatze-ko erreferenteak behar direnean erabiltzen direnak. Horrekin guztia-ekin batera, musikan erritmoa edo eskalak lantzen direnean, matematika gaitasuna garatzeko ekarpena egiten da.

Helburuak

Etapa honetan Arte Hezkuntzak gaitasun hauek garatzea izanen du helburu:

1. Ahozkoaren zein idatzizkoaren ulermena eta mintzamaña zein idazmaña garatzea. Arloko berariazko hiztegia egoki eta zehatz erabiltzea, esanahaia eratu eta gero.
2. Soinuaren, irudiaren eta mugimenduaren aukerak ikertzea, irudikapeneko eta komunikazioko elementuak diren aldetik, eta ideiak eta sentimenduak adierazteko erabiltzea, horren bidez oreka afektiboari eta besteekiko harremanei lagunduz.
3. Zenbait material eta tresna aztertu eta ezagutzea, eta hizkuntza artistiko desberdinen berariazko kode eta teknikak ikastea, adierazpen eta komunikaziorako erabiltzeko.
4. Ezagutza artistikoak eguneroko bizitzako egoera eta objektuen eta arteko eta kulturako agerpen desberdinen behaketan eta azterketan aplikatzea, horiek guztiak hobeki ulertu eta nor bere gustua eratzeko.
5. Bilaketa pertsonal eta kolektiborako jarrera izatea, horretarako hautematea, irudimena, ikerketa eta sentsibilitatea landuz eta artelanak egin eta horietaz gozatzerakoan gogoeta eginez.
6. Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko nahiz ezagutzak partekatzeko tresna gisa.
7. Ikus-entzunezko baliabideen eta irudia eta soinua duten informazio eta komunikaziorako teknologien aukera batzuk ezagutzea, eta norberak behaketarako eta bere ekoizpenetarako baliabide gisa erabiltzea, dela modu autonomoan dela beste baliabide eta material batzuekin batera.
8. Nafarroako eta beste herrialde batzuetako kultur ondareko arte agerpenak ezagutu, baloratu eta errespetatzea, tokiko adierazpen motak kontserbatu eta berritzeko lanean parte hartuz eta kultura desberdinetakoak izan arren ingurune berean bizi diren pertsonekin izaten diren harremanak aberasgarriak direla aintzat hartuz.
9. Arte ekoizpen pertsonalarekin auto-konfiantzazko erlazioa garatzea, eta norberaren eta besteen sormen lanak errespetatzea eta kritikak zein iritziak jasotzen eta adierazten jakitea.
10. Artelanak taldean egitea, eginkizun desberdinak hartuz eta sortzen diren arazoak konpontzeko parte hartuz, horrela bukaeran gogobeteko lana lortu ahal izateko.
11. Arte esparruetako lanbide batzuk ezagutzea, artisten lanaren ezaugarriak zein diren jakiteko interesa agertuz eta beren lanak ikusten dituztenean gozatuz.

Lehen zikloa

Edukiak

1. multzoa.—Behaketa plastikoa
 - Ingurune natural, artifizial eta artistikoan dauden elementuen zentzumenezko behaketa eta azterketa.
 - Sentsazioen eta behaketen hitzuzko deskribapena.
 - Ingurunean eta erakusketa edo musoetan dauden lan plastikoen eta ikusizkoen gaineko iruzkina.
 - Inguruneak eskaintzen dituen aukera artistikoak atzemateko kuriositateak.
 - Erakusketetan bete beharreko jokabide arauak zein diren jakin eta betetzea.
 - Inguru hurbileko irudiak deskribatzea.
 - Objektuek eta pertsonen espazioari dagokionez dituzten distantzia, ibilbide eta egoerak aztertzea.
 - Espazioa aurkezteko modu desberdinak behatzea.
2. multzoa.—Sormen eta adierazpen plastikoa
 - Trazu espontaneoan eta xede batekin egiten direnen, ingeradak mugatzen dituzten lerroen eta forma zehazten duen espazioaren adierazpen aukerakin saiakuntzak egitea.
 - Pintura mota desberdinak eta zenbait euskarri erabiliz nahasteekin eta kolore orbanekin saiakuntzak egitea.
 - Testura natural eta artifizialen zentzumenezko bilaketa, bai eta material organiko eta ez-organikoen kalitate eta aukerena ere.
 - Marrazkiak, pinturak, collageak, bolumenak, etab. egitea.
 - Objektuak manipulatu eta eraldatzea antzezanetan erabiltzeko.
 - Konposizio plastikoak egitea argazkiak erabiliz.
 - Baliabide digitalak aztertzea artelanak sortzeko.
 - Materialen manipulazio eta azterketarekin gozatzea.
 - Konposizio artistikoaren material, tresna edo alderdiei buruzko hitzak geroz eta gehiago eta egokiago erabiltzea.
 - Elaborazio prozesua geroz eta gehiago antolatzea, zentzumenezko hautemateak, irudimeneak, fantasiatik edo errealtateetatik sortutako gaia zehaztuz, egiteko beharrezkoak diren baliabideak aurreikusiz, ma-

terial eta tresnen aukerak aztertuz eta sormenerako ahalbideetan konfiantza agertuz.

3. multzoa.–Entzutea

• Ingurune natural eta sozialeko soinuaren kalitatearen gorputzaren bidezko irudikapena eta identifikazioa.

• Estilo eta kultura desberdinetako musika-tresnen eta ahotsen bidezko pieza laburren sorta bat modu aktiboan entzutea.

• Musika-tresna batzuk ikusi eta entzunez ezagutzea eta emakume, gizon eta haurren ahotsak identifikatzea.

• Abestietan eta beste musika lan batzuetan errepikapena (AA) eta kontrastea (AB) identifikatzea.

• Ingurune soinuak atzemateko kuriositatea eta estilo eta kultura desberdinetako musika lanak entzunez gozatzea.

• Entzunaldietan eta beste musika saio batzuetan bete beharreko jokabide arauak zein diren jakin eta betetzea.

4. multzoa.–Interpretazio eta sormen musikala

• Ahotsak, gorputzak eta objektuek soinua sortzeko dituzten aukerak aztertzea.

• Erretolikalak eta soinu bakarrean kantatzen diren abestiak interpretatu eta memorizatzea.

• Ahotsa, gorputz perkusioa eta musika-tresnak erabiltzea errezitatzen diren testuei, abestiei eta dantzei laguntzeko.

• Mugimenduaren oinarriko teknikak eta mugimenduzko jokoak soinu sekuentziakin batera lantzea, eta dantza errazak ikastea.

• Konbentzionalak ez diren grafiak dituzten partitura errazak irakurtzea.

• Ahotsaren, musika-tresnen eta gorputzaren bidezko adierazpenarekin gozatzea.

• Lau denborako erritmo eta melodiako eskemak inprobisatzea.

• Mugimenduen inprobisatzea, soinu estimulu desberdinei ematen zaien erantzun gisa.

• Ahotsaren bidezko soinuak, objektuak eta musika-tresnak hautatzea egoera batzuei edo kontakizun laburrei soinua jartzeko.

• Norberak musika ekoizteko dituen aukeretan konfiantza izatea.

Ebaluazio irizpideak

1. Ingurune natural eta artifizialean dauden material, objektu eta tresnen kalitate eta ezaugarriak deskribatzea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ezen, material, objektu eta tresnen manipulazioa eta zentzumenezko azterketa egin ondoren, gai ote diren horien ezaugarri eta kalitate nagusiei izena emateko (forma, kolorea, pisua, testura, altuera, intentsitatea, tinbrea, iraupena), beren inpresioak hitzez adierazteko eta atzemandakoa deskribatzeko.

2. Behatu eta entzundako lan plastiko eta musikalei buruzko iruzkina egiteko hitz errazak erabiltzea.

Irizpide honen bidez baloratu nahi da lan plastiko eta musikal desberdinetan nabarmenenak diren ezaugarrietako batzuk identifikatu eta deskribatzeko gai diren, eta lan horiek sorrarazten dizkieten ideia eta sentimenduak azaltzeko ere gai diren. Testu eta lan plastiko eta musikalen inguruko ahozko eta idatzizko adierazpenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna ebaluatu nahi da, bai eta ikasi den berariazko hiztegiaren erabilera nolakoa den ere.

3. Lan musikal baten elementu batzuk (tinbrea, abiadura, intentsitatea, izaera) hizkuntza desberdinen bitartez identifikatu eta adieraztea.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da gelan landutako eduki batzuk atzematen ote dituzten lan musikalean (ahots motak, musika-tresnak, abiadura eta intentsitate aldaketak eta kontrasteak, etab.), eta gai ote diren mugimenduaren, marrazkien eta hitzen bidez irudikatzen.

4. Erritmo eta melodiako eskemak ahotsaren, gorputzaren eta musika-tresnen bidez eta mugimendu erreproduzitzea.

Irizpide honen bidez baloratu da soinuaren eta gorputzaren bidez emandako mezuetan arreta jartzeko eta epe laburrean gogoan atxikitzeo gai diren eta horiek interpretatzeko beharrezkoak diren teknikak erabiltzen dituzten.

5. Ahotsak, gorputzak, objektuek eta musika-tresnek sortutako soinuak hautatu eta konbinatzea, kontakizunei edo irudiei soinua jartzeko.

Egiaztatu nahi da gai ote diren soinu azterketan lortutako datuak irudi edo egoera bat soinuaren bidez berregiteko lanean erabiltzeko, soinu egokienak hautatuz eta komeni den moduan konbinatuz nahi den efektua lortzeko.

6. Espazioa irudikatzen modu desberdinak identifikatzea.

Irizpide honekin egiaztatuko da ikasleek barneratu ote duten espazioa (ibilbideen arabera aztertuta, distantziez jabetuta, objektuak edo pertsonak kokalekuen arabera non dauden ikusita) irudikatzen ahal dela, eta erabiltzen diren formak komunikazio eta informazio beharrei lotuta daudela ohartzen ote diren.

7. Formek, testurek eta koloreek dauzkaten aukerak nork bere ekoizpenetan probatzea.

Egiaztatu nahi da, adierazpen espontaneoaren testuinguruan, zer interes eta kuriositate duten beren ekoizpenetan txertatzeko material, objektu eta tresnen zentzumenezko azterketan eta beren hurbileko inguruneko irudien behaketan hautemandakoa.

8. Irudimenezko eta afektuzko mundua eta mundu soziala irudikatzen konposizio plastikoak egitea.

Irizpide honi jarraikiz egiaztatuko da ezen, sormenerako daukaten ahalbideari buruzko konfiantza giro batean, irudikapen plastikoaz baliatzen ote diren beren bizipenak, balizko idealak edo eguneroko bizitzako egoerak azaltzeko, eta, horri lotuta, lan plastikoak egitea beraiek nahi dutena adierazteko eta besteekin komunikatzeko baliagarria dutela ohartzen hasten diren.

Bigarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Behaketa plastikoa

• Testurak eta tonalitateak sailkatzea eta forma natural eta artifizialak hautematea, ikuspegi eta kokaleku ezberdinetatik aztertuta.

• Behaketa prozedurarako eta behatutakoa ahoz edo idatziz azaltzeko ordena edo jarraibide bat ezartzea.

• Lan plastikoetan erabiltzen diren materialen behaketa.

• Ingurunea, kultur ondarea osatzen duten lanak eta norberaren eta beste ekoizpenak errespetatu eta zaintzea.

• Artelanari buruzko informazioa bilatzeko eta horien gaineko iruzkinak egiteko interesa.

• Irudiek inguru sozialean ematen duten informazioa interpretatu eta baloratzea eta hautematen dena adieraztea.

• Inguruneko elementuak behatzea objektuen arteko eskala eta proportzioak aztertzea.

• Espazioa irudikatzen modu desberdinen gainean ikerketa egitea.

2. multzoa.–Sormen eta adierazpen plastikoa

• Zenbait lerroekin eta posizio desberdinetako formekin saiakuntzak egitea.

• Koloreak kontraste, aldakuntza eta konbinazioetan dauzkan aukerak bilatzea, eta euskarri desberdinak erabiliz emaitzak ikustea.

• Materialen kalitateei, horien tratamendu ez-konbentzionaleraino testurak irudikapenean erabiltzeko moduari buruzko ikerketa egitea.

• Irudiak egitea zenbait teknika eta baliabide erabiliz.

• Egitura errazak edo sormeneko lan plastikoak egitea, antzezpenarekin erabiltzeko.

• Argazkiak egitea: fokatzea eta planoak.

• Baliabide digitalak erabiltzea artelanak sortzeko.

• Artelanetan ikusitako ezaugarriak nork bere lanetan aplikatzea.

• Kode artistikoen sentimenduak eta ideiak adierazteko balio dutela ohartzea.

• Sormen prozesua, banakakoa edo taldekoa, aurrez ikusitako asmoeraino lotzeko interesa agertzea, materialak euren aukera plastikoaren arabera egokiro hautatuz, tresna, material eta espazioak arduraz erabiltzeko, lanak norberak bere gain hartuz eta taldeak ezartzen dituen arauak, halakorik bada, errespetatuz.

3. multzoa.–Entzutea

• Soinuaren kalitateak entzunez bereiztea, izena jartzea eta grafikoki irudikatzea.

• Estilo eta kultura desberdinetako musika-tresnen eta ahotsen bidezko pieza laburren sorta bat modu aktiboan entzutea eta ezaugarri batzuek jabetzea.

• Orkestrako, herri musikako eta beste kultura batzuetako zenbait tresna ikusiz eta entzunez ezagutzea eta familien arabera sailkatzea, eta ahots talde desberdinak identifikatzea.

• Esaldi musikalak eta errepikatu, kontrastatu eta itzultzen diren zatiak identifikatzea.

• Kontzertuak eta musika emanaldiak baloratu eta iruzkinak egitea.

• Ezaugarri desberdinak dituzten musika lanak ezagutzeko interesa.

• Musika entzunaldietan adi eta isilik egotea eta jokabide arauak errespetatzea.

4. multzoa.–Interpretazio eta sormen musikala

• Ahotsak, gorputzak, objektuek eta tresnek soinua sortzeko eta adierazpena lantzeko dituzten aukerak aztertzea.

• Ahotsa, gorputza eta tresnak zaintzeko ohiturak.

• Soinu bakarreko abestiak, kanonak eta musika-tresnen pieza errazak interpretatu eta memorizatzea.

• Banakako eta taldeko koordinazio eta sinkronizazioa ahots edo musika-tresna bidezko interpretazioan.

• Mugimendu finkatu eta asmatutako dantza eta sekuentziak memorizatu eta interpretatzea.

- Grafia mota ezberdineko abesti eta musika-tresnen konposizio errazak irakurri eta interpretatzea.
- Interpretazio eta sormeneko jardueretan interesa agertzea eta arduraz jokotzea.
- Emandako oinarri musikalen gainean erritmo eta melodiako eskemak inprobisatzea.
- Abestietarako eta musika-tresnen piezetarako akonpainamenduak sortzea.
- Musika piezak sortzea emandako elementuen konbinaziotik abiatuta.
- Abestietarako eta musika pieza laburretarako koreografiak asmatzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Ingurunean dauden elementuen ezaugarriak eta artelanez sortzen dituzten sentsazioak deskribatzea.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da gai ote diren behaketan lortutako ezagutzak erakusteko, arte agerpenetan eta ingurunean dauden ikusizko eta musikako hizkuntzaren elementuei buruzko deskribapen eta informazio aipagarrien bidez erakutsi ere, eta egintza artistikoaren gainean dituzten iritziak ahoz adierazteko.

2. Hizkuntza plastiko eta musikaleko hitz batzuk egoki erabiltzea testuinguru zehatzetan, komunikazioan eta prozesuak eta argudioak deskribatzen direnean.

Egiaztatu nahi da ikasleak hizkuntza artistikoetako hitz teknikoak erabiltzen hasi ote diren beren azalpen eta deskribapenetan, egoera egokietan erabiltzen dituzten eta ezagutza horiek baliagarri izaten ahal diren beste testuinguru batzuetara eramateko gai diren. Testu eta lan plastiko eta musikalen inguruko ahozko eta idatzizko adierazpenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna ebaluatu nahi da, bai eta ikasi den berariazko hitzegiaren erabilera nolakoa den ere.

3. Baliabide grafiko desberdinak erabiltzea musika pieza baten entzunaldian.

Irizpide honetaz baliaturik ebaluatuko da gai ote diren loturarik ezartzeko entzuten dutenaren eta musikogrametan edo partitura errazetan (grafia mota desberdinak dituztenetan) adierazitakoaren artean, bai eta entzundako musikaren ezaugarri bereizgarriak grafikoki irudikatzekeo gai diren ere (marrazkien bidez edo ezagutzen edo asmatzen dituzten zeinu grafikoak erabiliz).

4. Abestien, musika-tresnekin egindako piezen eta dantzen oinarriko errepertorioa memorizatu eta interpretatzea.

Irizpide honen bitartez baloratu nahi da ikasleek zenbateraino memorizatu dituzten eta gogoratzeko gai diren gelan imitazioz ikasitako abesti, musika-tresnen pieza eta dantza batzuk.

5. Egitura musikalki errazen barnean ideia musikalak aztertu, hautatu, konbinatu eta antolatzea.

Irizpide honekin baloratu da prozesu ordenatu bat segitzeko eta irizpide egokiak erabiltzeko gai ote diren, emandako elementu batzuk hautatu, konbinatu eta antolatzeetik abiatuta musika pieza bat sortzeari begira.

6. Espazioari buruz ingurunean ageri diren irudi eta irudikapenen edukia interpretatzea.

Egiaztatu nahi da ikasleek ba ote dakiten azaltzen beren ingurunean ohikoak diren seinale, zeinu, ikur eta planoetan ageri den informazioa, irudikapen horien eta adierazpen, komunikazio edo informaziorako duten eginkizunaren arteko lotura, betiere oinarriko informazioa emanen duten mezu propioak sortzeari begira.

7. Testurak, formak eta koloreak antzekotasun edo desberdintasuneko irizpideen arabera sailkatzea.

Honen bidez egiaztatu nahi da materialen behaketa eta manipulazioan behar adina datu eskuratu ote duten horien ezaugarri buruzko jarraibideren bat ezartzeko, horiek zehazteko gai ote diren eta oinarriko sailkapenak antzekotasun edo aurkakotasunaren arabera antolatzen ahal dituzten.

8. Egin nahi den artelanerako egokiak diren tresna, teknika eta materialak erabiltzea.

Irizpide honen bidez egiaztatuko da tresna, teknika eta materialen azterketan lortutako datuez baliatzeko gai diren, lan pertsonal eta ez estereotipatu bat egiteko. Testuinguru ezberdinetan ematen diren era askotako soluzioak, askotariko euskarriak erabiltzea eta materialen erabileran originaltasuna izatea baloratzekeo izanen da, bai eta hartzailearen araberrako xedearekin lan egitea ere.

Hirugarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Behaketa plastikoa

- Elementu naturalen eta egitura geometrikoen aukera plastikoak eta adierazpenekoei buruzko ikerketa egitea.

- Protokoloak prestatzea, ahoz eta idatziz, elementu natural eta artifizialen alderdiak, kalitateak eta ezaugarri nabarmen eta sotilak behatzeko lanerako.

- Artelanez eskaintzen eta iradokitzen dituzten ezaugarri, elementu, teknika eta materialak aztertzea, lan horiek berregin eta beste batzuk sortzeko.

- Gizarteen kultur adierazpenaren erakusle diren arte formak eta eskulangintzakoak dokumentatu, erregistratu eta baloratzea.

- Artelana pertsonen arteko komunikaziorako eta kultur balioak zabaltzeko tresna den aldetik baloratu eta aintzat hartzea.

- Informazioaren eta komunikazioaren baliabide eta teknologietan irudiek duten komunikazio xedea aztertu eta baloratzea.

- Bolumenak, planoan, ikuspuntuaren edo espazioko kokalekuaren arabera irudikatzekeo moduak aztertzea.

- Arlo edo esparru desberdinetan espazioa irudikatzekeo moduak konparatzea.

2. multzoa.–Sormen eta adierazpen plastikoa

- Forma ireki eta itxiekin eta lerroekin saiakuntzak egitea, horien forma, norabidea eta espazioko kokalekua kontuan hartuta.

- Kolore osagarriak, kontrakoak eta tonalitateak nahita aplikatzea.

- Bolumenek eta espazioek argiaren eraginez izaten dituzten aldaketak aztertzea.

- Materialak manipulatzeko xede den edukirako egokiak diren zehazteko, eta aurkikuntzak irudikapen plastikoak aplikatzeko interesa izatea.

- Testurak objektu eta irudien ezaugarriak zehazteko erabiltzea.

- Lanak teknika mistoak erabiliz egitea.

- Egiturak eraikitzea eta espazioak eraldatzea nozio metrikoak eta perspektibakoak erabiliz.

- Antzezpeneko inguruneak sortzea.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irudien, diseinuaren eta animazioaren tratamendurako eta egindako lanak zabaltzeko.

- Piezak egitea, aztertutako artelanen alderdiak berreginez.

- Komunikazio artistikoari dagozkion dokumentuak prestatzea, hala nola afixak edo gidak.

- Artelan bat sortzen denean originaltasunerako eta berezotasunerako joera izatea, bai eta ideiak, sentimenduak eta bizipenak modu pertsonal eta autonomoan azaltzekoa ere.

- Lanak egiteko prozesuan geroz eta konstantzia eta zorrotasun handiagoa izatea, konposizioan sormeneko estrategiak aplikatuz, talde lanean ardurak hartuz, berrikuste uneak ezarri, besteen ekarpenak errespetatuz eta desadostasunak argudioen bitartez konponduz.

3. multzoa.–Entzutea

- Estilo eta kultura desberdinetako, iraganeko eta oraingo musikak, testuinguru diferenteetan erabiliak, modu aktiboan entzun eta iruzkinak egitea.

- Musika-tresna akustikoak eta elektronikoak, ahots erregistro ezberdinak eta ahots eta tresnen taldeak, ohikoenak, ezagutu eta sailkatzea musika piezak entzuten direnean.

- Errepikapen berdinak eta bariaziodun temak dituzten musika formak identifikatzea.

- Gelan jotzen den musika grabatzea.

- Musika-tresnei, musikagileei, interpreteei eta musikaldiei buruzko informazioa bilatzea paperean eta euskarri digitalean.

- Kontzertuak eta musika emanaldiak baloratu eta iruzkinak egitea.

- Garai eta kultura ezberdinetako musika baloratu eta interesa izatea.

- Hots erasoak identifikatzea eta horiek murrizten eta pertsonen eta pertsona taldeen ongizatea lortzen aktiboki laguntzea.

4. multzoa.–Interpretazio eta sormen musikala

- Musika jotzeko erabiltzen diren tresnek eta gailu elektronikoek soinurako eta adierazpeneko dituzten aukerak aztertzea.

- Garai eta kultura ezberdinetako ahots piezak eta musika-tresnen bidezkoak, akonpainamendua duten eta ez duten taldeentzat eginak, jotzea.

- Mugimendu finkatuak eta asmatuak egitea estimuluak erabiliz: ikusizkoak, hitzezkoak, soinuaren bidezkoak eta musikalak.

- Dantzak eta koreografiak taldean egitea.

- Geroz eta zailagoak diren abestiak eta musika-tresnen piezak irakurri eta interpretatzea.

- Taldean jotzen denean ardurak hartzea eta besteen ekarpenei eta zuzendaritza bere gain hartzen duenari errespetua izatea.

- Ahotsaren, musika-tresnen eta gorputzaren bidezko inprobisazioa egitea, musikako eta musikaz kanpoko estimuluei erantzunez.

- Sarrerak, interludioak eta kodak eta abestietarako eta musika-tresnen piezetarako akonpainamenduak sortzea.

- Ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide informatikoak erabiltzea musika piezak sortzeko eta irudiei eta antzezpenei soinua jartzeko.
- Estilo desberdinetako abestietarako eta musika pieza laburretarako koreografiak asmatzea.
- Grafiak desberdinak erabiltzea (konbentzionalak eta halakoak ez direnak) asmatutako musika erregistratu eta gordetzeko.
- Konstantziaz eta geroz eta handiagoa den zorrotasunez jokatzeko musika lanak egiten direnean.

Ebaluazio irizpideak

1. Informazioa bilatu, hautatu eta antolatzea norberaren kultur ondareko eta beste kultura batzuetako arte agerpenei buruz, arte plastikoekin eta musikarekin lotutako gertaerei, sortzaileei eta profesionali buruz.

Ikasleek egoki erabili behar dituzte eskolako liburutegiko materialak, komunikabideak eta Internet, horri esker zeregin hauetarako baliagarria izanen den informazioa eskuratzeko: ikustaldi kulturalak planifikatu eta antolatzeko, iritziak emateko eta norberaren prestakuntza eta gozamenarako on diren informazioak jakin eta trukatzeko. Balio berezia emanen zaio informazio egokia hautatzeari.

2. Beren eskura dauden arte agerpenei buruzko iritziak ematea, horiei buruz dakitena eta gozamenarako eta aisialdia betetzeko joera pertsonala erakutsiz.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da haurrek zenbateraino ezagutzen dituzten inguru hurbileko eta beste herrialde batzuetako arte agerpen eta egintzak, errealitatea behatzerakoan sentsibiltatez jokatzeko duten eta irizpide eta iritziak emateko gai diren. Testu eta lan plastiko eta musikalen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna ebaluatu nahi da, bai eta ikasi den berriazko hiztegiaren erabilera nolako den ere.

3. Norberaren gizarte eta kulturako musikak eta beste garai eta kultura batzuetakoak ezagutzeko.

Irizpide honen bitartez ebaluatu nahi da garai eta kultura ezberdinetako musika lan batzuen ezaugarri batzuk ezagutzen dituzten eta horiek izendatu eta deskribatzeko gai diren.

4. Norberaren ekintza taldeko beste kideenera egokitzea dantzak eta bai zati edo gehiagoko musika piezak interpretatzen direnean.

Irizpide hau erabiliz ebaluatu nahi da ikasleek gai ote diren arreta jarri eta beren ekintza taldeko beste kideenera egokitzeko. Ez da lortutako maila tekniko balaratu nahi, baizik eta interpretazio jardueretan zein jarrerarekin parte hartzen den, taldean ongi moldatzeko borondatea agertuz.

5. Sortutako musika grafia mota ezberdinak erabiliz erregistratzea.

Irizpide honi esker ikusiko da ikasleek soinua eta ikurrak nola lortzen dituzten, eta gelan asmatutako musika lan baten soinua grafikoki irudikatzen zer gaitasun duten. Helburua ez da zeinu zehatzak hautatzea (notazio tradizionalaren kasuan bereziki), baizik eta zeinuak sortzen den musika gogoratu eta berregiteko gida eraginkor eta funtzionala izatea.

6. Espazioaren antolaketa, zenbait materialen erabilera eta teknika desberdinen aplikazioa eskatzen duten irudikapen grafikoak egitea taldean.

Lan bat taldean egiten denean argudioetan malgutasunik baden eta beste iritzi batzuk onartzen diren ebaluatuko da; lan horretan kontuan hartuko da ikasleek konposizioko elementu plastiko baten banaketari buruz bereganatu dituzten ezagutzak aplikatzen dituzten eta materialen jokatze bidez buruz ikasitako teknika egokiarekin erabiltzen laguntzen dien.

7. Material, testura, forma eta koloreek euskarri desberdinetan aplikatuta dauzkaten aukerak egiaztatzea.

Irizpide honekin ebaluatuko da hizkuntza plastiko elementuei, manipulazio moduaren arabera izaten dituzten eraldaketei eta euskarrien arabera lortzen diren emaitzei buruz saiakuntzak eta ikerketak egitearen aldeko jarrerarik baduten. Materialen tratamenduari eta formaren, kolorearen nahiz testuraren erabilera buruz ikasitako barneratu duten ere ikusiko da.

8. Ideiak, ekintzak eta egoerak modu pertsonalean irudikatzea, hizkuntza plastikoak eta ikus-entzunezkoak ematen dituzten baliabideak erabiliz.

Irizpide honen bidez ebaluatuko da plastika lanak egiteko autonomia eta adierazpenerako zer gaitasun duten, lan bateko elementu artistikoak konbinatu, kendu edo eraldatzean sormena eta irudimena zenbat garatu dituzten eta beren bizipenei lotutako egoerak irudikatzen nolako gaitasuna duten.

9. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak egoki erabiltzea plastikaren eta musikaren arloko ekoizpen errazak sortzeko.

Egiaztatu nahi da ikasleek irudiaren eta soinuen tratamendurako oinarriko aplikazio batzuk erabiltzerakoan eta beren ekoizpenak sortzerakoan zer autonomia maila lortu duten.

GORPUTZ HEZKUNTZA

Arlo honek hezkuntza lanerako dituen funtsezko elementuak gorputza eta giza motrizitatea dira. Lehenik, mugimenduzko jarduerari lotutako gaitasunak garatzera eta gorputz-kulturaren elementuak eskuratzera bideratuta dago, garapen pertsonalari eta bizi kalitatea hobetzeari laguntzeko.

Hala ere, arlo honetako curriculum mugimenduzko jokabideak hartu eta hobetzera baino harantzago doa. Gorputz Hezkuntzaren arloa gizarteak bizi dituen aldaketa bizkorrei adi dago, eta erantzuna eman nahi die, hezkuntzako bere asmoen bitartez, ongizate pertsonalera eta bizitza osasungarriara daramaten behar pertsonalei eta taldeen beharrei, edozein eratako estereotipo eta bereizkerietatik urrun.

Gorputz Hezkuntzak, adin hauetan, gorputz jardueraren zentzuari eta ondorioei buruz gogoeta egiten lagunduko duten gaitasunak lortzea bultzatu behar du bereziki eta, aldi berean, gorputzaren kudeaketari eta mugimenduzko jokabideari begira egokiak diren jarrera eta balioak bereganatzen lagundu behar die ikasleei. Alde horretatik, arlo hau bizitza osoan ohitura osasungarri, erregular eta jarraituak sortzera bideratuta dago, bai eta nor bere gorputzarekin ongi sentitzen laguntzera ere, oso laguntza ona baita hori autoestimua hobetzeko. Beste alde batetik, mugimendurako aukera berriak jolasaren eta esperimentazioaren bitartez sartzea aisiarako hezkuntza egokiaren oinarriak ezartzen lagun dezake.

Gorputz jardueraren inguruan pertsonen artean sortzen diren harremanek zenbait balio jabetzeko aukera ematen dute, hala nola errespetua, onarpena edo lankidetzak, eguneroko zereginetara eramaten ahal direnak, horrela ikasleak gainerako pertsonekin, berdintasunean egoeretan, harreman eraikitzaileak ezartzera bideratzeko. Horrekin batera, gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen aukerak gorputz hizkuntzen sormena eta erabilera bultzatzen dute, horrela harreman pertsonalak gizatiartzen dituzten sentimendu eta emozioak helarazteko.

Mugimenduaren ondoriozko kultur forma ugarien artean, gure gizartearen onartuen eta zabalduenetako bat kirola da, nahiz eta adierazpen jarduerak, jokoak eta dantza tradizionalak onarpen handia duten oraindik ere. Hala, kirolaren fenomenoaren konplexutasunak eskatzen du ikasle prestakuntzan motibatu eta lagundu egiten duten alderdiak hautatzea curriculumean, bai ikuslearen ikuspegitik bai kirola egiten dutenen ikuspegitik hartuta.

Edukiak egituratzeko moduak Gorputz Hezkuntzari Lehen Hezkuntzan zentzua ematen dioten ardatzetako bakoitza islatzen du: mugimenduari lotutako gaitasun kognitiboak, fisikoak, emozionalak eta harremanetakoak garatzea, mugimenduaren forma sozial eta kulturalak bereganatzea, balioetan hezteak eta osasunerako hezkuntza ematea.

Planteamendu horri jarraikiz, arloa bost multzotan banatu da. Mugimenduari lotutako gaitasunen garapena lehenbiziko hiru multzoetan lantzen da batik bat; hirugarren multzoa eta bosgarrena mugimenduaren forma kulturalak hartzeari zuzenago lotuak daude, eta osasunerako hezkuntzak eta balioetan hezteak laugarren multzoarekin eta bosgarrenarekin, hurrenez hurren, kideetasun handia dute.

1. multzoa, Gorputza: irudia eta hautematea. Hautematearen eta mugimenduaren gaitasunak garatzen laguntzen duten edukiei dagokie multzo hau. Norberaren gorputza ezagutu eta kontrolatzen ikastera bideratuta dago bereziki, erabakigarria baita hori bai norberaren gorputzaren irudia garatzeko bai geroagoko mugimendu ikaskuntzetarako.

2. multzoa. Mugimendurako trebetasunak. Ikasleak eraginkortasunez mugitzearen gaineko edukiak biltzen ditu. Mugimendua menderatu eta kontrolatzearen inguruko lorpenak sartzen dira multzo honetan. Mugimendua egoera berrietara egokitzen erabakiak hartzen laguntzen duten edukiak dira aipagarri.

3. multzoa. Arteari eta adierazpenari lotutako jarduerak. Gorputzaren eta mugimenduaren bidezko adierazkortasuna bultzatzen duten edukiak sartzen dira honetan. Gorputz hizkuntzaren bidezko komunikazioa ere kontuan hartu da multzo honetan.

4. multzoa, Jarduera fisikoa eta osasuna. Jarduera fisikoa osasungarria izateko beharrezkoak diren ezagutzak osatzen dute multzo hau. Gainera, bizitza osoan jarduera fisikorako ohiturak hartzeari buruzko edukiak sartzen dira, ohitura horiek ongizatearen iturri gisa hartuta. Gorputzaren osasunari buruzko edukiak jarduerak fisikorekin ikuspegitik hartuta biltzen dituen multzo bat sartuta nabarmendu egin nahi da multzo guztietan ez bairik gabe zeharka ageri diren ikaskuntza batzuk lortzearen beharra.

Azkenik, 5. multzoak, Jokoak eta kirolak, jokoari eta kirol jarduerari buruzko edukiak ditu, horiek pertsonen mugimenduaren kultur adierazpen gisa ulertuta. Jokoa estrategia metodologiko gisa erabiltzen ahal bada ere, bere balio antropologiko eta kulturalarengatik ere kontuan hartzen da eduki moduan. Bestalde, eduki mota hauetan pertsonen arteko harremanek duten garrantzia ikusirik, elkartasunaren, lankidetzaren eta besteenganako errespetuaren aldeko jarreraren proposamena nabarmendu behar da hemen.

Multzoek, hezkuntza etapa honetarako hautatu diren Gorputz Hezkuntzako ezagutzak egituratzeko xedea baitute, modu integratuan aurkezten dituzte kontzeptu, prozedura eta jarrerak. Aipatzekoa da Gorputz Hezkuntzan edukien arteko lehenetasuna ezartzeak berarekin dakarrela prozedurazko eta jarrerazko edukien polarizazio bikoitza errespetatu beharra. Lehenengoek mugimenduaren arloan gai sentitzeko aukera emanen diete haurrei. Bigarrengeok aukera emanen diete jardura fisikoaren eta kirolaren inguruko egoera ugari eta konplexuei eta gorputzaren kulturako inguruko ikuspegi etiko batetik heltzeko. Bestalde, kontzeptuen jabe egiteak, nahiz eta aurreko eduki motei lotuta egon, gorputzari dagokion oro eta ingurune fisiko zein soziala ulertzen lagunduko die.

Arloak oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzea

Gorputz Hezkuntzaren arloak mundu fisikoa ezagutu eta harekin elkarrengaitzeko gaitasuna garatzen laguntzen du funtsean, norberaren gorputza hautemanen eta harekin harremanak izanez, bai mugimenduan bai geldirik, ziurgabetasuna duen edo ez duen ingurune batean, mugimendurako aukerak hobetuz. Jardura fisikoa ezagutu, landu eta baloratzea osasuna zaintzeko bidea ere badela aipatu behar da. Arlo hau gakoa da haurrek ohitura osasungarriak eta egoera fisikoa hobetu eta mantentzekoak har ditzaten eskolarako eta, are garrantzikoagoa dena, bizitza osorako.

Gaur egungo gizartean, ahalegin intelektual eta fisikoaren optimizazioerantz baitoa, behar-beharrezkoa da jardura fisiko arduratsua, baina batez ere jardura fisikoa oreka psikofisikorako, sedentarisismoaren ondoriozko arriksuei aurrea hartzeko eta, halaber, aisialdirako ona dela kontuan hartu eta hala baloratzea.

Horrekin batera, gaitasun soziala eta herritartasuna garatzeari ere funtsezko laguntza ematen dio. Gorputz Hezkuntzaren ezaugarriak, batez ere jardura hori egiteko inguruneari eta klaseen dinamikari eta elkarrengaitzeko dagozkienak, nolakoak diren ikusita, esaten ahal da trebetasun sozialak erakusteko egokia dela, hezkuntzak alderdi hori ukitzen duenean. Jardura fisikoak eta, bereziki, taldean egiten direnak oso baliagarriak dira harremanak, integrazioa eta errespetua lantzeko, eta lankidetzeta eta elkartasuna garatzen laguntzen dute gainera.

Gorputz Hezkuntza lagungarria da elkarrekin bizitzen ikasteko, batez ere taldean jarduteko arauak eman eta onartzeari dagokionez, betiere norberaren autonomia, parte-hartzea eta aniztasunaren balorazioa errespetatuta. Mugimendurako trebetasunak lortzeari begira egiten diren jarduerak ezinbestekoa dute desberdintasunak eta bakoitzaren eta bestearen ahalbideak eta mugak errespetatu eta onartzeko gaitasuna. Jokoen gaineko arauak betetzeak bizikidetzako jokabide kodeak onartzen laguntzen du. Lehiakortasuneko jardura fisikoek gatazkak sorrarazten ahal dituzte, eta horiek konpontzeko elkarrengaitzeko oinarritutako negoziatioa behar izaten da. Azkenik, jokoen eta dantzen bidez kultur aberastasuna ezagutzen eta estimatzen laguntzen dela aipatu behar da.

Arlo honek arte eta kutur gaitasuna lortzen laguntzen du neurriren batean. Gorputzaren eta mugimenduaren aukera eta baliabideak aztertu eta erabiliz ideia edo sentimenduak sormenez adierazten laguntzen da. Kultur egintza aintzat hartzen eta ulertzen eta kultur aniztasuna baloratzen laguntzen du, pertsonen mugimenduari dagozkion kultur agerpenak ezagutu eta aintzat hartuz, hala nola kirolak, joko tradizionalak, adierazpen jarduerak edo dantza, eta horiek guztiak herrien ondaretzat hartuz.

Beste alde batetik begiratuta, arlo honek kirola ikuskizun moduan ere ikusarazten du, kirolean izaten den indarkeria edo giza duintasunaren kontrako beste egoera batzuk aztertzearen eta horien gaineko gogoeta kritikoa egitearen bidez.

Gorputz Hezkuntzak norberaren autonomia eta ekimena lortzen ere laguntzen du, erabakiak geroz eta autonomia handiagoaz hartzera bultzatzen baitu ikaslea, bere burua hobetzen ari dela, jarraitutasunez jokatzen duela eta jarrera positiboa duela erakutsi beharreko egoeretan. Ikasleei jardura fisikoen eta kirol eta adierazpen jardueren banakako eta taldeko antolaketaren zenbait alderditan protagonismoa ematen zaienean ere hala gertatzen da.

Arlo honek, neurri txikiagoan, ikasten ikasteko gaitasunean laguntzen du, bakoitzak bere burua eta bere ahalbide eta mugak ezagutzea mugimendurako ikaskuntzaren abiapuntu hartuta, eta mugimenduari lotutako geroz eta zeregin konplexuagoetara iritsi ahal izateko askotariko errepertorioa garatuz. Horrek lortzen ahal diren helburuak ezartzeko bidea ematen du, eta helburuak lortzeko, jakina, autokonfiantza ekaritzen du. Era berean, taldeen jardura fisikoetako proiektu komunei esker errazagoa da lankidetzarako baliabideak lortzea.

Beste alde batetik, informazio eta komunikazio bideetatik gorputzaren inguruan iristen diren mezuak, bakoitzak bere gorputzari buruz duen irudiarri kalte egin diezaioketenak, kritikoki baloratzen laguntzen die arlo honek ikasleei, txiki-txikitatik. Ikuspegi honetatik begiratuta, in-

formazioaren tratamenduaren eta gaitasun digitalaren gaitasuna lantzen ere laguntzen du, neurri batean.

Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna lantzeko ere lagungarria da arlo hau, gainerako ikaskuntzak bezala, komunikazio trukeak, horien gaineko arauen erabilerak eta arloko berariazko hiztegia ikasteko aukera ematen baitu.

Helburuak

Etapa honetan Gorputz Hezkuntzak gaitasun hauek garatzea izanen du helburu:

1. Arloari dagozkion dokumentu eta mezuak, ahozkoak, idatziak, gorputzaren bidezkoak eta ikus-entzunezkoak, zuzen ulertu eta adieraztea.
2. Gorputza eta jardura fisikoa ezagutu eta baloratzea, mugimendurako aukerak eta besteekiko harremanak aztertu eta horiek in gozatzeko bide diren aldetik eta aisia antolatzeko baliabide.
3. Jardura fisikoak ongizatea lortzen laguntzen duela aintzat hartzea, nor bere buruarentzat eta besteentzat jarrera arduratsua agertuz eta ariketa fisikoaren, higienezaren, elikaduraren eta osasunari buruzko ohituren ondorioez ohartuz. Inguru eta egoera desberdinetan segurtasunez jokatzen ikastea, bai besteeki begira bai norberari begira.
4. Gaitasun fisikoak, mugimendu trebetasunak eta gorputzaren egiturari zein funtzionamenduari buruzko ezagutza erabiltzea mugimendua egoera bakoitzeko inguruabar eta baldintzetara egokitzeko.
5. Mugimendu arazoak konpontzeko printzipio eta erregelak eskuratu, hautatu eta aplikatzea, eta jardura fisikoak, kirolak eta arte zein adierazpen jarduerak egiten direnean modu eraginkor eta autonomoan jokatzea.
6. Ahalegina erregulatu eta neurtzea, bakoitzaren ahalbideen eta zereginaren izaeraren araberrako autoexijentzia mailara iristeko.
7. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen baliabideak modu estetiko eta sormenezkoan erabiltzea, sentsazio, emozio eta ideiak helaraziz.
8. Jardura fisikoetan parte hartzea proiektuak partekatuz, helburu komunitaria iristeko lankidetzan arituz, sortzen ahal diren gatazkak elkarrengaitzeko bidez konpontuz eta ezaugarri pertsonalak, generokoak, sozialak eta kulturalak direla-eta izaten ahal diren bereizkeriak saihestuz.
9. Jardura fisikoek eta jolas eta kirol jarduerak kultur elementu gisa duten aniztasuna ezagutu eta baloratzea, eta bai parte-hartzailearen bai ikuslearen ikuspegitik begiratuta jarrera kritikoa agertzea.
10. Liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ohitzea, gauzak ikasi eta ikasitakoa partekatzeko baliagarriak baitira.

Lehen zikloa

Edukiak

1. multzoa.—Gorputza: irudia eta hautematea
 - Zentzumenezko ahalbideak. Sentsazioak aztertu eta bereiztea. Gorputza orokorrean hartuta hauteman, identifikatu eta irudikatzea. Gorputz atalak eta gorputz segmentuak eta horiek mugimendurako dituzten ahalbideak ezagutzea.
 - Bakoitzaren gorputzak tentsioaren, lasaitzearen eta arnasketaren arabera nola jokatzen duen oharretzea. Arnasketa faseak identifikatzea, arnasketa behatu eta saiakuntzak egitea egoera desberdinetan eta lasaitzearekin lotuta.
 - Gorputz jarrera desberdinekin probak egitea.
 - Lateralitatea finkatzea.
 - Oreka eta desoreka egoerekin saiakuntzak egitea, oinarri zabal, egonkor eta lurretik hurbileko bat izanik.
 - Espazio eta denbora erlazioei lotutako nozioak. Espazioaren eta denboraren hautematea.
 - Koordinazio dinamiko egonkorra eta begi eta mugimendua.
 - Nor bere gorputza eta besteena onartu eta errespetatzea.
2. multzoa.—Mugimendurako trebetasunak
 - Mugimenduaren forma eta aukerak. Mugimendurako oinarrizko trebetasunak gauzatu eta kontrolatzeko modu desberdinekin saiakuntzak egitea.
 - Mugimendua kontrolatu eta menderatzea ekintzaren aurreko planteamenduan oinarrituta (mugimenduaren arrazoitzea), hautematearen mekanismoetan arreta handiagoa jarritz.
 - Mugimendu arazo errazak konpontzea.
 - Oinarrizko gaitasun fisikoen garapen oinarrizko eta orokorra, joko egoerez baliaturik.
 - Era askotako jardueretan parte hartzearen aldeko jarrera izatea, trebetasun maila ezberdinak daudela onartuta.

3. multzoa.—Arteri eta adierazpenari lotutako jarduera fisikoak

- Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen aukerez jabetu eta horiek in saiakuntzak egitea.

- Gorputz-hautematearen sentsibilizazio eta garapena, bai norberaren gorputzean bai besteenean.

- Mugimendua pultsazioekin eta erritmo egitura errazekin sinkronizatzea.

- Emozio eta sentimenduak keinuen eta mugimenduaren bidez adierazi eta komunikatzea, eguneroko egoerak, sentsazioak eta gogoaldarteak herabetasunik gabe azalduz.

- Ereduak imitatzea, pertsonaia, objektu eta egoerak azaltzen direnean.

- Norberaren gorputzaren bidezko adierazpenarekin gozatzea. Mugimendua sekuentzia eta erritmo errazetara egokitzea, eta mugimenduaren kalitateak aztertzea.

- Objektu eta materialekin gauzak adierazteko dauden aukerak.

- Gorputzaren bidezko komunikazioa eskatzen duten egoeretan parte hartzea.

- Adierazpen moduetan dauden desberdintasunak ezagutu eta baloratzea.

4. multzoa.—Jarduera fisikoa eta osasuna

- Gorputzaren higienean, elikaduran eta jarreretan oinarriko ohi-turak hartzea, jarduera fisikoarekin lotuta betiere.

- Jarduera fisikoa eta gorputza zaintzea, osasunarekin eta ongizatearekin lotuta.

- Gorputza mugitzea, osasunari begira.

- Jarduera fisikoa egiten denean materialak eta eremuak erabiltzeko arauak betetzea.

5. multzoa.—Jokoak eta kirolak

- Jokoa, kultura guztietako jarduera. Joko libre eta antolatua egitea. Joko tradizional eta herrikoak.

- Lankidetzako, aurkaritzako eta lankidetzako aurkaritzako egoera kolektiboak jabetzea, kasuan kasuko joko arauak betetzea eta jokoan eginkizun desberdinak onartzea.

- Jokoan parte hartzen duten pertsonak aintzat hartu eta baloratzea eta jokoan aktiboki parte hartzea, eginkizuna, kideak, modalitatea eta abar zein diren kontuan hartu gabe.

- Jokoaren arauak ulertu eta betetzea.

- Norberaren ahalbideetan konfiantza izatea eta ahalegina egitea jokoetan aritzean.

- Jokoa gozamerako eta besteekin harremanak izateko bide den aldetik baloratzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Ikusizko, entzunezko eta ukimenezko estimuluaren aurrean gorputzaren bidez erreakzionatzea, estimulu horien ezaugarrien arabera koak diren mugimenduzko erantzunak emanez.

Mugimendua baldintza dezaketen estimuluak bereiziz ematen den erantzuna ebaluatu nahi da irizpide honen bidez. Egiaztatuko da ohiko objektu eta testurak ukimenez bereizten badakiten, eguneroko soinuen jatorria zein den jakin eta identifikatzeko gai diren, objektuen eta gauza mugikorren ibilbideak jarraitu eta interpretatzeko gauza diren eta beren mugimenduetan lateralitatea bereizten duten. Estimulua desagertu eta gero entzun eta ikusitakoa gogoratzeko duten gaitasuna ere ebaluatuko da, hau da, entzunezko eta ikusizko memoria.

2. Era askotan mugitu eta jauzi egitea, euste puntuak, zabalatasunak eta maiztasunak aldatuz, koordinazioa eta espazioko orientazio ona hobetuz.

Irizpide honekin ebaluatuko da modu ezberdinetan eta inguru hurbileko espazioetan orientatuz mugitu eta jauzi egiteko gaitasuna. Kontuan hartuko da ikasleek gorputzaren jarrerak eta mugimenduen norabidea eta zentzua aldatuz beren ahalbideak aztertzearen prestasuna. Gorputz jardueran, mugimendurako gaitasuna handitzeko, luze-tarako eta zeharkako ardatzaren inguruan biratzeko trebetasunak baliatzen diren ebaluatuko da. Lekualdatzeak eta jauziak jokoan eta beste mugimendu egoera batzuen baldintzetara egokitzearen gaitasuna izan dena kontuan bereziki.

3. Objektuak erabiltzea eskatzen duten jaurtiketak eta harrerak eta beste trebetasun batzuk, gorputz segmentuak ongi koordinatuta eta gorputza jarrera egokian ipinita.

Objektuak erabiltzea eskatzen duten trebetasunetan garrantzitsua da keinua joko egoeretan nola koordinatu eta erabiltzen den egiaztatzea. Gorputza keinua errazteko modu egokian jarri eta bideratzen den ikusteak ere garrantzia du. Indarra eta doitasuna ez dira sartzen arlo honetan.

4. Gorputza jarrera desberdinetan orekatzea, tentsioa, lasaitasuna eta arnasketa kontrolatuz.

Ikasleek, ziklo honetan, muskuluen tonuaren nolabaiteko kontrola lortu behar dute, eta gorputz segmentu ezberdinetan beharrezkoak

diren tentsioak aplikatzeko gauza izan behar dute, orekatu ahal izateko. Jarrerak dibertsifikatu egin behar dira, eta horrela oreka baldintzatan duten estimuluaren aurrean nola erreakzionatzen den egiaztatzen ahal da. Ebaluazioan ez da ereduaren imitazioa bilatu behar, baizik eta, bereziki, ikasleek jarrera desberdinak hartzeko duten ekimena.

5. Jokoetan parte hartu eta gozatzea, mugimenduari eta harremanei dagokionez beren ekintza egokituz, eta sortzen ahal diren frustrazio txikiak onartuz.

Jokoan aktiboki parte hartzen duten ikusiko da, hain zuzen ere lekualdatzei, norabide aldaketei, espazioko orientazioari, estimuluak bereizteari eta abarri dagokion orotan. Kideekin harreman onak sortzen laguntzen duten alderdiak hartuko dira kontuan batez ere, esate baterako jokoetako arauak errespetatzea eta eginkizun ezberdinak onartzea, bai eta parte-hartzaileen artean inolako bereizkeriarik ez egitea ere.

6. Erritmo egitura bat gorputzaren bidez eta/edo elementuak (oi-halak, zintak, tresnak...) erabiliz berregitea.

Ikasleak erritmo egitura erraz bat berregiteko gai diren egiaztatu nahi da. Berregitea gorputza mugituz (lekualdatzeak, jauziak, txaloak, kolpeak, kulunkatzeak, biraketak) eta/edo perkusio tresnak erabiliz egiten ahal da.

7. Pertsonaiak eta egoerak gorputzaren eta mugimenduaren bidez sinbolizatzea, herabetasunik gabe eta aietasunez.

Garrantzitsua da beren gorputzarekin esperimentatzeko gai izatea eta keinuaren eta mugimenduaren bidez gauzak adierazten ahal dituztela ohartzea. Estereotipoetatik urrun dauden adierazpen modu berriak bilatzeko ekarpen eta ahalegina baloratuko da. Halaber, proposamenetan sartzeko eta "pertsonaiaren barruan" sentitzeko ahalegina ere kontuan izan dena, antzestu beharrezko pertsonaia inolako aurreiritzirik gabe onartuz.

8. Gorputza zaintzeko arauak betetzearen gaineko interesa agertzea, higieneari eta jarduera fisikoko arriskuak ohartzeari dagokionez, eta jarduera fisikoaren eta osasunaren arteko lotura zuzenen bat identifikatzea.

Osasunari eta ongizateari begira ohitura batzuk hartzearen aldeko joera izan dena irizpide honen oinarria. Egiaztatu nahi da ea ohartzen diren jarduerak fisikoa egin aurretik ongi elikatu behar dela, gorputzak higie onek behar duela, oinetako egokiak erabili behar direla, etab., bai eta autonomia mailaren bat ikusten zaien ere. Gainera, jarduera fisiko batzuek banakakoentzat zein taldeentzat dituzten arriskuak identifikatu eta gogoan hartu behar dituzte.

9. Beren esperientziak ahoz eta idatziz azaltzea eta beren pentsamenduak arloko berariazko hitzak erabiliz adieraztea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da arloko testuen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna, eta ikasi den berariazko hitzgegiaren erabilera nolakoa den.

Bigarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.—Gorputza: irudia eta hautematea.

- Hautemateko ahalbideak. Hautemateko gaitasunak eta horiek mugimenduarekin duten lotura aztertzea.

- Mugimenduarekin zerkusia duten elementu organiko-funtzionalez jabetzea.

- Gorputzaz ohartu eta kontrolatzea eta bakoitzaren gorputzak tentsioaren, lasaitzearen eta arnasketaren arabera nola jokatzen duen ohartzea.

- Nork bere gorputza eta besteena irudikatzea. Gorputzaren jarreraz, ardatzez, planoaz eta segmentuez ohartzea.

- Jarrera adierazpen eta mugimendu beharretara egokitzea.

- Lateralitatea finkatzea eta espazioan azaltzea. Gorputzaren simetria.

- Oreka estatiko eta dinamiko. Geroz eta konplexuagoak diren egoerak, oinarria eta egonkortasuna murriztuz eta grabitate zentroa goratuz.

- Espazioaren eta denboraren antolaketa.

- Koordinazio dinamiko-orokorra.

- Norberaren gorputza eta besteena den bezala baloratu eta onartzea.

2. multzoa.—Mugimendurako trebetasunak.

- Mugimenduaren forma eta aukerak. Oinarriko mugimendu trebetasunak gauzatzearen funtsezko elementuak doitu eta finkatzea (mugimendu eredu bat baino gehiago konbinatuz).

- Oinarriko mugimendu trebetasunak ingurune eta egoera egonkor eta ezagunetan modu eraginkorrean erabiltzea.

- Mugimendua kontrolatu eta gorputza menderatzea ekintzaren aurreko planteamenduan oinarrituta (mugimenduaren arrazoitzea), eta kontrol neuromuskularrean eta jada ezagutzen diren mugimenduen kalitatean arreta handiagoa jarri.

- Oinarrizko kalitate fisikoak hobetzea, orokorrean eta mugimenduetara bideratuta, arreta malgutasunean eta erresistentzia aerobikoaren eta abiaduraren hasieran jarriz, jokoaren formen bitartez.

- Mugimendurako gaitasuna hobetzeko interesa.
- Era askotako jardueretan parte hartzearen aldeko jarrera izatea, trebetasun maila ezberdinak daudela onartuta.

3. multzoa.—Arteari eta adierazpenari lotutako jardueren fisikoak

- Gorputza eta mugimendua adierazpen eta komunikaziorako tresna gisa.

- Mugimendua espazio-denborako egituretara egokitzea eta dantza eta koreografia errazak egitea.

- Emozio, sentimendu, ideia eta egoerak gorputzaren, keinuaren eta mugimenduaren bidez adieraztea.

- Egiazko eta fikziozko pertsonaiak eta beren testuinguru dramati-koak berregitea.

- Objektuak eta materialak erabiltzea, eta adierazpenerako dituzten aukerak.

- Norberaren gorputzaren bidezko adierazpen eta komunikazioa-reen gozatzea.

- Gorputzaren bidezko komunikazioa eskatzen duten egoeretan parte hartzea. Adierazpen moduetan dauden desberdintasunak ezagutu eta baloratzea.

4. multzoa.—Jarduera fisikoak eta osasuna

- Gorputzaren jarreretan eta elikaduran ohitura osasungarriak hartzea, jarduera fisikoarekin lotuta betiere, eta gorputzaren higienezko aldeko ohiturak finkatzea.

- Jarduera fisikoak osasunarekin, ongizatearekin eta garapen pertsonalarekin lotzea. Jarduera fisikoak osasunean dituen onurez jabetzea. Egoera fisikoak oro har hobetzea, osasunari begira.

- Osasunarekin zerikusia duen jarduera fisikoaren inguruan erantzukizuna eta interesa agertzea.

- Jarduera fisikoetan norbera segurtasunez aritzea. Berotzea, ahal-egina neurtzea eta lasaitzea. Bakoitza bere mugez ohartzea, eta jardueretan kontzentrazioa izan eta arreta jartzea.

- Jarduera fisikoak egitean segurtasunerako oinarrizko neurriak hartzea, ingurunea dela eta. Materialak eta espazioak zuzen eta errespetuz erabiltzea.

5. multzoa.—Jokoak eta kirolak

- Jokoa eta kirola gizartearen elementu.

- Jokoetan parte hartzea eta kirol jardueretan hastea.

- Lankidetzarekin, aurkaritzarekin eta lankidetzaz/aurkaritzarekin zerikusia duten jokoaren oinarrizko estrategiez jabetzea.

- Modu aktiboan eta interesa agertuz parte hartzea kirol aurreko jokoetan, tradiziozkoetan, herrikoietan, abenturazkoetan eta egokitu-etan.

- Jokoan parte hartzen duten pertsonak errespetatzea eta gizartearen aurkako jokabideak arbuizatea.

- Jokoa arauak ulertu, onartu eta betetzea, joko garbian aritzea, ezarritako estrategien aurrean arduraz jokatzeko eta bakoitzaren eta besteen trebetasun maila onartzea.

- Jokoa gozamerako, besteekin harremanak izateko eta aisiako denbora betetzeko bide den aldetik baloratzea, eta jokoetan zein kirol jardueretan ahalegina baloratzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Mugitu eta jauzi egitea, bi trebetasun horiek modu koordinatu eta orekatuan konbinatuz, gorputzaren mugimenduak jardueraren baldintzen zenbait aldaketan arabera egokituz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da modu desberdinetan eta abiadura aldakorrek, norabide eta zentzu aldaketekin eta oztopo txikiak gaindituz mugitu eta jauzi egiteko gaitasuna kualitatiboki zenbat hobetu den. Mugimendu edo jauzi mota desberdinak konbinatzean berrorekatzeko gaitasunean jarriko da arreta, bai eta norberaren mugimenduetan eta besteetan lateralitatea bereizteko gaitasunean ere. Bereziki begiratu zaio mugimendu arazoak konpontzeko eta espazioan orientatzeko gaitasunari, mugimendu eta jauziak baldintza berrietara egokitu ahal izateko.

2. Pilotak edo beste gauza mugigarri batzuk jaurti, pasatu eta jasotzea, horien kontrola galdu gabe eta mugimenduak ibilbideen arabera egokituz.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da objektuak erabiltzea eskatzen duten trebetasunetan nolako koordinazioa duten eta joko egoeretan nola erabiltzen diren. Objektuak pasatu, jaurti, eraman eta talka egitean ibilbideen egokitasuna kontuan hartuko da. Objektuak hartu eta gelditzean gorputza nola bideratuta dagoen begiratu da. Indarra ez da sartzen arlo honetan.

3. Luzetarako eta zeharkako ardatzaren inguruan biratzea, kokapen segmentarioak dibertsifikatuz eta gorputz jardueretan beharrezkoak diren mugimenduzko erantzunak hobetuz.

Gorputz biraketei dagokienez, eguneroko jardueretan erabiltzeko duten gaitasuna egiaztatu beharko da. Luzetarako ardatzaren inguruko biraketak mugimendu eta jauziekin, norabide eta zentzu aldaketekin lotuta egoten ahalko dira. Ebaluazioa egitean, aurrez zehaztutako eredu-imitazioa bilatu beharrean, biraketa desberdinak mugimenduzko erantzun egoki eta sormenezkoak emateko erabiliko dira, betiere arriskua saihestuz.

4. Modu koordinatuan eta lankidetzaren bidezkoan jokatzeko erronkei irtenbidea aurkitzeko edo talde joko batean aurkari bati edo batzuei aurre egiteko.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da joko egoeretan elkarrekin modu egokian aritzeko gai diren, talde bateko kideek elkarri laguntzen diotela. Ikusi behar da, halaber, aurkaritzako egoeretan jokalariek joko errazten duten posizioak hartzen ote dituzten jokalekuan, esate baterako toki librean hartu edo jokoaren norabidearen aldera jo.

5. Talde jokoetan parte hartzea, zeregin desberdinak hartuz, eta parte-hartzea, lankidetzaz, elkarri laguntza ematea eta arauak errespetatzea jokoan funtsezko baliozkoak jo eta emaitzei baino garrantzi handiagoa ematea.

Mugimendurako trebetasun batzuek eta trebetasun sozial batzuek baldintzatuko dute jokoan erabateko parte-hartzea izatea. Bestalde, kontuan hartuko da mugimenduaren eraginkortasuna eta ahalegina egin eta egoera fisikoak aprobetxatzeko gaitasuna, jokoan erabateko parte-hartzea izateko. Horretaz gainera, parte-hartzaileei harreman onak izaten laguntzen dieten trebetasun sozialak ere kontuan hartuko dira (arauak errespetatzea, besteak kontuan hartzea, estereotipoetan, aurreiritzietan, etab. oinarrizkoak bereizkeria eta lehiak saihestea).

6. Erritmo egitura bat gorputzaren bidez edo elementuak (oihalak, zintak, tresnak...) erabiliz berregitea.

Irizpide honekin ebaluatuko da haurrak gai ote diren erritmo egitura erraz bat asmatu eta berregiteko, bai jada ezagutzen dituzten elementuak konbinatuz, bai elementu berriak erabiliz. Berregitea gorputza mugituz (lekualdatzekoak, jauziak, txaloak, kolpeak, kulunkatzekoak, biraketak) eta/edo perkusio tresnak erabiliz egiten ahal da.

7. Gorputzak adierazpenerako dituen baliabideak erabiltzea, eta taldean parte hartzea ideia, emozio eta sentimenduak azaltzeko eta pertsonaia, objektu eta istorioak, egiazkoak edo asmatuak, eszenifikazio edo imitazio bidez antzetzeko.

Ikasleek beren taldean parte hartzea garrantzizkoa da adierazpenerako sekuentzia txikiak egiteko. Sormenezko proposamen bat antolatu eta prestatzerakoan elkarrekin ardurarako duten joera baloratuko da irizpide honekin. Eszenaratzean, kontuan hartuko dira keinu esanguratsuak, bai eta besteak adierazten dutenari arreta jartzeko, mezua jasotzeko eta akzioari argumentuaren haria errespetatuz segitzeko gaitasuna ere.

8. Jokabide aktiboak izatea, jarduera fisikoak osasunerako duen baliorekin bat heldu direnak, eta gorputza zaintzeko interesa agertzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak ohartzen ari ote diren jarduerak fisikoak osasunerako dituen ondorio onez, gorputza zaintzearen garrantziaz eta joko zein jardueretan beharrezkoak ez diren arriskuak saihesteko jarreraz. Gainera, gaitasun fisikoak garatzen ari diren ere baloratu nahi da, horretarako emaitzak konparatu eta aurre-erapenak ikusi ahal izateko ondoko ondoko behaketak eginez, helburua jarduera fisiko ona mantentzea dela ahaztu gabe, osasunari begira noski.

9. Beren esperientziak ahoz eta idatziz azaltzea eta beren pentamenduak arloko berariazko hitzak erabiliz adieraztea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da arloko testuen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna, eta ikasi den berariazko hiztegiaren erabilera nolako den.

Hirugarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.—Gorputza: irudia eta hautematea

- Mugimenduetan lotuta dauden elementu organiko-funtzionalak.

- Gorputzaz ohartu eta kontrolatzea, bai geldirik bai mugimenduan dagoela.

- Kontrol tonikoa eta arnasketarena aplikatzea mugimenduaren kontrolari.

- Jarrera adierazpen eta mugimendu beharretara egokitzea, modu ekonomiko eta orekatuan.

- Estimuluen arteko bereizkeria eta pertzepziozko aurre hartzea egokiro erabiltzea.

- Zail samarrak diren mugimenduak nagusiak ez diren gorputz segmentuekin egitea.

- Egoera ezegonkorretan eta geroz eta konplexutasun handiago-koetan koordinazioa eta oreka estatiko eta dinamikoak izatea.

- Espazioaren eta denboraren egituraketa mugimenduzko ekintza eta egoera konplexuetan.

▪ Norberaren gorputza eta besteena den bezala baloratu eta onartzea, gaur egun gizartean gorputzari eta estetikari buruz indarra duen ereduaren aurrean jarrera kritikoa agertuz.

2. multzoa.–Mugimendurako trebetasunak.

▪ Mugimendurako trebetasunak geroz eta konplexuagoak diren saioretara egokitzea, eraginkortasunez eta sormenez, mugimenduko hiru eredu edo gehiagotatik abiatuta.

▪ Mugimendua eta gorputza menderatzea ekintzaren aurreko plan-teamenduan oinarrituta (mugimenduaren arrazoitzea), erabakitzearen eta kontrolaren mekanismoetan arreta handiagoa jarri.

▪ Egokitzapen fisikoa, mugimendurako trebetasunak hobetu gauzatu ahal izateko.

▪ Mugimenduaren ikuspuntutik ongi eginda dagoen lana baloratzea.

▪ Segurtasuna, autonomia pertsonala eta era askotako jardueretan parte hartzearen aldeko jarrera izatea, trebetasun maila ezberdinak daudela onartuta.

3. multzoa.–Arteari eta adierazpenari lotutako jarduera fisikoak

▪ Gorputza eta mugimendua. Gorputz hizkuntzaren aukera eta baliabideak aztertu eta aintzat hartzea.

▪ Mugimenduen konposizioa, erritmo eta musikako estimuluetatik abiatuta. Dantza, dantza herrikoi eta koreografia errazak prestatu eta garatzea.

▪ Ideia, mezu, sentimendu eta emozio pertsonal eta konpartituak gorputzaren, keinuaren eta mugimenduaren bidez adierazi eta komunikatzea, bai bakarkako lanetan bai taldeko jardueretan.

▪ Pertsonaiak, eszenak eta egoerak prestatu eta antzeztea, eta gorputz-jarrerak, keinuak, soinuak, gogo-aldarteak gauzatzen direnean mugimenduaren kalitateak integratzea.

▪ Antzeppen eta inprobisazio artistikoak egitea gorputzaren bidez eta objektu eta materialen laguntzarekin.

▪ Gorputza adierazpenerako eta komunikaziorako erabiltzen ahal dela baloratzea.

▪ Gorputzaren bidezko komunikazioa eskatzen duten egoeretan parte hartu eta hori errespetatzea.

4. multzoa.–Jarduera fisikoa eta osasuna

▪ Gorputzaren jarreretan eta elikaduran ohitura osasungarriak hartzea eta gorputzaren higienean autonomia izatea.

▪ Jarduera fisikoak osasunean dituen onurez jabetzea, bai eta garapen pertsonalerako duen garrantziaz ere, eta oso osasungarriak ez diren ohiturak identifikatzea.

▪ Egoera fisikoa hobetzea, osasunari begira.

▪ Jarduera fisikoan lesioei aurrea hartzea. Berotzea, ahalegina neurtzea eta errehabilitazioa.

▪ Jarduerak egiten direnean ardura, kontzentrazioa eta arretaz jokatzeari, batez ere norberarentzat edo besteentzat arriskuren bat izaten ahal den egoeretan.

▪ Jarduera fisikoa egitean segurtasunerako neurriak hartzea, ingurunea dela eta. Materialak eta espazioak zuzen eta errespetuz erabiltzea.

▪ Osasuna mantendu eta hobetzera bideratutako jarduera fisikoa eta gorputz-ohitura osasungarriak baloratu eta horiekiko interesa agertzea, eta substantzia eta jarrera kaltegarriak baztertea.

5. multzoa.–Jokoak eta kirolak

▪ Jokoa eta kirola, gizarte eta kultur fenomeno gisa.

▪ Joko motak eta kirol aurreko jarduerak. Zenbait motatako jokoak eta kirol jarduerak egitea; geroz eta zailagoak eta ingurune ezberdinetakoak.

▪ Lankidetzarekin, aurkaritzarekin eta lankidetzak/aurkaritzarekin zerikusia duten jokoaren oinarriko estrategiak egoki erabiltzea, bai eta mugimendu egoerak, estrategiak eta erabakiak ere.

▪ Kirol aurreko jokoak, joko herrikoiak, esplorazio eta abenturazkoak egitea, bai eta kirol egokituak ere, zeregin desberdinak, trebetasun mailak eta mugak baloratu, onartu eta errespetatuz eta bizikidetzari laguntzen dioten jarrerak garatuz.

▪ Jokoa arauak, erregelak, estrategiak eta pertsonak onartu eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat prestatu eta betetzea.

▪ Ahalegin pertsonala eta taldearena baloratzea joko mota eta kirol jarduera guztietan, gogokoagoa dena eta aurreiritziak alde batera utzita.

▪ Jokoa eta kirol jarduerak gozamenarako, besteekin harremanak izateko eta aisiako denbora egoki eta modu osasungarrian erabiltzeko bide diren aldetik baloratzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Mugimendua, jauziak eta oinarriko beste trebetasun batzuk ezezagunak diren eta ziurgabetasun pixka bat sortzen ahal duten ingurunean arabera egokitzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek mugimendu arazoak konpontzeko duten gaitasuna, trebetasunak ingurune baldintza geroz

eta konplexuagoetara egokitzean. Era berean, espazioan orientatzeko gaitasuna ere ebaluatuko da, hain zuzen ere erreferentzia puntuak hartuz, toki batetik bestera joateko mapa errazak interpretatuz, bide egoki bat hartuz orientatzeko gaitasuna.

2. Pilotak edo beste gauza mugigarri batzuk jaurti, pasatu eta jasotzea, horien kontrola galdu gabe halakoak behar diren jokoetan eta mugimenduzko jardueretan, eta jokalekuko posizioaren, distantzien eta ibilbideen arabera egokituz.

Objektuak menderatzen diren egiaztatu behar da, baina batez ere joko egoeretan nola erabiltzen diren, hau da, taldeko kideak eta aurkariak kontuan hartuta. Horregatik, garrantzizkoa da gorputza mugitzen den gauzaren arabera nola bideratzen den ikustea. Ibilbide eta abia-durei aurrea hartzeko gaitasuna ere kontuan hartu beharko da.

3. Modu koordinatuan eta lankidetzaren bidezkoan jokatzeari errorei irtenbidea aurkitzeko edo talde joko batean aurkari bati edo batzuei aurre egiteko, bai erasotzaile gisa bai babesle gisa.

Joko egoeretako elkarreraginak ebaluatu nahi dira irizpide honen bidez. Talde bateko kideen arteko laguntza eta lankidetzak nolako den ikusi nahi da. Aurkaritzako ekintzak ere aztertuko dira, hala nola jaurtitzaren denari bidea moztea edo aurkariari aurrera egitea zailtzea. Jokalariak jokalekuan lankidetzak eta aurkaritzak errazten duten posizioak dituzten ere begiratu behar da.

4. Jokoen eta kirol jardueren funtsezko balioak ondoko hauek direla ohartzea: ahalegin pertsonala, taldearekin ezartzen diren harremanak eta kideekin bat etorri jokatzeari, arauak betetzea eta materiala zaintzea.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleek talde lanari garrantzia ematen dioten, ahaleginak gogobetetzen dituen eta joko garbia errespetatzen duten, bai eta joko eta kirolaren ezartzen diren harreman pertsonalak ere, jardueraren beraren emaitzen (irabazi edo galtzearen) gainetik betiere, eta neskekin zein mutilekin jokatzeko duten, modu integratzailean.

5. Iritzi koherente eta kritikoa ematea jarduera fisikoa eta kirola egitean sortzen diren gatazkei buruz, eta kideen iritziak onartzea, elkarriketa, ituna eta errespetua konponbidetzat jotzeaz batera.

Egindako lanaz eta sortutako egoerez gogoeta egitea eta gorputzarekin, kirolarekin eta horien kultur agerpenekin zerikusia duten gaur egungo gaiak izanen dira irizpide honen bidezko ebaluazioaren xedea. Zenbait gaitasun hartuko dira kontuan, hala nola iritziak sortu eta adierazteko gaitasuna, eztabaida egoki baterako ohiturak hartzeko, eta bakoitzak bere irizpidea izaten eta, aldi berean, besteen ikuspegia ulertzen ere uzten duen gaitasuna.

6. Jarrera aktiboak izatea egoera fisiko orokorra hobetzeko, ekintzak bakoitzak gorputzaren eta mugimenduaren aldetik dituen ahalbide eta mugen arabera egokituz.

Ikasleek beren egoera fisikoa hobetzeko lagungarri izanen diren jokoak aktiboak izateko interesik baduten begiratu da. Aldi berean, unean uneko mugimendu garapenerako arabera gaitasun fisikoak garatu dituzten ere begiratu da. Horretarako beharrezkoa izanen da ondoz ondo behaketak egitea, emaitzak konparatuz eta aurrerapenak nolakoak izan diren ikusiz. Halaber, ahalegina neurtzeko eta ariketa norberaren ahalbide eta mugetara egokitzeko gaitasuna hartuko da kontuan.

7. Taldeko konposizioak prestatzea kideekin batera arituz; horretarako, gorputzak adierazpenerako dituen baliabideak erabiliko dira, eta estimulu musikal, plastiko edo hitzezkoetatik abiatuko da, ideia eta sentimenduak komunikatu eta irudikatuz.

Irizpide honekin baloratu nahi da taldean lan egiteko duten gaitasuna, helburuak partekatuz, ikuskizun txiki bat prestatu ahal izateko. Bestalde, sentsazioak, mezuak, etab. keinuaren eta mugimenduaren bidez modu ulergarrian komunikatzeko duten gaitasuna, banakakoa eta taldekoa, behatuko da, eta, horri lotuta, adierazpenean elementuak behar beste lasaitasunez, herabetsunik gabe, sormenez eta estilo propioa azalduz helarazteko gai diren ere behatuko da.

8. Ariketa fisikoa zuzen eta ohikotasunez egitearen eta norberaren eta taldearen osasuna hobetzearen arteko lotura batzuk identifikatu eta horiei jarraikiz jokatzeari.

Egiaztatu behar da ikasleek lotura koherenterik ezartzen ote duten alderdi konzeptualen eta ohitura osasungarriak hartzearen inguruko jardueren artean. Ondokoetarako joerarik baden ikusiko da: ariketa fisikoa egitea, sendetarisua alde batera utziz, gorputz jarrera zuzenak izatea, modu orekatuan elikatzea, behar bezala hidratatzea, jarduera fisikoak egiten direnean beharrezko ardura eta arretaz jokatzeari, arriskuak saihestuz...

9. Beren esperientziak ahoz eta idatziz azaltzea eta beren pentsamenduak arloko berariazko hitzak erabiliz adieraztea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da arloko testuen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna, eta ikasi den berariazko hiztegiaren erabilera nolako den.

HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA

Arlo hau lehen aldiz sartu da curriculumean bereizita, eta horrek erakusten du herritarrekiko kezka oso toki nabarmena duela hezkuntza jardueretan, nazioarteko erakundeen, hala nazio Batuen edo Europar Kontseiluaren, ildo berean. Europar Batasunak ere gizarte demokratiakoan herritartasun arduratsua bultzatzeko ahalegina egiten du, gizarte kohesioa eta europar identitate bateratu bat lortzeko bide gisa.

Herritartasun arduratsurako ikaskuntzak eskubide eta ardura zibikoak ezagutu eta gauzatzearekin lotura duten alderdiak biltzen ditu, eta ikaskuntza prozesu luzea eskatzen du, hain zuzen ere haurrek afektuzko harremanak ezartzean, ohitura sozialak hartzean eta pentsamendu kritikoa garatzeko teknikak ikasteen hasten dena. Ikaskuntza horrek eskatzen du ikastetxean eta komunitatean parte-hartze aktiboa izaten hastea eta, hala, parte-hartze demokratikoaren oinarriak bereganatzea.

Haur Hezkuntzatik hasita eta Lehen Hezkuntza osoan, arlo desberdinetan eta, bereziki, Natur, gizarte eta kultur ingurunearen ezagueraren arloan, arlo berri honen berriazko helburu diren alderdi asko landu dira: norberaren identitatea eta bestearena, entzuten ikastea, txanda errespikatzea, materialak partekatu eta zaintzea, bakarrik edo besteekin batera adieraztea, bera bezalakoeekin eta helduekin harremanak izatea. Azken batean, honako hauek bultzatu dira: autonomia pertsonala, autoestimua, ohitura sozialak hartzea, bakoitzak bere irizpideak agertzea, besteen iritzia errespetatzea, besteenganako errespetua, eskolan zein familiar gatazkak konpontzeko elkarrizketa eta negoziazioa lantzea.

Hori horrela, Lehen Hezkuntzako azken zikloan, une horretan sartzeko baita arlo hau, haurrak ikuspegi zabalagoa hartzeko gai dira, hartutako ohituretatik haratago jotzeko taldeko lanari, gelako bilera edo batzarretako parte-hartzeari eta ohitura sozialei dagokienean. Era berean, giza eskubideak unibertsalak dira eta, adin horretan, esparru hori ulertzeko gai izateaz gainera, herrialde batekoak ez ezik gizarte global batekoak ere badirela ohartzen ahal dira.

Nerabezaren hasiera trantsizio garai bat da eta horretan afektuzko harremanak aldatu egiten dira. Garai horretako ikasleak sozializazio zabalagoan hasten dira, berdinen taldeetan modu autonomoan parte hartzen, era askotako elkarteak osatzen, etab. Bigarren Hezkuntzarako bidea prestatzea komeni da, harreman pertsonal eta instituzionalen sistema berrirako bidea, ordezkariaren oinarritutako parte-hartzea baitakarte eta horrek entrenamendua eskatzen baitu. Arlo hau esparru ezin hobea da horretarako.

Arlo honetako ikaskuntza ezagutzak lortzeko haratago doa, eta eskolako zenbait jardun dira horren ardatz; jardun horiek pentsamendu kritikoa eta parte-hartzea bultzatzen dute, gizarte demokratikoaren oinarri diren balioak barneratzen lagunduz, herritar arduratsun, parte-hartzaile eta solidarioak sortu nahi baitira gerorako. Alde horretatik, planteamendu metodologikoak kontu handiz aztertu behar dira, erabakigarriak izan behar baitira, printzipio eta balio batzuen ezagutzak ohitura batzuk hartzea eta jokabideetan eragina izatera bideratu nahi badira.

Arlo honetako helburu eta edukia, Europar Kontseiluko Ministroen Kontseiluaren ("2002)12 Gomendioarekin bat, alde pertsonaletik eta inguru hurbilenetik abiatzen dira: identitatea, emozioak, ongizatea eta autonomia pertsonala, bakoitzaren eskubide eta betebeharrak, eskubide berdintasuna eta desberdintasunak. Identitatetik eta harreman pertsonaletik hurbileko taldeetako bizikidetzara, parte-hartzaile eta elkarrekin bizitzera pasatzen da. Azkenik, Konstituzioak ezartzen duen gizarte bizikidetzaren ikustea da, bai eta taldeko eskubide eta betebeharrak ere. Horrenbestez, pertsonaren esparrutik gizartearen esparrurantz doa proposatu den ibilbidea.

Edukia hiru multzotan antolatu dira eta horietan kontzeptu, prozedura eta jarrerak ikuspegi integratu batetik begiratu biltzen dira. 1. multzoa, Gizabanakoak eta harreman pertsonal eta sozialak. Alderdi pertsonal hauek lantzen ditu: autonomia eta identitatea, nor bere emozioak eta besteak ezagutzeko. Harremanen eredu bat proposatzen du, eta eredu hori oinarrituko da pertsona guztien duintasunaren onarpean, norberarenak ez diren irizki eta sinismenak ez izan arren bestearenganako izan beharreko errespetuan eta pertsonen aniztasunaren eta eskubideetan. Eguneroko egoeretatik abiatuta, gizonak eta emakumeak familiar eta lan munduan izan behar duten berdintasuna lantzen da. Bakoitzak bere ardurak hartzea lehentasunezko alderdi bat da beti, eta autonomia pertsonalarekin lotuta dago hori.

2. multzoa, Komunitatean bizitzea. Arlo honetan honako hauek lantzen dira: bizikidetzaren, ingurunearekin izaten diren harremanetan, gizarte demokratikoaren oinarri diren balio zibikoak (errespetua, tolerantzia, elkartasuna, justizia, berdintasuna, elkar laguntzea, lankidetzaren eta pakearen kultura), bakoitzaren inguruko taldeetan bizikidetzari eta gatazkari nola heltzen zaion (familiar, ikastetxean, lagunengatik, herrian) eta pertsona bakoitzak talde horietan dituen eskubide eta betebeharrak nola gauzatzen diren, aniztasunaz ohartuz, bereizkeria baztertzeko eta parte-hartzea eta horretarako bideak baloratuz. Horretaz gainera, inguru hurbileko kultur eta erlijio aniztasuna aintzat hartzeko hasita, eta gizon

eta emakume guztiek eskubide zein betebeharrak dituztela onartuz, gureak ez diren ohitura eta bizimoduaren aurrean errespetu kritikoa lantzen ahal da, eta bazterkeria, bereizkeria eta bidegabekeria soziala duten egoerak identifikatu eta baztertzeko elementuak ematen ahal dira.

Azkenik, 3. multzoak, Gizartearen bizitzea izenekoak, planteamendu sozial zabalagoa proposatzen du: Konstituzioak ezarritako bizikidetzako arau eta printzipioak behar izan eta ezagutzeko, zerbitzu publikoak eta ondasun komunak ezagutu eta baloratzea, bai eta administrazio publikoak eta herritarrek horiek zaintzeko dituzten betebeharrak ere. Zerbitzu publiko eta ondasun komun batzuek ikasleek adinaren arabera tratamendua dute; hala gertatzen da babes zibileren, segurtasunaren, pakearen zerbitzura dagoen defentsaren eta bide hezkuntzaren kasuetan.

Arloak oinarriko gaitasunak garatzen laguntzea

Herritartasunerako hezkuntzak zenbait gaitasunetako alderdi aipagarri batzuk garatzen laguntzen du, baina gaitasun sozialarekin eta herritartasunarekin zuzenean lotuta dago. Gaitasun horri dagokionez, horren barneko esparru pertsonal eta publikoari heltzen dio arlo honek: gizartearen bizitzeko eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko trebetasunak eskuratzen laguntzen du. Hala, haurrak pertsona duin eta zuzenak izatea da arlo honen xedea, eta horrek bakoitzaren autonomia, autoestimua eta identitatea indartzea eskatzen du, bai eta espiritu kritikoa ere, bizitzarako proiektu pertsonalak eraikitzen laguntzeko. Lagungarria da, orobat, harreman pertsonalen gaitasuna landu eta hobetzeko, arlo honek bakoitzaren nahiak eta gizon eta emakume guztientzako eskubideak orokortzen laguntzen duen neurrian; gainera, sentimenduetan oinarritutako lotura pertsonalak bultzatzen ditu eta gatazka egoerei aurre egiten laguntzen du, elkarrizketa sistematikoki erabiltzea proposatzen baitu. Horri begira, arlo honek berriazko edukia dituen bizikidetzari, parte-hartzeari eta aniztasunaz eta bereizkeria eta bidegabekeria egoeraz ohartzeari buruz, eta horiei esker gizarte trebetasunak finkatzen lagunduko da, identitate partekatuaren sentimendua sortzen, ohitura eta arau sozialak ezagutu, onartu eta erabiltzen, bai eta esparru pribatuen eta bizitza sozial eta politikoen lankidetzaren, elkartasunaren, konpromisoaren eta parte-hartzearen balioak barneratzen ere, horrela ikasleek elkarrekin bizitzeko trebetasunak bereganatu dituzten.

Horrekin guztiarekin batera, arlo hau lagungarria da gizarte demokratikoen oinarriak eta antolaketa moduak nolakoak diren jakiteko, giza eskubideen lortzea baloratzea eta giza taldeen arteko gatazkak eta bidegabekeria egoerak baztertzeko. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, Haurren Eskubideen aldeko Konbentzioan eta Espainiako Konstituzioan ageri diren printzipioak arlo honetako berriazko edukia dira eta, horri lotuta, erakundeek nola aplikatzen dituzten.

Herritarren betebeharrak identifikatzeari eta eskolan zein gizartearen beren adinaren arabera ohitura zibikoak hartu eta gauzatzeari esker, geroko herritarrek gizarte kohesionatuago, askeago, oparago, bidezkoago eta justuagoak eraikitzen hasi izan behar dira.

Ikasten ikasteko gaitasuna garatzen lagunduko da, kontuan hartuta arlo honek gizarte trebetasunak, talde lana, parte-hartzea eta argudiatzearen erabilera sistematikoa bultzatzen dituela, eta horrek, jakina, pentsamendu propioa garatzea eskatzen du. Bakoitzaren ideien eta bestearen sintesia eginez, bakoitzak bere irizpidea arrazoituta agertuz eta ezagutuz, informazioa eta iritzia modu ordenatu eta kritikoa alderatuz ere laguntza ematen da geroko ikaskuntzetarako.

Norberaren autonomia eta ekimena ere bideratzen da arlo honen bitartez, plangintzarako, erabakiak hartzeko, parte hartzeko, antolaketa eta ardurak hartzeko ekimenak garatzen baitira. Arlo honek ikasleak trebatu ditu elkarrizketa eta eztabaidan, parte hartzean, desberdintasun sozial, kultural eta ekonomikoak errespetuz hartzen eta desberdintasun horien eta ideien balorazio kritikoa egiten. Curriculumak, argudiatzean oinarrituta, pentsamendu propioa eratzeko lagundu nahi du, bai eta arazoei eta izaten ahal diren irtenbideei buruzko jarrera bat hartzen ere. Horrela, ikasleek beren buruan konfiantza izanik eta bestearek errespetatuz gauzak aztertu, baloratu eta erabakitzeko izan behar duten autonomia indartzen da eta, hori bezala, pertsonen arteko harremanetan arriskuak hartzearen aldeko jarrera.

Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasunari arloko hitz eta kontzeptuak ezagutu eta erabiliz laguntzen zaio. Gainera, eztabaida sistematikoki erabiltzeko, arlo honetan ezinbesteko prozedura baita, berriaz laguntzen dio gaitasun honi, entzuten, adierazten eta arrazoiak ematen trebatzea eskatzen duelako.

Helburuak

Eta honetan Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzak gaitasun hauek garatzea izan behar du helburu:

1. Ahozko eta idatzizko ulermena garatzea. Arloko berriazko hiztegia egoki eta zehatz erabiltzea, esanahiak eratu eta gero.
2. Besteekin izaten diren harremanetan autoestimua, afektibitatea eta autonomia pertsonala garatzea, bai eta indarkeriaren, estereotipoen eta aurreiritzien kontrako jarrera ere.

3. Trebetasun emozional, komunikatibo eta sozialak garatzea, eguneroko bizitzan autonomiaz jokatzeko, eta taldeko harremanetan aktiboki parte hartzea, jarrera eskuzabal eta eraikitzaileak agertuz.

4. Bizikidetzako balio eta arauak ezagutu eta aintzat hartzea eta horiei jarraituz jarduten ikastea.

5. Aniztasunak bizikidetasuna aberasten duela ohartzea, eta beste pertsona eta herri batzuen ohitura eta bizimoduak errespetatzea.

6. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, Haurren Eskubideen aldeko Konbentzioan eta Espainiako Konstituzioan ageri diren eskubide eta betebeharrak nagusiak ezagutu, onartu eta baloratzea.

7. Gizarte demokratikoen funtzionamenduen funtsezko mekanismoak ezagutzea, eta administrazioek zerbitzu publikoak bermatzeko duten eginkizuna eta herritarrek horiek mantentzen laguntzeko eta betebeharrak zibikoak betetzeko duten obligazioa baloratzea.

8. Bidegabekeria eta bereizkeria egoerak identifikatu eta arbuia- tzea, pertsona eta talde ahulenek dituzten beharren aurrean sentsibilitatea agertzea eta elkartasuneko jarrerak eta indarkeriaren kontra-koak garatzea.

9. Ingurumenaren egoeraz ohartzea eta inguru hurbila zaintzearen aldeko jarrera arduratsuak garatzea.

10. Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko nahiz ezagutzak partekatzeko tresna gisa.

Hirugarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Gizabanakoak eta harreman pertsonal eta sozialak

- Autonomia eta ardura. Norberaren identitatea, emozioak eta norberaren zein besteen ongizatea eta interesak baloratzea. Enpatia garatzea.

- Giza duintasuna. Giza eskubideak eta haurren eskubideak. Eskubide eta betebeharraren arteko loturak.

- Sexu desberdintasunez ohartzea. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzea. Gizonek eta emakumeek familian eta lan munduan eta gizartean izan behar duten eskubide berdintasuna baloratzea.

2. multzoa.–Bizitza komunitatean

- Balio zibikoak gizarte demokratikoan: errespetua, tolerantzia, elkartasuna, justizia, lankidetzak eta pakearen kultura.

- Balio zibikoak inguru hurbileko bizikidetzak eta gatazka egoeretan aplikatzea (familian, ikastetxean, adiskideen artean, herrian). Ulermen eta elkartasuneko jarrerak eta elkarrizketa baloratzeak garatzea bizikidetzak arazoak eta besteekiko harremanetan izaten diren interes gatazka konpontzeko.

- Parte hartzeko eskubidea eta betebeharra. Parte hartzeko bide desberdinak baloratzea.

- Taldeetako kide den aldetik bakoitzak dituen eskubide eta betebeharrak arduraz jokatzeko eta taldeen zeregin eta erabakietan parte hartzea.

- Gizarte, kultur eta erlijio aniztasuna. Gureak ez diren ohitura eta bizimoduen aurrean errespetu kritikoa izatea. Bazterketa, desberdintasun, bereizkeria eta bidegabekeria sozialeko egoerak identifikatzea.

3. multzoa.–Gizartean bizitzea

- Gizarteko bizikidetzak. Elkarrekin bizitzeko arauak jarri beharra. Espainiako Konstituzioak ezartzen dituen bizikidetzak printzipioak.

- Herritarrek Estatutik (Udaletatik, Autonomia Erkidegoetatik edo Estatuko Administrazio Zentraletik) jasotzen dituzten ondasun komunak eta zerbitzu publikoak identifikatu, aintzat hartu, errespetatu eta zaintzea, eta guztiok zergen bidez horiek mantentzeko ematen dugun laguntzaren garrantzia baloratzea.

- Ohitura zibikoak. Babes zibila eta herritarren laguntza hondamendiak izaten direnean. Herritarren segurtasun osoa. Defentsaren balorazioa, pakearen aldeko konpromiso zibiko eta elkartasuneko den aldetik.

- Bide zirkulazioko arauak betetzea. Trafiko istripuetako arrazoiak eta arrisku taldeak (oinetakoak, bidaiariak, txirindulak...) identifikatzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Bakoitzaren eta besteen ezaugarri pertsonalekiko eta desberdintasunekiko errespetua agertzea, bakoitzaren ekintzen ondorioak baloratzea eta horien erantzule izatea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ikasleek beren eguneroko jokabideetan erakusten ote duten beren ezaugarriak nolakoak diren badakitelako, eta beren emozio eta sentimenduak erregulatzen saiatzen diren. Halaber, beren inguruko pertsonen sentimendu eta emozioez ohartzen diren ere egiaztatzen nahi da eta, hori bezala, pertsonen arteko desberdintasunak onartzen dituzten eta, azken batean, beren ekintzen

erantzule badiren eta besteen jokabideen aurreran jarrera eraikitzaile eta errespetuzkoak dituzten.

2. Bakoitzak bere iritziak arrazoitu eta defendatzea, besteen iritziak entzun eta balorazio kritikoa egitea, pertsonak errespetatzeko jarrera agertuz betiere.

Irizpide honen bidez ebaluatuko da ikasleek zer gaitasun duten, gelako edo taldeko eguneroko egoeretan, desadostasunak gainditu eta akordioak ezartzeari begira elkarrizketa erabiltzeko, bai eta ohiko jokabideetan eta hizkuntzan pertsona eta talde guztiakiko errespetua eta balorazio kritikoa agertzeko ere, alde batera utzita pertsonen adina, sexua, arraza, iritziak, kultur prestakuntza eta sinesmenak.

3. Bizikidetzak arauak onartu eta betetzea. Taldeak erabakiak hartu behar dituztenean parte hartzea, akordioak lortzeko elkarrizketa erabiliz eta betebeharrak norik bere gain hartuz.

Irizpide honekin baloratuko da norbanakoak taldeko zereginetan zerbateraino parte hartzen duen eta dagozkion zereginak zerbateraino betetzen dituen. Horretaz gainera, bera bezalakoekin eta helduekin izaten dituen harremanetan bizikidetzako arauak bete, elkarrizketa erabili eta besteekiko errespetua erakusten duen ere baloratuko da.

4. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Haurren Eskubideen aldeko Konbentzioan ageri diren giza eskubideetako batzuk ezagutzea, bai eta Espainiako Konstituzioan ageri diren bizikidetzak printzipioak ere, eta horiei lotutako betebeharrak nagusiak identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da elkarrekin harmoniaz bizi ahal izateko arauak jarri behar direla ulertzen al duten, eta haurren eskubideak, giza eskubideak eta Espainiako Konstituzioak funtsezko eskubideak oso modu orokorrean bada ere ezagutu eta baloratzen diren, horien izaera unibertsalaren eta bizikidetzarako oinarri izatearen garrantzia aintzat hartzeko. Jakina, ez dute arauen testua zehatz-mehatz jakin behar; aitzitik, eskubide eta betebeharrak garrantzikoekin batzuk azaltzen jakin behar dute eta bizikidetzak onerako lagungarri direla oharatu.

5. Bereizkeria, bazterketa eta bidegabekeria egoerez jabetu eta arbuia- tzea eta egoera horiek sorrarazten dituzten faktore sozialak, ekonomikoak, jatorrizkoak, generokoak edo beste edozein motatakoak identifikatzea.

Irizpide honen bitartez baloratzen ahalko da egoera bidegabeak identifikatu, ezagutu eta hitzez azaltzeko gaitasuna garatu duten, bai beren ingurunean bai komunikabideek ematen duten informazioaren bidez. Bazterketa edo bereizkeriak sorrarazten dituzten faktoreak, adibide arrazoituak jarrit, identifikatzen dituzten ere baloratuko da, eta horien ondorioak arbuia- tzen dituzten.

6. Erakundeek ematen dituzten zerbitzu publikoan adibideak jar- tzea eta herritarrek zergen bidez horiek mantentzen laguntzeko duten betebeharrak jabetzea.

Lehenik, herritarrok administrazioetatik jasotzen ditugun zerbitzu publikoak ezagutzen dituzten ebaluatzen ahalko da irizpide honekin. Hori erakusteko, Udalak, Autonomia Erkidegoak eta Estatuko Administrazio Zentralak ematen dituzten zerbitzuen adibideak jarri beharko dira, eta zerbitzu horien kudeaketaren kalitateak pertsonen bizitzarako duen garrantziaren gaineko argudioak eman. Era berean, herritarrek beren ordaina eman beharraz ohartzen diren baloratu nahi da, erakundeak eta horiek ematen dituzten zerbitzuak zergen bidez mantentzen lagundu behar baita.

7. Zerbitzu publikoek herritarren bizitzan duten zeregina azaltzea, eta jarrera zibikoak agertzea bide segurtasunaren, babes zibilaren, pakearen zerbitzura dagoen defentsaren eta herritarren segurtasun osoaren inguruan.

Irizpide honetatik abiatuta egiaztatzen nahi da zerbitzu publiko batzuek (hezkuntza, osasuna, ur hornidura, garraioak, etab.) herritarren ongi- zatean duten garrantziak ohartzen diren eta ahoz eta idatziz azaltzen badakiten. Horri lotuta, talde bateko kide diren aldetik eguneroko egoeretan edo arriskua izaten ahal dutenetan dagokien ardura bere egiten duten ere baloratuko da eta, halaber, jarrera zibikorik erakusten duten ingurumena zein ingurunea eta ondasun komunak zaintzearen inguru- an.

MATEMATIKA

Matematika jakintzen multzo bat da, hain zuzen ere lehen hurbilketa batean zenbakiei eta formei lotutako jakintzen multzoa; jakintza horiek pixkanaka osatzen dira, zenbait egoera aztertze-ko modu baliotsua bihurtu arte. Matematikari esker, errealitate-rik lortzen den ezagutza egituratzen ahal da, errealitatea aztertzen ahal da, eta informazio berria erdiesten ahal da errealitatea hobeki ezagutzeko, baloratze-ko eta erabakiak hartzeko. Zenbat eta tresna matematiko konplexuagoak erabil- tze-ko gai izan, orduan eta egoera mota gehiagoren tratamendua egin daiteke eta informazio aberatsagoa lortu. Horregatik, oinarri-ko esko- latze aldi- an, Matematikaren ikaskuntza arlo hori erabiltzeko aukerak ugaltzera bideratu behar da.

Hala, Matematika ideien eta jarduteko moduen multzo bat da, eta horri lotuta, kantitateak eta forma geometrikoak ez ezik, galderak egitea, ereduak lortzea eta erlazio eta egiturak identifikatzea dugu batez ere; hala, errealitatean agertzen diren fenomeno eta egoerak aztertzean, hasiera batean esplizituak ez ziren informazio eta ondorioak lortzen ahal dira. Hala ulertuta, Matematika arloak tradizioz eman zaizkion ezaugarriak ditu (dedukzioa, zehaztasuna, zorroztasuna, segurtasuna, etab.), baina hori baino gehiago da eta ekarpen handiagoa egiten du. Arlo hau indukzioa, zenbatespena, hurbilketa, probabilitatea eta saildia ere bada, eta egoera irekiei, irtenbide bakar eta itxia ez dutenei, aurre egiteko gaitasuna hobetzen du.

Hori guztia Matematikaren eskolako ikaskuntzari ematen zaion eginkizun bikoitzean islatzen da, eta balioa izaten jarraitzen du, interpretazio zabalagoarekin bada ere: Matematika ikasten da beste esparru batzuetan (eguneroko bizitzan, lan munduan, beste gauza batzuk ikas-teko...) baliagarria delako eta, orobat, Matematika ikasteak prestakuntza intelektual orokorrari ematen dionagatik, hain zuzen ere kasu askotan erabiltzen ahal diren trebetasunengatik, haurren gaitasun kognitiboak indartzeko lagungarri baitira berez.

Lehen Hezkuntzan zenbakizko alfabetatze eraginkorra lortzea bilatzen da, hori zenbakiak eta beren erlazioak agertzen diren egoerei arrakastaz aurre egiteko gaitasun gisa ulertuta, horrela informazio eraginkorra lortu ahal izateko, bai zuzenean bai konparazioaren, zenbatespenaren eta buruz edo idatziz egindako kalkularen bidez. Nabarmendu beharrekoa da zenbakizko alfabetatze benetakoa lortzeko ez dela aski kalkulu idatziko algoritmoak menderatzea, zeren eta beharrezkoa baita, orobat, eta batez ere, zenbakien eta kantitateen aurrean konfiantzaz aritzea, beharrezkoa den orotan erabiltzea eta horien arteko oinarriko erlazioak identifikatzea.

Lehen Hezkuntzako arlo honek esperientziaren aldetik dauka zentzua batez ere; ikasleentzat etxekoa eta hurbila dena hartzen dute erreferentziatzat edukiek, eta problemak ebazti eta ikuspuntuak erka-tzeko kontestuetan lantzen dira. Haurrek eguneroko bizitzarekin zerikusia duten kontestu funtzioaletan erabiliz ikasi behar dute Matematika, esperientzietatik eta aurretiko ezagutzetatik abiatuta geroz eta konplexuagoak diren ezagutzak bereganatu ahal izateko.

Problemak ebazteko prozesuak jarduera matematikoaren ardatz nagusietako bat dira, eta matematika ikasteko iturri eta euskarri nagusia izan behar dute etapa osoan, hezkuntza matematikoaren giltzarri baitira. Problemen ebazpenean oinarriko gaitasun asko erabili behar izaten dira: ulertuz irakurri, gogoeta egin, laneko plan bat ezarri eta ebazpenean berrikusten joan, plana aldatu beharrezkoa bada, emaitza, aurkitu bada, egiaztatu, eta emaitzak jakinarazi.

Edukiak lau multzotan antolatu dira, horietako bakoitzean erabiltzen diren objektu matematikoen arabera: Zenbakiak eta eragiketak, Neurria, Geometria eta Informazioaren tratamendua, ausa eta probabilitatea. Argi izan behar da multzokatze hau edukiak antolatze modu bat baizik ez dela, eta edukiek elkarrekin lotuta landu beharko direla: Matematikaren irakaskuntzak edukien konfigurazio ziklikoan jarriko du arreta, kontuan izanik edukiek beti elkarrekin lotuta daudela eta batzuk beste batzuen gainean eraikitzen direla. Problemen ebazpena ardatza da eta zeharka ageri da multzo guztietan; horregatik, bereziki nabarmenduta sartu da multzo guztietan.

1. multzoa, Zenbakiak eta eragiketak. Multzo honen xedea zenbaki zentzua garatzea da batez ere, zenbakizko erlazioen gogoetazko menderatze gisa ulertuta. Hori honelako gaitasunen bidez adierazten ahal da: zenbakiak modu naturalean deskonposatzea, zenbaki-sistema hamartarraren egitura ulertu eta erabiltzea, eragiketen propietateak eta horien arteko erlazioak kalkulatu buruz egiteko erabiltzea. Zenbakiak kontestu desberdinetan erabili behar dira, eta jakin behar da garatutako prozesuak eta emaitzen esanahia ulertzea kalkulurako trebetasunaren aurretik dagoela. Kalkula prozedura desberdinekin egiteko trebetasunak du garrantzia batik bat, bai eta kasu bakoitzean egokiena den prozedura hautatzeko erabakiak ere. Etapa honetan, ikasleek kalkulak arin egitea eta arrazoizko zenbatespenak egitea lortu nahi da, kontzeptuak ulertzearen eta kalkulurako gaitasunaren arteko oreka izaten saiatuz.

2. multzoaren edukia, Neurria: magnitudeen zenbatespena eta kalkulua. Multzo honen bidez, magnitudeak kuantifikatzen direneko mezuak ulertzen lagundu nahi da, eta haurrek zuzen interpretatu beharrekoko diren egiazko egoerei buruzko informazioa ematen da. Magnitude desberdinak ezagutzetik abiatuta, neurketak egitea eta geroz eta unitate gehiago erabiltzera pasatzen da. Neurketak egitea beharrezkoa dela erakusteko, era askotako egoeretan erabiliko da neurketa, eta horretarako mekanismoak ezarriko dira: unitateak hautatzea, unitateen arteko loturak eta fidagarritasun maila. Gorputz unitateekin (arra betea, oina...) eta unitate arbitrarioekin (sokak, kanak...) has daiteke, gero neurri normalizatuera pasatzeko, aurrekoak gaindituta agertzen baitira.

3. multzoa, Geometria. Multzo honetako edukien bidez forma eta egitura geometrikoak buruz ikasiko dute ikasleek. Geometria deskriba-

tzea da, propietateak aztertzea, sailkatu eta arrazoitzea, eta ez soilik definitzea. Geometria ikasteak pentsatu eta egitea eskatzen du, eta etengabeko aukerak eman behar ditu libreki hautatutako irizpideen arabera sailkatzeko, eraiki, marraztu, modelizatu eta neurtzeko, erlazio geometrikoak bistaratzeko gaitasuna garatuz. Hori guztia lortzen da gainerako multzoekin eta beste esparru batzuekin (artearen edo zientziaren mundua) lotura jarraikiak ezarri, baina baita manipulazio aldeari toki nagusi bat emanez ere, materialen erabileraren bidez (geoplanoak eta mekanoak, puntuen bilbeak, ispilu liburuak, poliedroak egiteko materiala, etab.) eta jarduera pertsonalaren bidez (tolesturak, eraikuntzak eginez, etab.), kontzeptura egiazko eruedetatik hasita iristeko. Geometria dinamikoaren programa informatikoak erabiltzea ere xede horretarako lagungarri izaten ahal da.

4. multzoa. Informazioaren tratamendua, ausa eta probabilitatea. Multzo honetako edukiek erabateko zentzua hartzen dute beste ezagutza arlo batzuk ukitzen dituzten jarduerekin lotuta agertzen direnean. Era berean, lanak komunikabideetako informazioen ulermena nabarmendu behar du, gaietarako interesa pizteko eta ezagutza estatistikoak erabakiak hartzeko egokiak direla baloratzen laguntzeko (beste arlo batzuetan estudiatzen diren gaiak buruzkoak gehienbat). Jarrerazko edukiek garrantzi berezia dute multzo honetan, datuak modu ordenatu eta grafikoan aurkezten laguntzen baitute, eta Matematika eguneroko bizitzako problemak konpontzeko lagungarria dela erakusten baitute. Horrekin batera, multzo honetako edukien birtatez, ikasleak bide desberdinetatik iristen zaien informazioa modu kritikoan erabiltzen hasiko dira.

Arloak oinarriko gaitasunak garatzen laguntzea

Arlo honetako edukiek matematika gaitasuna bere alderdi guztietan ongi garatzera bideratzen dira batik bat, eta hor sartzen dira horretarako beharrezkoak diren ezagutza eta trebetasun gehienak. Azpimarratu beharrekoa da, hala ere, matematika gaitasunari laguntza ematen zaiola kontuan hartuta eduki horien ikaskuntza Matematikaren erabilgarritasunera bideratuta dagoela; hots, haurrek era askotako egoeretan baliatu behar izaten dute Matematikaz, eta horretara bideratuta daude edukiek.

Pentsamendu matematikoaren garapen mundu fisikoa ezagutu eta harekin elkarreragiteko gaitasunari ematen dio laguntza, ingurunea hobeki ulertzea eta deskribapen egokituagoa ahalbidetzen duelako. Lehenik, bistaratzeko garatuz (espazioaren ikuskera), haurrek hobetu egiten dute eraikitzeak egiteko eta figurak planoan eta espazioan buruz manipulatzeko gaitasuna, eta hori oso baliagarria izanena dute mapak erabiltzean, ibilbideak planifikatzean, planoak diseinatzean, marrazkiak egitean, etab. Bigarrenik, neurriaren bidez errealitateak hobeki ezagutzea lortzen da eta errealitatearekin elkarreragina izateko eta inguruneko alderdi kuantifikagarriak buruzko geroz eta informazio zehatzagoak helarazteko aukerak handitzen dira. Azkenik, irudikapen grafikoak informazioa interpretatzeko erabiltzen ikasleek duten trebetasuna oso baliagarria da errealitateak hobeki ezagutu eta aztertzeo.

Matematikak informazioaren tratamenduaren eta gaitasun digitalaren gaitasuna lantzen ere laguntzen du. Alde batetik, zenbakien erabilerrari lotutako trebetasunak ematen dituelako, esate baterako zenbaki adierazteko modu ezberdinen arteko erlazioak, alderaketa edo hurbilketa, horrela kantitateak edo neurriak dituzten informazioak ulertzen lagunduz. Beste alde batetik, hain justu ere informazioaren tratamendua izena duen multzo honetako edukien birtatez hizkuntza grafikoak eta estatistikoak erabiltzen laguntzen da, funtsezkoak baitira errealitateari buruzko informazioa interpretatzeko. Neurri apalago batean, kalkulagailuak eta tresna teknologikoak eduki matematikoak hobeki ulertzeko erabiltzen hastea ere gaitasun digitala garatzeari lotuta dago.

Problemak ebaztearen inguruko edukiek dira arlo honek norberaren autonomiarri eta ekimenari egiten dion ekarpen nagusia. Problemen ebazpenak gutxienez ere hiru alde osagarri ditu, gaitasun honi lotuta: plangintza, baliabideen kudeaketa eta emaitzen balorazioa. Plangintza lotuta dago planteatutako egoera bat zehatz ulertzearekin, plan bat antolatu eta estrategiak bilatzeko eta, azken batean, erabakiak hartzeko; baliabideen kudeaketan ebazpen prozesuen optimizazioa sartzen da; bestalde, prozesuaren aldizkako ebaluazioak eta emaitzen balorazioak bide ematen dute beste problema edo egoera batzuei arrakasta handiagoz aurre egiteko. Matematikaren irakaskuntzak prozesu hauetan eragina duen neurrian eta egoera irekiak, benetako problemak, planteatzen diren neurrian, hobetu egiten da arloak gaitasun honi ematen dion laguntza. Dudazko egoerei behar bezala aurre egin ahal izateko bakoitzak bere gaitasunaren konfiantza izatearen inguruko jarrerak curriculumeneko zenbait edukien bidez sartu dira.

Arloko eduki askoren izaera instrumentala baliagarria da ikasten ikaste gaitasuna garatzeko. Maiz, oinarriko tresna matematikoak erabiltzeko aukera izatea edo euskarri matematikoak erabiltzen dituzten informazioak ulertzea beharrezkoa izaten da ikaskuntzarako. Gaitasun hau garatzeko beharrezkoa da, halaber, arlo honen bidez garrantzia ematea ondoko inguruko edukiei: autonomia, jarraitutasuna eta geroz eta konplexuagoak diren egoerei heltzeko ahalgina, sistematizazioa, begirada kritikoa eta norberaren lanaren emaitzak eraginkortasunez

komunikatzeko trebetasuna. Azkenik, ikaskuntzako prozesua hitzez adierazteak, curriculum honetan maiz agertzen den edukia baita, ikasi denaz, ikasteko faltaz denaz eta nola eta zertarako galderez gogoeta egiten laguntzen du, eta horrek ikasten ikasteko estrategien garapena bultzatzen.

Matematikaren arloaren bidez hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna bultzatzeko bi alderdi nabarmendu behar dira. Alde batetik, hizkuntza matematikoaren funtsezkoa ohiko adierazpideari eranstea eta zehatz erabiltzea. Beste alde batetik, arrazoitzeak eta prozesuak hitzez deskribatzeari lotutako edukiak dira nabarmentzekoak. Adierazpenari bezala besteen azalpenak entzuteari bidea eman nahi zaio, horrek ulermena, espiritu kritikoa eta komunikaziorako trebetasunak hobetzen baititu.

Matematikak arte eta kultur gaitasuna lortzen laguntzen du, matematika gizateriaren garapen kulturalaren lagungarritzat hartuta. Horretaz gainera, erlazio eta forma geometrikoak nolakoak diren jakitea baliagarria da arte ekoizpen batzuen azterketarako.

Gaitasun sozialari eta herritartasunari egiten zaion ekarpena aipatzen denean, beste arlo batzuetan bezala, talde lana aipatu nahi da, eta horrek Matematikan toki berezia hartzen du, besteen ikuspuntuak onartzen ikasten bada betiere, batez ere problemak ebazteko estrategia pertsonalak erabili behar direnean.

Helburuak

Eta honetan Matematikak gaitasun hauek garatzea izanen du helburu:

1. Ahozkoaren zein idatzizkoaren ulermena eta mintzamina zein idatzmena garatzea. Irakurriaren ulermena bultzatzea matematikako testuak erabiliz. Matematikaren arloko hiztegi berezia egoki eta zehatz erabiltzea.

2. Ezagutza matematikoa erabiltzea eguneroko bizitzako gertaera eta egoerei buruzko informazio eta mezuak ulertu, baloratu eta sortzeko, eta beste ezagutza eremu batzuetarako duen izaera instrumentaltalaz ohartzea.

3. Ikasleak beren ohiko ingurunean izaten diren egoerez ohartzea, egoera horiek ulertu edo tratatzeko kalkuluko oinarriko eragiketak behar direnean, eta horiek adierazpen matematikoaren forma errazekin formulatzea edo dagozkien algoritmoak erabiliz ebaztea, emaitzen zentzua baloratzea eta jarraitutako prozesuak ahoz eta idatziz azaltzea.

4. Matematikak eguneroko bizitzan duen zeregina aintzat hartzea, arlo hori erabiliz gozatzea eta zenbait jarreraren balioaz jabetzea, hala nola aukera desberdinak aztertzea, zehaztasunaren beharra edo soluzioak bilatzen direnean jarraitutasuna izatea.

5. Bakoitzak Matematikan dituen trebetasunak ezagutu, baloratu eta horietan segurtasuna hartzea, era askotako egoerei aurre egiteko, horrela sormenezko, estetiko edo erabilpeneko alderdiez gozatu ahal izateko eta erabilerarako aukeretan konfiantza izateko.

6. Buruzko kalkuluaren eta neurriaren tresna eta estrategia pertsonalak prestatu eta erabiltzea, bai eta espazioan orientatzeko prozedurak ere, problemak ebazteko kontestuetan, kasu bakoitzean horiek erabiltzearen abantailak erabakiz eta emaitzen koherentzia baloratu.

7. Eskolako liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa lortzeko eta ikasteko nahiz ezagutzak partekatzeko tresna gisa.

8. Baliabide teknologikoak egoki erabiltzea, bai kalkuluan bai zenbait informazioaren tratamenduan eta irudikapenean.

9. Ingurune natural eta kulturaleko forma geometrikoak identifikatzea, horien elementu eta propietateen ezagutza errealitatea deskribatzeko eta ekintzako aukera berriak garatzeko erabiliz.

10. Datuak biltzeko oinarriko teknikak erabiltzea, inguruneko fenomeno eta egoerei buruzko informazioa lortzeko; hori grafikoki eta zenbakien bidez irudikatzea eta horren gaineko iritzia sortzea.

Lehen zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Zenbakiak eta eragiketak

–Zenbaki arruntak:

▪ Kantitateak zenbatu, neurtu, antolatu eta adieraztea eguneroko bizitzako egoeretan.

▪ Zenbakiak irakurri eta idaztea. Hiru zifra arteko zenbakien grafia, izena eta posizioa balioa.

▪ Zenbaki ordinalak erabiltzea.

▪ Zenbakien arteko ordena eta erlazioak. Zenbakien alderaketa ingurune ezagunetan.

–Eragiketak:

▪ Ingurune ezagunetan, batuketa bildu edo eransteko erabiltzea kenketa bereizi edo kentzeko; eta biderketa zenbat bider kalkulatzeko.

▪ Eragiketak eta kalkulua ahoz adieraztea.

▪ Zenbakiak, beren erlazioak eta eragiketak informazioa lortu eta adierazteko, mezuak interpretatzeko eta egiazko egoeretan problemak konpontzeko erabiltzeko gai izatea.

–Kalkuluko estrategiak:

▪ Batuketak eta kenketak algoritmo estandarrek erabiliz kalkulatzeko.

▪ 2, 5 eta 10ez biderkatzeko taulak egitea, zenbat bider kontzeptuan, batuketa errepikatuan, laukietan, etab. oinarrituta.

▪ Buruzko kalkuluaren estrategia pertsonalak garatzea, hurrengo hamarrekoari zenbaki baten osagarria bilatzeko, kantitateen bikoitzak eta erdiak kalkulatzeko eta batuketa eta kenketen problemak ebazteko.

▪ Kalkulu hurbildua. Kalkulu baten emaitza zenbatetsi eta biribiltzea hamarreko hurbilenera iritsi arte, zenbat soluzioren artean hautatuz eta arrazoizko erantzunak baloratu.

▪ Kalkulagailua serieak sortzeko eta zenbakiak konposatu eta deskonposatzeko erabiltzen ohitzea.

▪ Kalkuluak egitea eskatzen duten problemak ebaztea, datuen esanahia, planteatutako egoera, jarraitutako prozesua eta lortutako soluzioak ahoz azalduz.

▪ Nork bere ahalbideetan konfiantza izatea, eta soluzioak bilatzeko kuriositatea, interesa eta jarraitutasuna izatea.

▪ Kalkuluak eta beren emaitzak ordenatuta eta garbi aurkezteko joera izatea.

2. multzoa.–Neurria: magnitudeen zenbatespena eta kalkulua

–Luzera, pisua/masa eta edukiera:

▪ Objektuak luzeraren, pisuaren/masaren edo edukieraren arabera konparatzea, zuzenean edo zeharka.

▪ Neurketak konbentzionalak ez diren tresna eta estrategiek ingurunean.

▪ Ohiko unitateak eta tresna konbentzionalak erabiltzea inguruneko objektuak eta distantziak neurtzeko.

▪ Neurrien emaitzak zenbatestea (distantziak, tamainak, pisuak, edukierak...) ingurune ezagunetan. Neurketan jarraitutako prozesua eta erabilitako estrategia ahoz azaltzea.

▪ Neurketa problemak ebaztea, datuen esanahia, planteatutako egoera, jarraitutako prozesua eta lortutako soluzioak azalduz.

–Denbora neurtzea:

▪ Denbora neurtzeko unitateak: denbora ziklikoa eta denbora tar-teak (erlojua irakurtzea, ordu osoak, erdiak).

▪ Denbora tarte baten iraupena zehazteko egokia den unitatea hautatu eta erabiltzea.

–Moneta sistema:

▪ Moneta eta billete desberdinen balioa. Ohiko gauzen prezioak zein diren jakitea.

▪ Objektu eta denbora ezagun batzuen neurria ezagutu eta erabiltzeko kuriositatea, eta neurriei buruzko informazioak dituzten mezuak interpretatzeko interesa izatea.

▪ Neurketak egiten direnean arretaz aritzea.

3. multzoa.–Geometria

–Espazioko kokapena, distantziak eta biraketak:

▪ Posizio eta mugimenduen deskribapena, norberari eta beste erreferentzia puntu batzuei dagokienez.

▪ Hiztegi geometrikoak erabiltzea ibilbideak deskribatzeko: lerro ireki eta itxiak; zuzenak eta kurbatuak.

▪ Ibilbideen krokisak hitzez interpretatu eta deskribatzea eta horiek egitea.

–Forma lauak eta espazialak:

▪ Irudiak eta beren elementuak. Eguneroko objektu eta espazioetan irudi lauak identifikatzea.

▪ Objektu ezagunetan gorputz geometrikoak identifikatzea. Horien forma deskribatzea, oinarriko hiztegi geometrikoak erabiliz.

▪ Irudi eta gorputz geometrikoak oinarriko irizpideen bidez konparatu eta sailkatzea.

▪ Irudi lauak eta gorputz geometrikoak eratzea, beste batzuen konposizio eta deskonposiziotik abiatuta.

–Erregulartasunak eta simetriak:

▪ Irudietan eta gorputzetan erregulartasun elementuak bilatzea, objektuen manipulaziotik abiatuta.

▪ Espazioko erlazioei buruzko informazioak dituzten mezuak interpretatzea.

▪ Problema geometrikoak ebaztea, datuen esanahia, planteatutako egoera, jarraitutako prozesua eta lortutako soluzioak ahoz eta idatziz azalduz.

- Formak eta beren ezaugarriak identifikatzeko interesa eta kuriositateak.

- Nork bere ahalbideetan konfiantza izatea, eta soluzioak bilatzeko kuriositatea, interesa eta jarraitutasuna izatea.

4. multzoa.–Informazioaren tratamendua, ausa eta probabilitatea

–Grafiko estatistikoak:

- Fenomeno hurbilei buruzko grafiko errazen elementu garrantzitsuak ahoz deskribatzea, horiei buruzko informazio kualitatiboa lortzea eta interpretazioa egitea.

- Ingurune ezagun eta hurbiletan datuak bildu eta antolatzea oinarrizko teknikak erabiltzea.

–Esperientzia batzuen ausazko izaera:

- Ezinezkoa, segurua eta litekeena –baina segurua ez dena– bereiztea, eta ohiko hizkuntzan probabilitateari dagozkion adierazpideak erabiltzea.

- Talde lanean eta ikaskuntza antolatuan aktiboki parte hartu eta laguntzea, egiazko egoerei buruzko ikerketatik abiatuta. Besteen lana errespetatzea.

Ebaluazio irizpideak

1. 999rainoko zenbakiak zenbatu, irakurri eta idaztea eskatzen duten problema errazak formulatzea.

Irizpide honen bidez egiaztatzen ahalko da zenbakien erabilerari buruz lortutako ezagutzak asmatutako egoerei aplikatzeko gaitasuna. Egoera ezagunetan milakora arteko zenbakiak erabiliz informazioak interpretatu eta emateko gaitasuna ebaluatuko da. Baloratu nahi da, orobat, adierazitako magnitude ordenan, zenbaki-sistema hamartarrean zenbakiak duten posizio balioa menderatzen den, bai eta idazkera zifratua eta ahozko izenak lortzeko gaitasuna baduten ere.

2. Objektu, gertaera edo egoera ezagunen kopuru txikiak konparatzea, konparazioaren emaitzak interpretatu eta adieraztea, eta hamarreko hurbilenera arte biribiltzeko gai izatea.

Objektuen kopuru txikiak ahoz edo idazkera zifratuaren bidez zenbateteko gaitasuna baloratu nahi da, kalkulu zehatzaren aurreko etapa gisa. Kontaketa edo eragiketa egin eta gero, aurretik egindako zenbatespenarekin erkatzeko gaitasuna baloratu behar da. Halaber, biribiltzen badakiten baloratuko da; horretarako, kalkulu baten hamarreko hurbilenera arteko emaitza hautatu beharko dute arrazoizko erantzunen artean.

3. Batuketa, kenketa eta biderketarekin zenbakizko oinarrizko kalkulak egitea eguneroko bizitzako egoeretan, zenbait prozedura eta estrategia pertsonalak erabiliz.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da zer gaitasun duten zenbaki-sistema hamartarrean egitura erabiltzeko batuketa, kenketa eta biderketetako kalkuluetan, egokiena den prozedura hautatzerakoan malgutasuna erakutsiz. Ohiko inguruneetan buruzko kalkulurako estrategia propioak garatzeko gaitasunari begiratuko zaio bereziki. Eragiketen propietateak intuizioz aplikatzen dituzten eta arrazoitzeak ahoz azaltzeko gaitasunik baduten ere baloratuko da.

4. Objektu, espazio eta denbora ezagunak konbentzionalak ez diren neurketa unitateekin (arra beteak, urratsak, baldosak...) eta konbentzionalak (kilogramoa; metroa, zentimetroa; litroa; eguna eta ordua) neurtzea, kasu bakoitzean egokienak diren eta eskura dituzten tresnak erabiliz.

Irizpide honen bidez baloratu nahi da beren inguruneko objektuak eta espazioak neurtzeko duten gaitasuna; hots, neurketak egiten ahal dituzten unitate ez-konbentzionalak eta konbentzionalak erabiliz, eta neurketarako tresna bat edo beste hautatzerakoan neurtzen denaren ezaugarriak kontuan hartzen dituzten eta, hori bezala, emaitzak azaltzeko neurketa unitatea.

5. Espazio hurbileko objektu baten egoera deskribatzea, bai eta norberari dagokionez egiten den lekualdatze bat ere, ezker-eskubi, aurre-atze, goi-behe, hurbil-urrun eta hurbileko-urruneko kontzeptuak erabiliz.

Irizpide honekin orientaziorako eta espazioaren irudikapenerako gaitasunak ebaluatu nahi dira, horretarako kontuan hartuz bai deskribapenean erabiltzeko hizkuntza bai objektu eta egoerei buruz planoan egiten den irudikapena.

6. Forma angeluzuzenak, triangeluarrak, zirkularrak, kubikoak eta esferikoak dituzten objektu eta espazioez ohartzea ingurune hurbilean.

Ingurunean forma geometriko lau edo espazial oinarrizkoenez ohartzeko gaitasuna baloratu nahi da irizpide honen bitartez. Espazio ezagunen gainean informazioak ahoz edo idatziz jaso eta emateko gaitasuna baduten baloratzea garrantzizkoa da; zikloko geometria hitzak zuzen erabiltzen dituzten begiratuko da.

7. Barra-grafiketan aurkeztutako datuen oinarrizko interpretazioak egitea. Grafikoak irakurtzea eskatzen duten problema errazak formulatu eta ebaztea.

Egoera ezagunen grafiko errazak interpretatzeko gai diren baloratuko da eta informazio zenbakariak grafikoki ezagutzeko trebetasunik baduten egiaztatuko. Haurrak ausari buruzko oinarrizko kontzeptu eta hitzekin ohituta dauden ere ebaluatu nahi da: segurua, litekeena, ezinezkoa...

8. Eguneroko bizitzako objektu, gertaera eta egoerekin zerikusia duten problema errazak ebaztea, batuketa eta kenketako eragiketak hautatuz eta kasuan kasuko oinarrizko algoritmoak edo ebazpeneko beste prozedura batzuk erabiliz. Problema bat ebazteko jarraitutako prozesua ahoz azaltzea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da Matematikako testuak ulertzen dituzten eta ebazteko beharrezko problemarako egokia den eragiketa hautatu eta aplikatzeko gai diren. Prozedura bat baino gehiago erabiltzeko gaitasunik baduten eta ebazpen prozesua ahoz eta idatziz adierazteko heldutasunik erakusten duten ikustea ere garrantzitsua da.

Bigarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Zenbakiak eta eragiketak

–Zenbaki arruntak eta zatikiak:

- Zenbaki-sistema hamartarra. Zifren posizio balioa. Egiazko egoeretan erabiltzea.

- Zenbakiak arteko ordena eta erlazioak. Notazioa.

- Zatikizko zenbakiak egiazko inguruneetako partiketak eta erlazioak adierazteko; horretarako egokiak diren hitzak erabiltzea.

- Zatikizko errazak konparatzea: ordenamendu eta adierazpide grafikoaren bidez.

–Eragiketak:

- Egoera ezagunetan biderketa batuketa laburtu gisa erabiltzea, forma angeluzuzendunetan eta konbinazio problemetan.

- Zatiketa banatu eta biltzeko erabiltzea egiazko egoeretan.

- Zenbakiak eta zenbakizko kalkulua egiazko egoeretako problemak ebazpenerako erabiltzeko interesua izatea, eta ebazpen prozesuak eta lortutako emaitzak ahoz eta idatziz azaltzea.

–Kalkuluko estrategiak:

- Zenbakiak batuketa eta biderketako deskonposizioa. Biderkatzeko taulak osatu eta buruz ikastea.

- Algoritmo estandarrek erabiltzea problemak ebazpenean (batuketa, kenketa, biderketa eta zifra batez zatitzea).

- Kalkuluak buruz egiteko estrategia pertsonalak erabiltzea.

- Bi zenbakiren arteko eragiketa baten emaitza zenbatetean, erantzuna arrazoizkoa den baloratuz.

- Kalkulagailua erabiltzea eguneroko bizitzako problemak ebazteko, kalkuluen konplexutasunaren arabera erabiltzea komeni den erabakiz.

- Nork bere ahalbideetan konfiantza izatea eta zenbakiak, beren erlazioak eta eragiketak jarraitutasunez erabiltzea informazioak eskuratu eta adierazteko, eguneroko bizitzako problemak ebaztekoan ekimen pertsonala erakutsiz.

- Kalkuluak eta beren emaitzak garbi, ordenatuta eta argi aurkezteko interesa izatea.

- Zenbakiak, beren erlazioen eta eragiketen inguruan ikaskuntza autonomoak garatzeko joera izatea.

2. multzoa.–Neurria: magnitudeen zenbatespena eta kalkulua

–Luzera, pisua/masa eta edukiera:

- Eguneroko egoeretan neurketak egitea neurketarako tresna eta unitate konbentzionalak erabiliz.

- Neurketako unitate konbentzionalak: eguneroko erabiltzen diren multiploak eta azpimultiploak, egiazko inguruneetan erabiltzen direnak. Neurri bat adierazteko egokiena den unitatea hautatzea.

- Magnitude bereko unitateak eta kantitateak konparatu eta antolatzeko.

- Neurketak egiteko estrategia pertsonalak prestatu eta erabiltzea.

- Eguneroko bizitzako objektuen neurriak zenbatetean.

- Neurketan jarraitutako prozesua eta erabiltzeko estrategia ahoz eta idatziz azaltzea.

- Neurria ezagutu eta erabiltzeko eta neurketen zenbakizko emaitzak adierazteko interesa, betiere erabiltzeko unitateak zein diren esanez eta jarraitutako prozesua ahoz eta idatziz azalduz.

–Denbora neurtzea:

- Denbora neurtzeko unitateak: erloju analogiko eta digitalean irakurtzea.

- Nork bere ahalbideetan konfiantza izatea, eta informazioak lortu eta adierazteko eta egiazko egoeretako problemak ebazteko neurria erabiltzen duten prozesuak besteekin partekatzea nahia.

- Prozesua garbi eta ordenatuta aurkezteko eta neurriak hala adierazteko interesa.

3. multzoa.–Geometria

- Espazioko kokapena, distantziak, angeluak eta biraketak
 - Espazio ezagunen oinarriko irudikapena: planoak eta maketak. Posizioen eta mugimenduen deskribapena ingurune topografiko batean.
 - Lerroak ibilbide gisa: zuzenak eta kurbatuak, zuzenen ebakidura eta zuzen paraleloak.
- Forma lauak eta espazialak:
 - Eguneroko bizitzan irudi lauak eta espazialak identifikatzea.
 - Poligonoen sailkapena. Aldeak eta erpinak.
 - Zirkunferentzia eta zirkulua.
 - Gorputz geometrikoak: kuboak, esferak, prismak, piramideak eta zilindroak. Ertzak eta aurpegiak.
 - Objektuen forma deskribatzea, oinarriko hiztegi geometrikoak erabiliz.
 - Irudi geometriko lauak egitea datuetatik abiatuta, eta gorputz geometrikoak garapen batetik abiatuta. Oinarriko forma geometrikoak aztertzea.
 - Irudi eta gorputz geometrikoak zenbait irizpideren bidez konparatu eta sailkatzea.
- Erregulartasunak eta simetriak:
 - Eraldaketa metrikoak: translazioak eta simetriak.
 - Eraikuntza geometrikoak txukun egin eta aurkezteko interesa.
 - Ebazpen prozesuak eta lortutako emaitzak partekatzeko nahia. Talde lanean modu aktiboan eta arduraz parte hartzea.
 - Nork bere ahalbideetan konfiantza izatea, eta eraikuntza geometrikoak eta objektuak eta erlazio espazialak erabiltzeko jarraitutasuna.

4. multzoa.–Informazioaren tratamendua, ausa eta probabilitatea

- Grafikoak eta taulak
 - Datuen taulak. Datuak biltzeko estrategia eraginkorrak erabiltzen hastea.
 - Objektu, gertaera eta egoera ezagunei buruzko datuak bildu eta erregistratzea, inkesta, behaketa eta neurketako oinarriko teknikez baliatuz.
 - Sarrera biko taulak, eguneroko bizitzan ohikoak direnak, irakurri eta interpretatzea.
 - Gertaera ezagunei buruzko grafiko errazetako elementu esanguratsuen interpretatu eta hitzez deskribatzea.
 - Grafikoak eta taulak ordenatuta eta argi prestatu eta aurkezteko joera.
- Esperientzia batzuen ausazko izaera:
 - Ausak tokia duen esperientzien emaitzak baloratzea, izan litezkeen gertaerak daudela (batzuk gertagarriago beste batzuk baino) eta emaitza zehatz bat aurretik jakitea ezinezkoa dela ohartzeko.
- Ausaren hizkuntza erabiltzen hastea.
 - Nork bere ahalbideetan konfiantza izatea, eta modu grafikoan aurkeztutako datuak interpretatzeko kuriositatea, interesa eta jarraitutasuna izatea.

Ebaluazio irizpideak

1. Sei zifra arteko zenbaki arruntak irakurri eta idaztea eguneroko egoeretan, zifra bakoitzaren posizio balioa interpretatuz, eta zenbakiak posizio balioaren arabera eta zenbakizko zuzenean konparatu eta ordenatuz.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da sei zifra arteko kantitateak egiazko egoeretan erabiltzen badakiten, posizio balioaren kontzeptutik abiatuta. Egiaztatu nahi da, halaber, eguneroko bizitzako egoeretan gai ote diren magnitude horretako kantitateekin egoerak interpretatu eta adierazteko, zenbaki bateko zifren serie idatziaren antolaketa menderatzen duten eta zuzenean kokatzen badakiten.

2. Zenbaki arruntekin zenbakizko kalkuluak egitea, zenbaki-sistema hamartarraren eta eragiketen propietateen ezagutza erabiliz, problemak ebazteko egoeretan.

Irizpide honen bidez egiaztatuko da gai ote diren kalkuluetan zenbaki-sistema hamartarraren egitura eta eragiketen propietateak erabiltzeko, egokiena den prozedura hautatzerakoan malgutasuna erakutsiz, nahiz eta algoritmo idatziak menderatzen dituzten bereziki begiratu beharko den.

3. Kalkuluak buruz egiteko estrategia pertsonalak erabiltzea, batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa bakunetan.

Kalkulu errazak buruz egiteko estrategia pertsonalak arin samar erabiltzeko gauza diren baloratuko da. Erabilitako estrategiak nola azaltzen dituzten begiratu da bereziki. Kalkuluak azkar egitea baino gehiago baliozko emaitzetara iristen diren baloratuko da; hots, baliozko emaitza zehatz edo zehatzetsiak, esku hartzen duten zenbakiak arabera eta kalkulua zein egoeratan egin behar den kontuan hartuta.

4. Egiazko egoeretan zenbatespenak eta neurketak egitea, neurtu beharreko objektuaren tamainari eta izaerari hobekien egokitzen zaizkion unitate eta tresnak hautatuz ohiko neurketa unitate eta tresnen artean.

Irizpide honen bidez baloratuko da gai ote diren neurketarako tresna edo unitate egokiena hautatzeko, neurtu behar dena zer den ikusita. Gutxi-asko baino betiere arrazoizkoak diren aurreikuspenetatik abiatuta zenbatespenak egiteko duten gaitasuna ere aztertu nahi da. Egiaztatu nahi da, era berean, eguneroko bizitzako egoeretan zikloari dagozkion neurketa unitateak erabiltzen diren, batzuk beste batzuetara bihurtzen diren eta neurketen emaitzak neurketa unitate egokienean adierazten diren. Halaber, arrazoitzeak ahoz eta idatziz azaltzeko gaitasuna baloratuko da.

5. Informazio zehatza lortzea eta espazioaren irudikapen bat deskribatzea (ibilbide baten krokisa, pista baten plano...) erreferentzia gisa objektu ezagunak hartuz, eta mugimendu geometrikoen oinarriko nozioak erabiltzea eguneroko bizitzako egoerak deskribatu eta ulertzeko eta adierazpen artistikoak baloratzeke.

Irizpide honekin orientaziorako eta espazioaren irudikapenerako gaitasunak ebaluatu nahi dira, horretarako kontuan hartuz bai erabilitako hizkuntza bai objektu eta egoera ezagunei buruz planoan egiten den irudikapena, eta propietate geometrikoak (lerrokadura, paralelotasuna, perpendikularitasuna...) erreferentzia gisa erabiltzea egoera bereziak deskribatzeko. Horrekin batera, ikusi nahi da mugimenduak planoan egoki erabiltzen diren bai eguneroko egoerei buruzko informazioak eman eta hartzeko, bai simetriak eta translazioak dituzten arte agerpenak identifikatu eta berregiteko ere.

6. Espazioko forma eta gorputz geometrikoak ezagutu eta deskribatzea (poligonoak, zirkuluak, kuboak, prismak, zilindroak, esferak).

Gorputz eta irudi lauen oinarriko propietateak ezagutzen dituzten baloratu nahi da irizpide honen bidez. Horretarako garrantzitsua da bai irudiak bai gorputzak zenbait irizpideren arabera sailkatzeko gaitasuna baloratzea. Bereiziki, libreki hautatutako irizpideen arabera egiten diren sailkapenetan jarriko da arreta.

7. Eguneroko bizitzako gertaera eta objektuei buruzko datuak bilteza bilketarako teknika errazak erabiliz, datu horiek sailkapeneko irizpide bati jarraituz ordenatzea eta emaitzak taula edo grafiko baten bidez adieraztea.

Irizpide honen bidez baloratu nahi da zer gaitasun duten datuen bilketa eraginkorra egiteko eta emaitzak kasuaren arabera grafiko estatistiko egokiaren bidez azaltzeko. Egoera ezagunei buruzko grafiko errazak deskribatu eta interpretatzeko gaitasuna ere ebaluatuko da.

8. Inguruneari lotutako problemak, plangintzaren bat behar dutenak, ebaztea, zenbaki arruntekin egin beharreko bi eragiketa aplikatuz gehienez, bai eta geometriako edo informazioaren tratamenduko oinarriko edukiak ere, eta problemak ebazteko estrategia pertsonalak erabiltziz.

Irizpide honi esker testu matematikoak ulertzen dituzten ebaluatuko da, eta problemen ebazpenerako eta lortutako ezagutzen aplikaziorako estrategia pertsonalak erabiltzeko nolako gaitasuna duten egiaztatuko. Horretaz gainera garrantzizkoa da prozedura bat baino gehiago erabiltzen duten eta soluzioak bilatzean jarraitutasunik baduten ikustea, bai eta jarraitutako prozesua ahoz eta idatziz argi adieraztea ere.

*Hirugarren zikloa**Edukiak*

1. multzoa.–Zenbakiak eta eragiketak

–Osoko zenbakiak, hamartarrak eta zatikiak

▪ Sei zifratik gorako zenbakien izena eta grafia egiazko egoeretan erabiltzea.

▪ Multiplikoak eta zatitzaileak.

▪ Zenbaki positiboak eta negatiboak. Egiazko egoeretan erabiltzea.

▪ Zatikizko zenbakiak. Zatiki balioak lortzea.

▪ Zenbaki hamartarrak. Posizio balioak eta baliokidetasunak. Zenbaki hamartarrak eguneroko bizitzan erabiltzea.

▪ Osoko zenbakiak, hamartarrak eta zatikiak konparazioaren eta irudikapen grafikoaren bidez ordenatzea.

▪ Zatiak portzentajeak erabiliz adieraztea. Zatiki bakunen, hamartarren eta portzentajeen arteko korrespondentzia.

▪ Aurreko kulturetako zenbaki-sistemak eta gaur egungo eraginak.

–Eragiketak:

▪ Berretura, faktore berdin biderkadura gisa. Karratuak eta kubuak.

▪ Eragiketen hierarkia eta parentesiaren erabilera.

–Kalkuluko estrategiak:

▪ Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketaren eragiketak egitea zenbaki mota desberdinekin, eguneroko egoeretan eta problemak ebaztekoetan.

- Biderkatzeko taula erabiltzea multiploak eta zatitzaileak identifikatzeko.

- Oinarrizko ehunekoak kalkulatzeko egiazko egoeretan.
- Kalkulu baten emaitza zenbatestea eta arrazoizkoak diren zenbakizko erantzunak baloratzea.

- Eguneroko bizitzako problemak ebaztea, kalkuluak buruz egiteko estrategia pertsonalak eta zenbakien arteko erlazioak erabiliz, eta datuen esanahia, planteatutako egoera, jarraitutako prozesua eta lortutako soluzioak ahoz eta idatziz azalduz.

- Kalkulagailua erabiltzea problemak ebazteko, kalkuluen konplexutasunaren arabera erabiltzea komeni den erabakiz.

- Arrazoitzeak egiteko eta soluzio baten baliozkotasunari buruzko argudioak emateko gaitasuna, akatsak, halakorik bada, identifikatzeko.

- Talde lanean modu aktiboan eta arduraz parte hartzea, estudiantutako edukiak aplikatzea eskatzen duten problemak ebazterakoan ekimenez jokatzeko.

2. multzoa.–Neurria: magnitudeen zenbatespena eta kalkuluak

–Luzera, pisua/masa, edukiera eta azalera

- Rudiak modu zehatzean eta hurbilduan neurtzeko estrategia pertsonalak garatzea.

- Neurketak egitea neurketarako tresna eta unitate konbentzionalak erabiliz.

- Magnitude bereko unitateen arteko baliokidetasunak.

- Objektu eta espazio ezagunen luzerak, azalera, pisuak eta edukierak zenbatestea; neurtzeko eta neurri bat adierazteko unitate eta tresna egokienak hautatzea.

- Neurketetan eta zenbatespenetan jarraitutako prozesua eta erabilitako estrategia ahoz eta idatziz azaltzea.

- Azalera unitateak erabiltzea.

- Rudi lauen azalera gainezarpenez, deskonposizioz eta neurketaz konparatzea.

–Denbora neurtzea

- Denbora neurtzeko unitateak eta horien arteko erlazioak. Denbora minutu eta segundo bidez zehatz adieraztea.

- Orduen, minutuen eta segundoen arteko baliokidetasunak eta eraldaketak egiazko egoeretan.

–Angeluen neurketa:

- Angelua, biraketa edo irekidura baten neurri gisa. Angeluen neurria eta angeluak neurtzeko tresna konbentzionalak erabiltzea.

- Neurketa eta neurriak erabiltzea problemak ebazteko eta informazioak ulertu eta helarazteko.

- Neurketa tresnak eta erreminta teknologikoak arretaz eta zehaztasunez erabiltzeko interesa jartzea, bai eta unitate egokiak erabiltzeko ere.

3. multzoa.–Geometria

–Planoko eta espazioko kokapena, distantziak, angeluak eta biraketak.

- Angeluak posizio desberdinetan.

- Koordenatu kartesiarren sistema. Posizioak eta mugimenduak koordenatuen, distantzien, angeluen, biraketen eta abarren bidez deskribatzea.

- Espazioaren oinarrizko irudikapena, eskala eta grafiko errazak.

- Marrazketako tresnak eta programa informatikoak erabiltzea forma geometrikoak eraiki eta aztertzeko.

–Forma lauak eta espazialak:

- Triangelu bateko aldeak eta angeluen arteko erlazioak.

- Rudi lauak eta gorputz geometrikoak eratzea, beste batzuen konposizio eta deskonposizioetik abiatuta.

- Forma geometrikoak deskribatu eta irudikatzen direnean zehaztasunez aritzeko interesa.

–Erregulartasunak eta simetriak:

- Irudietan eta objektuetan simetriak ikustea.

- Rudi lau bat, emandako elementu bati dagokion beste batekiko simetrikoa, egitea.

- Antzekotasunari buruzko oinarrizko jakitea: handitzeak eta murrizteak.

- Espazioaren antolaketarekin eta erabilerarekin zerikusia duten ziurgabetasun egoeren aurrean soluzioak bilatzeko interesa eta jarraitutasuna. Nork bere ahalbideetan konfiantza izatea, eraikuntza geometrikoak eta objektuak eta erlazio espazialak egiazko egoeretakoren problema ebazpenerako erabili ahal izateko.

- Lan geometrikoak argi eta ordenatuta aurkezteko interesa.

4. multzoa.–Informazioaren tratamendua, ausa eta probabilitatea

–Estatistikako grafiko eta parametroak

- Datuak bildu eta erregistratzea, inkesta, behaketa eta neurketak oinarrizko teknikez baliatuz.

- Informazioa irudikatzea forma desberdinak. Estatistikako grafiko motak.

- Estatistikako grafikoaren bidez aurkezten diren informazioak kritikoki aztertzearen garrantzia baloratzea.

- Batez besteko aritmetikoa, moda eta heina, egoera ezagunetan aplikatzea.

- Grafikoak eta taulak ordenatuta eta argi prestatu eta aurkezteko joera.

- Informazioa grafikoak egiteko lortu eta erabiltzea.

–Esperientzia batzuen ausazko izaera:

- Ausak eguneroko bizitzan zer toki duen. Gertaera baten probabilitate maila zenbatestea.

- Problemak ebaztean sortzen diren zailtasunak gainditzeko go-goetaren, arrazoitzearen eta jarraitutasunaren beharra dagoela baloratzea.

- Nork bere ahalbideetan konfiantza izatea, eta eduki funtzionalak ulertu ahal izateko tresna teknologikoak erabiltzeko interesa.

Ebaluazio irizpideak

1. Zenbaki mota desberdinak (arruntak, osokoak, zatikiak eta hamartarrak ehundarrak arte) irakurri, idatzi eta ordenatzea, arrazoitze egokiak eginez.

Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da egiazko egoeretan zenbaki mota desberdinak nola erabiltzen dituzten, horien balioa interpretatuz eta modu desberdinetan idatzitako zenbakiak konparatu eta tartekatzea gai izanez.

2. Zenbakizko eragiketa eta kalkulu errazak eragiketen propietateei erreferentzia egiten dieten prozedura desberdinen bidez egitea, buruz egiteko kalkuluak barne, problemak ebazteko egoeretan.

Zenbakiaren eragiketak egiteko gaitasuna eta eragiketen hierarkiari buruzko ezagutza egiaztatu nahi da. Era berean, baloratzeak dira eragiketen propietateen erabilera, estrategia pertsonalak eta kalkuluen arabera erabiltzen diren prozedurak (algoritmo idatziak, buruz egiteko kalkuluak, gutxi gorabeherako kalkuluak, zenbatespena, kalkulagailua), erabilera egokienari buruz erabakiz.

3. Zenbaki hamartarrak, zatikizkoak eta portzentaje errazak erabiltzea, eguneroko bizitzako egoeretan informazioa interpretatu eta trukatzeko.

Irizpide honekin egiaztatuko da zenbaki mota desberdinak egiazko egoeretan erabiltzen dituzten, horien artean baliokidetasunak ezarri, eta problemen interpretazio eta ebazpenean eragile gisa identifikatu eta erabiltzeko gai diren.

4. Egiazko egoeretan, neurketarako ohiko tresnen eta unitateen artean egokienak hautatzea, aurretik zenbatespenak eginez, eta luzeraren, azalaren, pisuaren/masaren, edukieraren eta denboraren neurriak zehatz adieraztea.

Irizpide honi jarraikiz atzeman nahi da kasu bakoitzean egokienak diren neurketa tresnak hautatzeko gai diren, bai eta luzeraren, edukieraren, masaren eta denboraren neurriak zenbatesteko gai diren ere, arrazoizko aurreikuspenak eginez betiere. Horrekin batera, ikusi nahi da gai ote diren neurketarako ohiko unitateak zuzen erabiltzeko, unitate batzuk magnitude bereko beste batzuetara bihurtzeko eta neurketen emaitzak neurketa unitate egokienetan adierazteko. Halaber, arrazoitzeak ahoz eta idatziz eta geroz eta autonomia handiagoaz azaltzeko gaitasuna baloratuko da.

5. Paralelotasunaren, perpendikularitasunaren, simetriaren, perimetroaren eta azaleraren nozio geometrikoak erabiltzea eguneroko bizitzako egoerak deskribatu eta ulertzeko.

Irizpide honen bidez ikusi behar da ikasleek nozio horiek ikasi dituzten eta horiei dagozkien hitzak informazioa eman eta eskatzeko erabiltzen badakiten. Eduki horiek zenbait informazio ulertu eta emateko zuzen erabiltzen dituzten ebaluatuko da eta, bereziki, inguruneko problema geometrikoak ebazteko erabiltzen diren.

6. Erreferentzia sistema batetik eta objektu edo egoera ezagunetatik abiatuta egindako espazioaren irudikapen bat interpretatzea (ibilbide baten krokisa, etxeen planoak eta maketak).

Irizpide honi jarraikiz ebaluatu nahi da gaitasun espazialak garatu dituzten erreferentzia puntuak, distantziak, lekualdatzeak eta, kasu batzuetan, koordenatu ardatzak oinarri hartuta, espazio ezagunen irudikapenen bidez.

7. Ingurune hurbilari buruzko datu multzo baten irudikapen grafikoak egin, irakurri eta interpretatzea. Ausak esku hartzen duen egoera errazen emaitzarik (litekeena, ezinezkoa, segurua, gutxi-asko izan litekeena) buruzko esperientzian oinarritutako zenbatespenak egitea.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da informazio zenbakaria bildu eta erregistratzeko gaitasuna, irudikapen grafikoaren baliabide erraz batzuk erabiltzeko: datuen taulak, barra multzoak, diagrama linealak... eta hala adierazitako informazioa ulertu eta emateko gaitasuna. Gainera, gertaera batzuk ezinezkoak direla, beste batzuk ia ziurtasun osoz iza-

tekoak direla, edo beste batzuk errepikatu egiten direla (errepikatze hori litekeena izanik, gutxi-asko) ohartzen diren ikusiko da. Nozio horiek esperientzian oinarrituta daude.

8. Problema errazak ebatzi behar direnean, arrazoizko soluzio bat aurretik ematea eta ebazpen prozesurako egokienak diren prozedura matematikoak bilatzea. Estrategia desberdinak baloratzea eta datu eta soluzio zehatzak bilatzen ahalegintzea, bai problemaren formulazioan bai ebazpenean. Problema ebazteko prozesua nolakoa izan den ordenatuta eta argi, ahoz eta idatziz, adieraztea.

Irizpide honen helburua, bereziki, testu matematikoak ulertzen diren ebaluatzea da, bai eta problema ebazteko gaitasuna ere, jarraitutako prozesua kontuan hartuta. Egiaztatu nahi da ikasleek modu logiko eta gogoetsuan ebazten ahal duten problema bat, eta datuak aurkezten eta soluzio zuzen bat bilatzen ordenak eta argitasunak garrantzia dutela ohartzen diren, hala akatsak atzemateko, jarraitutako arrazoitzea azaltzeko eta soluzio baten baliozkotasunari buruzko argudioak emateko.

GAZTELANIA ETA LITERATURA, EUSKARA ETA LITERATURA ETA INGELESA: HIZKUNTZEN TRATAMENDU INTEGRATUA

Sarrera

Derrigorrezko hezkuntzaren xedea da pertsonaren garapen integral eta harmoniatsua, alderdi intelektual, afektibo eta sozialetan. Garapen horren funtsezko osagaia hezkuntza linguistikoa eta literarioa da: hezkuntza linguistikoa hizkuntza gizarako jardueraren arlo desberdinetan erabiltzeko gaitasuna izan da; hezkuntza literarioa, berriz, gure kultur inguruneko testu literario garrantzitsuak gaitasunez irakurtzeko behar diren trebetasun eta abilezien multzoa izan da.

Irakasgai honen xedea da komunikatzeko gaitasuna garatzea. Komunikatzeko gaitasuna da gizarako arlo desberdinetan modu egokian elkar eragiteko hizkuntzari buruz eduki behar diren ezagutzen eta erabilera-prozeduren multzoa. Jakintza horiek guztiak elkartrukeen lehen-biziko lekuan ageri diren printzipio eta arau sozialei dagozkie, edo testuek gure kulturaren dituzten forma konbentzionalak, edo multzo kohesio-natu batean testuaren zatiak artikulatzen dituzten prozedurei, edo esanahia duten eta gramatikalki onargarriak diren esakuneak eraikitze bidea ematen duten arau lexiko-sintaktikoei, edo arau ortografikoei.

Hezkuntza literarioak alde aurretiko ikaskuntza multzo bat behar du, baina berariazko gaitasunak inplikatzeko, komunikazio literarioak berezko dituen ezaugarri batzuei zor zaizkienak, halaber hezkuntzaren erabilera literarioaren konbentzio propioei zor zaizkienak eta, azkenik, testu literarioak testuinguru kulturalarekin dituen erlazioei ere zor zaizkienak.

Komunikatzeko gaitasuna pentsamenduak, sentimenduak eta egitateak, ahoz zein idatziz, adierazteko eta interpretatzeko trebetasuna da, testuinguru sozial eta kulturalen sorta zabal batean –eskola, lana, etxea eta aisia–. Lehen hizkuntzan (L1) ondoko ezagutzak, trebetasun edo abileziak eta jarrerak behar dira:

a) Ezagutzak:

–Oinarritzko hiztegia, gramatika funtzionala eta estiloa eta hizkuntzaren funtzioak sendo ezagutzea.

–Ahozko elkarreragin mota desberdinen (hizketaldiak, elkarrizketak, eztabaidak eta abar) eta ahozko hizkuntzaren estilo eta erregistro desberdinen oinarritzko ezaugarrien kontzientzia.

–Komunikazioaren ezaugarri paralinguistikoa ulertzea (ahotsaren ezaugarriak, aurpegierak, keinu eta jarreraren sistemak).

–Testu literario mota desberdinen kontzientzia (maitagarrien ipuinak, mitoak, elezaharrak, olerkiak, poesia lirikoak, antzerkia, ipuin laburrak, eleberrak) eta haien ezaugarri nagusien kontzientzia; halaber, testu ez-literarioen motak (curriculum vitae, formularioak, txostenak, edito-rialak, saioak, hitzaldiak eta abar) eta haien ezaugarri nagusiak.

–Idatzizko hizkuntzaren (formala, ez-formala, zientifikoa, kazetari-tzakoa, lagunartekoa eta abar) bereizgarriak ulertzea.

–Hizkuntzak eta komunikazio moduek denboran zehar eta esparru geografiko, sozial eta komunikatibo desberdinetan duten aldagarritasunaren kontzientzia.

b) Trebetasunak edo abileziak:

–Ahoz zein idatziz komunikatzeko trebetasuna, eta mezuak egoera ugarian eta xede desberdinekin ulertzeko edo ulertarazteko trebetasuna.

Komunikazioak bere baitan hartzen du ahozko mezuak entzuteko eta ulertzeko trebetasuna, komunikazio egoera desberdinetan, eta argi eta zehatz hitz egiteko trebetasuna. Halaber, bere baitan hartzen du zerbait ulertarazteko gauza izan garen kontrolatzeko trebetasuna, bai eta komunikazio ingurune desberdinetan hizketaldi bat hasteko, hizketaldian aritzeko eta hizketaldiari amaiera emateko trebetasuna ere.

–Era askotako testuak irakurtzeko eta ulertzeko trebetasuna, estrategia egokiak hartuz irakurketaren helburuaren arabera (informatzeko xedez irakurtzea, ikasteagatik edo plazer hutsarengatik irakurtzea).

–Era askotako testuak, xede desberdinekin, idazteko trebetasuna, idazteko prozesua kontrolatuz (zirriborrotik hasi eta zuzenketaraino).

–Idatzizko informazioa, datuak eta kontzeptuak bilatu, jaso eta prozesatzeko trebetasuna, haiek ikasketetan erabiltzeko eta ezagutzak modu sistematikoan antolatzeko. Entzutean, hitz egitean, irakurtzean eta idaztean, informazio garrantzitsua eta garrantzirik gabekoa bereizteko trebetasuna.

–Norberaren argudioak formulatzeko trebetasuna, ahoz nahiz idatziz, konbentzitzeko moduan, kontuan hartuz beste ikuspuntu batzuk, ahoz nahiz idatziz adierazitatekoak.

–Behar diren abileziak testu konplexuak idatziz nahiz ahoz (hitzaldiak, hizketaldiak, jarraibideak, elkarrizketak, eztabaidak) sortzeko, aurkezteko edo ulertzeko baliabideak (esate baterako, oharak, eskemak, mapak) erabiltzeko.

a) Jarrerak:

–Hizkuntzarekiko jarrera positiboa garatzea, hura norbera eta kultura bera aberasteko balizko iturri bat dela aitortuz.

–Beste batzuen iritziak eta argudioak jasotzeko jarrera, aurreiritzirik gabe, eta elkarrizketa kritiko eta eraikitzaileak edukitzeko jarrera.

–Jendaurrean hitz egiteko konfiantza.

–Adierazpenetan nolokotasun estetiko bat lortzearen ahaleginak egiteko jarrera, hitzen/esaldien zuzenketa tekniko hutsa gaindituz.

–Literatura baloratzea.

–Kulturen arteko komunikazioaren aldeko jarrera positiboa garatzea.

Azaldutakoaren antzera, bigarren hizkuntzen arloan (L2), komunikatzeko gaitasuna da pentsamenduak, sentimenduak eta egitateak ulertzeko, adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahoz nahiz idatziz, testuinguru sozialen sorta egoki batean –lana, etxea, aisia, hezkuntza eta prestakuntza– hizkuntza desberdinetan, betiere norberaren desioen eta beharren arabera. Lehen hizkuntzaren (L1) oinarritzko elementu batzuk hartzen ditu, baina hizkuntzen gaitasun mailaren arabera aplikatuko dira:

a) Ezagutzak:

–Hiztegiari eta gramatika funtzionalari, intonazioari eta ebakerari dagozkien ezagutzak.

–Ahozko elkarreragin mota desberdinen kontzientzia izatea (esate baterako aurrez aurrekoa, telefono bidezko hizketaldiak, elkarrizketak eta abar).

–Testu literarioen eta ez-literarioen sorta egokia ezagutzea (esate baterako, ipuin laburrak, olerkiak, egunkari eta aldizkarietako artikulak, web orriak, jarraibideak, gutunak, txosten laburrak eta abar).

–Estilo eta erregistro desberdinen ezaugarri nagusiak ulertzea ahozko eta idatzizko hizkuntzan (formala, ez-formala, kazetaritza, lagunartekoa eta abar).

–Gizartearen konbentzioen, alderdi kulturalen eta esparru geografiko, sozial eta komunikatibo ezberdinetan hizkuntzak daukan aldagarritasunaren kontzientzia.

b) Trebetasunak:

–Komunikazio egoeren sorta egoki bateko ahozko mezuak (gai ezagunak, interes pertsonalekoak edo eguneroko bizitzari buruzkoak) entzuteko eta ulertzeko trebetasuna.

–Gai ezagunei, interes pertsonaleko gaiei edo eguneroko bizitzari buruzko gaiei buruzko elkarrizketak hasteko, mantentzeko eta bukatzeko trebetasuna.

–Era askotako gaiei buruzko idatzizko testu ez-espezializatuak irakurtzeko eta ulertzeko trebetasuna; batzuetan, ezagutzen den arlo bateko testu espezializatuak irakurtzeko eta ulertzeko trebetasuna. Xede ezberdineko eta egoera ugarietako testu mota desberdinak idazteko trebetasuna.

–Baliabideak egoki erabiltzea (esate baterako, apunteak, diagramak, mapak) ahozko edo idatzizko testuak ulertzeko edo sortzeko (esate baterako, hizketaldiak, jarraibideak, elkarrizketak, hitzaldiak).

–Hizkuntza bat ikasteko jardueraren autonomoen aukera egokia hasteko eta mantentzeko trebetasuna.

c) Jarrerak:

–Desberdintasun kulturekiko sentiberatasuna eta estereotipoen aurkako erresistentzia.

–Oro har, hizkuntzekiko (horien barne direla inguruko hizkuntzak, erregioetako hizkuntzak, gutxiengo hizkuntzak eta hizkuntza zaharrak, zeinuen hizkuntza eta abar) eta kulturen arteko komunikazioarekiko interesa eta jakin-mina.

Horrenbestez, gaitasun bat gauzatze efektibo eta zehatz batean artikulatzen diren ezagutzen, trebetasunen (egiten jakitea, egiteko trebetasunak...) eta jarreraren konbinazio bat da. Osagai horien ikuspegi zati-kako eta berezituaren aurka, hemen eta orain azpimarratu nahi da aplikazio praktikoetan haiek izan behar duten elkarreragin egokiaren garrantzia.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bilakaera, garapen eta zabalkunde azkarrak berarekin ekarri du sekula ez bezalako areagotzea nazioarteko harremanetan. Gure gizartea, gainera, guztiz sarturik eta konprometiturik dago Europa eraikitzekeko prozesuan, eta hartan, hizkuntza propioak eta hizkuntza komunitarioak ezagutzea gakoa da pertsonen zirkulazio askea eta estatu kideen arteko lankidetzak kultural, ekonomiko, tekniko eta zientifikoa bideratzeko. Ikasleak prestatu egin behar ditugu, bada, gero eta nazioartekoagoa eta kulturaren eta hizkuntzaren arloan anizkoitzagoa den mundu batean bizitzeko. Beste hizkuntza batzuk ikasteak komunikazioaren eta beste kulturak aintzat hartzearen mugak zabaltzen ditu. Hizkuntza berriak lehendik ezagutzen diren beste hizkuntzak kontrastatzeko eta haien guztien osagaiak eta ezaugarriak hobeki ulertzeko balioko du, bai eta arlo desberdinetan komunikatzeko gaitasuna garatzeko ere. Ezinbestekoa da hizkuntzak baliostea eta aintzat hartzea.

Arloak oinarritzko gaitasunak garatzeko egiten duen ekarpena

Arlo honetako curriculumaren kontzeptioak berak, hizkuntzak komunikazioaren testuinguru desberdinetan eduki beharreko erabilera sozialean azpimarra jartzeko baitu, agerian uzten du zuzeneko ekarpen bat egiten diola hizkuntza-komunikazioaren gaitasuna osatzen duten alderdi guztien garapeneri.

Azpimarratzekoa da, halaber, komunikatzeko gaitasuna osatzen duten estrategiak hizkuntza jakin baten bidez eskuratzen direla, baina ez dutela soilik balio hizkuntza hori erabiltzen jakiteko, oro har hizkuntzaren erabilerrari buruzkoak baitira. Hizkuntzak ikastearen ezaugarri horrek garrantzi handia dauka, zeren eta hizkuntza batean eginiko ikaskuntzak beste hizkuntza batzuk ikasterakoan aplikatzen baitira, eta beste hizkuntza batzuk jakitea, bestalde, lagungarria da hizkuntzaren erabilera orokorrari buruzko gaitasun hori areagotzeko.

Jakintzak eskuratzeak eta ezagutzak hizkuntzaren bidez eraikitzeak zuzeneko lotura du ikasten ikastea eta norberaren autonomia eta ekimena izeneko oinarritzko gaitasunekin. Hizkuntza, komunikatzeko tresna bat izateaz gainera, mundua irudikatzeke bide bat da, eta pentsamenduen eta ezagueraren oinarrian dago; gainera, aukera ematen du nor bere buruarekin komunikatzeko, arazoak analizatzeko, planak lantzeko eta erabaki-prozesuei ekiteko. Azken batean, gure jardura bera erregulatzen eta orientatzen du, autonomia gero eta handiagoarekin. Hori dela eta, arlo honetatik hizkuntza garatzea eta hobetzea lagungarria da pentsamendua antolatzeke, afektuak eta sentimenduak komunikatzeko eta emozioak erregulatzeko, eta bi gaitasun horien garapena errazten du.

Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala izeneko gaitasunerako ere, arlo hau lagungarri suertatzen da, informazioa eta komunikazioa bilatzeko, hautatzeko eta tratatzeko ezagutzak eta trebetasunak ematen baititu; bereziki lagungarria da informazioa, haren egitura eta testu-antolamendua ulertzeko eta hura ahozko eta idatzizko produktioan erabiltzeko. Arloko curriculumak barne hartzen du testuak egitean euskarri elektronikoko erabiltzen jakitea; horrek euskarri-aldaketa huts bat baino gehiago dakar, zeren eta eragina izaten baitu idatzeko prozesuan (plangintza, testua idaztea, berrikustea...) esku hartzen duten eragiketetan ere; izan ere, eragiketa horiek arlo honetako oinarritzko edukietan sartzen dira. Hori dela eta, erabiltzen diren neurrian, gaitasun digitala eta informazioaren tratamendua hobetzen laguntzen dute. Gainera, komunikabide digital berriek, etengabe sortzen doazenenak, idazketaren erabilera sozial eta lankidetzakoa suposatzen dute, eta horrek bidea ematen du idatzizko hizkuntzaren ikaskuntza egiazko komunikazio truke baten esparruan kokatzeko.

Hizkuntzak indar handiz laguntzen du gaitasun soziala eta hiritar gisako gaitasuna garatzen, ulerturik gaitasun hori bizikidetasunerako, errespeturako eta pertsonen arteko elkar ulertzerako gaitasunen eta trebetasunen multzoa dela; izan ere haiek eskuratzeke hizkuntza beharrezkoa da, komunikazioaren oinarri gisa. Hizkuntza bat ikastea, beste ezer baino lehen, besteekin komunikatzen ikastea da, haiek transmititzen dutena ulertzen jakitea, errealitate ezberdinekin harremana izaten jakitea eta norberaren adierazpena onartzen jakitea, gainerakoei irekitzeko funtsezko modu gisa.

Bestalde, hizkuntzaren arloko behar bezalako hezkuntzak, hizkuntza guztiak komunikatze eta irudikatze funtzioetarako berdin egokiak direla baloratzen duen neurrian, munduari buruzko aurreiritzi eta irudi estereotipatuak transmititzeko eta adierazteke hizkuntzak erabiltzen dituen moduak aztertzen ditu, hain zuzen ere hizkuntzaren erabilera bazter-taileak desagerrarazteke, eta gaitasun hori garatzen laguntzen du.

Hizkuntza propioa lehen mailako elementu kultural gisa aitortzeaz gain, arlo honetan obra literarioen irakurketak, ulertzeak eta baloratzeak lagundu egiten dute gaitasun artistikoa eta kulturala garatzen.

Hizkuntzen tratamendu integratua

Trebetasun linguistikoek ez dute isolaturik funtzionatzen, elkar integratzen baitute eta elkarrekiko lotura baitute; desberdinak dira, baina batera dihardute komunikazioa lortzeko. Hori dela eta, trebetasun horien

irakaskuntzak ere integratua izan behar du. Ulertzeko eta adierazteke gaitasunen garapenak ere orekatua izan behar du. Kontuan izan behar da komunikatzeko gaitasuna oinarritzko trebetasun linguistikoaren baturik dela, eta ez soilik trebetasun horien menperatze isolatua. Trebetasunen integrazioa ezinbestekoa da; batetik, hizkuntzen tratamenduen aurretikoa da, eta, bestetik, tratamenduak irauten duen bitartean gauzatzen da.

Hizkuntza irudikatzeke eta komunikatzeko, sozializatzeke eta ikasteko bitarteko nagusia da; hori dela eta, ikaslearen prestakuntza integratzen gakoa da. Curriculumeko arlo guztiek hitzeke gaitasunen garapenean hartzen dute parte, eta guztiek eragina dute oinarritzko gaitasun linguistikoaren hobekuntzan. Horren guztiaren osagarri gisa eta horrekin bat etorritz, irakasgai linguistikoek ikasleak laguntzen eta prestatzen dituzte lanerako eta ikasketarako teknikak garatzeko (oharrak hartzea, eskemak, mapa semantikoak, laburpenak, azalpenak, argudiatzea eta abar), eta teknika horiek ezinbestekoak dira arlo guztietan. Gainera, hizkuntzaren ikaskuntzak ere esanahi handiagoa hartzen du arlo desberdinetako curriculum edukia ikasteko bide bihurtzen baldin bada.

Nafarroako curriculumean hizkuntza desberdinak egoteak beharrezkoago egiten du haien arteko lan koordinatua eta integratua egitea, zeren eta hizkuntzak ez baitira era independentean garatzen gizabana-koan. Gaitasun linguistikoak aukera ematen du hizkuntzen arteko konparazioa eta alderaketa egiteke eta haien arteko eragina gerta dadin. Hizkuntza baten ezagutza hobetzeak hobekuntzak dakartzkie besteek; hizkuntza bakoitzean ikasten denak kontzientzia metalinguistikoak handitzen du, eta ikaslearen garapen kognitiboa susta dezake. Ikasketa batzuk (ezagutzak, prozedurak, estrategiak) hizkuntza batean ikasi eta besteetara transferitzen ahal dira. Transferentzia horrek curriculum esparru bat eta hura sustatuko duen irakaslan bat behar ditu.

Gainera, kontuan hartu behar da hizkuntzek curriculumean hartzen duten papera desberdina dela hizkuntza ereduaren arabera (G, A edo D ereduak), eta aintzat hartu behar da zein den ikasleak horietako bakoitzean duen hasierako gaitasuna eta gaitasun erreala. Bestalde, hizkuntzen erabilera akademikoari dagokionez, lehen eta bigarren hizkuntzei buruz hitz egin daiteke (eta gerta daiteke Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuk sartzea lehen hezkuntzako azken zikloan edo bigarren hezkuntzako aukerako irakasgai gisa; horiek, ikuspuntu akademikotik, hirugarren hizkuntza gisa hartu behar bako lirateke). Lehen hizkuntzak xede du helburu konplexuagoak lortzea, metalinguistikoak horien barne direla –hizkuntzari buruzko gogoetari, lan komunikatiboei eta abarrei buruzkoak– eta eskola ordu gehiago dauzka. Beste hizkuntzek ikuspegi berriak gehitzen dizkiete lehen hizkuntzei, baina haietan lan errazagoak egiten dira, eta lehen hizkuntzan erakutsitako oinarritzko prozesu eta estrategien praktikak zabaltzeko aukera ematen dute. Bestalde, ikaslearen gaitasun linguistikoari dagokionez, ikasteko egoera ugari gerta daitezke (ama hizkuntzaz beste batean eskolatzen diren ikasleak, murgilte ereduatan daudenak, hezkuntza premia bereziak dituztenak...), eta haietarako berariazko proposamen didaktikoak behar bako dira.

Hizkuntzen tratamendu integratuak metodologia bateratua eskatzen du. Koordinazioa are beharrezkoago egiten da ikastetxeen errealitate eleanitza ikusita, eta errealitate hori gero eta nabarmenagoa da beste hizkuntzak dituzten ikaslearen etorrerarekin eta Europar Batasuneko hizkuntzak gero eta lehenago sartzearrekin. Horretarako, ezinbestekoa da hizkuntza irakaslearen koordinazioa.

Izan ere, curriculum integratuak honakoak bideratuko ditu: ikaskuntzen elkarren osagarritasuna, hizkuntza bakoitzaren berariazko alderdi linguistikoari buruzko kontraste lana eta hizkuntza batean ikasitakoak besteetara transferitzeko eta haietan aplikatzeko eta orokortzeko lana. Horrenbestez, eduki asko (ezagutzak, prozedurak, estrategiak, jarrerak) eta ikuspegi metodologikoa berdinak dira curriculumeko hizkuntza guztietan.

Ikastetxeak eskolako hizkuntza guztiekiko –hizkuntza akademikoak nahiz girokoak izan– jarrera positiboa sustatu behar du, eta sustatu behar du, halaber, hizkuntzak hezkuntza lanaren berezko esparruetan erabil daitezkeen, bai ikasgela barruan (hizkuntzak irakasteko gelak, ikasle taldeak, hizkuntzen erregistroen aniztasuna...), bai ikastetxean (hizkuntzen presentzia eskolako paisaian, patioa jardueretan, jardura osagarrietan eta eskolaz kanpoetean, familiekiko elkarrekin...). Ingurunean ikasitako orokortzea eta erabiltzea bultzatu behar da, bai eta etapa eta ikastetxe desberdinen arteko koordinazioa ere.

Integrazioak bidea emanen du kontraesanak eta beharrik gabeko errepikapenak saihesteko, bai eta oharkabeko hutsuneak betetzeko ere. Bestelako onurak ere baditu: hizkuntza batean ikasitakoak besteetan duen oihartzuna; ezagutzen, prozesuen eta estrategien transferentzia edo indartzea; lan oinarritzkoenak eta beharrezkoenak gehiago praktikatzea; aukera ematen du beste hizkuntza batzuetan eta hizkuntza horiekin prozesu bat gauzatzeko moduari buruzko ikuspegi kontrastatua izateke, eta hizkuntza bakoitzak nola funtzionatzen duen ikusteko.

Erreferentziako Esparru Europar Bateratua (EEEE) eta Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE)

Azken hamarkadetan, Europako Kontseiluak ikerketa bat egin du berrogeita bat estatu kideetako linguistika aplikatuko eta pedagogiako adituekin. Lan horri esker, orain hizkuntzen irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren helburuak eta metodologia, programen lanketa eta hizkuntza desberdinen ebaluazio irizpideak definitzen dituen oinarri bateratu bat dauka.

EEEEak eta HPBak hizkuntzak ikasteko eta hiztunaren gaitasuna baloratzeko jarraibideak ezartzen ditu. Esparruak hizkuntza jakin bateko gaitasun komunikatiboaren garapenaren mailak definitzen ditu, arlo jakin bateko komunikazio helburu zehatz bat lortzeko egin beharrekoak gauzatzeko ikasleak behar duen gaitasunaren arabera. Agiri hori hizkuntza curriculumetarako gako-erreferentzia da.

Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE) irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako laguntza-tresna bat da. Agiri pertsonal bat da, norberaren ikaskuntza, aurrerabidea eta ebaluazioa analizatzen laguntzen duena.

Eduki multzoak

Edukiak multzotan banatzeak ez du nahitaz adierazi nahi haien ordenatze sekuentzial edo hierarkikoa; izan ere, hizkuntzak ikasteari begira orokorrean onartzen den banaketa bat da, komunikatzeko trebetasunekin lotura zuzena duena. Eskuratu beharreko gaitasunaren konplexutasuna ere erakusten du.

Hizkuntzaren erabilerak lehenetsun bat izan behar du edukiak ikasi eta barneratzeko. Ikasgelako jarduerak komunikazio irizpideekin eta irizpide didaktikoekin hautatu eta gauzatu behar dira. Testuen produkzio gidatua –ahozko nahiz idatzizko testuak izan–, ereduak aurkeztuz edo analizatuz eta haien sormenezko imitazioa eginez edo haiak eraldatuz egindakoa, horrela xede eta egoera ulertzeko egokitzeko, baliabide eraginkorra izanen da trebetasunak (ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena) integratzeko eta hizkuntzen tratamendu integratua lortzeko.

Testu mota desberdinak landuko dira, ahoz nahiz idatziz, etapa osoan zehar. Helburua izanen da ikasleek ikastetxean eta gizartearen topatzen dituzten askotariko testu eta lanak hartzea. Curriculumeko beste hizkuntza batzuetan ikasitako testu-generoak berreskuratuko dira, eta lehendik landutako alderdiak sakonduko dira, bereziki gogoetari, komunikatzeko asmoari, diskurtsoaren elementuei eta gogoeta gramatikaren alderdiei dagokienez.

Testuen tipologiari eta hizkuntza garatzen den testuinguruari dago-kienez, ontzat ematen da ikasgelako komunikazio truke arruntak behin eta berriz agertuko direla hezkuntzaren etapa guztietan zehar: hizketaldiak, simulazioak, jarraibideak, galde-erantzunak, iruzkinak, gertakari buruzko kontak. Lehen hizkuntzetan ematen den testu-tipologia, bigarrenetan ere aplikatuko da, baina irismen eta maila oinarrikoago batez.

Edukien multzo bakoitzean, trebetasunen eta estrategien atala sartu da, eta hartan aurretik agertzen diren edukien hautapena garatuko da. Atal horrek ikasgelako jardueren plangintza erraztu eta zehaztu nahi du. Estrategiak irakasten eta ikasten direnez, lehenetsuna eman behar zaio ikasleek hizkuntza desberdinetan egoera askotariko eta desberdinetara transferitu ditzaketen prozedura orokorrak garatu eta erabiltzeari. Estrategiak ez daude antolatuturik ez kronologikoki, ez garrantziaren araberrako hurrenkeran ere.

Edukiak bost multzotan banatu dira:

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.
2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.
3. multzoa.–Hezkuntza literarioa (L1). Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia (L2)
4. multzoa.–Hizkuntzaren ezagutza.
5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.

Trebetasun linguistikoei dagozkien eduki multzoak –ulertzea eta hitz egitea eta irakurtzea eta idaztea– bereizirik ageri dira curriculumean diskurtso mota bakoitzaren oinarriko alderdiak berariaz landu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, ahozko erabilera formalak eta idatzizko erabilerak alderdi asko dituzte batera (aldez aurretik ezarritako gaia, edukieren plangintza, sintaxia eta hiztegia, arau estandar bati lotuta egotea...), eta komunikazio egoera ugari erabilera bat baino gehiago konbinatzen dira, bi ikaskuntzak lortzeko eta bie elkar sendotzeko aukera emanez.

Ahozko erabilera ez-formalak –harreman ohikoa eta familiarra duten hizlarien arteko erabilera espontaneo– bidea ematen du elkartrukea gidatzen duten arau sozio-komunitarioekin, erregistro desberdinekin eta tokiko hizkerekin, hiztunek behar bezalako komunikazioa lortzeko eta estereotipoak eta aurreiritziak ezagutu eta kritikatzeko jokoan jartzen dituzten estrategiek inoiz.

Trebetasun linguistiko horien ikaskuntza hizkuntzaren erabileraren esparru batzuetan garatzen da: eremu akademikoan, pertsonen arteko

eta erakundeekiko harremanen eremuan eta komunikabideen eta informazioaren teknologien eremuan. Hizkuntza erabiltzeko egoera desberdinetan trebetasun linguistiko jakin batzuetara jotzen da, zeren eta testuen –ahozkoak eta idatzizkoak– ulermenak eta osaketak berariazko trebetasun eta estrategiak behar baitituzte, komunikatzeko elkartruke motaren, elkartruke hori gertatzen den testuinguru sozialaren eta erabiltzen den testu motaren arabera.

Multzo horiek derrigorrezko hezkuntzan zehar ikasteko, maila batzuk ezarri dira, diskurtso-praktikek ikasleen esperientzia linguistiko eta kulturalarekiko duten hurbiltasunaren arabera, testuen barneko antolamenduen duen konplexutasunaren arabera eta esleutitako lanen zaitasunaren arabera.

Testu literarioak irakurtzeko eta interpretatzeko –3. multzoa– berariazko ikaskuntza batzuk beharko dira; horiek lehen hezkuntzan hasiko dira lantzen, errezitatzeekin, joko erretorikoekin, ahozko literaturako testuak entzutearekin edo dramatizazioekin. Horrela, lehen hurbilketa bat eginen da oinarriko konbentzio literarioetara eta obren eta horien testuinguru historikoaren arteko erlazioetara. Horrekin guztiarekin batera, irakurketaren plazerezko esperientziak eta testu literarioen bisortzea bideratuko dira. Hezkuntza literarioaren orientazio horrek jarraipena izanen du derrigorrezko bigarren hezkuntzan; orduan irakurtzeko azturak finkatuko dira, irakurketaren eta testu-birsorkuntzaren esparruetan izandako esperientziak ugalduko dira, eta konbentzio literarioei buruzko behaketa eta obren eta horien testuinguru historikoen arteko erlazioa sistemizatuko dira.

Bigarren hizkuntzetan, 3. multzoa –Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia– lagungarri gertatzen da ikasleek ezagutu ditzaten kasuko hizkuntza hitz egiten den gizartearen ohiturak, harreman sozial motak eta berezitasunak; azken batean, beraienaz bestelako bizimoduak. Ezagutza horrek tolerantzia eta elkarren onartzea sustatzen du, beste errealitate sozial eta kultural batzuk ezagutzeko interesa areagotzen du eta kulturen arteko komunikazioa errazten du.

Bigarren hizkuntzetan, trebetasun literarioen multzoetan ageri da hezkuntza literarioa, hain zuzen ere testuen, trebetasun nahiz estrategien eta eduki kulturalen bitartez.

4. multzoak –hizkuntzaren ezagutza– eduki literarioak eta kontzeptu eta terminologia gramatikal batzuen barneratzea integratzen ditu. Multzo hau egotearen arazoia da trebetasun linguistikoak eta komunikatzekoak barneratzeak berarekin dakarrela hizkuntzaren alderdi desberdinen gogoetazko erabilera: arau gramatikal eta ortografikoak; testuari kohesioa ematen laguntzen duten osagai morfosintaktikoak; eduki bera adierazteko erabil daitezkeen aukera sintaktiko desberdinak; hitzak osatzeko tresnak; dialektoak, erregistroak eta erabilera sozialak determinatzen dituzten faktoreak, eta abar.

Eduki linguistikoen irakaskuntza testuinguru emanegaz gauzatu behar da, zeren eta horrekin ikasleen trebetasunak eta produkzioak hobetu nahi baitira.

5. multzoan –hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta– bilatzen da ikasleak ikasteko eta lan egiteko estilo pertsonal eta eraginkorra garatzea, estrategiak etengabe hobetzen joateko. Kontua da ikasleek gero eta hobeki jakitea nola eta noiz ikasten eta lan egiten duten gehiago. Halaber, lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta testuinguru batekin garatu behar da, gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez.

OHAR gehigarria, hirugarren hizkuntzak (L3): atzerriko bigarren hizkuntza sartzen denean, lehen hezkuntzan nahiz derrigorrezko bigarren hezkuntzan, hizkuntza horren edukiak bigarren hizkuntzarako kasuan kasuko etapako lehen mailetan ezarritakoak izanen dira, ikasleen ezaugarrien eta gaitasun linguistiko orokorraren arabera egin beharreko egokitzapenekin.

GAZTELANIA ETA LITERATURA (L1)

Helburuak

Lehen hezkuntzan, gaztelania eta literatura irakasgaiaren irakaskuntzak honako gaitasunak garatzea izanen du helburu:

1. Ahoz eta idatziz modu egokian ulertzen eta adierazten jakitea jarduera sozial eta kulturalaren testuinguru desberdinetan.
2. Baliatzea, batetik, hizkuntzari buruzko ezagutzez, eta, bestetik, modu egokian, koherentean eta zuzenean idatzeko eta hitz egiteko, eta ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko erabilera linguistikoaren arauari buruzko ezagutzez.
3. Ahozko hizkuntza egoki erabiltzea jarduera sozial eta kulturalen, errespetuzko eta laguntzazko jarrera edukiz, norberaren sentimenduen kontzientzia hartzeko eta norberaren jokamoldea kontrolatzeko.
4. Eskolarekin eta eskola-jarduerarekin loturiko egoeretan, erakunde publiko edo pribatuekiko komunikazioan erabiltzen diren idazki mota desberdinak erabiltzea.

5. Komunikabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazio eta iritzi desberdinak lortu, interpretatu eta baloratzeko.

6. Hizkuntza eskola-jardueran eraginkortasunez erabiltzea, bai informazioa aurkitu, bildu eta prozesatzeko, bai esparru akademikoak berezkoak dituen testuak idazteko.

7. Irakurketa plazera eta aberastasun pertsonala lortzeko bide gisa erabiltzea, eta tradizio literarioaren obra garrantzitsuetara hurbiltzea, irakurtzeko azturak garatzeko.

8. Gaiaren eta konplexutasunaren ikuspuntutik egokiak diren genero desberdinetako testu literarioak ulertzea, eta hizkuntza literarioaren berriazko konbentzioen ezagutzetan hasia.

9. Espainiako errealitate eleanitza aberastasun kultural gisa baloratzeko.

10. Hizkuntzen erabilera sozial desberdinei buruz gogoeta egitea, balio-juzkuak eta aurreiritzi klasistak edo sexistak dakartzaten estereotipo linguistikoak saihesteko.

11. Ikaskuntzarako abileziak eta trebetasunak barneratzea eta komunikazioari buruzko ezagutzak eta estrategiak beste hizkuntza batzuetara transferitzea.

Lehen zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

Eta honetan zehar, ikasleek ikasi behar dute testuinguru batzuetan egoki adierazten, edukia eta adierazpenaren forma xedeari eta mintzakideei egokitu. Halaber, ikasi behar dute besteei egoki erantzuten, esandakoaren haria eta mintzakideak erabilitako hizkuntza gordez. Halaber, ikasleek ikasi behar dute hizketaaldietan parte hartzen, txandak errespetatuz eta aztergaiari buruzko ekarpen muntadunak eginez. Pixkanaka, hizkuntzaren erabilera formalenak sartzen joanen da.

Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaille moduan landuko dituzte, batez ere.

–Entzutea eta ulertzea.

▪ Ikasteko ahozko testuak ulertzea, bai xede didaktikoz sortutakoak bai eguneroko erabilerakoak (gelako azalpenak, dokumentalak).

▪ Haurren esperientziatik hurbil dauden egitate eta gertaerei buruzko irratiko eta telebistako ahozko testuak ulertzea eta baloratzeko (filmak, dokumentalak).

▪ Era askotako euskarrietako ikus-entzunezko informazioak ulertzea eta haien arteko erlazioak ezartzea (identifikazioa, sailkapena, konparazioa).

–Hitz egitea eta hizketan aritzea:

▪ Parte hartzea eta laguntzea gelako komunikazio egoeretan (oharrak, jarraibideak, bizipenak eta sentimenduen buruzko hizketaaldiak edo narrazioak), argitasunez eta hiztegi, forma linguistiko, intonazio eta ebakera egokiak erabiliz.

▪ Ikasteko ahozko testuak produzitzea, didaktikoak nahiz eguneroko gaiak buruzkoak (ikasleek aurrean azalpen laburrak egitea, ikaskuntzaren edukiei buruzko hizketaaldiak eta lanaren antolamenduari buruzko azalpenak).

▪ Ahozko elkarreraginari buruzko arauak baloratzeko eta errespetatzea (hitz egiteko txandak, ahots bolumenaren moderazioa eta erritmo egokia erabiltzea).

▪ Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan.

▪ Hizkuntza ez baztertzalea eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

–Testuak:

▪ Narrazio testuak: ipuinak, gertaeren narrazioa alaitasuna, harridura edo bestelako sentimenduen bat sortzen duen zerbaiten kontatzea.

▪ Filmak eta dokumentalak.

▪ Dramatizazioak eta rol-playing.

▪ Deskribapenak: norberaren edo ahaideren baten deskribapenak, ipuin ezagun bateko pertsonaienak, animalia batenak, gauza batenak, paisaienak...

▪ Jarraibideak: errezetak, jokoak, aginduak

▪ Hizketaaldi espontaneoak

–Estrategiak eta trebetasunak:

▪ Arretari eustea gelan aurkezturiko informazioetan, grabazioetan, antzerkian, ikuskizunetan.

▪ Entzundakoari buruzko ideia orokorra eta xehetasun oso garrantzitsuak identifikatzea.

▪ Ipuin bateko gertaeren sekuentzia egitea.

▪ Testuaren ulermen orokorrari buruzko galderei erantzutea.

▪ Kontaera batean fikzioa eta errealitatea bereiztea.

▪ Ahozko diskurtsoa antolatzea ordena logikoari eta kronologikoari jarraituz.

▪ Gelako hizketaaldietan aktiboki parte hartzea, txanda errespetatuz eta ahots bolumen eta erritmo egokiak erabiliz.

▪ Entzundakoari buruzko iruzkin egokiak egitea, iritziak eta jarraibideak ematea, sentimenduak eta ikuspuntuak azaltzea, galdetzea...

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

–Idatzizko testuak ulertzea

Irakurtzeko behar diren trebetasunen –testua deskodetzea eta irakurketa funtzionala– barneratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berriazko kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narratiboak baloratzeko). 3. multzoarekin lotura estua edukiz, oso garrantzitsua da irakurtzeko zaletasuna sustatzea, gozamen eta prestakuntza iturri gisa.

Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaille moduan landuko dituzte, batez ere.

–Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea

▪ Informazio zehatzak ulertzea haurren esperientziatik hurbil dauden eguneroko egoerei buruzko testu propioetan; esate baterako, gonbiteak, zorion-emateak, oharrak eta deiak.

▪ Haurren esperientziatik hurbil dauden egitate eta gertaerei buruzko informazio orokorra ulertzea, komunikabideetatik heldu diren testuetan; albisteetan jarriko da azpimarra berezia.

▪ Informazioak ulertzea ikastera bideratu eta esperientziarekin oso lotuta dauden testuetan, bai xede didaktikoarekin sortutakoetan, bai eguneroko erabiltzen direnetan (liburuxkak, deskribapenak, jarraibideak eta azalpenak).

▪ Ozenki irakurtzea, ebakera, erritmo, eten eta intonazio egokiak erabiliz.

▪ Ikasteko euskarri desberdinetatik heldu diren ezagutzak eta informazioak integratzea (identifikazioa, sailkapena, konparazioa).

▪ Informazioaren eta komunikazioaren teknologien eta liburutegien erabileraren hastapenak, informazioa eta idatzizko lanen ereduak lortzeko.

▪ Idatzizko testuekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta esperientziak komunikatzeko eta bizikidetasuna arautzeko bitarteko gisa.

–Idatzizko testuak sortzea:

▪ Haurren esperientziatik hurbil dauden eguneroko egoerei buruzko testu propioak sortzea; esate baterako, gonbidapenak, zorion-emateak, ohar edo deiak. Horretarako, genero horietan ohikoak diren ezaugarriak erabiliko dira.

▪ Komunikabideen testu bereizgarriak sortzea (titularrak, argazki-oinak, albiste laburrak...) haurren esperientziatik hurbil dauden gertaerei buruz, eskola esparruan egokiak diren euskarriak erabiliz (horma-irudiak, eskola-egunkariak, aldizkariak...).

▪ Eskolaren esparruarekin lotutako testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdetegiak, laburpen edo eskema gisa erabiltako zerrendak, deskribapenak, oinarritzko azalpenak...).

▪ Asmo literarioko testuak sortzea, adinerako egokiak (biko erri-matua, esloganak, elkarrizketak, ipuinak...).

▪ Idatzizko konbentzioak barneratzea: zehaztasuna, argitasuna, errepikapenak saihestea.

▪ Osagai grafiko eta paratestual errazak erabiltzea ulermena errazteko (ilustrazioak eta tipografia).

▪ Testuak prozesatzeko programa informatikoak erabiltzen hasia.

▪ Idazketarekiko interesa, harremanak izateko, informazioa lortzeko eta ikasteko tresna den aldetik.

▪ Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa, eta arau ortografikoekiko interesa.

–Testuak

▪ Narrazio testuak:

- Narrazio errealak edo fantasiakoak, ilustrazioekin.

- Dramatizazioa.

- Postal edo gutun pertsonalak, gonbidapenak.

- Eguneroko bizitzako gertakariak.

▪ Deskribapenak:

- Norberaren edo ahaideren baten deskribapenak, ipuin ezagun bateko pertsonaienak, animalia batenak, gauza batenak, paisaienak...

- Argazki-oina

- Jarraibideak: errezetak, jokoak.
- Estrategiak eta trebetasunak
- Aldez aurretiko ezagutzak aktibatzea.
- Izenburua interpretatzea.
- Zuzentasunez erantzutea testuen hitzez hitzeko ulermenari eta ulermen orokorrari buruzko galderei.
 - Irakurketa adierazgarriaren baliabideak aplikatzea: intonazioa, erritmoa, etenak.
 - Irakurketan aurrera eta atzera egitea, ulermena errazteko.
 - Ohiko erabilera duten testuen esanahi orokorra ulertzea.
 - Testuaren zati garrantzitsuenak ezagutzea: hasiera, korapiloa eta amaiera.
 - Ezagutzen ez diren hitzen esanahia galdetzea.
 - Testuarekin batera doazen irudiak interpretatzea.
 - Eskatutako lan bati erantzuteko testu idatziak lantzea, paragrafoak bereiziko dituen egitura bat erabiliz.
 - Testua antolatzea. Aurkezpena, txukuntasuna eta lekuaren banaketa. Letraren irakurgarritasuna: tamaina, lerrokatzea.

3. multzoa.–Hezkuntza literarioa

Hezkuntza literarioa hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan sartzan da. Literatura egitate estatiko eta komunikatibo bat da, egilearen eta hartzaileen artekoa; lagungarria da norberaren kultura identifikatzeko eta beste batzuk ezagutzeko. Ezin da esan hizkuntza literarioa aldaera homogeen bat denik, hizkuntza arruntaz bestelakoa. Funtzionalki desberdina den erabilera bat da, bereizgarri komunikatibo zehatz batzuk dituen. Hizkuntza literarioaren ezagupena testu literarioak ulertuz eta sortuz landuko da. Literatura, horrenbestez, beste bitarteko bat da trebetasun linguistikoak garatzeko.

- Testu literarioen entzunaldia eta irakurketa gidatua, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko.
 - Haurren interesen eta haien giza prestakuntzaren beharren arabera irakurketa gidatua eta autonomia, isilpean eta ozenki, irakurtzeko autonomiara iristeko pixkanaka.
 - Ikasgelako eta ikastetxeko liburutegia erabiltzea, ikus-entzunezko agiriak ere bai, irakurketara hurbiltzeko bitarteko gisa.
 - Zikloari egokitutako olerkiak memorizatzea eta erreztatzea, erritmo, ebakera eta intonazio egokiek.
 - Narrazio testuak eta izaera poetikokoak (asmakizunak, atsotitzak...) birsortzea eta berridaztea, ereduak erabiliz.
 - Egoera eta testu literarioak dramatizatzea.
 - Irakurketa baloratzea, gai eta testuen hautaketarekiko interesa; lehenetsun pertsonalen komunikazioarengatik interesa; testu literarioa norberaren gozamenarako tresna dela antzematea.

–Estrategiak eta trebetasunak

- Entzutea ipuinak, olerkiak, aho-korapiloak, lelotegiak, asmakizunak, abestiak.
- Ahozko testuak memorizatzea eta azaltzea, aldez aurretiko lan bat eginez testuaren ulermenari buruz eta parte hartzeko gustua sustatuz.
- Narratzea, erreztatzea edo interpretatzea ipuinak, asmakizunak, olerkiak, lelotegiak eta aho-korapiloak.
- Adinari egokitutako testuak dramatizatzea, taldean parte hartze-gatik gustua garatuz.

4. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

Ikasleek hizkuntza barneratzeko prozesuari jarraipena ematen zaio eta prozesu hori hobetzen da, menperatze hobe eta handiagoa bideratuko duten elkarreraginak eta erabilera egoerak sustatuz. Gainera, ikasleen artean erabilera gogoetatsua sustatu behar da, pixkanaka proposatuz produkzioak behatzeko, analizatzeko eta manipulatzen jarduerak. Horrek bidea eman die ikasleei ezagutza linguistikoak eta oinarriko terminologia garatzeko. Soilik ikasleen komunikatzeko gaitasuna hobetzearen ikuspuntutik justifikatzen da eta esanahia ematen zaio, adin hauetan, gramatikaren inguruko gogoetari; hau da, aintzat hartu behar dira ikasleen ezaugarri kognitibo eta linguistikoak, eta gogoeta komunikazio egoera desberdinekin eta prozesu diskurtsiboekin lotu behar da.

- Egoera sozialek komunikazioaren elkartrukeak baldintzatzen dituen faktore gisa betetzen duten papera aitortzea.
- Komunikazioa testu idatzen bitartez gertatzen den testuinguruak identifikatzea eta idazketak esparru batzuetan daukan garrantzia baloratzea.
- Ikasgelan maiz erabiltzen diren testuak identifikatzea, elementu paratestual eta testuuletatik abiatuta.
- Ahozko eta idatzizko hizkuntzen arteko desberdintasunei erreparatzea.
- Soinuaren eta grafiaren arteko harremanari erreparatzea hizkuntzaren sisteman.
 - Hitza idazketa zatitzeko oinarriko tresna gisa identifikatzea.
 - Ortografia arau errazenen ezagutzea.

- Osagai linguistikoak ordeztzea, txertatzea, kentzea, ordenaz aldatzea eta zatitzea, esakuneen funtzionamendua ikusteko eta baliabide berriak barneratzeko.

- Produktzio eta interpretazio jardueretan, ondoko terminoak identifikatzen eta erabiltzen hastea: landutako testuen izenak; esakunea, hitza eta silaba; izena, izen arrunta eta izen berezia; generoa eta numeroa.

–Estrategiak eta trebetasunak

- Ahozko eta idatzizko produktzioetan hiztegia zabaltzea, eremu semantikoak, hitzen familiak, maiz erabiltzen diren sinonimoak eta antonimoak erabiliz.
 - Komunikazioa lortzea erregistro egokia erabiliz eta adierazpide arruntgetara jo gabe.
 - Testuen produktzioaren esanahi orokorra.
 - Testua paragrafo desberdinetan banatzea.
 - Ondoz ondoko denbora adierazteko testu markagailuak eta lokailuak.
 - Aditz denborak bereiztea: orainaldia, lehenaldia eta geroaldia.
 - Testu zatiak manipulatu eta eraldatzea.
 - Alfabetoa, alfabeto hurrenkera erabiltzen hastea.
 - Hiztegia erabiltzeko hastapenak.

5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.

Ikasleek lortu behar dute ikasteko eta lan egiteko estilo pertsonal eta eraginkor bat garatzea, gauzak ulertzeko eta adierazteko dauzkaten estrategiak etengabe hobetzera bideratuko dituen; xedea da ikasleek gero eta modu kontzienteagoan jakitea nola eta noiz ikasten duten eta lan egiten duten gehiago eta hobeki. Argi dago lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta, eztabaida eta adibideak eta abar gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez garatu behar direla.

- Eskolako lan pertsonalak eta taldeko lanak eta eginbeharrak eraginkortasunez egitea.
- Hizkuntzari eta hizkuntzei, ikaskuntzari berari eta lanaren antolamenduari buruz gogoeta egitea.
- Hiztegia, hizkuntzaren formak eta egiturak, testugintza eta abar ikasteko, trebetasun eta prozedura batzuk erabiltzea; besteak beste, ereduak behatzea, konparaketa, berrantolaketa, adibideak ematea, orokortzea.

–Estrategiak eta trebetasunak

- Testuekin batera datozen irudiez baliatzea informazioa lortzeko.
- Lanak garbitasunez eta ordenaz egitea.
- Erabiltzen diren tresnak eta materialak ordenatzea eta zaintzea.
- Lanak arazoizko denbora batean bukatzen saiatzea.
- Teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzea.
- Gehiago eta hobeki ikasteko interesa.

Ebaluazio irizpideak

Ebaluazio irizpideek adierazten dute ziklo bakoitzerako ezarritako oinarriko helburu orokorrak zein diren.

Irizpide horietako bakoitzak eskatzen du kasuan kasuko helburua lortzeko behar diren trebetasun eta estrategia batzuk barneratzea.

1. Ohiko erabilera duten ahozko testuen esanahi orokorra ulertzea, informazio garrantzitsuen identifikatuz.

Irizpide honek erreferentzia egiten dio eguneroko bizitzan ahozko testuak (bereizki ipuina) ulertzeko gaitasunari, bai ikasgelan bai ingurune hurbilenean. Lehen ziklo honetan, informazio orokorrak edo oso zehatzak lortzea bilatzen da, ikasleek eskatutako lanak egin ahal izan dituzten eta ikasgelako bizitzan parte har dezaten.

Irizpide honek ebaluatu nahi du, halaber, ea ikasleek nolabaiteko gaitasuna garatu ote duten oinarriko gogoeta bat egiteko testuak ulertzeko mekanismoei buruz eta mezu desberdinak gertatzen direneko moduei buruz.

2. Parte hartzea ikasgelako komunikazio egoeretan, elkartrukearen arauak errespetatuz: hitz egiteko txanda errespetatzea, entzutea, mintzakideari begiratzea, gaiari eustea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da bai ikasgelan gertatzen diren ahozko elkartrukeko egoera desberdinetan aktiboki esku hartzeko gaitasuna, bai haietan parte hartzeko jarrera ere. Ohartarazi behar da gaitasun horiek lotura estua dutela komunikazio egoerak behatzeko gaitasunarekin –xedea, parte-hartzaileak, elkartrukea gertatzen den lekua...–, eta haien ezaugarriak, oraindik intuitiboki bada ere, zehaztu eta egoki jarduteko gaitasunarekin.

3. Gauzak ahoz adierazten jakitea, egitateak, bizipenak edo ideiak modu antolatuan aurkezten dituzten testuen bitartez.

Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleak gauzak argitasunez eta zehaztasunez adierazteko duen gaitasuna, betiere komunikazio generoaren eta egoeraren arabera, hiztegi, formula linguistiko, intonazio eta ebakera egokiak erabiliz.

Baloratu behar da, baita ere, egitateak, bizipenak edo ideiak ahoz komunikatzeko gaitasuna, hizkuntzaren laguntzarekin norberaren jokatibidea kontrolatzeko bide gisa.

4. Testuak irakurtzerakoan informazio zehatza aurkitzea eta inferentzia zuzenak egitea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek testuetan berariaz adierazitako informazio edo ideia garrantzitsuak detektatzeko eta ulertzeko gaitasuna duten –informazio puntualak abisuetan, oharretan, gonbidapenetan eta eskola testuetan– eta gauza ote diren azaleko esanahiaz haratago joateko eta testuan oinarrituriko inferentziak ateratzeko.

Narrazio testu literarioetan, gaitasun horrek berarekin dakar istorio bat eraikitzea bideratzen duten egitate nagusiak identifikatzea, pertsonaia nagusiak identifikatzea edo istorioaren testuinguruarekin loturiko alderdi erraz batzuk inferitzea (denbora, lekua...).

Halaber, ideiak detektatzeko hertsiki testualak ez diren alderdi batzuk (irudiak, testuaren banaketa edo tipografia) erabiltzeko trebetasunaren garapena ebaluatu behar da.

5. Haurren esperientziatik hurbil dauden testu idatzietan bildutako informazioa eta norberaren bizipenak eta ideiak erlazioztatzea adibide zehatzekin, eta ahoz irakurtzerakoan ulertzen dela agertzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna ote duten beren bizipenak eta ezagutzak testu idatzietan agertzen den informazio berriarekin erlazioztatzea, eta gaitasuna ote duten eskolan erabili ohi diren testuetatik heldu den informazioa erlazioztatzea, hura identifikatuz, konparatuz eta sailkatuz.

Baloratuko da, halaber, ezagutzen dituzten testuak ahoz irakurtzerakoan ulertzen ote dituzten, alde zuzenetik isilik irakurri ondoren, funtsean deskodetzeari, etenei eta intonazioari erreparatuz. Kontuan hartuko da, azkenik, irakurtzeko ekimena hartzen ote duten eta hori eginez gozatzen ote duten.

6. Haurren esperientziarekin loturiko testuak idaztea eta berri-daztea, eredu argiekin jarraituz, testuen plangintza eta berri-kuspina erabiliz, eta arau gramatikak eta ortografikoak errazten eta alderdi formalak zainduduz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek idatzizko kodea barneratu duten. Ikasleek gai izan behar dute ikasgelako pertsonen arteko harremanek berezkoak dituzten testuak idatzeko –deiak, zorian-emateak, oharrak–, eta gai izan behar dute, halaber, informazioaren elkartruke idatzia gertatzen deneko eskola jardueretan parte hartzeko –eskolako albisteak argitaratzea...– eta idazketa ikasteko eta ezagutzak antolatzea zereginarekin erabiltzeko. Halaber, literaturara hurbiltzea baloratuko da, jolas linguistikoak eginez edo ipuina edo olerkia bezalako generoak imitatuz.

Halaber, plangintzaren arabera eginiko idazkiak lantzeko prozesua ebaluatuko da –ereduak eta bestelako jarraibideak erabiliko dira– eta idazkiaren eraginkortasunarekin loturiko alderdien berri-kuspina –nahi den xedea lortzea–, ziklo honetarako eskatzen den koherentzia eta zuzentasun gramatikak eta ortografikoak (oinarrizko arau ortografikoak erabiltzea du ardatz): hitzak zatitzea, koma erabiltzea zerrendatzeetan; puntua eta galdera ikurra erabiltzea.

7. Ahozko tradizioko testu literarioak ezagutzea eta haur literaturakoak, ziklorako egokiak, bai eta narrazioaren eta olerkiaren alderdi formal erraz batzuk, testu horien irakurketan eta idazketan laguntzeko.

Irizpide honek ebaluatu nahi du entzuteko aztura garatzeko gaitasuna eta zikloak berezko dituen testu literarioez gozatzeko ohitura, bereziki narrazio testuekin eta olerkiekin (abestiak, erretratuak, asmakizunak, aho-korapiloak...), eta horien zentzua ulertzeko gaitasuna, konbentzio berriak batzuk interpretatzeari esker; esate baterako egitura narratibo soila eta errima. Halaber, ebaluatu behar da testu literarioak aintzat hartzea eta harekiko jarrera positiboak izatea, bai eta irakurketa eguneroko bizitzan txertatzea ere. Baloratuko da olerkiak eta testu errazak erritmo, ebakera eta intonazio egokiarekin dramatizatzea, birsortzea, memorizatzea eta errezitatzea lanetan parte hartzea.

8. Hitzetan, esakuneetan eta testuetan, ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko egiten diren segmentazioetan, ordena-aldaketetan, kenketetan eta txertaketetan gertatzen diren aldaketa batzuk modu gidatuan identifikatzea.

Helburua da ebaluatzea ordena-aldaketek, segmentazioek, kenketek eta txertaketek esakuneetan eta testuetan sortzen dituzten eraginak behatzeko eta ezagutzeko gaitasuna, halako moduan non identifikatuko diren bai idazketan eta ahozko adierazpenean gertatzen diren arazoak, bai ulertzeko zailtasun batzuen jatorria; azken batean, gogoeta hori jarduerak horiek hobetzeko erabiltzea bilatu nahi da.

9. Gramatikaren eta linguistikaren oinarritzko terminologia ulertzea eta erabiltzea, testuen produkzioarekin eta ulertzearekin loturiko jardueretan.

Irizpide honekin konprobatu nahi da ikasleak gauza ote diren oinarritzko termino gramatikak eta linguistikoak erabiltzeko (testuen izendapenak, esakunea, hitza eta silaba; izen arrunta eta izen berezia; sin-

gularra eta plurala; maskulinoa eta femeninoa), ikasgelan egiten diren jardueretan. Erabilpen horrek suposatzen du halako elaborazio maila bat dagoela terminoek aipatzen dituzten kontzeptuetan.

Halaber, baloratuko da bat-bateko erabileran ekimena izatea eta termino horiek erabiltzeko interesa.

10. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten oinarritzko estrategien eta ikusizko baliabideen erabilpena, ikasleek laguntza eta argibideak eskatzea, hiztegiak erabiltzea eta egiten dituzten aurrerapenak baloratzea –oso oinarritzkoak badira ere–. Halaber, baloratuko da ikasteko prozesuetan nolabaiteko autonomia lortzea.

Bigarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

Eta honetan zehar, ikasleek ikasi behar dute testuinguru batzuetan egoki adierazten, edukia eta adierazpenaren forma xedeari eta mintzakideei egokituz. Halaber, ikasi behar dute besteei egoki erantzuten, esandakoaren haria eta mintzakideak erabiltzeko hizkuntza gordez. Halaber, ikasleek ikasi behar dute hizketaaldietan parte hartzen, txandak errespetatuz eta aztergaiari buruzko ekarpen muntadunak eginez. Pixkanaka, hizkuntzaren erabilera formalenak sartzen joanen da.

Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaile moduan landuko dituzte, batez ere.

▪ Entzutea eta ulertzea

▪ Ahozko testuak ulertzea ikasteko eta informatzeko, bai xede didaktikoa dutenak bai egunero erabiltzen diren testu ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaaldiak), etai formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak).

▪ Irratitik, telebistatik edo Internetetik heldu diren ahozko testuak ulertu eta baloratzea, garrantzi berezia emanez albisteari, ikasleak egitate eta gertaera garrantzitsuei buruzko informazio orokorra jasotzeko.

▪ Ikus-entzunezko dokumentuak erabiltzea informazio muntadunak hautatu eta erlazioztatzea (identifikatzea, sailkatzea, konparatzea).

▪ Gizarteko komunikabideak baloratzea egitate eta gertaera muntadunei buruzko informazio orokorrak jasotzeko tresna gisa.

–Hitz egitea eta hizketan aritzea

▪ Parte hartzea eta laguntzea ohiko komunikazio egoeretan (informazioak, bizikidetasuna arautzen duten hizketaaldiak, eztabaidak edo jarraibideak), komunikazio egoerari egokituz eta baliabide linguistiko egokiak erabiliz (elementu lexikoak, gramatikak, fonologikoak...).

▪ Ikasteko ahozko testuak sortzea, bai xede didaktikoa dutenak bai egunero erabiltzen direnak, ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaaldiak), eta formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak).

▪ Ahozko elkarreaginari buruzko arauak baloratzea eta errespetatzea (hitz egiteko txandak, elkartrukean paper desberdinak hartzea, ahots bolumen, jarrera eta keinu egokiak).

▪ Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan.

▪ Hizkuntza ez baztertzaila eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

–Testuak:

▪ Narrazio testuak: egitate erreal edo fantasiakoen narrazioa alaitasuna, tristezia, harridura edo antzeko sentimendua adierazten duten kontaerak.

▪ Dramatizazioak eta rol-playing. Elkarriketak.

▪ Deskribapenak: pertsonen, animalien, gauzen, lekuen, asmakizunen deskribapenak.

▪ Jarraibideak: jolas bat sortzeko jarraibideak, arauak, errezetak...

▪ Azalpen testuak: aurkezpenak, elkarriketak, albisteak, pertsonaia ezagun baten biografia, animalia baten bizitzari buruz ikasitakoa azaltzea... lehendik emandako fitxa bateko datuetatik abiatuz.

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Arretari eustea gelan aurkezturiko informazioetan.

▪ Aurkitzea Igorlearen asmoa eta hura diskurtsoan nola agertzen den.

▪ Informazioa hautatzea: identifikatzea entzundakoaren esanahi orokorra (gaia, gakoak), bigarren mailako ideiak.

▪ Ahozko azalpen formalak egiteko estrategia egokiak erabiltzea, diskurtsoari buruzko alde zuzeneko plangintza eginez.

▪ Testuaren ulermen orokorrari, interpretatiboari eta kritikari buruzko galderei erantzutea.

▪ Berriak xede batzuekin erabiltzeko ezaugarri linguistikoak identifikatzea: hezteak, entrentzenak.

▪ Entzundakoa baloratzea: forma, edukia.

▪ Ahozko diskurtsoa antolatzea, sarrera eta amaiera argiak jarritz, ordena logikoari eta kronologikoari jarraituz.

▪ Gelako hizketaldietan aktiboki parte hartzea, txanda errespetatuz diskurtsuaren inizatibari eusteko, erantzunen plangintza eginez, argitasunak eskatuz elkar ulertzen laguntzeko eta ideiak garatzen lagunduz.

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

2.1. Idatzizko testuak ulertzea

Irakurtzeko behar diren trebetasunen –testua deskodetzea eta irakurketa funtzionala– barneratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berariazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narratiboak baloratzea). 3. multzoarekin lotura estua edukiz, oso garrantzitsua da irakurtzeko zaletasuna sustatzea, gozamen eta pres-takuntza iturri gisa.

Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaile moduan landuko dituzte, batez ere.

–Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea

▪ Gizarte harremanetako eguneroko egoeretan ohikoak diren tes-tuen informazio muntaduna ulertzea; esate baterako, eskolako gutunak, gelako arauak edo jolasetarako arauak.

▪ Informazio orokorra ulertzea komunikabideetatik heldu diren tes-tuetan (haurrentzako web orriak barne), azpimarra berezia eginez al-bisteetan eta zuzendariarentzako gutunetan, izenburuetan, sarrera la-burretan, portadetan nabarmendutako informazioak aurkituz.

▪ Informazio muntadunak ulertzea ikastera eta informazioa hartzera bideratutako testuetan, bai xede didaktikoarekin sortutakoetan, bai eguneroko erabiltzen direnetan (liburuxkak, deskribapenak, jarraibideak eta azalpenak).

▪ Ozenki irakurtzea arintasunez, ebakera, erritmo, eten eta intonazio egokiak erabiliz.

▪ Ikasteko eta informazioa alderatzeko euskarri desberdinetatik heldu diren ezagutzak eta informazioak integratzea (identifikazioa, sailkapena, konparazioa, interpretazioa).

▪ Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta liburutegiak gidatuta erabiltzea, informazioa eta idatzizko lanen ereduak lortzeko.

▪ Idatzizko testuekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta esperientziak komunikatzeko eta bizikidetasuna arautzeko bitarteko gisa.

–Idatzizko testuak sortzea:

▪ Gizarte harremanetako eguneroko egoeretan berezkoak diren testuak sortzea (eskolako gutunak, bizikidetasun arauak, deiak, eskabi-deak...) genero horietako berezko ezaugarrien arabera.

▪ Garrantzizkotzat jotzen diren gertaerei buruz komunikabideek erabili ohi dituzten informazio eta iritzi testuak sortzea, azpimarra be-rezia eginez albistean eta zuzendariarentzako gutunetan, egoera simu-latuetan nahiz errealetan.

▪ Esparru akademikoarekin lotutako testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdetegiak, laburpenak, txosten errazak, deskribapenak, azalpenak...).

▪ Asmo literarioko testuak sortzea, adinerako egokiak (olerkiak, el-karrizketak, ipuinak...), hizkuntzaren adierazpen aukerak arakatzu, hor-rrerako ereduak testuak behatuz eta analizatuz (irakasleak narratu-riko istorioak edo ipuinak) eta irudimena eta sormena pizten dituzten baliabide eta jolasez baliatuz.

▪ Osagai grafiko eta paratestualak erabiltzea, gero eta zailtasun handiagoak, ulermena errazteko (ilustrazioak, grafikoak eta tipogra-fia).

▪ Testuak prozesatzeko programa informatikoen erabilera gidatua.

▪ Idazketa baloratzea harreman sozialetarako tresna gisa eta infor-mazioa eta ezagutzak lortu eta birlantzeko tresna gisa.

▪ Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa, eta arau ortografikoak errespetatzea.

▪ Hizkuntza ez baztertzaila eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

–Testuak:

▪ Narrazio testuak:

- Narrazio errealak edo fantasiakoak (mitoak, kondairak, fa-bulak). Komikiak.

- Txisteak.

- Dramatizazioa.

- Beldurra, alaitasuna, tristezia, harridura edo bestelako senti-menduak sortzen dituzten egitate, gertaera eta gorabehera pertsonalak narratzea

- Postal edo gutun pertsonalak... egunerokoa.

▪ Deskribapenak:

- Norberaren edo ahaide baten deskribapenak, animalia ba-tenak, eszena batzuen, paisaiena eta gauzena, haien ezaug-arririk adieraziz.

- Asmakizunak, gurutzegramak.

▪ Jarraibideak:

- Sukaldeko errejeta bat idaztea, osagaiak eta jarraitu beha-rreko pausoak barne

jolas bat azaltzea, behar diren materialak adieraziz; objektu bat egiteko bete beharreko arauak...

▪ Azalpen testuak:

- Egitateak, fenomenoak...

- Beste irakasgai batzuetako edukiak azaltzea.

- Albisteak.

- Biografia

▪ Testu etendunak:

- Iragarkiak, grafikoak, mapak, horma-irudiak

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Aldez aurretiko ezagutzak aktibatzea.

▪ Idazkiaren xedea identifikatzea.

▪ Izenburua interpretatzea.

▪ Zuzentasunez erantzutea testuen hitzez hitzeko ulermenari eta ulermen orokor eta kritikoari buruzko galderei.

▪ Irakurketa adierazgarriaren baliabideak aplikatzea: intonazioa, erritmoa, etenak.

▪ Irakurketan aurrera eta atzera egitea, ulermena errazteko.

▪ Ideia orokorra hartzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzuz.

▪ Testuaren egiturari eta kohesio mekanismo batzuei antzematea: denborazko markagailu eta lokailuak, puntuaketa...

▪ Ezagutzen ez diren hitzen esanahia bilatzea.

▪ Testuarekin batera doazen irudiak, tipografia eta formatua inter-pretatzea.

▪ Azpimarratzeko teknikak erabiltzea ideia nagusien ulermena errazteko.

▪ Eskemak egitea edukiak ikasteko bitarteko gisa.

▪ Idatzizko testuak lantzea aurretiko plangintza batekin, gidoi bat diseinatuz; idatzizko testuaren idazketa eta berrikuspina egitea egoki-tasunari, koherentziari, kohesioari, zuzentasunari eta mailaren arabe-rako komunikazio baliabide egokien aberastasunari erreparatuz.

▪ Testua antolatzea. Aurkezpena, txukuntasuna eta lekuaren bana-keta. Letraren irakurgarritasuna: tamaina, lerrotzea. Irudiak, tipogra-fia, formatua.

▪ Erreferentziako testuak erabiltzea (hiztegiak, entziklopediak, testu liburuak, aldizkariak, dokumentalak, CD-ROMak, Internet).

3. multzoa.–Hezkuntza literarioa

Hezkuntza literarioa hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan sar-tzen da. Literatura egitate estatiko eta komunikatibo bat da, egilearen eta hartzaileen artekoa; lagungarria da norberaren kultura identifi-ka-tzeko eta beste batzuk ezagutzeko. Ezin da esan hizkuntza literarioa aldaera homogeen bat denik, hizkuntza arruntaz bestelakoa. Funtzio-nalki desberdina den erabilera bat da, bereizgarri komunikatibo zehatz batzuk dituena. Hizkuntza literarioaren ezagupena testu literarioak ulertuz eta sortuz landuko da. Literatura, horrenbestez, beste bitarteko bat da trebetasun linguistikoak garatzeko.

▪ Adinerako eta norberaren interesetarako egokiak diren obrak pertsonalki irakurtzea, isilik eta ozenki.

▪ Ahozko tradizioko narrazio testuen eta olerkien, haur literaturaren, obra klasikoaren egokitzapenen eta egungo literaturaren irakurketa gi-datua, euskarri desberdinekin.

▪ Irakurtzeko autonomia, gaiak eta testuak hautatzeko gaitasuna garatzea eta norberak gustukoaren duenaren adierazpena garatzea.

▪ Ikastetxeko liburutegiaren funtzionamendua ezagutzeko eta jar-duera literarioetan parte hartzea.

▪ Zikloari egokitutako olerkiak memorizatzea eta erreztatzea, erritmo, ebakera eta intonazio egokiekin.

▪ Olerkiak eta kontakizunak birsortu eta osatzea, sentimenduak, emozioak, aldarreak edo gogoetak komunikatzeko, eredu batzuen ezaugarriak ezagutzuz.

▪ Egoera eta testu literarioak dramatizatzea.

▪ Testu literarioa komunikazio tresna gisa, beste mundu, denbora eta kultura batzuk ezagutzeko iturri gisa eta norberaren gozamenetarako baliabide gisa baloratzea eta aintzat hartzea.

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Ipuinak edo narrazio laburrak kontatzea, denboraren eta espa-zioaren koherentziari eutsiz eta haien egiturari ere eutsiz; betiere, intonazioa, etenak, ahotsaren modulazioa eta abar errespetatu beharko dira.

▪ Egile ezagunen (klasikoak nahiz garaikideak) olerkiak errezitaztea, intereseko gaiet buruzkoak eta norberaren gustuen araberrakoa.

▪ Adinari arabera egokitutako testuen eta produkzio propioen dramatizazioa. Adierazpen linguistikorako eta ez-linguistikorako norberak dauzkan aukerak erabiltzea (gorputza, mugimendua, ahotsa), antzerki emanaldietan.

4. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

Ikasleek hizkuntza barneratzeko prozesuari jarraipena ematen zaio eta prozesu hori hobetzen da, menperatze hobe eta handiagoa bideratuko duten elkarreraginak eta erabilera egoerak sustatuz. Gainera, ikasleen artean erabilera gogoetatsua sustatu behar da, pixkanaka proposatuz produkzioak behatzeko, analizatzeko eta manipulatzeko jarduerak. Horrek bidea emanen die ikasleei ezagutza linguistikoko eta oinarriko terminologia garatzeko. Soilik ikasleen komunikatzeko gaitasuna hobetzearen ikuspuntutik justifikatzen da eta esanahia ematen zaio, adin hauetan, gramatikaren inguruko gogoetari; hau da, aintzat hartu behar dira ikasleen ezaugarri kognitibo eta linguistikoak, eta gogoeta komunikazio egoera desberdinekin eta prozesu diskurtsiboekin lotu behar da.

▪ Komunikazioaren testuinguruaren osagaiak ezagutzea, komunikazioaren elkartrukeko ahoko edo idatzizko formen hautapenean eragina duten faktore gisa.

▪ Ulertzeko eta osatzeko errazak diren narrazioen, jarraibideen, deskribapenen eta azalpen errazen egiturak identifikatzea.

▪ Ahozko eta idatzizko hizkuntzen arteko desberdintasun garrantzitsuenen erreparatzea.

▪ Arau ortografikoak ezagutzea, gizartean duten balioa eta idazkietan haiek betetzeko betebeharra aintzat hartuz.

▪ Testuaren kohesio elementuak behar bezala identifikatzea: puntuazio-markak, testu markagailu eta lokailuak, hitzak silabatan zatitzea.

▪ Fonema-grafia elkarteak identifikatu eta ezagutzea, letra mota edozein dela ere (letra larriak, xeheak, etzanak...).

▪ Gizarteko eta eskolako testuinguruan dagoen aniztasun linguistikoaren kontzientzia positiboa: eskolako hizkuntzak.

▪ Esakunen konparaketa eta eraldaketa, elementuak txertatuz, kenduz, ordena aldatuz, zatituz, berrosatuz, horrela emaitzen gramatikaltasuna ebazteko eta kontzeptu linguistikoko eta metahizkuntzarenak garatzen laguntzeko.

▪ Ondoko terminologiari buruzko gogoeta, erabilera eta intuiziozko definizioa produkzio eta interpretazio jardueretan: landutako testuen izenak; esakunea, hitza eta silaba; generoa eta numeroa: determinatzaileak; aditzaren denbora (orainaldia, lehenaldia, geroaldia).

▪ Hitzen arteko erlazioak formarengatik (deklinazioa, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena) eta esanahiarengatik (sinonimoak eta antonimoak) ezagutzea, testuak ulertzeko eta osatzeko.

▪ Oinarriko egitura sintaktikoen konparaketa, haien baliokidetasun semantikoa edo esanahian egon daitezkeen alderazioak behatzeko.

▪ Esaldiak txertatzea eta koordinatzea, idatzizko testuen osiera hobetzeko tresna gisa.

▪ Esaldien arteko lotura desberdinen erabilera-aukerak arakatzeko eta haiei buruz gogoeta egitea (gehikuntza, kausa, aurkakotasuna, kontraesana...) testuen osaketari dagokionez.

▪ Esaldi motak ezagutzea: adieraztekoa, galderazkoa eta erreguzkoa.

▪ Esaldiaren funtsezko osagaiak identifikatzea, subjektuak eta predikatua, eta subjektuaren paper semantiko batzuk (egilea, jasailea...).

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Hiztegia handitzea eremu semantikoak, hitzen familiak, sinonimoak, antonimoak eta eratorpena eta elkarketa erabiliz.

▪ Komunikazioa lortzea erregistro egokia erabiliz eta adierazpide arruntgetara jo gabe.

▪ Zentzu orokorra gai jakin bati buruzko testuen produkzioan.

▪ Eskatutako testu motaren egitura tipikoa errespetatzea.

▪ Testuaren antolaketa, paragrafo-ideia banaketaren arabera.

▪ Paragrafo hasieretan, ondoz ondoko denbora adierazteko testu markagailu eta lokailuak erabiltzea, edo diskurtsoaren antolatzaileak.

▪ Aditz denborak egoki erabiltzea.

▪ Alfabetoa, alfabeto hurrenkera, hiztegia erabiltzen hasteko oinarri gisa.

▪ Hiztegien erabilera: polisemia.

5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.

Ikasleek lortu behar dute ikasteko eta lan egiteko estilo pertsonal eta eraginkor bat garatzea, gauzak ulertzeko eta adierazteko dauzkaten estrategiak etengabe hobetzeri bideratuko dituena; xedea da ikasleek gero eta modu kontzienteagoan jakitea nola eta noiz ikasten duten eta lan egiten duten gehiago eta hobeki. Argi dago lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta, eztabaida eta adibideak eta abar gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez garatu behar direla.

▪ Ezagutzen dituen hizkuntzetan erabiltzen dituen estrategiak identifikatu eta konparatzea.

▪ Hiztegia, hizkuntzaren formak eta egiturak, testugintza eta abar ikasteko, trebetasun eta prozedura batzuk erabiltzea; besteak beste, ereduak behatzea, konparaketa, berrantolaketa, adibideak ematea, orokortzea.

▪ Gogoeta egitea hizkuntzari eta hizkuntzei buruz, ikaskuntzari berari buruz eta lanaren antolamenduari buruz, eta akatsak eta zuzenketak onartzea ikaskuntza prozesuaren atal gisa.

▪ Baloratzea hizkuntzak gauzak egiteko, antolatzeke eta ikasteko tresna bat direla.

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Testuekin batera datozen irudiez baliatzea informazioa lortzeko.

▪ Jardueren jarraibideak adi irakurtzea, eta bereziki erreparatzea ariketen hasieran egon ohi den adibideari.

▪ Koaderno ordenatua eta txukun edukitzea.

▪ Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta gehiago erabiltzea, bereziki testu prozesadoreak.

▪ Ordenagailua erabiltzeko oinarriko trebetasunak menperatzea.

▪ Autoebaluazioa egiten hastea eta norberaren ikaskuntzaren kontzientzia hartzea.

▪ Lanak ebazteko laguntza ematea eta besteren laguntza onartzea. Ikaskideekin parte hartzea eta haiekin elkarreraginean lan egitea.

▪ Bikoteka eta taldeka lan egitea, ezagutzen ekarpena eginez eta besteekin lankidetzan arituz.

Ebaluazio irizpideak

Ebaluazio irizpideek adierazten dute ziklo bakoitzerako ezarritako oinarriko helburu orokorrak zein diren

Irizpide horietako bakoitzak eskatzen du kasuan kasuko helburua lortzeko behar diren trebetasun eta estrategia batzuk barneratzea.

1. Ohiko erabilera duten ahoko testuen esanahia ulertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatuz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek nolako gaitasuna duten informazio garrantzitsua lortzeko, hautatzeko eta erlazionatzeko; betiere, ikasgelako ohiko egoeretan sortzen den informazioa izanen da, hain zuzen ere besteekiko harremanetan eta ikasteko garaian sortzen direnak, eta, halaber, gizarteko ingurunean (familia, irratia, telebista...) sortutako informazioa.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da, orobat, ea ikasleek nolabaiteko gaitasuna garatu ote duten testuak ulertzeko mekanismoei buruz eta erabilitako prozeduren gainean gogoeta egiteak ikasten ikasteko duen baliokidetasun buruz.

2. Parte hartzea ikasgelako komunikazio egoeretan, elkartrukearen arauak errespetatuz: hitz egiteko txanda errespetatzea, entzutea, gauzak argitasunez adieraztea, intonazio egokia erabiltzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da bai ikasgelan gertatzen diren ahoko elkartrukeko egoera desberdinetan aktiboki esku hartzeko gaitasuna, bai haietan parte hartzeko jarrera ere. Ohartarazi behar da gaitasun horiek lotura estua dutela komunikazio egoerak behatzeko gaitasunarekin –xedea, parte-hartzaile kopurua, elkartrukea gertatzen den lekua...–, eta haien ezaugarriak, gero eta era kontzienteago batean, zehazteko eta testuinguru bakoitzean egoki jarduteko gaitasunarekin.

3. Gauzak ahoz adierazten jakitea, ideiak, egitateak eta bizipenak modu erraz eta koherentean aurkezten dituzten testuen bitartez.

Irizpide honekin ebaluatu behar du ikasleak modu koherentean adierazteko duen gaitasuna egoera desberdinetan, eta lehen hizkuntza ikasteko eta jokabidea erregulatzeke tresna gisa erabiltzeko duen gaitasuna. Begiratuko da ea ikaslea gauza den ezagutzak eta iritziak komunikatzeko, hiztegi, formula linguistikoko, intonazio eta ebakera egokiak erabiliz.

Helburua da baloratzea era ikasleak gauza diren ahoz komunikatzeko ikasgelako bitzarekin loturiko egitateak eta ezagutzak eta, bestetik, gainerakoekin harreman harmoniatuak edukitzeke gaitasuna duten, horren barne dela hizketaldi bati hasiera emateko eta hari eusteko trebetasuna.

4. Testuak irakurtzerakoan informazio esplizitua kokatu eta berreskuratzea eta inferentzia zuzenak egitea.

Irizpide honekin baloratu nahi da ea ikasleak gauza diren testuetan zehaztutako informazioa edo ideiak detektatzeko eta ulertzeko –eskola esparruko gutunak, ikasgelako arauak, joko arauak, albisteak, zuzendariarentzako gutunak, eskolako testuak– eta gauza diren azaleko esanahiaz haratago joateko eta testuan oinarrituriko inferentzia zuzenak egiteko: aurreikus daitezkeen gertakariak, testuen xedea deduzitzea edo testuan eginiko orokortze batzuk identifikatzea.

Testu literarioetan, olerki batzuen ideia nagusiak identifikatzen ote diren ebaluatu behar da –berariaz adierazita daudenean–, eta ikasleek gaitasuna ote duten ipuin batean gatazka ezagutzeko, eta trebetasuna ote duten istorioetako pertsonaien arteko harremanak ulertzeko –modu

esplizituan agertzen ez direnean– edo gertakari batzuei gertatu aurretik antzemateko gauza ote diren.

Halaber, trebetasunak ote dituzten hertsiki testualak ez diren alderdi batzuk erabiltzeko ideia nagusiak identifikatzen laguntzeari begira: tipografia izenburuetan, sarrera laburretan, portadetan, liburuuxketan; letra lodiak epigrafeetan eta testuetako bestelako leku nabarmenetan.

5. Norberaren ideiak interpretatu eta eskolan eta gizartearen erabiltzen diren testuetan bildutako informazioarekin integratzea, eta ahoz irakurtzerakoan ulertzen dela agertzea.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da ea hurrek beren bizipenak eta ezagutzak erabiltzen dituzten ideien eta testuaren informazioaren arteko loturak ezartzeko. Ikasleek gai izan behar dute ulertzeko estrategiak erabiltzeko (irakurtzearen xedeaz kontzientea izatea, testu- eta testuinguru-adierazleak erabiltzeko aburuak formulatzeko eta frogatzeko) eta sortzen diren zalantzak ebazteko estrategiak erabiltzeko (aurrera eta atzera egitea, hiztegiaren kontsulta egitea, informazio osagarria bilatzea).

Halaber, ulermena ebaluatuko da ozenki irakurriz; ozenki irakurtzerakoan nolabaiteko segurtasuna behar da; zalantzarik eta errepikapenik gabe irakurri behar da, eta hitzak saltatu gabe. Garrantzitsua da ziklo honetan bermatzea deskodetzea zuzen eta arintasunez egiten dela.

6. Testu esanahidun desberdinak idaztea, berridaztea eta laburtzea, eguneroko eta eskolako egoeretan, modu antolatua eta egokian, testuen plangintza eta berrikuspina erabiliz, arau gramatikalak eta ortografikoak eta alderdi formalak zainduz, paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean.

Ebaluatu nahi da ikasleak gai diren gelako pertsonen arteko harremanek berezkoak dituzten testuak idazteko –gutunak, bizikidetasun arauak, deiak, eskabideak– eta, orobat, komunikabideek berezko dituzten testuak, betiere ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaien buruzkoak; halere, modu berezian ebaluatu behar da ikasleak gai diren ikasteko autonomian aurrera egitea ahalbidetzen dieten testuak lantzeko –laburpenak, deskribapenak edo azalpenak–.

Literaturaren arloan, olerkiak edo kontakizunak birsortzeko edo imitatzeko gaitasuna ebaluatuko da; testu horietan, baliabide batzuk erabili behar dira –esate baterako, modu intuitiboan bada ere, errima edo erritmoa olerkietan–. Irizpide honekin egiaztatu nahi da idatzizko testuen produktioa prozesu honek berezko dituen urratsen arabera gauzatzen dela (plangintza, testuaren idazketa, berrikuspina), eta urrats horiek baliagarriak direla baloratzen dela, hartara testu osoagoak eta komunikatzeko asmoari lotuagoak lortzeko.

Idazki guztietan, oinarrizko arau ortografikoen erabilera eta aurkezpen argi, garbi eta ordenatua baloratuko dira. Prozesu horietan, komenigarria da testuak lantzeko eta aurkezteko baliabide informatikoak erabiltzeko trebetasuna ebaluatzea.

7. Ahozko tradizioa testu literarioak ezagutzea eta haur literaturakoak, ziklorako egokiak, bai eta narrazioaren eta olerkiaren oinarrizko ezaugarriak, testu horien irakurketan eta idazketan laguntzeko.

Irizpide horrek ebaluatu nahi du adinerako eta zikloaren interesetarako egokiak diren testu literarioez autonomia gero eta handiagoarekin gozatzeko gaitasuna, eta testu horien zentzua ulertzeko gaitasuna, konbentzio berriazko batzuk interpretatzeari esker; esate baterako, behin eta berriz agertzen diren gaiak, kontaera literarioaren elementuak eta errima. Halaber, irakurketarako jarrera positiboa baloratu behar da, eguneroko bizitzaren berezko jardura den aldetik. Orobat, baloratuko da adierazpen eta sormen baliabide soilak arakatzeko gaitasuna, ereduak erabiliz, dramatizazio eta birsorkuntza lanetan.

8. Gelako eta ikastetxeko liburutegia erabiltzea; haren antolamendu eta funtzionamendu mekanismoak eta eskaintzen dituen aukerak ezagutzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi dira liburutegietako irakurketa jardueretan parte hartzea, liburutegiak erabiltzeko autonomia, materialak antolatzeke eta hautatzeko oinarrizko prozeduren eta mekanismoen ezagutza eta horietako bakoitzak eskaintzen dituen aukerak. Halaber, baloratuko da plazer hutsarengatik irakurtzeko azturak barneratzea, erabiltzeko arauak errespetatzea eta liburutegiaren funtzionamendu egokian laguntzeko jarrera izatea.

9. Hitzetan, esakuneetan eta testuetan, ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko egiten diren segmentazioetan, ordena-aldaketetan, kenketetan eta xertaketetan gertatzen diren aldaketa batzuk identifikatzea.

Helburua da ebaluatzea xertaketek, kenketek, ordena-aldaketek, segmentazioek eta berrosatzeek esakuneetan eta testuetan sortzen dituzten eraginak behatzeko gaitasuna, halako moduan non identifikatuko diren bai idazketan eta ahozko adierazpenean gertatzen diren arazoak, bai ulertzeko zailtasun batzuen jatorria; azken batean, gogoeta hori jardura horiek hobetzeko erabiltzea bilatu nahi da.

Analisi prozedura horiek bidea eman behar dute testuari modu kritikoan erreparatzeko; testuaren edukari buruz gogoeta egiteko eta hura ebaluatzeko; haren egitura, hizkuntzaren erabilera eta baliabide litera-

rioak, eta egilearen ikuspuntua eta ofizioa aintzat hartzeko eta ebaluatzeko.

10. Gramatikaren eta linguistikaren terminologia, zikloari dagokiona, ulertzea eta erabiltzea testuak sortzeko eta ulertzeko jardueretan.

Irizpide honekin konprobatu nahi da ea ikasleek oinarrizko ezagutza gramatikalak barneratu dituzten eta gauza ote diren terminologia egokia erabiltzeko haiei buruz hitz egiterakoan (aditzaren denborak –orainaldia, geroaldia, lehenaldia–, determinatzaileak, artikulua, zenbatzaileak, aurritzkiak, atzizkiak, hitz eratorriak, sinonimoak eta antonimoak eta abar).

Halaber, baloratu behar da terminologia hori erabiltzen ote den hizkuntzaren funtzionamenduari buruz hitz egiterakoan, ikasitakoa azaltzeko eta hari buruz gogoeta egiteko euskarri gisa.

11. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten oinarrizko estrategien eta ikusizko baliabideen erabilpena, ikasleek laguntza eta argibideak eskatzea, eta hiztegiak eta oinarrizko bitarteko teknologiko batzuk erabiltzea. Halaber, ebaluatuko da ikasleek gaitasuna ote duten beren aurrerapenak baloratzeko eta ikasteko nolabaiteko autonomia lortu duten.

Hirugarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

Eta honetan zehar, ikasleek ikasi behar dute testuinguru batzuetan egoki adierazten, edukia eta adierazpenaren forma xedearekin mintzakideei egokituz. Halaber, ikasi behar dute besteei egoki erantzuten, esandakoaren haria eta mintzakideak erabiltzeko hizkuntza gordez. Halaber, ikasleek ikasi behar dute hizketaldietan parte hartzen, txandak errespetatuz eta aztergaiari buruzko ekarpen muntadunak eginez. Pixkanaka, hizkuntzaren erabilera formalenak sartzen joanen da.

Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaile moduan landuko dituzte, batez ere.

- Entzutea eta ulertzea

- Ahozko testuak ulertzea ikasteko eta informatzeko, bai xede didaktikoa dutenak bai eguneroko erabiltzen diren testu ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaldiak), eta formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak, elkarrizketak edo eztabaidak).

- Irratitiki, telebistatik edo Internetetik heldu diren ahozko testuak ulertzea, garrantzi berezia emanez albisteari, elkarrizketari, haurrentzako erreportajeei, eztabaidei eta gaurkotasuneko gaien iruzkinei, ikasleak egitate eta gertaera garrantzitsuei buruzko informazio orokorra jaso dezan eta informazioa eta iritzia bereiz ditzan.

- Ikus-entzunezko dokumentuak erabiltzeko gero eta autonomia gehiagorekin eskuratu, hautatu eta erlazionatzeko ikasteko garrantzitsuak diren informazioak (identifikatzea, sailkatzea, konparatzea).

- Komunikabideak baloratzea ikasteko tresna gisa eta beste pertsona batzuen informazioak eta esperientziak eskuratzeko tresna gisa.

- Hitz egitea eta hizketan aritzea

- Parte hartzea eta laguntzea gizarte harremanetako komunikazio egoeretan, bereziki bizikidetasuna sustatzera bideratutakoetan (eztabaida edo dilema moralak), komunikazio egoerari egokituz eta baliabide linguistiko egokiak erabiliz (elementu lexikoak, gramatikalak, fonologikoak...).

- Ahozko testuak sortzea ikasteko eta informatzeko, bai xede didaktikoa dutenak bai eguneroko erabiltzen direnak, ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaldiak), eta formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak, elkarrizketak edo eztabaidak).

- Komunikabideetako ahozko testuak sortzea, haiek simulatuz eta informazioa eta iritzia eskaintzeko eta konpartitzeko parte hartuz.

- Iritzia azaltzea plan eta ekintza batzuei buruzko argudio laburrak eta azalpenak erabiliz.

- Ahozko elkarreraginari buruzko arauak baloratzea eta errespetatzea (hitz egiteko txandak, elkartrukean paper desberdinak hartzea, ahots bolumen, jarrera eta keinu egokiak).

- Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan.

- Hizkuntza ez baztertzaila eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

- Hizkuntzen ezagutza baloratzea kultur ondare gisa eta pertsonen arteko komunikaziorako bitarteko gisa.

- Testuak:

- Narrazio testuak: ipuinak, txistek...

- Dramatizazioak eta rol-playing.

- Deskribapenak: deskribapen teknikoak, asmakizunak.

- Jarraibideak: jarraibideak, arauak, gidak.

▪ Azalpen testuak: azalpenak, definizioak, hitzaldia, elkarrizketak, inkestak, albisteak, artikulak, erreportajeak, biografia, animaliei edo landareei buruz ikasitako azaltzea... lehendik emandako fitxa batzuetako datuetatik abiatuz, konparazioa edo bestelako eskemak erabiliz.

▪ Argudiozko testuak iritziak, eztabaidak, mahai inguruak.

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Arretari eustea gelan aurkezturiko informazioetan.

▪ Proposatutako lanaren xedea ulertzea.

▪ Entzundakoaren edukia laburbiltzea: solasaldi bat, argudio bat, irratiko edo telebistako programa bat, film bat...

▪ Ahozko azalpen formalean estrategia egokiak erabiltzea, diskurtsoaren alde aurretiko plangintza eginez eta azalpenaren zati desberdinak kontuan hartuz.

▪ Diskurtsoa antolatzea komunikazio egoerari egokitzuz, baliabide linguistiko egokiak erabiliz (enfasia, adibideak, umorea, gehiegikeriak...).

▪ Testuaren edukia eta forma direla eta, hitzez hitzeko ulermenari, ulermen orokorrari, interpretaziozko ulermenari eta gogoetazko ulermenari buruzko galderei erantzutea.

▪ Galdera egokiak egitea gaia argitzeko eta ideiak zabaltzeko.

▪ Oharrak hartzea.

▪ Entzundakoa baloratzea: forma, edukia.

▪ Inkestak eta elkarrizketak prestatzea, noiz, zergatik eta nola galdetzen den zehaztuz.

▪ Eztabaidetan parte hartzea, talde txikietan, zati desberdinak bereiziz eta moderatzaileak eta parte-hartzaileak gai jakin bat dela-eta duten aldeko edo kontrako jarrera identifikatuz.

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

2.1. Idatzizko testuak ulertzea

Irakurtzeko behar diren trebetasunen –testua deskodetzea eta irakurketa funtzionala– barneratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berariazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narratiboak baloratzea). 3. multzoarekin lotura estua edukiz, oso garrantzitsua da irakurtzeko zaletasuna sustatzea, gozamen eta prestakuntza iturri gisa.

Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaile moduan landuko dituzte, batez ere.

–Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea

▪ Gizarte harremanetako eguneroko egoeretan berezkoak diren testuetako informazio muntaduna ulertzea: gutunak, arauak, jarduera programak, deialdiak, lanerako planak edo araudiak.

▪ Informazio orokorra ulertzea komunikabideetatik heldu diren testuetan (haurrentzako eta gazteentzako web orriak barne), azpimarra berezia eginez albistean, elkarrizketan, erreportajeetan eta zuzendariarentzako gutunetan, informazio orokorra lortzeko, nabarmendutako informazioak aurkituz.

▪ Euskarri digitalean nahiz paperean heldu diren ikasteko eta informatzeko eskolako testuak ulertzea, bai xede didaktikoarekin sortutakoak, bai erabilera sozialekoak direnak (informazio nahiz publizitate liburuxkak, prentsa, programak, zati literarioak).

▪ Testuan esplizituak ez diren mezuak interpretatzea.

▪ Ozenki irakurtzea arintasunez, ebakera, erritmo, eten eta intonazio egokiak erabiliz.

▪ Ikasteko euskarri desberdinetan heldu diren ezagutzak eta informazioak integratzea (konparazioa, sailkapena, identifikazioa eta interpretazioa), arreta berezia eskainiz grafikoen, eskemen eta bestelako ilustrazioen bitartez transmititzen diren datuei.

▪ Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu gidatuan erabiltzea informazioa aurkitzeko, hautatzeko eta antolatzeko.

▪ Liburutegiak erabiltzea, liburutegi birtualak barne, modu gero eta autonomoagoan, informazioa eta idatzizko produkziarako ereduak lortzeko.

▪ Idatzizko testuekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta esperientziak komunikatzeko eta bizikidetasuna arautzeko bitarteko gisa.

▪ Edozein motatako bazterkeria dakarten mezuekiko jarrera kritikoa.

–Idatzizko testuak sortzea:

▪ Gizarte harremanetako eguneroko egoeretan berezkoak diren testuak sortzea (gutunak, arauak, programak, deialdiak, lanerako planak...) genero horietako berezko ezaugarrien arabera.

▪ Garrantzizkotzat jotzen diren egitate eta gertaerei buruz komunikabideak erabili ohi dituzten informazio eta iritzi testuak sortzea, azpimarra berezia eginez albistean, elkarrizketan, liburuen edo musikaren berri laburretan, zuzendariarentzako gutunetan... egoera simulatuetan nahiz errealean.

▪ Esparru akademikoarekin lotutako testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdetegiak, inkestak, laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak...).

▪ Asmo literarioko testuak sortzea, adinerako egokiak (olerkiak, ipuinak eta idazlan errazak...), hizkuntzaren adierazpen aukerak arakatzuz, horretarako ereduak testuak behatuz eta analizatuz eta irudimena eta sormena pizten dituzten baliabide eta jolasez baliatuz.

▪ Osagai grafiko eta paratestualak erabiltzea ulermena errazteko (ilustrazioak, grafikoak, taulak eta tipografia).

▪ Testuak prozesatzeko programa informatiboak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea.

▪ Idazketa baloratzea harreman sozialetarako tresna gisa eta informazioa eta ezagutzak lortu eta birlantzeko tresna gisa.

▪ Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa, eta arau ortografikoak errespetatzea.

▪ Hizkuntza ez baztertzailera eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

–Testuak:

▪ Narrazio testuak:

▪ Narrazio konplexuagoak, elkarrizketak eta deskribapen sekuentziak ere barne har ditzaketenak.

- Txistekak.

- Dramatizazioa.

▪ Deskribapenak:

- Pertsonaien, hirien, monumentuen, eszenen, paisaien eta gauzen deskribapenak, haien ezaugarri nagusiak aipatuz.

▪ Jarraibideak: errezeta, joko-arauak edo kirol baten arauak...

▪ Azalpen testuak:

- Pertsonaia bati edo animaliei buruzkoak, gutun pertsonalak, elkarrizketak, biografiak, albisteak, artikulak, erreportajeak.

▪ Argudiozko testuak

▪ Informazio eta publizitate testuei buruzko aldeko eta aurkako arrazoiak emanez, zuzendariarentzako gutunak...

▪ Testu etendunak:

–Iragarkiak, grafikoak, mapak.

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Aldez aurretiko ezagutzak aktibatzea.

▪ Idazkiaren xedea identifikatzea.

▪ Izenburua interpretatzea.

▪ Hitzez hitzeko ulermenari, ulermen orokorrari eta interpretaziozko ulermenari buruzko galderei eta testuaren edukari eta formari buruzkoei zuzen erantzutea.

▪ Irakurketa adierazgarriaren baliabideak aplikatzea: intonazioa, erritmoa, etenak.

▪ Irakurketan aurrera eta atzera egitea.

▪ Ideia orokorra harrapatzea, xede nagusiak zehaztuz eta testu batzuen elementu ez-esplizituak interpretatuz (zentzu bikoitza, umorea, ironia...).

▪ Testuaren egiturari eta kohesio mekanismo batzuei antzematea: testu markagailuak eta lokailuak, anaforak, aditz-denboren erabilera egokia...

▪ Ezagutzen ez diren hitzen esanahia bilatzea.

▪ Testuarekin batera doazen irudiak, tipografia eta formatua interpretatzea.

▪ Azpimarratzeko teknikak erabiltzea ideia nagusien ulermena errazteko.

▪ Eskemak egitea edukiak ikasteko bitarteko gisa.

▪ Idatzizko testuak lantzea aurretiko plangintza batekin (definizioak, azpimarrak, eskemak, laburpenak, mapa kontzeptualak), aldez aurretiko gidoi bat diseinatuz; idatzizko testuaren idazketa eta berriuspena egitea egokitasunari, koherentziari, kohesioari, zuzentasunari eta komunikazio baliabide egokiaren aberastasunari erreparatuz.

▪ Testua antolatzea. Aurkezpena, txukuntasuna eta lekuaren banaketa. Letraren irakurgarritasuna: tamaina, lerrotaketa, irudiak, tipografia, formatua.

▪ Informazio osagarria bilatzea (erreferentziako testu kritikoetan, informazio iturri desberdinak erabiliz (liburutegia, hezkuntza programak, Internet) curriculumeko hizkuntzetan).

3. multzoa.–Hezkuntza literarioa

Hezkuntza literarioa hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan sartzeko da. Literatura egitate estatiko eta komunikatibo bat da, egilearen eta hartzaileen artekoa; lagungarria da norberaren kultura identifikatzeko eta beste batzuk ezagutzeko. Ezin da esan hizkuntza literarioa aldaera homogeen bat denik, hizkuntza arruntaz bestelakoa. Funtzionalki desberdina den erabilera bat da, bereizgarri komunikatibo zehatz batzuk dituena. Hizkuntza literarioaren ezagupena testu literarioak ulertuz eta sortuz landuko da. Literatura, horrenbestez, beste bitarteko bat da trebetasun linguistikoak garatzeko.

▪ Adinerako eta norberaren interesetarako egokiak diren obrak pertsonalki irakurtzea, isilik eta ozenki.

▪ Ahozko tradizio narrazio testuen, haur literaturaren, obra klasikoaren egokitzapenen eta egungo literaturaren irakurketa gidatua, euskarri desberdinekin.

▪ Irakurtzeko autonomia, gaiak eta testuak hautatzeko gaitasuna garatzea eta norberak gustukoaren duenaren adierazpena garatzea.

▪ Ikastetxeko liburutegia erabiltzea eta jarduera literarioetan parte hartzea.

▪ Zikloari egokitutako olerkiak memorizatzea eta erreztatzea, erritmo, ebakera eta intonazio egokiek.

▪ Olerkiak eta kontakizunak birsortu eta osatzea, sentimenduak, emozioak, aldarteak edo gogoetak komunikatzeko, eredu batzuen ezaugarriak ezagutuz.

▪ Olerkien, kontaren eta antzerki lanen irakurketa komentatua, konbentzio literarioei (generoak, figurak...) eta behin eta berriz agertzen diren gai eta korapiloerri erreparatuz.

▪ Olerkiak irakurtzea, erreztatzea, entzutea eta osatzea, oinarriko osagaiak bereiziz: errima, neurria, melodia eta bertsogintza.

▪ Testu literarioen dramatizazioa eta irakurketa dramatizatua.

▪ Testu literarioa komunikazio tresna gisa, beste mundu, denbora eta kultura batzuk ezagutzeko iturri gisa, kultur egitate gisa eta norberaren gozamenerako baliabide gisa baloratzea eta aintzat hartzea.

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Antzerki testuen adierazpen ezaugarriak (harridura zeinuak, eten puntuak, etenak, gidoiak) eta kanpoko egitura (ekitaldiak, eszenak, akotazioak) identifikatzea.

▪ Testu literarioak sortzea (ipuinak, olerkiak, abestiak eta antzerkirako olerkiak eta obra laburrak), emandako jarraibide edo erduetatik abiatuz. Hiztegiaren, sintaxiaren, fonetikaren eta erritmoaren baliabideak erabiltzea produkzio horietan.

▪ Testu literarioen dramatizazioari buruz eginiko ikaskuntzak beste egoera batzuekin (antzerkia, telebista, zinema...)

4. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

Ikasleek hizkuntza berneratzeko prozesuari jarraipena ematen zaio eta prozesu hori hobetzen da, menperatze hobea eta handiagoa bideratuko duten elkarrengainak eta erabilera egoerak sustatuz. Gainera, ikasleen artean erabilera gogoetatsua sustatu behar da, pixkanaka proposatuz produkzioak behatzeko, analizatzeko eta manipulatzeko jarduerak. Horrek bidea emanen die ikasleei ezagutza linguistikoak eta oinarriko terminologia garatzeko. Soilik ikasleen komunikatzeko gaitasuna hobetzearen ikuspuntutik justifikatzen da eta esanahia ematen zaio, adin hautetan, gramatikaren inguruko gogoetari; hau da, aintzat hartu beharko dira ikasleen ezaugarri kognitibo eta linguistikoak, eta gogoeta komunikazio egoera desberdinekin eta prozesu diskurtsiboekin lotu behar da.

▪ Egoerari buruzko testuinguruaren osagaien arteko erlazioak eta ahozko eta idatziko diskurtsuetan azaltzen diren forma linguistikoak identifikatzea.

▪ Ulertzeko eta osatzeko errazak diren narrazioen, jarraibideen, deskribapenen eta argudio-azalpen errazen egiturak ezagutzea.

▪ Arau ortografikoak ezagutzea, gizarlean duten balioa eta idazkietan haiek betetzeko betebeharra aintzat hartuz.

▪ Testuaren kohesio eta tipografia elementuak behar bezala identifikatzea: puntuazio-markak, azpimarrak, letra lodia..., testua antolatze moduak, laburdurak, hitzak silabatan zatitzea, lerro bukaerako marraztoa.

▪ Fonema-grafia elkarrekin identifikatu eta ezagutzea, letra mota edozein dela ere (letra larriak, xeheak, etzanak...).

▪ Eratorpena, konparaketa, alderaketa eta beste prozedura batzuk erabiltzea hitzak zuzenak diren ala ez ebazteko eta arau ortografikoak orokortzeko.

▪ Eskolako eta gizarteko testuinguruan dagoen aniztasun linguistikoaren kontzientzia positiboa: dialektoak, kontaktuan dauden hizkuntzak.

▪ Esakuneen konparaketa eta eraldaketa, elementuak txertatuz, kenduz, ordenaz aldatzen, zatituz, berrosatuz, horrela emaitzen gramatikaltasuna ebazteko eta kontzeptu linguistikoak eta metahizkuntzarenak garatzen laguntzeko.

▪ Ondoko terminologiari buruzko gogoeta, erabilera eta intuiziozko definizioa produkzio eta interpretazio jardueretan: landutako testuen izenak; silaba tonikoa eta atonua; esakunea: esaldia eta perpausa; esakune motak: deklaraziozkoa, galderazkoa, harridurazkoa, aginduzkoa; loturak: preposizioa eta juntagailua; hitz multzoak: nukleoa eta osagarria; adjektiboa; aditz denbora (lehenaldi zehaztugabea, lehenaldi burutugabea eta lehenaldi burutua); pertsona gramatikala; agintera eta infinitiboa; subjektua eta predikatua; izenaren osagarriak eta aditzaren osagarriak.

▪ Egitura sintaktikoen konparaketa, haien baliokidetasun semantiko edo esanahian egon daitezkeen alderazioak erabakitzea.

▪ Perpausen txertaketa eta koordinazioa, azalpenerako berezko prozedura gisa.

▪ Esaldien arteko lotura desberdinen erabilera-aukerak arakatzeko eta haiei buruz gogoeta egitea (kausa, ondorioa, xedea, kontraesana, baldintza...) testuen osaketari dagokionez.

▪ Perpausaren oinarriko osagaien identifikazioa: subjektua eta predikatua.

▪ Perpaus aktiboak pasibo bihurtzea eta alderantziz, eragilearen eta objektuaren kontzeptuak erabiltzeko, testu jakin batzuk ulertzeari begira.

▪ Estilo zuzenetik zehar estilora pasatzea narrazioan.

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Hiztegia handitzea eremu semantikoak, hitzen familiak, sinonimoak, antonimoak, eratorpena eta elkarketa, berriarazko hiztegia eta esaerak erabiliz.

▪ Komunikazioa lortzea komunikazio egoeran egokia den erregistroa erabiliz.

▪ Zentzu orokorra gai jakin bati buruzko testuen produkzioan; behar den informazioa edukitzea.

▪ Eskatzen den testu motaren egitura tipikoa errespetatzea, prozedura tipografikoaren erabilera barne (zenbaketa, azpitituluak...), kasu bada.

▪ Testuaren antolaketa, paragrafo-idea banaketaren arabera, idazkiaren zatiak erlacionatuz.

▪ Paragrafo hasieretan, ondoko ondoko denbora adierazteko testu markagailu eta lokailuak erabiltzea, edo diskurtsuaren antolatzaileak.

▪ Progresio logikoa, informazio hutsunerik gabe eta behar ez diren errepikapenak egin gabe.

▪ Aditz denborak egoki erabiltzea.

▪ Errepikapen tresnak erabiltzea: hitz batzuk nahita errepikatzea...

▪ Hiztegia ondokoetarako erabiltzea: zalantzak argitzea, definizioak sortzeko, adiera zuzena hautatzeko... edo hitzei buruzko informazioak lortzeko: fonetikoak, lexikoak, gramatikalak eta abar...

▪ Perpausak manipulatzeko, osagaiak gehituz, kenduz eta ordenaz aldatuz. Konparaketak, imitazioak.

5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.

Ikasleek lortu behar dute ikasteko eta lan egiteko estilo pertsonal eta eraginkor bat garatzea, gauzak ulertzeko eta adierazteko dauzkaten estrategiak etengabe hobetzera bideratuko dituen; xedea da ikasleek gero eta modu kontzienteagoan jakitea nola eta noiz ikasten duten eta lan egiten duten gehiago eta hobeki. Argi dago lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta, eztabaida eta adibideak eta abar gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez garatu behar direla.

▪ Hiztegia, hizkuntzaren formak eta egiturak, testugintza eta abar ikasteko, trebetasun eta prozedura batzuk erabiltzea; besteak beste, ereduak behatzea, konparaketa, berrantolaketa, adibideak ematea, orokortzea.

▪ Ikaskuntzaren kontzientzia eta autonomia gero eta handiagoa. Gogoeta ikaskuntzari berari buruz eta lanaren antolamenduari buruz, eta akatsak onartzea ikaskuntza, autozuzenketa eta autoebaluazio prozesuaren atal gisa.

▪ Kongsultarako eta informaziorako bitarteko grafikoak eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak gero eta gehiago erabiltzea.

▪ Baloratzea hizkuntzak ikasteko, antolatze, adierazteko eta eza-gutzak transmititzeko tresna bat direla.

▪ Norberaren kultura baloratzea, beste kultura batzuen ezagutzatik eta baloraziotik abiatuz.

–Estrategiak eta trebetasunak

▪ Ikusizko baliabideak erabiltzea.

▪ Laguntza eta argibideak eskatzea.

▪ Hiztegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia lanerako tresna gisa erabiltzea, hizkuntza zuzen erabiliz.

▪ Autoebaluazioa egiten ikastea eta norberaren ikaskuntzaren kontzientzia hartzea.

▪ Bikoteka eta lan taldeak eraginkortasunez lan egitea, ezagutzen ekarpena eginez eta gainerakoek ekarpenak errespetatuz.

▪ Lanak ezarritako irizpideei jarraituz antolatzea, eta agenda esleitutako lanak egiten laguntzeko baliabide gisa erabiltzea.

Ebaluazio irizpideak

Ebaluazio irizpideek adierazten dute ziklo bakoitzerako ezarritako oinarriko helburu orokorrak zein diren.

Irizpide horietako bakoitzak eskatzen du kasuan kasuko helburua lortzeko behar diren trebetasun eta estrategia batzuk berneratzea.

1. Ahozko testuen esanahia harrapatzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutuz eta esplizituak ez diren ideiak, irizpideak eta baloreak identifikatuz.

Helburua da komunikabideetatik eta eskolako testuingurutik heldu diren informazioak lortzeko, hautatzeko eta erlazionatzeko gaitasuna ebaluatzea; bereziki, lekuari eta espazioari buruzko informazioak eta sekuntzia logikoari buruzkoak.

Halaber, ebaluatu nahi da ea ikasleak gauza diren testuaren hitzez hitzeko esanahiaz haratago ikasteko, eta gauza ote diren edukari buruzko dedukzioak eta inferentziak egiteko, informazioa eta iritzia bereizteko eta osagai implizitu batzuk –besteak beste, ironia edo esanahi bikoitza– interpretatzeko. Halaber, ebaluatu nahi da ea ikasleek nolabaiteko gaitasuna garatu ote duten testuak ulertzeko mekanismoei buruz eta erabilitako prozeduren gainean gogoeta egiteak ikasten ikasteko duen balioari buruz.

2. Parte hartzea ikasgelako komunikazio egoeretan, elkartrukarean arauak errespetatuz: hitz egiteko txanda errespetatzea, diskurtsoa antolatzea, entzutea eta gainerakoen esku-hartzeak norberaren diskurtsoan sartzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da bai ikasgelan gertatzen diren ahozko elkartrukeko egoera desberdinetan aktiboki esku hartzeko gaitasuna, bai haietan parte hartzeko jarrera ere. Ohartarazi behar da gaitasun horiek eskatzen dutela komunikazio egoerak behatzeko gaitasuna izatea –xede, parte-hartzaile kopurua eta ezaugarriak, elkartrukea gertatzen den lekua...–, eta haien ezaugarriak kontzienteki zehazteko eta testuinguru bakoitzean egoki jarduteko gaitasuna.

3. Gauzak ahoz adierazten jakitea, ezagutzak, egitateak eta iritzia modu koherentean aurkezten dituzten testuen bitartez.

Irizpide honek ebaluatu behar du ea ikasleek gauzak modu antolatu eta koherentean adierazten dituzten, betiere komunikazio genero eta egoeraren arabera. Ikasleek gauza izan behar dute eduki garrantzitsuak hautatzeko eta haien adierazteko hiztegi eta formula egokiak erabiliz eta egoera horietan berezkoak diren baliabideak erabiliz; besteak beste, ahots, jarrera eta keinu egokiak. Baloratu behar da ikasleek ahozko kontaerak eta ikasgelako azalpenak sortzeko duten gaitasuna, bai eta ikasten dituzten alderdiei buruzko gogoetak ozenki azaltzeko duten gaitasuna ere.

Baloratzea da, halaber, harreman sozial asegarriak ezartzen diren, eta ikasleek berdinaren artean hizketaldi bat hasteko, hizketaldian aritzeko eta hizketaldiari amaiera emateko trebetasuna duten.

4. Testuak irakurtzean informazio esplizitua kokatu eta berreskuratzea eta inferentziak egitea, xede nagusiak zehaztuz eta testu batzuen esanahi bikoitza interpretatuz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea ikasleak gauza diren testuetan –deialdiak, jarduera programak, lan plangintzak– esplizituak diren informazio edo ideia muntadunak bilatzeko, aurkitzeko eta hautatzeko, eta haietan adierazitakoaren arabera jarduteko; gauza diren beren esperientziatik hurbil dauden egitatei buruzko informazioa lortzeko komunikabideetan, izenburu eta sarrera laburretan irakurketa azkarra erabiliz, eduki orokorra alde aurretik ezagutzeko; gauza diren azpimarra eta beste teknika batzuk erabiltzeko eskolako testuetan esplizituak diren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak zehazte aldera.

Halaber, ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten azaleko esanahiaz haratago joan eta inferentzia zuzenak ateratzeko: aurreikus daitzeko gertakariak indutzea, testuen xede deduzitzea edo orokortze batzuk identifikatzea. Are esanahi bikoitzak edo ironiak harrapatzea ere.

Testu literarioetan, olerki batzuen ideia nagusiak identifikatzen ote diren ebaluatu behar da, edo gaitasuna ote duten kontakizun ez-linealak jarraitzeko, eta trebetasuna ote duten istorioetako pertsonaien arteko harremanak ulertzeko, modu esplizituan agertzen ez direnean, edo gertakariak gertatu aurretik antzemateko gauza ote diren.

5. Norberaren ideiak interpretatu eta testuetan bildutako informazioarekin integratzea, informazioak konparatuz eta alderatuz, eta ahoz irakurtzerakoan ulertzen dela agertzea.

Ebaluazio irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai direla testu desberdinetan bildutako informazioak gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzeko, eta irakurtzeko jardueran ulermen estrategiak txertatu dituztela; esate baterako, idazkiaren xede identifikatzea, testu-adierazleak erabiltzea, aurrera eta atzera egitea, hiztegietan kontsulta egitea edo informazio osagarria bilatzea.

Irizpide honekin lortu nahi da, halaber, ulermena ebaluatzea ozenki eginko irakurketaren bitartez; irakurketa hori, izan ere, behar bezain arin eta behar den intonazioarekin egin behar da, isileko irakurketa bezala; azkartasunean eta ulermenean aurrera egitea baloratuko da.

6. Iritziak eta informazioak narratzea, azaltzea, deskribatzea, laburtzea eta adieraztea, eguneroko eta eskolako egoerekin erlacionaturiko testu idatzietan, betiere modu antolatu eta egokian, esakuneak elkarrekin lotuz, testuen plangintza eta berrikuspina modu ohikoan erabiliz, eta arau gramatikalak eta ortografikoak eta alderdi formalak zainduz, paperezko euskarriaren nahiz euskarri digitalean.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gauza direla gauzak idatziz adierazteko, modu koherentean eta idazki bat sortzeko proze-

suak berezkoak dituen urratsak eginez (plangintza, testua idaztea, berrikustea). Beharrezkoa da ikasleek baloratzea urrats horiek baliagarriak direla testu osoagoak eta xedearekin lotuagoak lortzeko. Ikasleek gai izan behar dute gelako pertsonen arteko harremanek berezkoak dituzten testuak idazteko –gutunak, arauak, jarduera programak, deialdiak, lanerako plangintza kolektiboak– eta, orobat, komunikabideek berezko dituzten testuak, betiere ikasleen esperientziatik hurbil daudenak –albisteak, elkarrizketa, liburuei edo musikari buruzko berri laburra, zuzendariarentzako gutuna–, eta ikasteko beste arlo batzuetan erabili ohi diren testuak; halere, modu berezian ebaluatu behar da ikasleak gai diren ikasteko autonomian aurrera egitea ahalbidetzen dieten testuak lantzeko –laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak–.

Literaturaren arloan, olerkiak edo kontakizunak birsortzeko gaitasuna ebaluatuko da; testu horietan, baliabide batzuk erabili beharko dira –esate baterako, errima edo erritmoa olerkietan.

Idazki guztietan, paperezko euskarriaren nahiz euskarri digitalean egon, ohikoak diren arau ortografikoaren automatizazio maila ebaluatuko da, bai eta zalantza ortografikoak behar diren euskarriak (hiztegiak, apunteak...) erabiliz ebazteko gaitasuna ere.

7. Ahozko tradizioako testu literarioak ezagutzea eta haur literaturakoak, ziklorako egokiak, bai eta narrazioaren eta olerkiaren ezaugarriak, testu horien irakurketan eta idazketan laguntzeko.

Irizpide horrek ebaluatu nahi du adinerako eta zikloaren interesetarako egokiak diren testu literarioez autonomiarekin gozatzeko gaitasuna, eta testu horien zentzua ulertzeko gaitasuna, konbentzio berriazko batzuk interpretatzeari esker; esate baterako, behin eta berriz agertzen diren gaiak, kontraera literarioaren elementuak, errima, neurria, konparaketak eta metafora. Ebaluatu behar da, halaber, ikasleen ekimena eta irakurketarako jarrera positiboa izatea. Adierazpen eta birsorkuntza baliabideak erabiltzeko gaitasuna baloratuko da, dramatizazio edo birsorkuntza lanetan, eta olerkiak eta bestelako testuak memorizatzerakoan.

8. Liburutegiak, bideotekak eta abar arintasunez erabiltzea eta maneiatzea, eta ulertzea obrak eta bestelako materialak antolatzeke eta hautatzeko mekanismoak. Gelan eta ikastetxean erabilgarri dauden material bibliografikoak eta bestelako materialen zaintzan eta hobekuntzan laguntzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai ote diren eskura dituzten liburutegiak aktiboki eta autonomiaz erabiltzeko; garatu ote dituzten irakurketarako gustua eta haien ohiko erabiltzaileak izateko behar diren jarrerak eta prozedurak. Baloratu behar da, orobat, liburutegien funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko ezagutza, bai eta haien mantentzean eta zaintzan laguntzeko gaitasuna ere.

9. Hitzetan, esakuneetan eta testuetan, ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko egiten diren segmentazioetan, ordena-aldaketetan, kenketetan eta txertaketetan gertatzen diren aldaketak identifikatzea.

Helburua da ebaluatzea txertaketek, kenketek, ordena-aldaketek, segmentazioek eta berrosatzeek esakuneetan eta testuetan sortzen dituzten eraginak behatzeko gaitasuna, halako moduan non identifikatuko diren bai idazketan eta ahozko adierazpenean gertatzen diren arazoak, bai ulertzeko zailtasun batzuen jatorria; azken batean, gogoeta hori jarduera horiek hobetzeko erabiltzea bilatu nahi da.

Analisi prozedura horiek bidea eman behar dute testuari modu kritikoan erreparatzeko; testuaren edukari buruz gogoeta egiteko eta hura ebaluatzeko; haren egitura, hizkuntzaren erabilera eta baliabide literarioak, eta egilearen ikuspuntua eta ofizioa aintzat hartzeko eta ebaluatzeko.

10. Gramatikaren eta linguistikaren terminologia, zikloari dagokiona, ulertzea eta erabiltzea testuak sortzeko eta ulertzeko jardueretan.

Irizpide honekin konprobatu nahi da ea ikasleek erabiltzen den hizkuntzari buruzko oinarriko ezagutza gramatikalak barneratu dituzten. Egiaztatu nahi da ikasleek ikasketa horiek erabiltzen dituztela testuak egiterakoan eta berrikusterakoan, komunikazio hobeak lortze aldera. Halaber, baloratuko da arazo linguistiko batzuei buruz eztabaidatzeko behar den terminologia erabiltzea, egiten diren oharpenak ordenatzea eta ikasitakoa azaltzea. Etoparen bukaeran, ondokoak sartzen dira eduki horien barranean: testuen izendapenak, esakuneak osatzen dituzten elementuak, hitz mota desberdinen ezagutza (izena, adjektiboa, aditza eta abar) eta hitzak osatzeko moduari buruzko oinarriko nozioak (genero eta numero aldaerak; denbora, numero eta pertsona aldaerak; maiz erabiltzen diren aurrizkiak eta atzizkiak eta abar).

11. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten oinarriko estrategien eta ikusizko baliabideen erabilpena, ikasleek laguntza eta argibideak eskatzea, eta hiztegiak eta oinarriko bitarteko teknologikoak batzuk erabiltzea. Halaber, ebaluatuko da ikasleek gaitasuna ote duten beren aurrerapenak baloratzeko eta ikasteko nolabaiteko autonomia lortu duten

EUSKARA ETA LITERATURA. D EREDUA (L1)

Helburuak

Eta honetan, Euskara eta Literatura irakasgaiaren irakaskuntzak honako gaitasunak garatzea izanen du helburu:

1. Eguneroko gaiekin loturiko ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea, jarduera sozial eta kulturalako testuinguru desberdinetan.

2. Gauzak ahoz adieraztea, hitz egitea eta hizketan jardutea, eta gauzak idatziz adieraztea, diskurtsoak eta testuak eginez esaldi erraz eta egokiek, eguneroko bizitzaren testuinguru desberdinetan.

3. Europako eleaniztasunaren errealitatea baloratzea, eta Espainiako, eta euskararen aldaera linguistikoak, kultur aberastasuna direlako.

4. Ahozko hizkuntza modu espontaneo eta egokian erabiltzea norberaren intereseko edo eguneroko bizitzako gaietan (familia, zaletasuna, gaurkotasuneko gertaerak...), errespetuzko eta laguntzazko jarrera edukiz.

5. Formatu konbentzionalean, erakunde publiko edo pribatuekiko komunikazioan erabiltzen diren idazki mota desberdinak erabiltzea, eskolarekin eta eskola-jarduerarekin loturiko egoeretan.

6. Komunikabideak eta informazioaren teknologiak erabiltzea eguneroko gaien buruzko informazio orokorrak lortzeko, interpretatzeko eta baloratzeko eta gai horiei buruzko iritziak adierazteko.

7. Hizkuntza eskola-jardueran eraginkortasunez eta kritikotasunez erabiltzea, bai informazioa aurkitu, bildu eta prozesatzeko, bai esparru akademikoak berezkoak dituen testuak idazteko.

8. Irakurketa gozameneko, ezagutzarako eta norbera aberasteko iturri gisa erabiltzea, esparru desberdinetan (literarioan, zientifikoan, sozialean...) eta tradizio literarioaren ezagutzara hurbiltzea testu literarioen bitartez.

9. Gaiaren eta konplexutasunaren ikuspuntutik egokiak diren genero desberdinetako testuak ulertzea eta sortzea, eta hizkuntza literarioaren berariazko konbentzioen ezagutzetan hastea.

10. Hizkuntzari eta erabilera linguistikoaren arauak buruzko ezagutze baliatzea modu egokian, koherentean eta zuzenean idazteko eta hitz egiteko, eta ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko.

11. Hizkuntzen erabilera sozial desberdinei buruz gogoeta egitea, balio-juzkua eta aurreiritzi klasistak, arrazistak edo sexistak dakartzaten estereotipo linguistikoak saihesteko.

12. Ikaskuntzarako abileziak eta trebetasunak barneratzea eta komunikazioari buruzko ezagutzak eta estrategiak beste hizkuntza bazuetara transferitzea.

*Lehen zikloa**Edukiak*

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

Eta honetan zehar, ikasleak ikasi behar du testuinguru batzuetan egoki adierazten, edukia eta adierazpenaren forma xedei eta mintzakideei egokituz. Halaber, ikasi behar dute beste egoki erantzuten, esandakoaren haria eta mintzakideak erabiltzeko hizkuntza gordez. Halaber, ikasleek ikasi behar dute hizketaaldietan parte hartzen, txandak errespetatuz eta aztergaiari buruzko ekarpenak eginez. Pixkanaka, hizkuntzaren erabilera formalenak sartzen joanen dira.

• Entzutea eta ulertzea

• Ikasteko ahozko testu errazak ulertzea, bai xede didaktikoz sortutakoak bai eguneroko erabilerakoak (gelako azalpenak, galderak, aginduak, agurrak, jokoak, dokumentalak...).

• Haurren esperientziatik hurbil dauden egitate eta gertaerei buruzko irratiko eta telebistako ahozko testuak ulertzea eta baloratzea (filmak, dokumentalak).

• Era askotako euskarriak ikus-entzunezko informazioak ulertzea eta haien arteko erlazioak ezartzea (identifikazioa, sailkapena, konparazioa).

–Hitz egitea eta hizketan aritzea

• Parte hartzea eta laguntzea gelako komunikazio egoeretan (oharrak, jarraibideak, bizipenei eta sentimenduen buruzko hizketaaldiak edo narrazioak), argitasunez eta hiztegi, forma linguistiko, intonazio eta ebakera egokiak erabiliz, diskurtsoan lekuaren, kronologiaren edo logikaren arabera ordenari jarraituz.

• Ikasteko ahozko testuak produzitzea, didaktikoak nahiz eguneroko gaien buruzkoak (ikasleentzako aurrean azalpen laburrak egitea, ikasuntzaren edukiei buruzko hizketaaldiak eta lanaren antolamenduari buruzko azalpenak).

• Ahozko adierazpena, ebakera eta intonazio egokiek. Euskarak berezko dituen fonemen ebakera: z, s, x, tz, ts, tx, tt,

• Ahozko elkarreraginari buruzko arauak baloratzea eta errespetatzea (entzutea, hitz egiteko txandak errespetatzea, mintzakideari begiratzea, ahots bolumenaren moderazioa eta erritmo egokia erabiltzea).

• Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan.

• Hizkuntza ez baztertzailea eta desberdintasuneko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

• Esparru desberdinetan, jarrera positibo eta aktiboak edukitzea hizkuntzarekiko erregistroak direla eta.

–Testuak:

• Narrazio testuak: ipuinak, gertaeren narrazioa alaitasuna, harridura edo bestelako sentimenduen bat sortzen duen zerbaiten kontaera.

• Filmak eta dokumentalak.

• Dramatizazioak eta simulazioak.

• Deskribapenak: norberaren edo ahaideren baten deskribapenak, ipuin ezagun bateko pertsonaienak, animalia batenak, gauza batenak, paisaienak..., asmakizunak...

• Jarraibideak: errezetak, jokoak, aginduak...

• Hizketaaldi espontaneoak: kortesiazko formulak...

–Trebetasunak eta strategiak

• Arretari eustea gelan aurkezturiko informazioetan, grabazioetan, antzerkian, ikuskizunetan.

• Entzundakoari buruzko ideia orokorra eta xehetasun oso garrantzitsuak identifikatzea.

• Ipuin bateko gertaeren sekuentzia egitea.

• Testuaren ulermen orokorrari buruzko galderei erantzutea.

• Kontaera batean fikzioa eta errealitatea bereiztea.

• Ahozko diskurtsoa antolatzea ordena logikoari edo kronologikoari jarraituz.

• Gelako hizketaaldietan aktiboki parte hartzea, txanda errespetatuz eta ahots bolumen eta erritmo egokiak erabiliz.

• Entzundakoari buruzko iruzkin egokiak egitea, iritziak eta jarraibideak ematea, sentimenduak eta ikuspuntuak azaltzea, galdetzea...

• Hizkuntzaren erregistro egokiak erabiltzea gainerakoekin komunikatzeko.

2. multzoa.–Irakurtea eta idaztea.

2.1. Idatzizko testuak ulertzea.

Irakurtzeko –testua deskodetzea– eta irakurketa funtzionalerako –adierazkorra eta isilekoa– behar diren trebetasunak eskuratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berariazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narrazioak baloratzea). 3. multzoarekin lotura estua edukiz, oso garrantzitsua da irakurtzeko zaletasuna sustatzea, gozamen eta prestakuntza iturri gisa.

–Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea

• Informazio zehatzak ulertzea haurren esperientziatik hurbil dauden eguneroko egoerei buruzko testu propioetan; esate baterako, gonbiteak, zorion-emateak, oharrak eta deiak.

• Haurren esperientziatik hurbil dauden egitate eta gertaerei buruzko informazio orokorra ulertzea, komunikabideetatik heldu diren testuetan; albisteetan jarriko da azpimarra berezia.

• Informazioak ulertzea ikastera bideratuta eta esperientziarekin oso lotuta dauden testuetan, bai xede didaktikoarekin sortutakoetan, bai eguneroko erabiltzen direnetan (liburuxkak, deskribapenak, jarraibideak eta azalpenak).

• Ozenki irakurtzea, ebakera, erritmo, eten eta intonazio egokiak erabiliz.

• Ikasteko euskarri desberdinetatik heldu diren ezagutzak eta informazioak identifikatzea (identifikazioa, sailkapena, konparazioa).

• Informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren eta liburutegien erabileraren hastapenak, informazioa eta idatzizko lanen ereduak lortzeko.

• Idatzizko testuekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta esperientziak komunikatzeko eta bizikidetasuna arautzeko bitarteko gisa.

–Idatzizko testuak sortzea:

• Haurren esperientziatik hurbil dauden eguneroko egoerei buruzko testu propioak sortzea; esate baterako, gonbidapenak, zorion-emateak, ohar edo deiak. Horretarako, testu-generoetan ohikoak diren ezaugarriak erabiliko dira.

• Komunikabideen testu bereizgarriak sortzea (titularrak, argazki-oinak, albiste laburrak...) haurren esperientziatik hurbil dauden gertaerei buruz, eskola giroan egokiak diren euskarriak erabiliz (horma-irudiak, eskola-egunkariak, aldizkariak...).

• Eskola giroarekin lotutako testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdetegiak, laburpen edo eskema gisa erabiltzeko zerrendak, deskribapenak, oinarriko azalpenak...).

- Asmo literarioko testuak sortzea, adinerako egokiak (biko erri-matua, esloganak, elkarrizketak, ipuinak, koplak...).

- Idatziko konbentzioak barneratzea: zehaztasuna, argitasuna, errepikapenak saihestea.

- Osagai grafiko eta paratestual errazak erabiltzea ulermena errazteko (ilustrazioak eta tipografia).

- Testuak prozesatzeko programa informatikoak erabiltzen hastea.
- Idazketarekiko interesa, harremanak izateko, informazioa lortzeko eta ikasteko tresna den aldetik.

- Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa, eta arau ortografikoekiko interesa.

–Testuak:

- Narrazio testuak:

- Narrazio errealek edo fantasiakoak, ilustrazioekin.

- Postal edo gutun pertsonalak.

- Eguneroko bizitzako gertakariak.

- Dramatizazioak.

- Deskribapenak:

- Norberaren edo ahaideren baten deskribapenak, ipuin ezagun bateko pertsonaienak, animalia batenak, gauza batenak, paisaienak...

- Argazki-oina

- Asmakizunak, atsotitzak.

- Jarraibideak: errezetak, jokoak, deiak, agindu errazak...

–Trebetasunak eta estrategiak

- Aldez aurretiko ezagutzak aktibatzea eta hipotesiak aurretik egitea.

- Izenburua interpretatzea.

- Zuzentasunez erantzutea testuen hitzez hitzeko ulermenari eta ulermen orokorrari buruzko galderei.

- Irakurketa adierazgarriaren baliabideak aplikatzea: intonazioa, erritmoa, etenak.

- Irakurketan aurrera eta atzera egitea, ulermena errazteko.

- Ohiko erabilera duten testuen esanahi orokorra ulertzea.

- Narrazio testuaren zati garrantzitsuenak ezagutzea: hasiera, korapiloa eta amaiera.

- Ezagutzen ez diren hitzen esanahia galdetzea.

- Testuarekin batera doazen irudiak interpretatzea.

- Eskatutako lan bati erantzuteko testu idatziak lantzea, paragrafoak bereiziko dituen egitura bat erabiliz.

- Testua antolatzea. Aurkezpena, txukuntasuna eta lekuaren banaketa. Letraren irakurgarritasuna: tamaina, lerrokatzea.

3. multzoa.–Hezkuntza literarioa

Hezkuntza literarioa hizkuntzaren eta komunikazioaren ikuspegiaren pean sartu da. Literatura egitate estatiko eta komunikatibo bat da, egilearen eta hartzaileen artekoa; lagungarria da norberaren kultura identifikatzeko eta beste batzuk ezagutzeko. Ezin da esan hizkuntza literarioa aldaera homogeen bat denik, hizkuntza arruntaz bestelakoa. Funtzionalki desberdina den erabilera bat da, bereizgarri komunikatibo zehatz batzuk dituenak. Hizkuntza literarioaren ezagupena testu literarioak ulertuz eta sortuz landuko da. Literatura, horrenbestez, beste bi-tarteko bat da trebetasun linguistikoak garatzeko.

- Testu literarioen entzunaldia eta irakurketa gidatua, irakurtzeko zaletasuna bultzatzea.

- Haurren interesen eta haien giza prestakuntzaren beharren arabera irakurketa gidatua eta autonomia, isilpean eta ozenki, irakurtzeko autonomiara iristeko pixkanaka.

- Ikasgelako eta ikastetxeko liburutegia erabiltzea, ikus-entzunezko agiriak ere bai, irakurketara hurbiltzeko bitarteko gisa.

- Zikloari egokitutako olerkiak, abestiak, koplak ulertzea, memorizatzea eta errezitatzea, erritmo, ebakera eta intonazio egokiekin.

- Narrazio testuak eta izaera poetikokoak (asmakizunak, atsotitzak...) birsortzea eta berridaztea, ereduak erabiliz.

- Egoera eta testu literarioak dramatizatzea.

- Irakurketa baloratzea, gai eta testuen hautaketarekiko interesa; lehentasun pertsonalak komunikatzeko interesa; testu literarioa norberaren gozamenerako tresna dela antzematea.

–Trebetasunak eta estrategiak

- Entzutea ipuinak, olerkiak, aho-korapiloak, lelotegiak, asmakizunak, abestiak.

- Ahozko testuak memorizatzea eta azaltzea, aldez aurretiko lan bat eginez testuaren ulermenari buruz eta parte hartzeko gustua sustatuz.

- Narratzea edo errezitatzea ipuinak, asmakizunak, olerkiak, lelotegiak eta aho-korapiloak.

- Adinari egokitutako testuak dramatizatzea, taldean parte hartzeko gustua garatuz.

4. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

Ikasleek hizkuntza barneratzeko prozesuari jarraipena ematen zaio eta prozesu hori hobetzen da. Soilik ikasleen komunikatzeko gaitasuna hobetzearen ikuspuntutik justifikatzen da eta esanahia ematen zaio gramatikaren inguruko gogoetari. Horrenbestez, edukien sekuentzia gauzatuko da ikasleen ezaugarri kognitibo, psikologiko eta linguistikoak aintzat hartuz.

- Egoera sozialek komunikazioaren elkartrukeak baldintzatzen dituen faktore gisa betetzen duten papera aitortzea.

- Komunikazioa testu idatzien bitartez gertatzen den testuinguruak identifikatzea eta idazketak esparru batzuetan daukan garrantzia baloratzea.

- Ikasgelan maiz erabiltzen diren testuak identifikatzea, elementu paratestual eta testualetatik abiatuta.

- Ahozko eta idatziko hizkuntzen arteko desberdintasunei erreparatzea.

- Soinuaren eta grafiaren arteko harremanari erreparatzea hizkuntzaren sisteman.

- Hitza idazketa zatitzeko oinarriko tresna gisa identifikatzea.

- Ortografia arau erraztenak ezagutzea.

- Osagai linguistikoak ordeztzea, txertatzea, kentzea, ordenaz aldatzea eta zatitzea, esakuneen funtzionamendua ikusteko eta baliabide berriak barneratzeko.

- Produktzio eta interpretazio jardueretan, ondoko terminoak identifikatzen eta erabiltzen hastea: landutako testuen izenak; esakunea, hitza eta silaba; izena, izen arrunta eta izen berezia.

–Trebetasunak eta estrategiak

- Ahozko eta idatziko produktzioetan hiztegia zabaltzea, eremu semantikoak, hitzen familiak, maiz erabiltzen diren sinonimoak eta antonimoak erabiliz.

- Komunikazioa lortzea erregistro egokia erabiliz eta adierazpide arruntgetara jo gabe.

- Testuen produktzioaren esanahi orokorra.

- Testua paragrafo desberdinetan banatzea.

- Ondoz ondoko denbora adierazteko testu markagailuak eta lokailuak.

- Aditz denborak bereiztea: orainaldia, lehenaldia eta geroaldia.

- Testu zatiak manipulatu eta eraldatzea.

- Alfabetoa, alfabeto hurrenkera erabiltzen hastea.

- Hiztegia erabiltzeko hastapenak.

5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

Sistema linguistikoaren unitatei buruzko gogoeta erabilpenerako baldintzen inguruan planteatzen da, eta norberaren ahozko eta idatziko produktzioen ebaluazioa eta zuzentasuna txertatzeko ezinbesteko baldintza gisa, ikaskuntza autonomia errazte aldera. Gogoeta, eztabaida, adibideak jartzea eta abar. Lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta, eztabaida eta adibideak eta abar gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez garatu behar dira.

- Eskolako lan pertsonalak eta taldeko lanak eta eginbeharrak eraginkortasunez egiten ikastea.

- Hizkuntzari eta hizkuntzei, ikaskuntzari berari eta lanaren antolamenduari buruz gogoeta egitea.

- Hiztegia, hizkuntzaren formak eta egiturak, testugintza eta abar ikasteko, trebetasun eta prozedura batzuk erabiltzea; besteak beste, ereduak behatzea, konparaketa, berrantolaketa, adibideak ematea, orokortzea.

- Euskara komunikatzeko eta harremanak izateko bitarteko gisa baloratzea.

- Taldean lan egiteko ardura txikiak onartzea.

–Trebetasunak eta estrategiak

- Testuekin batera datozen irudiez baliatzea informazioa lortzeko.

- Lanak garbitasunez eta ordenaz egitea.

- Erabiltzen diren tresnak eta materialak ordenatzea eta zaintzea.

- Lanak arrazoizko denbora batean bukatzen saiatzea.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.

- Gehiago eta hobeki ikasteko interesa.

- Hizkuntzaren erabilera espontaneo ikaskideekin.

Ebaluazio irizpideak

Ebaluazio irizpideek ziklo bakoitzerako ezarritako oinarriko helburu orokorrak adierazten dituzte. Irizpide horietako bakoitzak eskatzen du kasuan kasuko helburua lortzeko behar diren trebetasun eta estrategia batzuk barneratzea.

1. Ohiko erabilera duten ahozko testuen esanahi orokorra ulertzea, informazio garrantzitsuena identifikatuz.

Irizpide honek erreferentzia egiten dio eguneroko bizitzan ahozko testuak ulertzeko gaitasunari, bai ikasgelan bai ingurune hurbilenean.

Lehen ziklo honetan, informazio orokorrak edo oso zehatzak lortzea biltzen da, ikasleek eskatutako lanak egin ahal izan ditzaten eta ikasgelako bizitzan parte har dezaten.

Irizpide honek ebaluatu nahi du, halaber, ea ikasleek nolabaiteko gaitasuna garatu ote duten oinarritzko gogoeta bat egiteko testuak ulertzeko mekanismoei buruz eta mezu desberdinak gertatzen direneko moduei buruz.

2. Parte hartzea ikasgelako komunikazio egoeretan, elkartrukearen arauak errespetatuz: hitz egiteko txanda errespetatzea, entzutea, mintzakideari begiratzea, gaiari eustea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi dira bai ikasgelan gertatzen diren ahozko elkartruke egoera desberdinetan aktiboki esku hartzeko gaitasuna, bai haietan parte hartzeko jarrera ere. Ohartarazi behar da gaitasun horiek lotura estua dutela komunikazio egoerak behatzeko gaitasunarekin –xede, parte-hartzaileak, elkartrukea gertatzen den lekua...–, eta haien ezaugarriak, oraindik intuitiboki bada ere, zehaztu eta egoki jarduteko gaitasunarekin.

3. Gauzak ahoz adierazten jakitea, egitateak, bizipenak edo ideiak modu antolatuan aurkezten dituzten testuen bitartez.

Irizpide honek ebaluatu nahi du ikasleak gauzak argitasunez eta zehaztasunez adierazteko duen gaitasuna, betiere komunikazio generoaren eta egoeraren arabera, hiztegi, formula linguistiko, intonazio eta ebakera egokiak erabiliz.

Baloratu behar da, baita ere, egitateak, bizipenak edo ideiak ahoz komunikatzeko gaitasuna, hizkuntzaren laguntzarekin norberaren jokatibidea kontrolatzeko bide gisa.

4. Testuak irakurtzerakoan informazio zehatza aurkitzea eta inferentzia zuzenak egitea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek testuetan berriaz adierazitako informazio edo ideia garrantzitsuak detektatzeko eta ulertzeko gaitasuna duten –informazio puntualak abisuetan, oharretan, gonbidapenetan eta eskola testuetan– eta gauza ote diren azaleko esanahiaz haratago joateko eta testuan oinarrituriko inferentziak ateratzeko.

Narrazio testu literarioetan, gaitasun horrek berarekin dakar istorio bat eraikitzea bideratzen duten egitate nagusiak identifikatzea, pertsonaia nagusiak identifikatzea edo istorioaren testuinguruarekin loturiko alderdi erraz batzuk inferitzea (denbora, lekua...).

Halaber, ideiak detektatzeko hertsiki testualak ez diren alderdi batzuk (irudiak, testuaren banaketa edo tipografia) erabiltzeko trebetasunaren garapena ebaluatu behar da.

5. Haurren esperientziatik hurbil dauden testu idatzietan bildutako informazioa eta norberaren bizipenak eta ideiak erlazioatzea adibide zehatzekin, eta ahoz irakurtzerakoan ulertzen dela agertzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna ote duten beren bizipenak eta ezagutzak testu idatzietan agertzen den informazio berriarekin erlazioatzeko, eta gaitasuna ote duten eskolan erabili ohi diren testuetatik heldu den informazioa erlazioatzeko, hura identifikatuz, konparatuz eta sailkatuz.

Baloratuko da, halaber, ezagutzen dituzten testuak ahoz irakurtzerakoan ulertzen ote dituzten, alde zuzenetik isilik irakurri ondoren, funtsean deskodetzeari, etenei eta intonazioari erreparatuz. Kontuan hartuko da, azkenik, irakurtzeko ekimena hartzen ote duten eta hori eginez gozaten ote duten.

6. Haurren esperientziarekin loturiko testuak idaztea eta berri-daztea, eredu argie jarraituz, testuen plangintza eta berri-kuspina erabiliz, eta arau gramatikal eta ortografiko errazena eta alderdi formalak zainduz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek idatzizko kodea barneratu duten. Ikasleek gai izan behar dute ikasgelako pertsonen arteko harremanek berezkoak dituzten testuak idazteko –deiak, zorian-emateak, oharra–, eta gai izan behar dute, halaber, informazioaren elkartruke idatzia gertatzen deneko eskola jardueretan parte hartzeko –eskolako albisteak argitaratzea...– eta idazketa ikasteko eta ezagutzak antolatzeko zereginean erabiltzeko. Halaber, literaturara hurbiltzea baloratuko da, jolas linguistikoak eginez edo ipuina edo olerkia bezalako generoak imitatuz.

Halaber, plangintzaren arabera eginiko idazkiak lantzeko prozesua ebaluatuko da –ereduak eta bestelako jarraibideak erabiliko dira– eta idazkiaren eraginkortasunarekin loturiko alderdien berri-kuspina –nahi den xede lortzea– ziklo honetarako eskatzen den koherentzia eta zuzentasun gramatikal eta ortografikoarekin (oinarritzko arau ortografikoak erabiltzea du ardatz): hitzak zatitzea, koma erabiltzea zerrendatzeetan, puntu eta galdera ikurra erabiltzea.

7. Ahozko tradizio testu literarioak ezagutzea eta haur literaturakoak, ziklorako egokiak, bai eta narratiboen eta olerkiaren alderdi formal erraz batzuk, testu horien irakurtzetan eta idazketan laguntzeko.

Irizpide honek ebaluatu nahi du entzuteko aztura garatzeko gaitasuna eta zikloak berezko dituen testu literarioez gozatzeko ohitura, be-

reziki narrazio testuekin eta olerkiekin (abestiak, errefracuak, asmakizunak, aho-korapiloak...), eta horien zentzua ulertzeko gaitasuna, konbentzio berriazko batzuk interpretatzeari esker; esate baterako egitura narratibo soila eta errima. Halaber, ebaluatu behar da testu literarioak aintzat hartzea eta harekiko jarrera positiboak izatea, bai eta irakurketa eguneroko bizitzan txertatzea ere. Baloratuko da olerkiak, bertsoak eta testu errazak erritmo, ebakera eta intonazio egokiarekin dramatizatzea, birsortzeko, memorizatze eta errezeitzeko lanetan parte hartzea.

8. Hitzetan, esakuneetan eta testuetan, ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko egiten diren segmentazioetan, ordena-aldaketetan, kenketetan eta txertaketetan gertatzen diren aldaketa batzuk modu gidatuan identifikatzea.

Helburua da ebaluatzea ordena-aldaketek, segmentazioek, kenketek eta txertaketek esakuneetan eta testuetan sortzen dituzten eraginak behatzeko eta ezagutzeko gaitasuna, halako moduan non identifikatuko diren bai idazketan eta ahozko adierazpenean gertatzen diren arazoak, bai ulertzeko zailtasun batzuen jatorria; azken batean, gogoeta hori jarduera horiek hobetzeko erabiltzea bilatu nahi da.

9. Gramatikaren eta linguistikaren oinarritzko terminologia ulertzea eta erabiltzea, testuen produkzioarekin eta ulertzearekin loturiko jardueretan.

Irizpide honekin konprobatu nahi da ikasleak gauza ote diren oinarritzko termino gramatikalak eta linguistikoak erabiltzeko (testuen izendapenak, esakunea, hitza eta silaba; izen arrunta eta izen berezia; singularra eta plurala), ikasgelan egiten diren jardueretan. Erabilpen horrek suposatzen du halako elaborazio maila bat dagola terminoek aipatzen dituzten kontzeptuetan.

Halaber, baloratuko da bat-bateko erabileran ekimena izatea eta termino horiek erabiltzeko interesa.

10. Estrategia batzuk erabiltzea ikasten ikasteko.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ikaskuntza prozesuan laguntzen duten oinarritzko estrategiak erabiltzen diren, hala nola ikusizko baliabideak erabiltzea, laguntza eta argibideak eskatzea, hiztegiak erabiltzea eta aurrerapenen balorazioa, oinarritzkoa bada ere. Halaber, ikaskuntza prozesuetan nolabaiteko autonomia lortzea baloratuko da.

Eta honetan zehar, ikasleak ikasi behar du testuinguru batzuetan egoki adierazten, edukia eta adierazpenaren forma xedeari eta mintzakideei egokitzuz. Halaber, ikasi behar dute besteei egoki erantzuten, esandakoaren haria eta mintzakideak erabilitako hizkuntza gordez. Halaber, ikasleek ikasi behar dute hizketa dietan parte hartzen, txandak errespetatuz eta aztergaiari buruzko ekarpenak eginez. Pixkanaka, hizkuntzaren erabilera formalenak sartzen joanen dira.

Bigarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea

Ahozko testuak ulertzea ikasteko eta informatzeko, bai xede didaktikoa dutenak bai egunero erabiltzen direnak, ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketa dijak), eta formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak).

- Irratitik, telebistatik edo Internetetik heldu diren ahozko testuak ulertu eta baloratzea, garrantzi berezia emanez albisteari, ikasleak egitate eta gertaera garrantzitsuak buruzko informazio orokorra jaso dezan.

- Ikus-entzunezko dokumentuak erabiltzea informazio muntadunak lortu, hautatu eta erlazioatzeko (identifikatzea, sailkatzea, konparatzea).

- Gizarteko komunikabideak baloratzea egitate eta gertaera muntadunei buruzko informazio orokorrak jasotzeko tresna gisa.

–Hitz egitea eta hizketan aritzea

- Parte hartzea eta laguntzea ohiko komunikazio egoeretan (informazioak, bizikidetasuna arautzen duten hizketa dijak, eztabaidak edo jarraibideak), komunikazio egoerari egokitzuz eta baliabide linguistiko egokiak erabiliz (elementu lexikoak, gramatikalak, fonologikoak...), diskurtsioan lekuaren, kronologiaren edo logikaren arabera ordenari jarraituz.

- Ikasteko ahozko testuak sortzea, bai xede didaktikoa dutenak bai egunero erabiltzen direnak, testu ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketa dijak), eta formalizazio maila handiagokoak (gelako azalpenak).

- Ahozko adierazpena, ebakera eta intonazio egokiarekin. Euskarak berezko dituen fonemen ebakera: z, s, x, tz, ts, tx, tt,

- Ahozko elkarrenginari buruzko arauak baloratzea eta errespetatzea (entzutea, hitz egiteko txandak errespetatzea, mintzakideari begiratzea, elkartrukean paper desberdinak hartzea, ahots bolumen, jarrera eta keinu egokiak).

- Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan.

- Hizkuntza ez baztertzaila eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

▪ Esparru desberdinetan, jarrera positibo eta aktiboak edukitzea hizkuntzarekiko erregistroak direla eta.

–Testuak:

▪ Narrazio testuak: egitate erreal edo fantasiazkoen narrazioa alaitasun, tristezia, harridura eta antzeko sentimenduak adierazten dituzten kontaeak...

▪ Dramatizazioak, simulazioak eta elkarrizketak.

▪ Deskribapenak: pertsonen, animalien, gauzen, lekuen deskribapenak, asmakizunak.

▪ Jarraibideak: jolas bat sortzeko jarraibideak, arauak, errezetak...

▪ Azalpen testuak: aurkezpenak, elkarrizketak, albisteak, pertsonaia ezagun baten biografia, animalia baten bizitzari buruz ikasitakoa azaltzea... lehendik emandako fitxa bateko datuetatik abiatuz.

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Arretari eustea gelan aurkezturiko informazioetan.

▪ Aurkitzea igorlearen asmoa eta hura diskurtsoan nola agertzen den.

▪ Informazioa hautatzea: identifikatzea entzundakoaren esanahi orokorra (gaia, gakoak) eta bigarren mailako ideiak.

▪ Testuaren ulermen orokorrari, interpretatiboari eta kritikoari buruzko galderei erantzutea.

▪ Berariazko xede batzuekin erabiltako ezaugarri linguistikoak identifikatzea: heztea, entrentzea.

▪ Entzundakoa baloratzea: forma, edukia.

▪ Diskurtsoa antolatzea, sarrera eta amaiera argiak jarritz, ordena logikoari edo kronologikoari jarraituz.

▪ Ahozko azalpen formalak egiteko estrategia egokiak erabiltzea, diskurtsoari buruzko alde aurretiko plangintza eginez (eskema, grafikoa, taula...).

▪ Gelako hizketaldietan aktiboki parte hartzea, txanda errespetatuz diskurtsoaren inizatibari eusteko, erantzunen plangintza eginez, argitasunak eskatuz elkar ulertzen laguntzeko eta ideiak garatzen lagunduz.

▪ Hizkuntzarako egokiak diren erregistroak erabiltzea, ikasgelan, jolas-orduetan eta jarduera osagarrietan gainerakoekin komunikatzeko.

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

2.1. Idatzizko testuak ulertzea.

Irakurtzeko –testua deskodetzea– eta irakurketa funtzionalerako –adierazkorra eta isilekoa– behar diren trebetasunak eskuratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berariazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narritiboak baloratzea). 3. multzoarekin lotura estua edukiz, oso garrantzitsua da irakurtzeko zaletasuna sustatzea, gozamen eta prestakuntza iturri gisa.

–Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea

▪ Gizarte harremanetako eguneroko egoeretan ohikoak diren testuen informazio muntaduna ulertzea; esate baterako, eskolako gutunak, gelako arauak edo jolasetarako arauak.

▪ Informazio orokorra ulertzea komunikabideetatik heldu diren testuetan (haurrentzako web orriak barne), albisteetan azpimarra berezia eginez, izenburuetan, sarrera laburretan, portadetan nabarmendutako informazioak aurkituz.

▪ Informazioa muntadunak ulertzea ikastera eta informazioa hartzea bideratutako testuetan, bai xede didaktikoarekin sortutakoetan, bai egunero erabiltzen direnetan (liburuxkak, deskribapenak, jarraibideak eta azalpenak).

▪ Ozenki irakurtzea arintasunez, ebakera, erritmo, eten eta intonazio egokiak erabiliz.

▪ Ikasteko eta informazioa alderatzeko euskarri desberdinetatik heldu diren ezagutzak eta informazioak integratzea (identifikazioa, sailkapena, konparazioa, interpretazioa).

▪ Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta liburutegiak erabiltzea, informazioa eta idatzizko lanen ereduak lortzeko.

▪ Idatzizko testuekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta esperientziak komunikatzeko eta bizikidetasuna arautzeko bitarteko gisa.

▪ Edozein motatako bazterkeria dakarten mezuekiko jarrera kritikoak.

–Idatzizko testuak sortzea:

▪ Gizarte harremanetako eguneroko egoeretan berezkoak diren testuak sortzea (eskolako gutunak, bizikidetasun arauak, deiak, eskabideak...) testu-generoen berezko ezaugarrien arabera.

▪ Garrantzizkotzat jotzen diren gertaerei buruz komunikabideek erabili ohi dituzten informazio eta iritzi testuak sortzea, azpimarra berezia eginez albisteetan eta zuzendariarentzako gutunetan, egoera simulatuetan nahiz errealetan.

▪ Esparru akademikoarekin lotutako testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdetegiak, laburpenak, txosten errazak, deskribapenak, azalpenak...).

▪ Asmo literarioko testuak sortzea, adinerako egokiak (olerkiak, elkarrizketak, ipuinak, bertsoak...), hizkuntzaren adierazpen aukerak arakatzu, horretarako ereduak testuak behatuz eta analizatuz (irakasleak narrituriko istorioak edo ipuinak) eta irudimena eta sormena pizten dituzten baliabide eta jolasez baliatuz.

▪ Osagai grafiko eta paratestualak erabiltzea, gero eta zailtasun handiagokoak, ulermena errazteko (ilustrazioak, grafikoak eta tipografia).

▪ Testuak prozesatzeko programa informatikoen erabilera gidatua.

▪ Idazketa baloratzea harreman sozialetarako eta pentsamendua antolatzeko tresna gisa eta informazioa eta ezagutzak lortu eta birlantzeko tresna gisa.

▪ Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa, eta arau ortografikoak errespetatzea.

▪ Hizkuntza ez baztertzaila eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

–Testuak:

▪ Narrazio testuak:

- Narrazio errealak edo fantasiazkoak (mitoak, kondairak, fabulak). Komikiak.

- Txisteak.

- Dramatizazioa.

- Ikara, alaitasuna, tristezia, harridura edo bestelako sentimenduak sortzen dituzten egitate, gertaera eta gorabehera pertsonalak narritzea

- Postal edo gutun pertsonalak, gonbidapenak, egunerokoa.

▪ Deskribapenak:

▪ Norberaren edo ahaide baten deskribapenak, animalia batenak, eszena batzuen, paisaiena eta gauzena, haien ezaugarriak adieraziz.

- Asmakizunak, gurutzegramak.

▪ Jarraibideak:

- Sukaldeko errezeta bat idaztea, osagaiak eta jarraitu beharreko pausoak barne

jolas bat azaltzea, behar diren materialak adieraziz; objektu bat egiteko bete beharreko arauak...

▪ Azalpen testuak:

- Egitateak, fenomenoak...

- Beste irakasgai batzuetako edukiak azaltzea.

- Albisteak.

- Biografia

▪ Testu etendunak:

- Iragarkiak, grafikoak, mapak, horma-irudiak

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Aldez aurretiko ezagutzak aktibatzea eta hipotesiak aurretik egitea eta haiek egiaztatzea.

▪ Idazkiaren xedeak identifikatzea.

▪ Izenburua interpretatzea.

▪ Zuzentasunez erantzutea testuen hitzez hitzeko ulermenari eta ulermen orokor eta kritikoari buruzko galderei.

▪ Irakurketa adierazgarriaren baliabideak aplikatzea: intonazioa, erritmoa, etenak.

▪ Irakurketan aurrera eta atzera egitea, ulermena errazteko.

▪ Testuaren ideia orokorra hartzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzeko eta paragrafo bakoitzeko ideia nagusia ere aurkituz.

▪ Testuaren egiturari eta kohesio mekanismo batzuei antzematea: denborazko markagailu eta lokailuak, puntuaketa...

▪ Ezagutzen ez diren hitzen esanahia bilatzea.

▪ Testuarekin batera doazen irudiak, tipografia eta formatua interpretatzea.

▪ Azpimarratzeko teknikak erabiltzea ideia nagusien ulermena errazteko.

▪ Eskemak egitea edukiak ikasteko bitarteko gisa.

▪ Erreferentziako testuak erabiltzea informazio iturri gisa, testuen ulermen eta produkzio hobeak lortzeko (hiztegiak, entziklopediak, dokumentalak, CD-Romak eta Internet).

▪ Idatzizko testuak lantzea aurretiko plangintza batekin, gidoi bat diseinatuz; idatzizko testuaren idazketa eta berrikuspina egitea egokitasunari, koherentziari, kohesioari, zuzentasunari eta mailaren arabera komunikazio baliabide egokien aberastasunari erreparatuz.

▪ Testua antolatzea. Aurkezpena, txukuntasuna eta lekuaren banaketa. Letraren irakurgarritasuna: tamaina, lerrotzea.

3. multzoa.–Hezkuntza literarioa

Hezkuntza literarioa hizkuntzaren eta komunikazioaren ikuspegiaren pean sartu da. Literatura egitate estatiko eta komunikatibo bat da, egilearen eta hartzaileen artekoa; lagungarria da norberaren kultura identifikatzeko eta beste batzuk ezagutzeko. Ezin da esan hizkuntza literarioa aldaera homogeen bat denik, hizkuntza arruntaz bestelakoa. Funtzionalki desberdina den erabilera bat da, bereizgarri komunikatibo zehatz batzuk dituena. Hizkuntza literarioaren ezagupena testu literarioak ulertuz eta sortuz landuko da. Literatura, horrenbestez, beste bi-tarteko bat da trebetasun linguistikoak garatzeko.

• Adinerako eta norberaren interesetarako egokiak diren obrak pertsonalki irakurtzea, isilik eta ozenki.

• Ahozko tradizioko narrazio testuen eta olerkien, haur literaturaren, obra klasikoaren egokitzapenen eta egungo literaturaren irakurketa gidatua, euskarri desberdinekin.

• Irakurtzeko autonomia, gaiak eta testuak hautatzeko gaitasuna garatzea eta norberak gustukoaren duenaren adierazpena garatzea.

• Ikastetxeko liburutegiaren funtzionamendua ezagutzeko eta jardueren literarioetan parte hartzea.

• Zikloari egokitutako olerkiak, abestiak, bertsoak ulertzea, memori-zatzea eta errezitatzeko, erritmo, ebakera eta intonazio egokiekin.

• Olerkiak, bertsoak eta kontakizunak birsortu eta osatzea, sentimenduak, emozioak, aldarreak edo gogoetak komunikatzeko, eredu batzuen ezaugarriak ezagutzeko.

• Egoera eta testu literarioak dramatizatzea.

• Testu literarioa komunikazio tresna gisa, beste mundu, denbora eta kultura batzuk ezagutzeko iturri gisa eta norberaren gozamenetarako baliabide gisa baloratzea eta aintzat hartzea.

–Trebetasunak eta estrategiak

• Ipuinak edo narrazio laburrak kontatzea, denboraren eta espazioaren koherentziari eutsiz eta haien egiturari ere eutsiz; betiere, intonazioa, etenak, ahotsaren modulazioa eta abar errespetatu beharko dira.

• Egile ezagunen (klasikoak nahiz garaikideak) olerkiak errezitatzea, intereseko gaiak buruzkoak eta norberaren gustuen araberrakoa.

• Testu literarioak sortzen hastea (ipuinak, olerkiak, abestiak, bertsoak eta antzerkirako obra laburrak), emandako jarraibide edo eredu-tatik abiatuz.

• Adinaren arabera egokitutako testuen eta produkzio propioen dramatizazioa. Adierazpen linguistikorako eta ez-linguistikorako norberak daukan aukerak erabiltzea (gorputza, mugimendua, ahotsa), antzerki emanaldietan.

4. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

• Ikasleek hizkuntza barneratzeko prozesuari jarraipena ematen zaio eta prozesu hori hobetzen da. Soilik ikasleek komunikatzeko gaitasuna hobetzearen ikuspuntutik justifikatzen da eta esanahia ematen zaio gramatikaren inguruko gogoetari. Horrenbestez, edukien sekuentzia gauzatuko da ikasleek ezaugarri kognitibo, psikologiko eta linguistikoak aintzat hartuz.

• Komunikazioaren testuinguruaren osagaiak ezagutzeko, komunikazioaren elkartrukeko ahozko edo idatzizko formen hautapenean eragina duten faktore gisa.

• Ulertzeko eta osatzeko errazak diren narrazioen, jarraibideen, deskribapenen eta azalpen errazen egiturak identifikatzea.

• Ahozko edo idatzizko hizkuntzen arteko desberdintasun garrantzitsuenen erreparatzea.

• Arau ortografikoak ezagutzeko, gizartearen duten balioa eta idazkietan haiek betetzeko betebeharrak aintzat hartuz.

• Testuari kohesioa emateko eta erabilera grafikoko elementuak behar bezala identifikatzeko: puntuazio-markak, testu markagailu eta lokaillak...

• Fonema-grafia elkarrekin identifikatu eta ezagutzeko, letra mota edozein dela ere (letra larriak, xeheak, etzanak...). Hitzak silabatan zatitzea.

• Gizarteko eta eskolako testuinguruan dagoen aniztasun linguistikoaren kontzientzia positiboa: euskalkiak eta hizkuntzak eskolan.

• Eguneroko ohiturak eta giza harremanetako moduen erabilera ezagutzeko.

• Esakuneen konparaketa eta eraldaketa, elementuak txertatuz, kenduz, ordena aldatuz, zatituz, berrosatuz, horrela emaitzen gramatikaltasuna ebazteko eta kontzeptu linguistikoak eta metahizkuntzarenak garatzen laguntzeko.

• Ondoko terminologiari buruzko gogoeta, erabilera eta intuiziozko definizioa produkzio eta interpretazio jardueretan: landutako testuen izenak; esakunea, hitza eta silaba; determinatzaileak, hizkiak; aditz denbora (orainaldia, lehenaldia, geroaldia).

• Hitzen arteko erlazioak formarenatik (deklinatzea, hitz-elkarketa eta hitz-eratarpena) eta esanahiarenatik (sinonimoak eta antonimoak) ezagutzeko, testuak ulertzeko eta osatzeko.

• Oinarriko egitura sintaktikoen konparaketa, haien baliokidetasun semantikoa edo esanahian egon daitezkeen aldatzeak behatzeko.

• Esaldiak txertatzea eta koordinatzea, idatzizko konposizioa hobetzeko tresna gisa.

• Esaldien arteko lotura desberdinen erabilera aukerak arakatzea eta haiei buruz gogoeta egitea (gehikuntza, kausa, aurkakotasuna, kontraesana...) testuen osaketari dagokionez.

• Esaldi motak ezagutzeko: adieraztekoa, galderazkoa eta erre-guzkoa.

• Esaldiaren funtsezko osagaiak identifikatzea, subjektuak eta predikatua, eta subjektuaren paper semantiko batzuk.

–Trebetasunak eta estrategiak

• Hiztegia handitzea eremu semantikoak, hitzen familiak, sinonimoak, antonimoak eta eratarpena eta elkarketa erabiliz.

• Komunikazioa lortzea erregistro egokia erabiliz eta adierazpide arruntetara jo gabe.

• Zentzu orokorra gai jakin bati buruzko testuen produkzioan.

• Eskatutako testu motaren egitura tipikoa errespetatzea.

• Testuaren antolaketa, paragrafo-ideia banaketaren arabera.

• Paragrafo hasieretan, ondoko ondoko denbora adierazteko testu markagailuak eta lokaillak erabiltzea, edo diskurtsoaren antolatzaileak.

• Aditz denborak egoki erabiltzea.

• Alfabetoa, alfabeto hurrenkera, hiztegia erabiltzeko oinarri gisa.

• Hiztegien erabilera: polisemia.

5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

Sistema linguistikoaren unitatei buruzko gogoeta erabiltzerako baldintzen inguruan planteatzen da, eta norberaren ahozko edo idatzizko produkzioen ebaluazioa eta zuzentasuna txertatzeko ezinbesteko baldintza gisa, ikaskuntza autonomia errazte aldera. Gogoeta, eztabaida, adibideak jarzea eta abar. Lan egiteko edo ikasteko moduari buruzko gogoeta, eztabaida eta adibideak eta abar gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez garatu behar dira.

• Ezagutzen dituen hizkuntzetan erabiltzen dituen estrategiak identifikatu eta konparatzea.

• Hiztegia, hizkuntzaren formak eta egiturak, testugintza eta abar ikasteko, trebetasun eta prozedura batzuk erabiltzea; besteak beste, ereduak behatzea, konparaketa, berrantolaketa, adibideak ematea, orokortzea.

• Gogoeta egitea hizkuntzari eta hizkuntzei buruz, ikaskuntzari berari buruz eta lanaren antolamenduari buruz, eta akatsak eta zuzenketak onartzea ikaskuntza prozesuaren atal gisa.

• Baloratzea hizkuntzak nork bere burua antolatzen duela eta ikasteko tresna bat direla.

• Hizkuntza komunikatzeko, harremanak izateko eta informazioak eskuratzeko bitarteko gisa baloratzea.

–Trebetasunak eta estrategiak

• Testuekin batera datozen irudiez baliatzea informazioa ulertzeko.

• Jardueren jarraibideak adi irakurtzea, eta bereziki erreparatzea ariketen hasieran egon ohi den adibideari.

• Koadernoaren ordenatua eta txukun edukitzea.

• Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta gehiago erabiltzea, bereziki testu prozesadoreak.

• Ordenagailua erabiltzeko oinarriko trebetasunak menperatzea.

• Autoebaluazioa egiten hastea eta norberaren ikaskuntzaren kontzientzia hartzea.

• Lanak ebazteko laguntza ematea eta besteren laguntza onartzea. Ikaskideekin parte hartzea eta haiekin elkarreraginean lan egitea.

• Bikoteka eta taldeka lan egitea, ezagutzen ekarpena eginez eta besteekin lankidetzan arituz.

• Hizkuntzaren erabilera espontaneoa ikaskideekin harremanetan.

Ebaluazio irizpideak

Ebaluazio irizpideek ziklo bakoitzerako ezarritako oinarriko helburu orokorrak adierazten dituzte. Irizpide horietako bakoitzak eskatzen du kasuan kasuko helburua lortzeko behar diren trebetasun eta estrategia batzuk barneratzea.

1. Ohiko erabilera duten ahozko testuen esanahia ulertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatuz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek nolako gaitasuna duten informazio garrantzitsua lortzeko, hautatzeko eta erlazionatzeko; betiere, ikasgelako ohiko egoeretan sortzen den informazioa izanen da, hain zuzen ere besteekin harremanetan eta ikasteko garaian sortzen direnak, eta, halaber, gizarteko ingurunean (familia, irratia, telebista...) sortutako informazioa.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da, orobat, ea ikasleek nolabaiteko gaitasuna garatu ote duten testuak ulertzeko mekanismoei buruz eta erabiltzeko prozeduren gainean gogoeta egiteak ikasten ikasteko duen baliokidetasun buruz.

2. Parte hartzea ikasgelako komunikazio egoeretan, elkartrukearen arauak errespetatuz: hitz egiteko txanda errespetatzea, entzutea, gauzak argitasunez adieraztea, intonazio egokia erabiltzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da bai ikasgelan gertatzen diren ahozko elkartruke egoera desberdinetan aktiboki esku hartzeko gaitasuna, bai haietan parte hartzeko jarrera ere. Ohartarazi behar da gaitasun horiek lotura estua dutela komunikazio egoerak behatzeko gaitasunarekin –xede, parte-hartzaile kopurua, elkartrukea gertatzen den lekua...–, eta haien ezaugarriak, gero eta era kontzienteago batean, zehazteko eta testuinguru bakoitzean egoki jarduteko gaitasunarekin.

3. Gauzak ahoz adierazten jakitea, ideiak, egitateak eta bizipenak modu erraz eta koherentean aurkezten dituzten testuen bitartez.

Irizpide honek ebaluatu behar du ikasleak modu koherentean adierazteko duen gaitasuna egoera desberdinetan, eta lehen hizkuntza ikasteko eta jokabidea erregulatzeko tresna gisa erabiltzeko duen gaitasuna. Begiratu da ea ikaslea gauza den ezagutzak eta iritziak komunikatzeko, hiztegi, formula linguistiko, intonazio eta ebakera egokiak erabiliz.

Helburua da baloratzea eta ikasleak gauza diren ahoz komunikatzeko ikasgelako bizitzarekin loturiko egitateak eta ezagutzak eta, bestetik, gainerakoekin harreman harmoniatsuak edukitzeko gaitasuna duten, horren barne dela hizketaldi bati hasiera emateko eta hari eusteko trebetasuna.

4. Testuak irakurtzerakoan informazio esplizitua kokatu eta berreskuratzea eta inferentzia zuzenak egitea.

Irizpide honekin baloratu nahi da ea ikasleak gauza diren testuetan zehaztutako informazioa edo ideiak detektatzeko eta ulertzeko –eskola esparruko gutunak, ikasgelako arauak, joko arauak, albisteak, zuzendariarentzako gutunak, eskolako testuak– eta gauza diren azaleko esanahiaz haratago joateko eta testuan oinarrituriko inferentziak egiteko: aurreikus daitezkeen gertakariak, testuen xedea deduzitzea edo testuan eginiko orokortze batzuk identifikatzea.

Testu literarioetan, olerki batzuen ideia nagusiak identifikatzen ote diren ebaluatu behar da –berriaz adierazita daudenean–, eta ikasleek gaitasuna ote duten ipuin batean gatazka ezagutzeko, eta trebetasuna ote duten istorioetako pertsonaien arteko harremanak ulertzeko –modu esplizituan agertzen ez direnean– edo gertakari batzuei gertatu aurretik antzemateko gauza ote diren.

Halaber, trebetasunak ote dituzten hertsiki testualak ez diren alderdi batzuk erabiltzeko ideia nagusiak identifikatzen laguntzeari begira: tipografia izenburuetan, sarrera laburretan, portadetan, liburuxketan; letra lodiak epigrafeetan eta testuetako bestelako leku nabarmenetan.

5. Norberaren ideiak interpretatu eta eskolan eta gizartearen erabilizten diren testuetan bildutako informazioarekin integratzea, eta ahoz irakurtzerakoan ulertzen dela agertzea.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da ea haurrek beren bizipenak eta ezagutzak erabiltzen dituzten ideien eta testuaren informazioaren arteko loturak ezartzeko. Ikasleek gai izan behar dute ulertzeko estrategiak erabiltzeko (irakurtzearen xedeaz kontzientea izatea, testu eta testuinguru adierazleak erabiltzea aburuak formulatzeko eta frogatzeko) eta sortzen diren hiztegiak ebazteko estrategiak erabiltzeko (aurrera eta atzera egitea, hiztegiaren kontsulta egitea, informazio osagarria bilatzea).

Halaber, ulermena ebaluatuko da ozenki irakurriz; ozenki irakurtzerakoan nolabaiteko segurtasuna behar da; zalantzarik eta errepikapenik gabe irakurri behar da, eta hitzak saltatu gabe. Garrantzitsua da ziklo honetan bermatzea deskodetzea zuzen eta arintasunez egiten dela.

6. Testu esanahidun desberdinak idaztea, berridaztea eta laburtzea, eguneroko eta eskolako egoeretan, modu antolatua eta egokian, testuen plangintza era berrikuspina erabiliz, eta arau gramatikak eta ortografikoak eta alderdi formalak zainduz, paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean.

Ebaluatu nahi da ikasleak gai diren gelako pertsonen arteko harremanek berezkoak dituzten testuak idazteko –gutunak, bizikidetasun arauak, deiak, eskabideak– eta, orobat, komunikabideek berezko dituzten testuak, betiere ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaiak buruzkoak; halere, modu berezian ebaluatu behar da ikasleak gai diren ikasteko autonomian aurrera egitea ahalbidetzen dieten testuak lantzeko –laburpenak, deskribapenak edo azalpenak–.

Literaturaren arloan, olerkiak edo kontakizunak birsortzeko edo imitatzeko gaitasuna ebaluatuko da; testu horietan, baliabide batzuk erabili behar dira –esate baterako, modu intuitiboan bada ere, errima edo erritmoa olerkietan–. Irizpide honekin egiaztatu nahi da idatzizko testuen produkzioa prozesu honek berezko dituen urratsen arabera gauzatzen dela (plangintza, testuaren idazketa, berrikuspina), eta urrats horiek baliagarriak direla baloratzen dela, hartara testu osoagoak eta komunikatzeko asmoari lotuagoak lortzeko.

Idazki guztietan, oinarritzko arau ortografikoen erabilera eta aurkezpen argi, garbi eta ordenatua baloratuko dira. Prozesu horietan, koherentsia da testuak lantzeko eta aurkezteko baliabide informatikoak erabiltzeko trebetasuna ebaluatzea.

7. Ahozko tradizioko testu literarioak ezagutzeko eta haur literaturakoak, ziklorako egokiak, bai eta narrazioaren, olerkiaren eta bertsoaren oinarritzko ezaugarriak, testu horien irakurtzetan eta idazketan laguntzeko.

Irizpide horrek ebaluatu nahi du adinerako eta zikloaren interesetarako egokiak diren testu literarioez autonomia gero eta handiagoarekin gozatzeko gaitasuna, eta testu horien zentzua ulertzeko gaitasuna, konbentzio berriazko batzuk interpretatzeari esker; esate baterako, behin eta berriz agertzen diren gaiak, kontaera literarioaren elementuak eta errima. Halaber, irakurtzetarako jarrera positiboa baloratu behar da, eguneroko bizitzaren berezko jardura den aldetik. Orobat, baloratuko da adierazpen eta sormen baliabide soilak arakatzeko gaitasuna, ereduak erabiliz, dramatizazio eta birsorkuntza lanetan.

8. Gelako eta ikastetxeko liburutegia erabiltzea; haren antolamendu eta funtzionamendu mekanismoak eta eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko.

Irizpide honekin ebaluatu nahi dira liburutegietako irakurketa jardueretan parte hartzea, liburutegiak erabiltzeko autonomia, materialak antolatzeak eta hautatzeko oinarritzko prozeduren eta mekanismoen ezagutza eta horietako bakoitzak eskaintzen dituen aukerak. Halaber, baloratuko da plazer hutsarengatik irakurtzeko azturak barneratzea, erabiltzeko arauak errespetatzea eta liburutegiaren funtzionamendu egokian laguntzeko jarrera izatea.

9. Hitzetan, esakuneetan eta testuetan, ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko egiten diren segmentazioetan, ordena-aldaketetan, kenketetan eta txertaketetan gertatzen diren aldaketa batzuk identifikatzea.

Helburua da ebaluatzea txertaketek, kenketek, ordena-aldaketek, segmentazioek eta berrosatzeek esakuneetan eta testuetan sortzen dituzten eraginak behatzeko gaitasuna, halako moduan non identifikatu diren bai idazketan eta ahozko adierazpenaren gertatzen diren arazoak, bai ulertzeko zailtasun batzuen jatorria; azken batean, gogoeta hori jardura horiek hobetzeko erabiltzea bilatu nahi da.

Analisi prozedura horiek bidea eman behar dute testuari modu kritikoan errepartzeko; testuaren edukiri buruz gogoeta egiteko eta hura ebaluatzeko; haren egitura, hizkuntzaren erabilera eta baliabide literarioak, eta egilearen ikuspuntua eta ofizioa aintzat hartzeko eta ebaluatzeko.

10. Gramatikaren eta linguistikaren terminologia, zikloari dagokiona, ulertzeko eta erabiltzeko testuak sortzeko eta ulertzeko jardueretan.

Irizpide honekin konprobatu nahi da ea ikasleek oinarritzko ezagutza gramatikak barneratu dituzten eta gauza ote diren terminologia egokia erabiltzeko haiei buruz hitz egiterakoan (aditzaren denborak –orainaldia, geroaldia, lehenaldia–, determinatzaileak, zenbatzaileak, hizkiak, hitz eratorriak, sinonimoak eta antonimoak eta abar).

Halaber, baloratu behar da terminologia hori erabiltzen ote den hizkuntzaren funtzionamenduari buruz hitz egiterakoan, ikasitakoa azaltzeko eta hari buruz gogoeta egiteko euskarri gisa.

11. Estrategia batzuk erabiltzea ikasten ikasteko.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ikaskuntza prozesuan laguntzen duten oinarritzko estrategiak erabiltzen diren, hala nola ikusizko baliabideak erabiltzea, laguntza eta argibideak eskatzea, hiztegiak eta oinarritzko baliabide teknologiko batzuk erabiltzea. Halaber, aurrerapenak baloratzen joateko gaitasuna ebaluatuko da, bai eta ikaskuntzan nolabaiteko autonomia lortzea ere.

Hirugarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzeko, hitz egitea eta hizketan aritzea.

Etapa honetan zehar, ikasleak ikasi behar du testuinguru batzuetan egoki adierazten, edukia eta adierazpenaren forma xedeari eta mintzakideei egokituz. Halaber, ikasi behar dute besteei egoki erantzuten, esandakoaren haria eta mintzakideak erabilitako hizkuntza gordez. Halaber, ikasleek ikasi behar dute hizketaldietan parte hartzen, txandak errespetatuz eta aztergaiari buruzko ekarpenak eginez. Pixkanaka, hizkuntzaren erabilera formalenak sartzen joanen dira.

–Entzutea eta ulertzeko

- Ahozko testuak ulertzeko ikasteko eta informatzeko, bai xede didaktikoa dutenak bai egunerok erabiltzen direnak, ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaldiak), eta formalizazio maila handiagoak (gelako azalpenak, elkarriketak edo eztabaidak).

- Irratitik, telebistatik edo Internetetik heldu diren ahozko testuak ulertzeko eta baloratzea, garrantzi berezia emanez albisteari, elkarriketari, haurrentzako erreportajeei, eztabaidei eta gaurkotasuneko gaien iruzkinei, ikasleak egitate eta gertaera garrantzitsuei buruzko informazio orokorra jaso dezatan eta informazioa eta iritzia bereiz ditzan.

- Ikus-entzunezko dokumentuak erabiltzeko gero eta autonomia gehiagorekin lortu, hautatu eta erlaziozko ikasteko garrantzitsuenak diren informazioak (identifikatzea, sailkatzea, konparatzea).

▪ Komunikabideak baloratzea ikasteko tresna gisa eta beste pertsona batzuen informazioak eta esperientziak eskuratzeko tresna gisa.

–Hitz egitea eta hizketan aritzea

▪ Parte hartzea eta laguntzea gizarte harremanetako komunikazio egoeretan, bereziki bizikidetasuna sustatzera bideratutakoetan (eztabaida edo dilema moralak), komunikazio egoerari egokituz eta baliabide linguistiko egokiak erabiliz (elementu lexikoak, gramatikak, fonologikoak...) eta diskurtso ordenatu eta koherente batez baliatuz.

▪ Ahozko testuak sortzea ikasteko eta informatzeko, bai xede didaktikoa dutenak bai eguneroko erabiltzen direnak, ez-formalak (berdinen arteko eta lan taldeko hizketaldiak), etai formalizazio maila handiagoak (gelako azalpenak, elkarrizketak edo eztabaidak).

▪ Komunikabideetako ahozko testuak sortzea, haiek simulatuz eta informazioa eta iritzia eskaintzeko eta konpartitzeko parte hartuz.

▪ Iritzia azaltzea plan eta ekintza batzuei buruzko argudio laburrak eta azalpenak erabiliz.

▪ Ahozko adierazpena, ebakera eta intonazio egokiekin. Euskarak berezko dituen fonemen ebakera: z, s, x, tz, ts, tx, tt, dd...

▪ Ahozko elkarreraginari buruzko arauak baloratzea eta errespetatzea (hitz egiteko txandak errespetatzea, mintzakideari begiratzea, elkartrukean paper desberdinak hartzea, ahots bolumen, jarrera eta keinu egokiak).

▪ Laguntza eta errespetu jarrerak ikaskuntza konpartituko egoeretan.

▪ Hizkuntza ez baztertzalea eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

▪ Hizkuntzen ezagutza baloratzea kultur ondare gisa eta pertsonen arteko komunikaziorako bitarteko gisa.

▪ Esparru desberdinetan, jarrera positibo eta aktiboak edukitzea hizkuntzarekiko erregistroak direla eta.

–Testuak:

▪ Narrazio testuak: ipuinak, txistek, elkarrizketak, biografiak...

▪ Dramatizazioak eta simulazioak.

▪ Deskribapenak: deskribapen teknikoak, asmakizunak.

▪ Jarraibideak: jarraibideak, arauak, gidak.

▪ Azalpen testuak: azalpenak, definizioak, hitzaldia, elkarrizketak, inkestak, albisteak, artikulak, erreportajeak, biografia, bi animalia edo landareri buruz ikasitakoa azaltzea (lehendik emandako fitxa batzuetako datuetatik abiatuz, konparazioa edo bestelako eskemak erabiliz).

▪ Argudiozko testuak: iritziak, eztabaidak, mahai inguruak.

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Arretari eustea gelan aurkezturiko informazioetan.

▪ Proposatutako lanaren xedea ulertzea.

▪ Entzundakoaren edukia laburbiltzea: solasaldi bat, argudio bat, irratiko edo telebistako programa bat, film bat...

▪ Testuaren edukia eta forma direla eta, hitzez hitzeko ulermenari, ulermen orokorrari, interpretaziozko ulermenari eta gogoetazko ulermenari buruzko galderei erantzutea.

▪ Galdera egokiak egitea gaia argitzeko eta ideiak zabaltzeko.

▪ Oharrak hartzea.

▪ Entzundakoa baloratzea: forma, edukia.

▪ Diskurtsoa antolatzea komunikazio egoerari egokituz, baliabide linguistiko egokiak erabiliz (enfasia, adibideak, umorea, gehiegikeriak...).

▪ Inkestak eta elkarrizketak prestatzea, noiz, zergatik eta nola galdetzen den zehaztuz.

▪ Ahozko azalpen formalean estrategia egokiak erabiltzea, diskurtsoaren alde zurretiko plangintza eginez eta azalpenaren zati desberdinak kontuan hartuz (eskema, grafikoa, taula...).

▪ Eztabaidetan parte hartzea, talde txikietan, zati desberdinak bereizita eta moderatzaileak eta parte-hartzaileak gai jakin bat dela-eta duten aldeko edo kontrako jarrera identifikatuz.

▪ Hizkuntzarako egokiak diren erregistroak erabiltzea, ikasgelan, jolas-orduetan eta jardura osagarrietan gainerakoekin komunikatzeko.

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

2.1. Idatzizko testuak ulertzea.

Irakurtzeko –testua deskodetzea– eta irakurketa funtzionalerako –adierazkorra eta isilekoa– behar diren trebetasunak eskuratzeko lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berariazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narratiboak baloratzea). 3. multzoaren lotura estua edukiz, oso garrantzitsua da irakurtzeko zaletasuna sustatzea, gozamen eta prestakuntza iturri gisa.

–Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea

▪ Gizarte harremanetako eguneroko egoeretan berezkoak diren testuetako informazio muntaduna ulertzea: gutunak, arauak, jardura programak, deialdiak, lanerako planak edo araudiak.

▪ Informazio orokorra ulertzea komunikabideetatik heldu diren testuetan (haurrentzako eta gazteentzako web orriak barne), albisteetan azpimarra berezia eginez, elkarrizketan eta erreportajeetan, informazio orokorra lortzeko, nabarmendutako informazioak aurkituz.

▪ Euskarri digitalean nahiz paperean heldu diren ikasteko eta informatzeko eskolako testuak ulertzea, bai xede didaktikoak sortutakoak, bai erabilera sozialekoak direnak (informazio nahiz publizitate liburuxkak, prentsa, programak, zati literarioak).

▪ Testuan esplizituak ez diren mezuek interpretatzea.

▪ Ozenki irakurtzea arintasunez, ebakera, erritmo, eten eta intonazio egokiak erabiliz.

▪ Ikasteko euskarri desberdinetan heldu diren ezagutzak eta informazioak integratzea (konparazioa, sailkapena, identifikazioa eta interpretazioa), arreta berezia eskainiz grafikoen, eskemen eta bestelako ilustrazioen bitartez transmititzen diren datuei.

▪ Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa aurkitzeko, hautatzeko eta antolatzeko.

▪ Liburutegiak erabiltzea, liburutegi birtualak barne, modu gero eta autonomoagoan, informazioa eta idatzizko produkzioerako ereduak lortzeko.

▪ Idatzizko testuekiko interesa, informazio eta ikaskuntza iturri gisa, eta esperientziak komunikatzeko eta bizikidetasuna arautzeko bitarteko gisa.

▪ Edozein motatako bazterkeria dakarten mezuekiko jarrera kritikoa.

–Idatzizko testuak sortzea:

▪ Gizarte harremanetako eguneroko egoeretan berezkoak diren testuak sortzea (gutunak, arauak, programak, deialdiak, lanerako planak...) testu-generoen berezko ezaugarrien arabera.

▪ Garrantzizkotzat jotzen diren egitate eta gertaerei buruz komunikabideek erabili ohi dituzten informazio eta iritzi testuak sortzea, azpimarra berezia eginez albistean, elkarrizketan, liburuen edo musikaren berri laburretan, zuzendariarentzako gutunetan... egoera simulatuetan nahiz errealean.

▪ Esparru akademikoarekin lotutako testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdetegiak, inkestak, laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak...).

▪ Asmo literarioko testuak sortzea, adinerako egokiak (olerkiak, bertsoak, ipuinak eta idazlan errazak...), hizkuntzaren adierazpen aukerak arakatzuz, horretarako ereduak testuak behatuz eta analizatuz eta irudimena eta sormena pizten dituzten baliabide eta jolasez baliatuz.

▪ Osagai grafiko eta paratestualak erabiltzea ulermena errazteko (ilustrazioak, grafikoa, taulak eta tipografia).

▪ Testuak prozesatzeko programa informatikoak gero eta modu autonomoagoan erabiltzea.

▪ Idazketa baloratzea harreman sozialetarako eta pentsamendua antolatzeko tresna gisa eta informazioa eta ezagutzak lortu eta birlantzeko tresna gisa.

▪ Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa, eta arau ortografikoak errespetatzea.

▪ Hizkuntza ez baztertzalea eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena erabiltzea.

–Testuak:

▪ Narrazio testuak:

- Narrazio konplexuagoak (elkarrizketak eta deskribapen sekuentziak ere barne har ditzaketanak...).

- Txistek.

- Dramatizazioa.

▪ Deskribapenak:

- Pertsonaien, hirien, monumentuen, eszenen, paisaien eta gauzen deskribapenak, haien ezaugarri nagusiak aipatuz.

▪ Jarraibideak: errezeta, joko-arauak edo kirol baten arauak...

▪ Azalpen testuak:

- Pertsonaia bati edo animaliei buruzkoak, gutun pertsonalak, elkarrizketak, biografiak, albisteak, artikulak, erreportajeak...

▪ Argudiozko testuak

▪ Informazio eta publizitate testuei buruzko aldeko eta aurkako arrazoiak emanez, zuzendariarentzako gutunak...

▪ Testu etendunak:

- Iragarkiak, grafikoa, mapak, horma-irudiak

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Aldez aurretiko ezagutzak aktibatzea eta hipotesiak aurretik egitea eta haiek egiaztatzea.

▪ Idazkiaren xedea identifikatzea.

▪ Izenburua interpretatzea.

• Testuaren edukia eta forma direla eta, hitzez hitzeko ulermenari, ulermen orokorrari eta interpretaziozko ulermenari buruzko galderei zuzen erantzutea.

• Irakurketa adierazgarriaren baliabideak aplikatzea: intonazioa, erritmoa, etenak.

• Irakurketan aurrera eta atzera egitea.

• Ideia orokorra harrapatzea, xede nagusiak zehaztuz eta testu batzuen esanahi bikoitza interpretatuz.

• Testuaren egiturari eta kohesio mekanismo batzuei antzematea: testu markagailuak eta lokailuak, anafarak, aditz-denboren erabilera egokia...

• Ezagutzen ez diren hitzen esanahia bilatzea.

• Testuarekin batera doazen irudiak, tipografia eta formatua interpretatzea.

• Azpimarratzeko teknikak erabiltzea ideia nagusien eta ezagutzen ez diren hitzen ulermena errazteko.

• Idazketan aurreratzea. Egiaztatzea esaldi bakoitzak aurrera egiten duela eta informazio berria dakarrela.

• Eskemak egitea edukiak ikasteko bitarteko gisa.

• Idatzizko testuak lantzea aurretiko plangintza batekin (definizioak, azpimarrak, eskemak, laburpenak, mapa kontzeptualak), alde aurretiko gidoi bat diseinatuz; idatzizko testuaren idazketa eta berrikuspena egitea egokitasunari, koherentziari, kohesioari, zuzentasunari eta komunikazio baliabide egokien aberastasunari erreparatuz.

• Testua antolatzea. Aurkezpena, txukuntasuna eta lekuaren banaketa. Letraren irakurgarritasuna: tamaina, lerrokatzea.

• Informazio osagarria bilatzea, erreferentziako testu kritikoetan, iturri desberdinak erabiliz (liburutegia, hezkuntza programak, Internet) curriculumeko hizkuntzetan.

3. multzoa.–Hezkuntza literarioa

Hezkuntza literarioa hizkuntzaren eta komunikazioaren ikuspegiaren pean sartu da. Literatura egitate estatiko eta komunikatibo bat da, egilearen eta hartzaileen artekoa; lagungarria da norberaren kultura identifikatzeko eta beste batzuk ezagutzeko. Ezin da esan hizkuntza literarioa aldaera homogeenoa bat denik, hizkuntza arruntaz bestelakoa. Funtzionalki desberdina den erabilera bat da, bereizgarri komunikatibo zehatz batzuk dituen. Hizkuntza literarioaren ezagupena testu literarioak ulertuz eta sortuz landuko da. Literatura, horrenbestez, beste bitarteko bat da trebetasun linguistikoak garatzeko.

• Adinerako eta norberaren interesetarako egokiak diren obrak pertsonalki irakurtzea, isilik eta ozenki.

• Ahozko tradizioako narrazio testuen eta olerkien, haur literaturaren, obra klasikoaren egokitzapenen eta egungo literaturaren irakurketa gidatua, euskarri desberdinekin.

• Irakurtzeko autonomia, gaiak eta testuak hautatzeko gaitasuna garatzea eta norberak gustukoaren duenaren adierazpena garatzea.

• Ikastetxeko liburutegia erabiltzea eta jarduera literarioetan parte hartzea.

• Zikloari egokitutako olerkiak, abestiak ulertzea, memorizatzea eta erreztatzea, erritmo, ebakera eta intonazio egokiekin.

• Olerkiak eta kontakizunak birsortu eta osatzea, sentimenduak, emozioak, aldarteak edo gogoetak komunikatzeko, eredu batzuen ezaugarriak ezagutzeko.

• Olerkien, kontaeren eta antzerki lanen irakurketa komentatua, konbentzio literarioei (generoak, figurak...) eta behin eta berriz agertzen diren gai eta korapiloeri erreparatuz.

• Bertsoak irakurtzea, erreztatzea, entzutea eta osatzea, oinarrizko osagaiak bereiziz: errima, neurria, melodia eta bertsogintza.

• Testu literarioen dramatizazioa eta irakurketa dramatizatua.

• Testu literarioa komunikazio tresna gisa, beste mundu, denbora eta kultura batzuk ezagutzeko iturri gisa, kultur egitate gisa eta norberaren gozamenerako baliabide gisa baloratzea eta aintzat hartzea.

–Trebetasunak eta estrategiak

• Antzerki testuen adierazpen ezaugarriak (harridura zeinuak, eten puntuak, etenak, gidoiak) eta kanpoko egitura (ekitaldiak, eszenak, akotazioak) identifikatzea.

• Testu literarioak sortzea (ipuinak, olerkiak, abestiak, bertsoak eta antzerkirako obra laburrak), emandako jarraibide edo ereduetatik abiatuz. Hiztegiaren, sintaxiaren, fonetikaren eta erritmoaren baliabideak erabiltzea produkzio horietan.

• Testu literarioen dramatizazioari buruz eginiko ikaskuntzak beste egoera batzuekin (antzerkia, telebista, zinema...) lortzea, haiek hobeki ulertzeko.

• Bertsoek ideiak eta emozioak eraginkortasunez adierazteko dituzten aukerak ezagutu eta erabiltzea: komunikazio testuinguruko parametroak, bertsoaren ezaugarriak, diskurtsoaren sekuentziak, hizkuntzaren erregistroak, hizkuntzaren zuzentasuna eta literatur baliabideak.

• Bertsoan kantuaren adierazpenerako aukerak ezagutu eta erabiltzea: melodia aukeratzea, intonazioa, intentsitatea, modulazioa, isiltasuna, herri melodiak ezagutzea...

4. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

Ikasleek hizkuntza barnertzeko prozesuari jarraipena ematen zaio eta prozesu hori hobetzen da. Soilik ikasleen komunikatzeko gaitasuna hobetzearen ikuspuntutik justifikatzen da eta esanahia ematen zaio gramatikaren inguruko gogoetari. Horrenbestez, edukien sekuentzia gauzatuko da ikasleen ezaugarri kognitibo, psikologiko eta linguistikoak aintzat hartuz.

• Egoerari buruzko testuinguruaren osagaien arteko erlazioak eta ahozko eta idatzizko diskurtsoetan azaltzen diren forma linguistikoak identifikatzea.

• Ulertzeko eta osatzeko errazak diren narrazioen, jarraibideen, deskribapenen eta argudio-azalpen errazen egiturak ezagutzea.

• Arau ortografikoak ezagutzea, gizartearen duten balioa eta idazkietan haiek betetzeko betebeharrak aintzat hartuz.

• Testuari kohesioa emateko eta erabilera grafikoko elementuak behar bezala identifikatzea: puntuazio-markak, testuaren ezaugarri tipografikoak (azpimarrak, letra lodia...), testua antolatzeko moduak, laburdurak, lerro bukaerako marratxoak.

• Fonema-grafia elkarteak identifikatu eta ezagutzea, letra mota edozein dela ere (letra larriak, xeheak, etzanak...). Hitzak silabatan zatitzea.

• Eratorpena, konparaketa, alderaketa eta beste prozedura batzuk erabiltzea hitzak zuzenak diren ala ez ebazteko eta arau ortografikoak orokortzeko.

• Hizkuntzaren eta haren kokapenaren ezagutza kultur egitate aberasgarri gisa baloratzea.

• Identifikatzea erkidegoko hizkuntza desberdinekin loturiko alderdi sozio-kulturalak (jaiegunak, kortesia formulak, ohiturak, eguneroko errutinak) eta oinarrizko ezaugarriak (historikoak, geografikoak eta linguistikoak).

• Eskolako eta gizarteko testuinguruan dagoen aniztasun linguistikoaren kontzientzia positiboa: euskalkiak eta kontaktuan dauden hizkuntzak.

• Eguneroko ohiturak eta giza harremanetako moduen erabilera ezagutzea.

• Esakuneen konparaketa eta eraldaketa, elementuak txertatuz, kenduz, ordena aldatuz, zatituz, berrosatuz, horrela emaitzen gramatikaltasuna ebazteko eta kontzeptu linguistikoak eta metahizkuntzarenak garatzen laguntzeko.

• Ondoko terminologiari buruzko gogoeta, erabilera eta intuiziozko definizioa produkzio eta interpretazio jardueretan: landutako testuen izenak. Silaba, esakunea: esaldia eta perpausa; esakune motak: deklaraziozkoa, galderazkoa, harridurazkoa, aginduzkoa. Perpausoko ordena: galdegaita eta ezezko perpausetako ordena; loturak: preposizioa eta juntagailuak. Hitz multzoak: nukleoa eta osagarriak; izena; adjektiboa; adberbioa; postposizioak; aditza: maizen erabiltzen diren aditz trinkoen jokoak, aditz perfrastikoak eta trinkoak bereiztea, aditz-denbora: orainaldia, lehenaldia, geroaldia, agintera, infinitiboa; aditzaren aspektua; pertsona gramatikala. Numeroa, deklinabidea, mugagabea. Euskararen eta gaztelaniaren artean dauden desberdintasun morfologiko eta sintaktikoak identifikatzea.

• Egitura sintaktikoen konparaketa, haien baliokidetasun semantiko edo esanahian egon daitezkeen aldatzeak erabakitzeak.

• Perpausen txertaketa eta koordinazioa, azalpenerako berezko prozedura gisa.

• Esaldien arteko lotura desberdinen erabilera-aukerak arakatzeko eta haiei buruz gogoeta egitea (kausa, ondorioa, xedea, kontraesana, baldintza...) testuen osaketari dagokionez.

• Perpausaren oinarrizko osagaien identifikazioa: subjektua eta predikatua. Eta subjektuaren eginkizun semantikoak (egilea, jasailea, kausa).

• Estilo zuzenetik zehar estilora nola pasa narrazioetan.

–Trebetasunak eta estrategiak

• Hiztegia handitzea eremu semantikoak, hitzen familiak, sinonimoak, antonimoak, eratorpena eta elkarketa, berariazko hiztegia eta esaerak erabiliz.

• Komunikazioa lortzea komunikazio egoeran egokia den erregistroa erabiliz.

• Zentzu orokorra gai jakin bati buruzko testuen produkzioan behar den informazioa edukitzea.

• Eskatzen den testu motaren egitura tipikoa errespetatzea, prozedura tipografikoen erabilera barne (zenbaketa, azpittuluak...), kasua bada.

• Testuaren antolaketa, paragrafo-idea banaketaren arabera, idazkieren zatiak erlazionatuz.

• Paragrafo hasieretan, ondorengo ondoko denbora adierazteko testu markagailuak eta lokailuak erabiltzea, edo diskurtsoaren antolatzaileak.

- Progresio logikoa, informazio hutsunerik gabe eta behar ez diren errepikapenak egin gabe.
- Aditz denborak egoki erabiltzea.
- Errepikapen tresnak erabiltzea: hitz batzuk nahita errepikatzea...
- Hiztegia ondokoetarako erabiltzea: zalantzak argitzea, definizioak sortzea, adiera zuzena hautatzea... Hitzetatik era askotako informazioak lortzea: fonetikoak, lexikoak, gramatikakal...
- Perpausak manipulatzeko, osagaiak gehituz, kenduz eta ordenaz aldatuz. Konparaketak, imitazioak.

5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta

Sistema linguistikoaren unitateei buruzko gogoeta erabilpenerako baldintzen inguruan planteatzen da, eta norberaren ahozko eta idatzizko produkzioen ebaluazioa eta zuzentasuna txertatzeko ezinbesteko baldintza gisa, ikaskuntza autonomoa errazte aldera. Gogoeta, eztabaida, adibideak jartzea eta abar. Lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta, eztabaida eta adibideak eta abar gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez garatu behar dira.

- Hiztegia, hizkuntzaren formak eta egiturak, testugintza eta abar ikasteko, trebetasun eta prozedura batzuk erabiltzea; besteak beste, ereduak behatzea, konparaketa, berrantolaketa, adibideak ematea, orokortzea.

- Ikaskuntzaren kontzientzia eta autonomia gero eta handiagoa. Gogoeta ikaskuntzari berari buruz eta lanaren antolamenduari buruz, eta akatsak onartzea ikaskuntza, autozuzenketa eta autoebaluazio prozesuaren atal gisa.

- Kontsultarako eta informaziorako bitarteko grafikoak eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak gero eta gehiago erabiltzea.

- Baloratzea hizkuntzak ikasteko, antolatzeke, adierazteke eta eza-gutzak transmititzeko tresna bat direla.

- Hizkuntza komunikatzeko, harremanak izateko eta informazioak eskuratzeko bitarteko gisa baloratzea.

- Norberaren kultura baloratzea, beste kultura batzuen ezagutzatik eta baloraziotik abiatuz.

–Trebetasunak eta estrategiak

- Ikusizko baliabideak erabiltzea.

- Laguntza eta argibideak eskatzea.

- Hiztegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak lanerako tresna gisa erabiltzea, hizkuntza zuzen erabiliz.

- Autoebaluazioa egiten ikastea eta norberaren ikaskuntzaren kontzientzia hartzea.

- Bikoteka eta lan taldeka eraginkortasunez lan egitea, ezagutzen ekarpena eginez eta gainerakoek ekarpenak errespetatuz.

- Lanak ezarritako irizpideei jarraituz antolatzea, eta agenda esleitutako lanak egiten laguntzeko baliabide gisa erabiltzea.

- Hizkuntzaren erabilera espontaneoak ikaskideekiko harremanetan.

Ebaluazio irizpideak

Ebaluazio irizpideek ziklo bakoitzerako ezarritako oinarriko helburu orokorrak adierazten dituzte. Irizpide horietako bakoitzak eskatzen du kasuan kasuko helburua lortzeko behar diren trebetasun eta estrategia batzuk barneratzea.

1. Ahozko testuen esanahia harrapatzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzeko eta esplizituak ez diren ideiak, iritziak eta baloreak identifikatuz.

Helburua da komunikabideetatik eta eskolako testuingurutik heldu diren informazioak lortzeko, hautatzeko eta erlazionatzeko gaitasuna ebaluatzea; bereziki, lekuari eta espazioari buruzko informazioak eta sekuentzia logikoari buruzkoak.

Halaber, ebaluatu nahi da ea ikasleak gauza diren testuaren hitzez hitzeko esanahiaz haratago ikasteko, eta gauza ote diren edukiori buruzko dedukzioak eta inferentziak egiteko, informazioa eta iritzia bereizteko eta osagai implizitu batzuk –besteak beste, ironia edo esanahi bikoitza– interpretatzeko. Halaber, ebaluatu nahi da ea ikasleek nolabaiteko gaitasuna garatu ote duten testuak ulertzeko mekanismoei buruz eta erabilitako prozeduren gainean gogoeta egiteko ikasten ikasteko duen balioari buruz.

2. Parte hartzea ikasgelako komunikazio egoeretan, elkartrukearen arauak errespetatuz: hitz egiteko txanda errespetatzea, diskurtsoa antolatzea, entzutea eta gainerakoek esku-hartzeak norberaren diskurtsoan sartzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da bai ikasgelan gertatzen diren ahozko elkartruke egoera desberdinetan aktiboki esku hartzeko gaitasuna, bai haietan parte hartzeko jarrera ere. Ohartarazi behar da gaitasun horiek eskatzen dutela komunikazio egoerak behatzeko gaitasuna izatea –xede, parte-hartzaile kopurua eta ezaugarriak, elkartrukea gertatzen den lekua...–, eta haien ezaugarriak kontzienteki zehazteko eta testuinguru bakoitzean egoki jarduteko gaitasuna.

3. Gauzak ahoz adierazten jakitea, ezagutzak, egitateak eta iritziak modu koherentean aurkezten dituzten testuen bitartez.

Irizpide honek ebaluatu behar du ea ikasleek gauzak modu antolatua eta koherentean adierazten dituzten, betiere komunikazio genero eta egoeraren arabera. Ikasleek gauza izan behar dute eduki garrantzitsuak hautatzeko eta haiek adierazteko hiztegi eta formula egokiak erabiliz eta egoera horietan berezkoak diren baliabideak erabiliz; besteak beste, ahots, jarrera eta keinu egokiak. Baloratu behar da ikasleek ahozko kontaerak eta ikasgelako azalpenak sortzeko duten gaitasuna, bai eta ikasten dituzten alderdiei buruzko gogoetak ozenki azaltzeko duten gaitasuna ere.

Baloratzeke da, halaber, harreman sozial asegarriak ezartzen diren, eta ikasleek berdinaren artean hizketaldi bat hasteko, hizketaldian aritzeko eta hizketaldiari amaiera emateko trebetasuna duten.

4. Testuak irakurtzean informazio esplizitua kokatu eta berreskuratzea eta inferentziak egitea, xede nagusiak zehaztuz eta testu batzuen esanahi bikoitza interpretatuz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea ikasleak gauza diren testuetan –deialdiak, jarduera programak, lan plangintzak– esplizituak diren informazio edo ideia muntadunak bilatzeko, aurkitzeko eta hautatzeko, eta haietan adierazitakoaren arabera jarduteko; gauza diren beren esperientziatik hurbil dauden egitatei buruz informatzeko komunikabideetan, izenburu eta sarrera laburretan irakurketa azkarra erabiliz, eduki orokorra alde aurretik ezagutzeko; gauza diren azpimarra eta beste teknika batzuk erabiltzeko eskolako testuetan esplizituak diren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak zehazte aldera.

Halaber, ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna duten azaleko esanahiaz haratago joan eta inferentzia zuzenak ateratzeko: aurreikus daitzeko gertakariak indutzea, testuen xede deduzitzea edo orokortze batzuk identifikatzea. Are esanahi bikoitzak edo ironiak harrapatzea ere.

Testu literarioetan, olerki batzuen ideia nagusiak identifikatzen ote diren ebaluatu behar da, edo gaitasuna ote duten kontakizun ez-linealak jarraitzeko, eta trebetasuna ote duten istorioetako pertsonaien arteko harremanak ulertzeko, modu esplizituan agertzen ez direnean, edo gertakariak gertatu aurretik antzemateko gauza ote diren.

5. Norberaren ideiak interpretatu eta testuetan bildutako informazioarekin integratzea, informazioak konparatuz eta alderatuz, eta ahoz irakurterakoan ulertzen dela agertzea.

Ebaluazio irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai direla testu desberdinetan bildutako informazioak gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzeko, eta irakurtzeko jardueran ulermen estrategiak txertatu dituztela; esate baterako, idazkiaren xede identifikatzea, testu-adierazleak erabiltzea, aurrera eta atzera egitea, hiztegiaren kontsulta egitea edo informazio osagarria bilatzea.

Irizpide honekin lortu nahi da, halaber, ulermena ebaluatzea ozenki eginko irakurketaren bitartez; irakurketa hori, izan ere, behar bezain arin eta behar den intonazioarekin egin behar da, isileko irakurketa bezala; azkartasunean eta ulermenean aurrera egitea baloratuko da.

6. Iritziak eta informazioak narratzea, azaltzea, deskribatzea, laburtzea eta adieraztea, eguneroko eta eskolako egoerakin erlazionaturiko testu idatzietan, betiere modu antolatua eta egokian, esakuneak elkarrekin lotuz, testuen plangintza eta berrikuspena modu ohikoan erabiliz, eta arau gramatikakal eta ortografikoak eta alderdi formalak zainduz, paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gauza direla gauzak idatziz adierazteko, modu koherentean eta idazki bat sortzeko prozesuak berezkoak dituen urratsak eginez (plangintza, testua idaztea, berrikustea). Beharrezkoa da ikasleek baloratzea urrats horiek baliagarriak direla testu osoagoak eta xedearekin lotuagoak lortzeko. Ikasleek gai izan behar dute gelako pertsonen arteko harremanek berezkoak dituzten testuak idatzeko –gutunak, arauak, jarduera programak, deialdiak, lanerako plangintza kolektiboak– eta, orobat, komunikabideek berezko dituzten testuak, betiere ikasleen esperientziatik hurbil daudenak –albisteak, elkarrizketa, liburuei edo musikari buruzko berri laburra, zuzendariarentzako gutuna–, eta ikasteko beste arlo batzuetan erabili ohi diren testuak; halere, modu berezian ebaluatu behar da ikasleak gai diren ikasteko autonomian aurrera egitea ahalbidetzen dieten testuak lantzeko –laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak–.

Literaturaren arloan, olerkiak edo kontakizunak birsortzeko gaitasuna ebaluatuko da; testu horietan, baliabide batzuk erabili beharko dira –esate baterako, errima edo erritmoa olerkietan–.

Idazki guztietan, paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean egon, ohikoak diren arau ortografikoaren automatizazio maila eta zalantza ortografikoak behar diren euskarriak (hiztegiak, apunteak...) erabiliz ebazteko gaitasuna ebaluatuko da.

7. Ahozko tradizioko testu literarioak ezagutzeko eta haur literaturakoak, ziklorako egokiak, bai eta narratzaileen, olerkiaren eta bertsoaren ezaugarriak, testu horien irakurketan eta idazketan laguntzeko.

Irizpide horrek ebaluatu nahi du adinerako eta ziklorako interesetarako egokiak diren testu literarioez autonomiarekin gozatzeko gaitasuna, eta testu horien zentzua ulertzeko gaitasuna, konbentzio bera-

riazko batzuk interpretatzeari esker; esate baterako, behin eta berriz agertzen diren gaiak, kontaera literarioaren elementuak, errima, neurria, konparaketak eta metafora. Ebaluatu behar da, halaber, ikasleen ekimena eta irakurketarako jarrera positiboa izatea. Adierazpen eta birsorkuntza baliabideak erabiltzeko gaitasuna baloratuko da, dramatizazio edo birsorkuntza lanetan, olerkiak, bertsoak eta bestelako testuak memorizatzerakoan.

8. Liburutegiak, bideotekak eta abar arintasunez erabiltzea eta maneiatzea, eta ulertzea obrak eta bestelako materialak antolatzeke eta hautatzeko mekanismoak. Gelan eta ikastetxean erabilgarri dauden material bibliografikoak eta bestelako materialen zaintzan eta hobekuntzan laguntzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da haurrak gai ote diren eskura dituzten liburutegiak aktiboki eta autonomiaz erabiltzeko; garatu ote duten irakurketarako gustua eta haien ohiko erabiltzaileak izateko behar diren jarrerak eta prozedurak. Baloratu behar da, orobat, liburutegien funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko ezagutza, bai eta haien mantentzean eta zaintzan laguntzeko gaitasuna ere.

9. Hitzetan, esakuneetan eta testuetan, ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko egiten diren segmentazioetan, ordena-aldaketetan, kenketetan eta txertaketetan gertatzen diren aldaketak identifikatzea.

Helburua da ebaluatzea txertaketek, kenketek, ordena-aldaketek, segmentazioek eta berrosatzeek esakuneetan eta testuetan sortzen dituzten eraginak behatzeko gaitasuna, halako moduan non identifikatuko diren bai idazketan eta ahozko adierazpenean gertatzen diren arazoak, bai ulertzeko zailtasun batzuen jatorria; azken batean, gogoeta hori jardura horiek hobetzeko erabiltzea bilatu nahi da.

Analisi prozedura horiek bidea eman behar dute testuari modu kritikoan erreparatzeko; testuaren edukiari buruz gogoeta egiteko eta hura ebaluatzeko; haren egitura, hizkuntzaren erabilera eta baliabide literarioak, eta egilearen ikuspuntua eta ofizioa aintzat hartzeko eta ebaluatzeko.

10. Gramatikaren eta linguistikaren terminologia, zikloari dagokiona, ulertzea eta erabiltzea testuak sortzeko eta ulertzeko jardueretan.

Irizpide honekin konprobatu nahi da ea ikasleek erabiltzen den hizkuntzari buruzko oinarritzko ezagutza gramatikalak barneratu dituzten. Egiaztatu nahi da ikasleek ikasketa horiek erabiltzen dituztela testuak egiterakoan eta berrikusterakoan, komunikazio hobe lortze aldera. Halaber, baloratuko da arazo linguistikoa batzuei buruz eztabaidatzeko behar den terminologia erabiltzea, egiten diren oharpenak ordenatzea eta ikasitakoa azaltzea. Etaparen bukaeran, ondokoak sartzen dira eduki horien barrenean: testuen izendapenak, euskalkiak badaudela ezagutzea, esakuneak osatzen dituzten elementuak, hitz mota desberdinen ezagutza (izena, adjektiboa, aditza eta abar) eta hitzak osatzeko moduari buruzko oinarritzko nozioak (denbora, numero eta pertsona aldaerak; maiz erabiltzen diren aurrizkiak eta atzizkiak eta abar).

11. Estrategia batzuk erabiltzea ikasten ikasteko.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da ikaskuntza prozesuan laguntzen duten oinarritzko estrategiak erabiltzen diren, hala nola ikusizko baliabideak erabiltzea, laguntza eta argibideak eskatzea, hiztegiak eta oinarritzko baliabide teknologiko batzuk erabiltzea. Halaber, aurrerapenak baloratzen joateko gaitasuna ebaluatuko da, bai eta ikaskuntzan nolabaiteko autonomia lortzea ere.

EUSKARA. A EREDUA (L2)

Helburuak

Euskara irakasgaiaren irakaskuntzak helburu izanen du komunikatzeko oinarritzko gaitasuna garatzea, eta hori honako gaitasunetan zehazten da:

1. Mezuak entzutea eta ulertzea era askotako ahozko elkarreraginetan, euskara estandarrean, eta testu horien bidez transmititutako informazioak erabiltzea lan esperientziarekin loturiko lan zehatz eta askotarikoak egiteko.

2. Gauzak ahoz adierazteko eta elkarreragiteko gauza izatea eduki eta garapen ezagunak dituzten egoera erraz eta ohikoetan, ahozko eta ahozkoen besteko prozedurak erabiliz eta errespetuzko eta laguntza jarrera edukiz: gustuak, desioak, iritziak, sentimenduak edo gai bati buruzko informazio soilak adieraztea.

3. Norberaren esperientziekin eta interesekin loturiko testu askotarikoak ulertuz irakurtzea, eta haietatik informazio orokorra eta berriazkoa ateratzea aldez aurretik ezarritako xede jakin batekin. Irakurketa entretentzeko eta informatzeko iturri gisa baloratzea.

4. Irakurketa norberaren gozamenerako eta aberastasunerako iturri gisa erabiltzea.

5. Era askotako testuak, xede desberdinekin, idaztea, ikasgelan aurretik landutako gaien buruzkoak, ereduez baliatuz.

6. Adierazpen egokia lortzeko behar diren hitzak barneratzea, hiztegia eta teknika lagungarriak erabiliz, eta liburutegiaz oinarritzko baliabide gisa baliatuz.

7. Euskararen alderdi fonetikoak, erritmoari doazkionak, azentzuak eta intonazioa ezagutzea; egitura linguistikoak eta alderdi lexikoak ere ezagutzea, eta haiek komunikazioaren oinarritzko osagai gisa erabiltzea.

8. Nafarroako eleaniztasuna ezagutu eta errespetatzea eta hura aintzat hartzea, eta jarrera positiboa edukitzea hizkuntzaren aldaera linguistikoaren erabilerarekiko, eta errespetua izatea hizkuntzekiko eta haien hiztunekiko eta kulturarekiko.

9. Dimentsio soziokulturala ezagutu eta lantzea.

10. Harbera izatea, eta intereseko eta norberaren buruarekiko konfiantzako jarrera edukitzea ikasteko gaitasuna eta hizkuntzaren erabilera direla eta.

11. Beste hizkuntza batzuen aldez aurretiko ezagutza eta esperientziez baliatzea hizkuntza modu azkarrago, eraginkorrago eta autonomoago batez barneratzeko.

12. Euskara askotariko edukiak ikasteko tresna gisa baloratzea.

13. Informazioa lortzeko eta euskaraz komunikatzeko eskura dauden bitarteko guztiak, teknologia berriak barne, gero eta autonomia gehiagoz erabiltzen ikastea.

Lehen zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

Eta honetan zehar, ikasleak ikasi behar du testuinguru batzuetan egoki adierazten, edukia eta adierazpenaren forma xedeari eta mintzakideei egokituz. Halaber, ikasi behar dute besteei egoki erantzuten, esandakoaren haria eta mintzakideak erabilitako hizkuntza gordez. Halaber, ikasleek ikasi behar dute hizketaldietan parte hartzen, txandak errespetatuz eta aztergaiari buruzko ekarpenak eginez. Pixkanaka, hizkuntzaren erabilera formalenak sartzen joanen dira.

–Entzutea eta ulertzea. Hitz egitea eta hizketan aritzea

▪ Ahozko mezu errazak ulertzea ikasgelan lanak egiteko.

▪ Ikus-entzunezko euskarrietatik eta euskarri informatikoetatik heldu diren mezu errazak entzun eta ulertzea.

▪ Ahozko elkarreragina egoera errealean edo simulatuetan, komunikazio errutinen bidez lortutako ahozko eta ahoz besteko erantzunak erabiliz.

▪ Aldez aurretik ezagutzen diren ahozko testuak produzitzea, errutina, antzespen, abesti, errezitate eta dramatizazioetan aktiboki parte hartuz.

▪ Oinarritzko estrategiak erabiltzea ahozkoaren ulermenean eta adierazpenean laguntzeko: ikusizko testuingurua eta hitzez besteko testuingurua erabiltzea eta gaiari edo egoerari buruzko aldez aurreko ezagupenak –ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik euskarara transferitutakoak– erabiltzea.

▪ Taldeko jardueretan (abestiak, dramatizazioak, errutinak...) ahoz parte hartzeko interesa.

▪ Hizkuntza komunikatzeko tresna gisa baloratzea.

–Testuak:

▪ Ipuinak, azalpenak, jarraibideak, deiak, deskribapenak, olerkiak eta abestiak, irakaslearekiko hizketaldiak, ikasledeen arteko elkarrizketak, dramatizazioak.

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Entzutea eta ulertzea

▪ Ahozko testu errazen esanahi orokorra harrapatzea –testuak eskuragarriak eta esanahidunak izanen dira ikasleendako–; testu horiek lotura bat izanen dute ikasleek ideiekin edo ikasleek interesekoak diren edo ikasleei jakin-mina sortzen dieten esperientziekin.

▪ Oinarritzko estrategiak erabiltzea (testuinguruari erreparatzea, galderak egitea, zeinuen hizkuntza interpretatzea, arretari eustea...) ahozko testu errazak ulertzeko.

▪ Erantzun fisikoak ematea ahozko agindu batzuen arabera.

▪ Eguneroko adierazpenei egoki erantzutea

esate baterako: agurrak, erantzunak, materiala banatzeko jarraibideak, oinarritzko beharren adierazpenak, autonomia-azturen jarraibideak, eguraldiaren jarraipena, eskolako gorabeherei buruzko iruzkinak (ikasleek bertaratzeko, urtebetetzeak), ikasgelan jarduerak antolatzeke jarraibideak.

▪ Ahozko adierazpena eta elkarreragina:

▪ Aldez aurretik ezagutzen diren ahozko testuak errezitate edo interpretatzea, antzezpen konpartituetan, abestietan, dramatizazioetan, jolasetan (ikusimakusi...).

▪ Errutinazko lanei buruzko ahozko testuak sortzea, haietan ohikoak diren gertakariak eta bizipenak aurkeztuz: aurkezpenak, data, gelako arduraduna, eguraldi fenomenoak...

▪ Elkarriketetan eta hizketaldietan lagungarri gertatzen diren oinarriko arauak errespetatzea: arreta, kontzentrazioa, itzarotea, txandak, erantzuna mintzakidearen esku-hartzeari egokitzea...

▪ Ikasgelako dinamikan sor daitekeen ohiko elkarreragin linguistikoan parte-hartze aktiboa izatea (funtsean, buruz ikasitako formulen birtarte): baiezkooa edo ezezkoa esatea, galdetzea eta erantzutea, eskatzea, eskerrak ematea, barkamena eskatzea, jarraibide bat ematea, gustua adieraztea...

▪ Landutako ahozko testuari buruz iritzia ematea eta egindako baloraziori buruz argudiatzea

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

2.1. Idatzizko testuak ulertzea.

Irakurtzeko –testua deskodetzea– eta irakurketa funtzionalerako –adierazkorra eta isilekoa– behar diren trebetasunak eskuratzeko lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berriazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narratiboak baloratzea).

–Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea

▪ Elkarreagin erreale edo simulatuetan aktiboki parte hartuz aurretik ezagututako hitz eta esaldi errazak irakurtzea.

▪ Irakurtzeko estrategiak erabiltzen hastea: ikusizko testuingurua eta hitzezko testuingurua erabiltzea eta gaiari edo egoerari buruzko alde aurreko ezagupenak –ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik transferitutakoak– erabiltzea.

▪ Irakurketa baloratzea: ikaslearen gaitasun eta intereserako egokiak diren testuak irakurtzea, irakurketaz gozatzeko.

▪ Ahozko elkarreraginetan aktiboki parte hartuz aurretik ezagututako hitz eta esaldiak idaztea, eta gero, haiek irakurri behar diren jardueretan informazioa transmititu eta konpartitzea, edo horrekin jolas egitea.

▪ Testuen produkzioan oinarriko estrategiak erabiltzen ohitzea, eredu batetik abiatuz: helburua eta edukia definitzea.

▪ Hezkuntzarako programa informatikoak erabiltzen ikastea, mezu errazak irakurtzeko eta idazteko.

▪ Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa.

–Testuak:

▪ Ipuinak, deskribapenak, deiak, jarraibideak, olerkiak, abestiak, postalak, gutunak, gonbidapenak, azalpenak, galderen erantzunak, zerrendak, argazki oinak...

–Tebetasunak eta estrategiak

▪ Ulertzeko irakurketa

▪ Idatzizko testu esanahidunen esanahia harrapatzea, irakurketaren oinarriko estrategiak erabiliz. izenburuaren garrantzia, testuinguruari eta ilustrazioei erreparatzea, ezagutzen diren beste hizkuntzetatik transferitutako alde aurretiko ezagutuz baliatzea, egia/gezurra erako galderei erantzunez, marrazki batean seinale bat eginez, marrazkiak eginez...

▪ Eskuragarriak eta esanahidunak diren testu idatzi egokiak xedea ezagutzea (gelako horma-irudiak, zerrendak, euskarrik grafikoa, gutunak...).

▪ Irakaslearen ahozko irakurketa erne jarraitzea eta hartaz erreferente gisa baliatzea banakako irakurketarako.

▪ Ozenki irakurtzea, irakurtzen ikastea

▪ Testu idatzian gelan maiz erabiltzen diren hitzak eta berriki ikasitako beste batzuk identifikatzea.

▪ Lan jakin bat egiteko jarraibideak ulertzea (esaldi bat marrazki batekin, eskuz egin beharreko lan batekin, jolas batekin lotzea; hitzak bereiztea, idatziz erantzutea testuinguru jakin bateko aginduei...).

▪ Idatzizko adierazpena.

▪ Ahoz ezagututako hitz eta esaldiak idaztea.

▪ Testuinguru jakin bateko testu errazak idaztea, jarraibide batzuen arabera eta ereduak erabiliz (gonbidapenak, postalak, proiektu batean erabilitako elementuen zerrendak, deskribapen laburrak, gutunak...). Helburua eta edukia definitzea.

▪ Abestien letrak idatziz jartzea.

▪ Testu errazetan, puntuazioa (puntuak erabiltzea esaldiaren bukaeran), garbitasuna eta irakurgarritasuna bezalako oinarriko alderdiei erreparatzea.

▪ Ordenagailuaren erabilera ezagutzea, programa informatiko bat abiatzeko eta ixteko.

▪ Denbora pasak, gurutzegramak, letra zopak eta abar ebaztea.

3. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

▪ Euskararen alderdi fonetikoak, erritmoari doazkionak, azentuak eta intonazioa ezagutzea, eta haiek erabiltzea ahozkoaren ulermenerako eta produkzioerako.

▪ Grafia, ebakera eta esanahia orokorrean lotzea, ezagutzen diren ahozko adierazpideak irudikatzen dituzten eredu idatziak erabiliz.

▪ Testuen produkzioan oinarriko estrategiak erabiltzen ohitzea, eredu batetik abiatuz: helburua, xedea eta edukia hautatzea.

▪ Ezagutzen dituen hizkuntzetan erabiltzen dituen estrategiak konparatzea.

▪ Euskara egoera desberdinetan erabiltzeko interesa.

▪ Euskararen berezko hiztegia eta egiturak, lehendik erabilitakoak, ezagutzea eta erabiltzea.

▪ Gelan landutako sekuentzia didaktikoekin eta errutinekin loturiko hiztegia: familia, eskola, ipuinetako pertsonaiak, jokoak, koloreak, gorputzeko atalak, eguraldi fenomenoak, etxeko animaliak eta haien ingurunea, ofizioak...

▪ 100era arteko zenbakiak. Ordinalak.

▪ Pertsonen deskribapenarekin –fisikoa nahiz izaerari buruzkoa– loturiko adjektiboak. txikia-ertaina-altua, lodia-argala, zikina-garbia, zintzoa-bihurria, langilea-alferra, ona-gaitza...

▪ Txikiagoa da / handiagoa da konparazioak.

▪ Deklinazio markak: nor eta zer singularrean eta pluralean; nor, non eta zerezkoa singularrean.

▪ Nola / Nolakoak

▪ Lekuzko eta moduzko adierazpideak: gainean, azpian, ondoan, pozik, triste, negarrez, barrez...

▪ Pertsonaien, gauzen eta lekuen deskribapenarekin loturiko alderdiak, sekuentzia didaktikoetan landutakoak. Horma-irudi, gutun edo postalen bidezko informazioarekin lotutakoak; narrazioarekin lotutakoak; lan bat egiteko edo jolas baterako jarraibideekin lotutakoak.

▪ Denborazko markatzaile eta lokailuak (lehenengo, gero, azkenik).

▪ Ekintza adierazteko aditzak eta laguntzaileak, aginterak eta eskolako errutinekin lotutakoak (tori, ekarri, etorri, eman, eseri, jarri, isildu, hartu, bildu, lotu, askatu, jantzi,...).

▪ Gustuak eta desioak adierazten dituzten aditzak: gustatzen zait / ez zait gustatzen; nahi dut / ez dut nahi.

▪ Maiz erabiltzen diren esaldiak: ekarri dut, ahaztu dut, ez dut ekarri, komunera joan naiteke, bukatu dut, ez dut bukatu...

4. multzoa.–Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia

▪ Euskal mitologiaren pertsonaiak, istorioak eta ohiturak ezagutzea.

▪ Usadioak eta ohiturak ezagutzea.

▪ Bertako joko eta kirolak identifikatu eta ezagutzea.

▪ Haur abestiak, bertsoak eta asmakizunak ikastea.

▪ Hizkuntzarekiko eta haren kulturarekiko jarrera harbera izatea.

5. multzoa.–Ikaskuntzari buruzko gogoeta.

▪ Trebetasunak eta prozedurak erabiltzea –errepikapena, buruz ikastea, hitzak eta adierazpideak keinuekin eta ikusizko elementuekin erlazionatzea eta ereduak behatzea– hiztegia eta hizkuntzaren funtsezko egiturak barneratzeko.

▪ Hizkuntzari, ikaskuntzari berari eta lanaren antolamenduari buruz gogoeta egitea.

▪ Kotsularako eta informaziorako bitarteko grafikoek eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak gero eta gehiago erabiltzea.

▪ Konfiantza izatea hizkuntza ikasteko norberak daukan gaitasunean eta lankidetzan aritzea gustukoa izatea.

▪ Baloratzea hizkuntza gauzak egiteko eta ikasteko tresna bat dela.

–Tebetasunak eta estrategiak

▪ Hizkuntza erabiltzea gainerakoekin komunikatzeko, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo.

▪ Lanak garbitasunez eta ordenaz egitea, eta xehetasunak zaintzea.

▪ Erabiltzen diren tresnak eta materialak ordenatzea eta zaintzea.

▪ Lanak arrazoizko denbora batean bukatzen saiatzea.

▪ Hitz eta adierazpide gehiago ikasteko interesa adieraztea.

Ebaluazio irizpideak

1. Ahozko testuen ideia orokorra harrapatzea eta berriazko osagai batzuk identifikatzea, testuinguruaren osagai linguistikoak eta ez-linguistikoak erabiliz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea neska-mutilak gai diren ahozko mezu baten ideia orokorra gero eta hobeki harrapatzeko, aurrez aurreko komunikazio egoeretan, keinuen eta mimikaren laguntzarekin eta behar beste errepikatuz, eta gai diren gako hitzak eta oinarriko adierazpideak ezagutu eta ulertzeko, hain zuzen ere gelako jarduerekin eta eskolako testuinguruarekin lotura dutenak.

2. Ahozko elkarreragin oso zuzenduetan parte hartzea, gai ezagunei buruzkoetan, erraz aurreikus daitezkeen komunikazio egoeretan.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai diren modu errazean erantzuteko egindako eskaerei edo jarraibideei, eta informazioak emateko. Elkarreaginak ezagutzen diren gaiak, alde aurretik landutako gaiak edo berehalako komunikazio beharrekiko loturiko gaiak buruzkoak izanen dira; esate baterako, agur egitea, nor bere burua aurkezteko, gustuei buruz hitz egitea, komunikazio egoera ezagunetan –errutinak,

ohiturak, gelako hizkuntza, antzeppenak, errezitateak edo abestiak–. Baloratuko da, halaber, ikasleek gelako jardueretan aktiboki parte hartzeko duten gaitasuna.

3. Aurretik ahoz aurkeztutako hitzak eta esaldi errazak, gai eza-gunei eta intereseko buruzkoak, irakurri eta identifikatzea.

Irizpide honekin irakurtzeko –ozenki irakurtzeko ere bai– eta era guztietako jardueren bidez ahoz ezagututako hitzak eta esaldiak ulertzeko gaitasuna ebaluatu nahi da. Irakurketak ikusizko elementuak hartuko ditu oinarri, adierazpide horiek agertzen direnoko testuinguruari buruzkoak, eta jolas eta komunikazio jardueren atal bat izanena da.

4. Hitzak, adierazpide ezagunak eta esaldiak idaztea ereduak erabiliz eta xede jakin batekin.

Irizpide honekin ebaluatu da ea ikasleak gai diren ahoz eta maiz erabilitako hitzak eta esaldi errazak, jarduera aniztatan errepikatutakoak, idazteko. Idazketa eredu bat behatuz hasiko da, eta funtzionaltasun jakin bat daukan lan zehatz bateko –esate baterako ohar bat idaztea, horma-irudi bat egitea, urtebetetzea zorionteza edo abesti edo olerki bat osatzea– atal bat izan behar du.

5. Ohiko komunikazio testuinguruetan agertzen diren adierazpideen soinu, erritmo, azentu eta intonazio alderdiak ezagutu eta egitea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak, adierazpideak entzuten, errepikatzen eta aurreratu aktiboki parte hartzen dutenean, eta ozenki irakurtzeko jardueretan, soinu, erritmo, azentu eta intonazio alderdiak ezagutzeko eta berriz egiteko gauza ote diren, ereduetatik abiatuta betiere.

6. Euskara ikasteko interesa eta jakin-mina erakustea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek hizkuntza ikasteko parte hartzen duten, ahaleginak egiten dituzten eta interesa erakusten duten. Halaber, baloratuko da ea beste pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ezagutzearen garrantziaren kontzientzia hartzen duten, eta hizkuntzen aniztasuna guztientzat aberasgarria den elementu gisa aintzat hartzen duten.

7. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea; besteak beste, laguntza eskatzea, komunikazioa keinuekin laguntzea, ikusizko hiztegiak erabiltzea eta hobeki ikasten lagunduko dioten alderdi pertsonal batzuk identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten oinarriko estrategien erabilpena, hala nola ikusizko eta keinue bidezko baliabideen erabilpena, ikasleek laguntza eta argibideak eskatzea, ikusizko hiztegiak erabiltzea eta egiten dituzten aurrerapenen balorazioa –oso oinarrikoa bada ere–.

Bigarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

Eta honetan zehar, ikasleak ikasi behar du testuinguru batzuetan egoki adierazten, edukia eta adierazpenaren forma xedeari eta mintzakideei egokituz. Halaber, ikasi behar dute beste egoki erantzuten, esandakoaren haria eta mintzakideak erabilitako hizkuntza gordez. Halaber, ikasleek ikasi behar dute hizketaldietan parte hartzen, txandak errespetatu eta aztergaiari buruzko ekarpenak eginez. Pixkanaka, hizkuntzaren erabilera formalenak sartzen joanen dira.

–Entzutea eta ulertzea. Hitz egitea eta hizketan aritzea

▪ Ahozko mezu gero eta konplexuagoak entzutea eta ulertzea; esate baterako, jarraibideak edo azalpenak, ahozko elkarreragin gidatuak edo multimedia grabazioak, informazio orokorra eta informazio zehatzen bat ateratzeko.

▪ Ahozko elkarreragina egoera erreal edo simulatuetan, ahozko eta ahoz besteko erantzunak emanez; erantzun horiek aukera gutxi batzuen artean hautatzekoak izanzen dira, gidatuak izatetik gero eta urrunago dauden testuinguruetan.

▪ Aldez aurretik ezagutzen diren ahozko testuak sortzea, parte-hartze aktiboa edukiz antzeppen konpartituetan, abestietan, errezitateetan, dramatizazioetan, elkarreragin gidatueta... edo bestela, laguntza eta ereduak aldez aurretik prestatutakoetan.

▪ Oinarriko estrategiak erabiltzea ahozkoaren ulermenean eta adierazpenean laguntzeko: ikusizko testuinguru eta hitzez besteko testuinguru erabiltzea eta gaiari edo egoerari buruzko aldez aurreko ezagupenak –ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik euskarara transferitutakoak– erabiltzea.

▪ Banakako edo taldeko jardueretan (abestiak, dramatizazioak, taldeko lanak...) gauzak ahoz adierazteko interesa.

▪ Hizkuntza komunikatzeko tresna gisa baloratzea.

–Testuak:

▪ Elkarrizketak, inkestak, albisteak, eguraldi iragarpenak, errezetak, joko arauak, olerkiak, abestiak, arrazoiak eta iritziak ematea, eraikin edo kale baten kokapenari buruzko informazioa ematea.

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Entzutea eta ulertzea

▪ Hitzun desberdinek euskarri desberdinetan sortutako ahozko testu esanahidunen esanahia harrapatzea, eta ulertzeko estrategia oinarrikoak erabiltzea, entzun aurretik, entzun bitartean eta entzun eta ondoren (testuinguruari erreparatzea, izenburuaren esanahia bereiztea edo orokortzea egitea, adibideak, egitateak eta iritziak, gako hitzak...).

▪ Informazioaren garrantzia baloratzea zuzeneko inferentziak eginez. Testu baten ideia nagusiari antzematea eta testu bati izenburua ematea.

▪ Elkarrizketetan parte hartzen dutenak identifikatzea eta haien esku hartzeko txandak bereiztea.

▪ Ahozko adierazpena eta elkarreragina:

▪ Ahozko testu errazak buruz ikastea, antzezte eta errepikatzea, ikasgelako lanetan, eta jolasetan jardun ahal izateko; jarraibideak ematea, galderak egitea, hizketaldietan parte hartzea...

▪ Ahozko testuak sortzea, komunikazio egoeraren ezaugarriak identifikatuz eta, betiere, intonazio egokia erabiliz: galdetzea, zorionak ematea, onartzea, gaitzestea, deitoratzea, eguraldia aurreratea, arrazoiak ematea, iritzia ematea...

▪ Ahozko testuak sortzea, haietan gertaera eta bizipen pertsonalak aurkeztuz, gidoi baten laguntzarekin edo errutinetan, jarraibideetan eta deskribapenetan oinarrituriko informazioez baliatuz, betiere eredu lan-guntza edukiz.

▪ Ahozko testu esanahidunak sortzea komunikazio egoera eskuragarrietan, denborazko sekuentzia errespetatuz ideien, datuen, gertaeren segida batean... (lehenengo, gero, ondoren, azkenik).

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

2.1. Idatzizko testuak ulertzea.

Irakurtzeko –testua deskodetzea– eta irakurketa funtzionalerako –adierazkorra eta isilekoa– behar diren trebetasunak eskuratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berariazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narritiboak baloratzea).

–Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea

▪ Paperean nahiz euskarri digitaletan idatzitako testu mota desberdinak irakurri eta ulertzea, betiere ikaslearen gaitasun linguistikoari egokituz, informazio orokorra eta berariazkoa erabiltzeko, lan bat garatzen ari denean edo irakurketaz gozatzeko.

▪ Irakurketako estrategiak erabiltzen hastea: ikusizko testuinguru elementuak eta gai edo egoerari buruzko aurreziako ezagutzak erabiltzea (ezagutzen dituen hizkuntzetatik transferituak), hitz eta adierazpen ezezagunen esanahia deduzituz.

▪ Irakurketa baloratzea. Ikaslearen gaitasun eta intereserako egokiak diren testuak irakurtzea, irakurketaz gozatzeko.

▪ Haurren esperientziatik hurbil dauden eguneroko egoerei buruzko testu propioak irakurri eta idaztea; esate baterako, gonbiteak, gutunak, zorion-emateak, oharak, deiak, liburuxkak, errezetak...

▪ Eredu desberdinak erabiliz, testu errazak egitea haiek egiteko erabiliko dira bai ahoz bai haien irakurketara ohitzea inplikatzeko jardueren bitartez ongi ezagutzen diren adierazpide eta esaldiak, horrela informazioa transmititzeko eta konpartitzeko, edo komunikazio asmo desberdinekin.

▪ Testu produkzioaren oinarriko estrategiak ezagutzen eta erabiltzen hastea (hartzailea hautatu, helburua, plangintza, zirriborroa egin, testua berrikusi eta amaierako bertsioa) oso egituratuta dauden ereduak erabiliz.

▪ Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa irakurtzeko, idatzeko eta transmititzeko.

▪ Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa.

–Testuak:

▪ Gutunak, albisteak, kontaerak, komikiak, errezetak, galdetegiak, biografiak eta autobiografiak, olerkiak, iragarkiak, telebistako programazioa,

▪ Azalpenak, auzoko edo hiriko planoak eta deskribapenak

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Ulertzeko irakurketa

▪ Irakurtzeko estrategien erabilera gidatua (ikusizko testuinguruaren elementuak erabiltzea, irakasleak ozenki irakurtzen duena entzutea, ozenki eta isilik irakurtzea eta ezagutzen diren hizkuntzetatik transferitutako gaiari edo egoerari buruzko aurretiko ezagutzak erabiltzea), informazio nagusia identifikatuz, ezagutzen ez diren hitzen edo adierazpideen esanahia deduzituz, testuinguruan, gaien, egoeran eta hitzaren funtzioan bermatuz. Izenordain bat ordeztzen duen pertsonarekin edo gauzarekin lotzea. Aditzen denbora bereiztea.

▪ Ozenki irakurtzea, ebakera eta intonazio egokiarekin, gelan aurretik prestatutako testu laburrak. Olerkiak interpretatzea.

• Testu bat ulertzea, haren gakoak inferituz eta galdera batzuei erantzunez (nor, nork, zer, noiz, non, nora, norekin, zergatik, zure uestez).

• Testu batean berriazko informazioa aurkitzea, galderi egia/gezurra erantzunez, edo aukera anitzeko galderi erantzunez, edo geziez erantzun beharreko, edo sekuentziak kronologikoki ordenatu... eta galdera irekiei erantzutea.

• Narrazioaren oinarriko elementuak ezagutzea: pertsonaiak, lekua, denbora eta gertaeren sekuentzia; halaber, haren egitura osatzen duten atalak ezagutzea: aurkezpena, korapiloa eta amaiera. Irakurritako testuen laburpenak egitea, eskemen laguntzarekin.

• Euskaraz idatzitako testu errealeatik jasotako informazioa interpretatzea (iragarkiak, telebistako programazioa...), geroko ekintza bat programatzeko.

• Testuak eta liburu txikiak irakurtzea irakurketaz gozatzeko.

• Idatziko adierazpena.

• Testu bat irakurterakoan barneratutako hiztegia idaztea eta buruz ikastea.

• Idazki laburrak produzitzea, ereduak imitatuz (deskribapenak, errezetak, gutunak, informazio pertsonal errazak). Esaldi zuzenak osatzea, ilustrazio bat deskribatuz ereduak eta eredu erako esaldiak erabiliz.

• Gutun baten egituraren oinarriko elementuak ezagutu eta erabiltzea: data, agurra, aurkezpena, eskaria, bukaerako agurra eta sinadura, bai eta gutunean agertzen diren datuak ere: igorlea eta hartzailea.

• Datu pertsonalei buruzko informazioa biltzea, alde zuzenetik ezarritako gidoi bati jarraituz. Errezeta baterako behar diren osagai eta tresnen zerrenda idaztea.

• Landutako testua idatziz baloratzea, oharpenak eginez, hari buruzko iritzia emanez eta irakurketarekin ikasitakoaz gogoeta eginez.

• Norberaren eta beste ikaskide batzuen testuetan akats ortografiakoak zuzentzea.

• Puntuazioaren (puntuaren erabilera, komak erabiltzea zerrenda batean...) eta testuaren antolamenduen (denborazko lokailuak erabiltzea) oinarriko alderdiei erreparatzea.

• Testu baten aurkezpenaren oinarriko alderdiei (garbitasuna, lekuaren banaketa...) eta irakurgarritasunari erreparatzea.

• Informazioaren eta komunikazioaren teknologiez baliatzea sekuentzia didaktikoetan landutako ezagutzak indartzeko edo zabaltzeko.

3. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

• Testu produktzioaren oinarriko estrategiak ezagutzen eta erabiltzen hastea (hartzailea hautatu, helburua, plangintza, zirriborroa egin, testua berrikusi eta amaierako bertsioa) oso egituratuta dauden ereduak erabiliz.

• Hizkuntza egoera desberdinetan zuzentasunez erabiltzeko interesa.

• Euskararen alderdi fonetikoak, erritmoari doazkionak, azentuak eta intonazioa ezagutzea, eta haiek erabiltzea ahozko testu txikiak ulertzeko eta sortzeko funtsezko alderdi gisa (oinarriko puntuazioa: puntua, koma, galdera ikurra eta harridura ikurra...).

• Euskararen berezko hiztegia, forma eta oinarriko egiturak, lehendik erabilitakoak, ezagutzea eta erabiltzea.

• Oinarriko ortografia: euskarak berezkoak dituen fonemak erabiltzea, eta gatzelaniaren aldean korrespondentziak dituztenak bereiztea (b, k, ts, tz, tx, np, nb).

• Sekuentzia didaktikoekin loturiko hiztegia: kirolak, etxeko gelak eta tresnak, kalea eta haren elementuak, garraio bideak eta zerbitzuak, elementu geografikoak, jantziak, jatekoak.

• Ekintza adierazteko aditzak eta aditz laguntzaileak (handitu, txikiagotu, laburtu, luzatu, igeri egin, bizikletaz ibili...) jarraibideak ematekoak (ezin da, behar da...) eta sekuentzia didaktikoekin lotutakoak (frijitu, egosi, erre...).

• Aditz funtzioak (tranpa egin duzu, jolastu gabe, bota duzu...).

• Ekintzen deskribapenarekin loturiko adjektiboak, errepikapenak (motz-motza, beltz-beltza...), antonimoak eta superlatibo zehatz batzuk.

• Deklinazio markak singularrean (nondik, nora, norekin, norena, zerez).

• Orduak: (zer ordu da, zer ordutan da)

• Noiztik, noiz arte

• Zenbakiak (ehunekoak eta milakoak).

• Maiz erabiltzen diren erakusleak (hau, hori, hura, hauek, horiek haiek...).

• Lekuzko adberbioak (hemen, hor, han, urrun, hurbil...), modua (garbi, zikin, mantso, poliki, azkar...), denbora (berandu, laster...), koprura (asko, gutxi...).

• Denborazko markatzaile eta lokailuak (lehenengo, bat-batean, orduan, gero, azkenik...).

• Ezazkoa (ez dut nahi, ez dut ulertzen, ez dut ikusten, ez dut ekarri).

• Iritziak eta arrazoiak komunikatzeko funtzioak deskribapen biografiko erraz bat egitekoak, ikaskide bati galdetegi erraz bat egitea gustu pertsonalei buruz, bizipen pertsonal bati buruzko narrazio laburra, jolas bat azaltzea...

4. multzoa.–Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia

• Hizkuntza ikasteko eta haren kulturaren gaineko alderdiak ezagutzeko interesa.

• Norberaren kultura baloratzea, beste kultura batzuen ezagutzatik eta baloraziotik abiatuz.

• Unitate didaktiko batzuekin loturiko usadioak eta ohiturak ezagutzea (jokoak, jolaserako formulak, pertsonaia tradizionalak).

• Hizkuntzarekiko eta kulturarekiko jarrera harbera izatea eta balorazio positiboa egitea.

• Ospakizun eta jai tradizionalak ezagutzea.

• Erabilera soziala eta herrikoia duten abestiak ikastea.

• Bertako ohiturak ezagutzea: elikagaiak, dantzak, musika tresnak...

5. multzoa.–Ikaskuntzari buruzko gogoeta.

• Trebetasunak eta prozedurak erabiltzea –errepikapena, buruz ikastea, hitzak eta adierazpideak keinuekin eta ikusizko elementuekin erlazionatzea eta ereduak behatzea, testuak irakurtzea, multimedia euskarriak erabiltzea eta bestelakoak– hitz berriak eta hizkuntzaren egiturak barneratzeko.

• Gogoeta ikaskuntzari berari buruz eta lanaren antolamenduari buruz, eta akatsak onartzea ikaskuntza, autozuzenketa eta autoebaluazio prozesuaren atal gisa.

• Kontsultarako eta informaziorako bitarteko grafikoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak gero eta gehiago erabiltzea.

• Ezagutzen dituen hizkuntzetan erabiltzen dituen estrategiak konparatzea.

• Konfiantza izatea euskara ikasteko norberak daukan gaitasunean eta lankidetzan aritzea baloratzea.

• Baloratzea euskara gauzak egiteko, antolatzeke, ikasteko, jolaske eta gozatzeko tresna bat dela.

–Trebetasunak eta estrategiak

• Maiz parte hartzea eta elkar eragitea. Euskara modu espontaneoan erabiltzea gainerakoekin komunikatzeko, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo.

• Lanak (fitxak, marrazkiak, eskulanak, liburuko ariketak...) garbitasunez egitea, eta xehetasunak zaintzea. Gelako koadernoak, egindako fitxak eta abar ordenatzea, alde zuzenetik ezarritako irizpideei jarraituz.

• Taldean lan egitea, ezagutzen eta gaitasunen ekarpena eginez eta gainerakoekin eragin kortasunez lan eginez.

Ebaluazio irizpideak

1. Haurrendako ezagunak eta interesekoak diren ahozko testuetan, esanahi orokorra harrapatzea eta berriazko informazioak identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea haurrak gauza diren ahozko mezu baten esanahi orokorra harrapatzeko, komunikazioko egoeran presente dauden elementu linguistikoekin eta ez-linguistikoekin laguntzarekin. Adierazpen zabalagoetan agertzen diren hitz eta adierazpen ezagunak ezagutzeko gaitasuna ere neurtu nahi da, baita testu osoa ulertzen ez den kasuetan ere.

2. Aurrerako moduko komunikazio egoeretan gai ezagunei buruzko zuzendutako ahozko elkarreraginetan parte hartzea, elkartrukearen oinarriko arauak errespetatuz; esate baterako, entzutea eta hitz egiten duenari begiratzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da berehalako beharrak adierazteko gaitasuna; esate baterako, baimena eskatzea, eguneroko gauzak mailaguan eskatzea, jarduera antolatzea, taldean lan egitea, gauzak edo pertsonak aurkitzea, eguraldiari buruz edo gustu eta trebetasunei buruz hitz egitea. Eguneroko egoeretan ikasleek duten parte-hartzea baloratuko da, hain zuzen ere errutinetan, azturetan, gelako hizkuntzan edo simulazioetan, antzezpenean, abestietan edo errezitateetan. Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak elkartrukeetan parte hartzeko duen jarrera, eta interesa erakusten duen gainerakoekin esku-hartzei buruz.

3. Xede jakin bat duten gai ezagunei buruzko testu errazak irakurri eta esanahi orokorra eta berriazko informazio batzuk harrapatzeko gai izatea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren testu mota desberdin batzuk irakurtzeko (baita ozenki ere), betiere daukaten komunikazio gaitasunaren araberrakoak; esate baterako, oharrak, gelako arauak, gutunak, horma-irudiak edo ipuinak, hiztegi eta adierazpide ezagunak dituztenak. Haietatik informazio orokorra eta berriazkoa aterako dute, idatziaren ulermenarekin loturiko funtsezko estrategien laguntzarekin; esate baterako, testuinguru linguistikoko eta ez-linguistikoko elementuak erabiltzea eta ezagutzen diren beste hizkuntza batzuetatik ezagutzak transferitzea.

4. Esanahia duten esaldi eta testu laburrak idaztea eguneroko eta eskolako egoeretan, xede jakin bat duten ereduetatik abiatuta eta ezarritako formatu batekin, bai paperean bai euskarri digitalean.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai diren era askotako testuak idazteko; esate baterako, oharrak, jarraibideak edo arauak, gutunak, horma-irudiak, liburuxkak, komikiak edo deskribapen errazak. Ebaluatuko da testu bat nolabaiteko autonomiarekin sortzeko eredu erabilteko gaitasuna, eta ebaluatuko da, halaber, ereduak behatuz eta soinua eta grafiaren arteko erlazioak ikasiz barneraturiko zuzentasun ortografikoa.

5. Euskaraz berezko dituen forma eta egitura errazak erabiltzea, esanahi bat komunikatuz, testuinguru desberdinetan, horren barne di- rela soinu, erritmo, azentu eta intonazio alderdiak.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da neska-mutikoak, adierazpideak entzuten, errepikatzen eta aurreratsen aktiboki parte hartzen dutenean, eta ozenki irakurtzeko jardueretan, soinu, erritmo, azentu eta intonazio alderdiak ezagutzeko eta berriz egiteko gauza ote diren, ereduetatik abiatuta betiere.

6. Euskaraz hitz egiten den lekuetako eguneroko bizitzaren alderdi batzuk identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna ote duten euskaraz hitz egiten den lekuetako eguneroko bizitzaren alderdi batzuetan antzeman daitezkeen desberdintasunak eta antzekotasunak ikusi eta identifikatzeko, janariei, tradizioei, jaietara eta pertsonen elkarren arteko harremanak izateko moduei dagokienez.

7. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea; besteak beste, argitasun eskatzea, komunikazioa keinuekin laguntzea, ikusizko hiztegiak eta hiztegi elebidunak erabiltzea, euskarri desberdinetan gai ezagunei buruzko informazioa aurkitzea eta biltzea, eta hobeki ikasten lagunduko dioten alderdi pertsonal batzuk identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten oinarriko estrategien erabilpena, hala nola ikusizko eta keinuen bidezko baliabideen erabilpena, ikasleek laguntza eta argitasun eskatzea eta hiztegi elebidunak eta oinarriko bitarteko teknologiko batzuk gero eta autonomia gehiagoz erabiltzea. Halaber, ebaluatuko da ikasleak gai ote diren beren aurrerapenak baloratzeko, hobeki ikasteko erabiltzen dituen estrategia buruzko adibideak jartzeko eta forma eta egitura erraz eta egunerokoak modu espontaneoan erabiltzeko nolabaiteko autonomia barneratzeko.

8. Intereseko jarrera bat erakustea norberaren hizkuntza ez den beste hizkuntza batean hitz egiten duten eta bestelako kultura bat duten pertsonetara, eta euskara beste pertsona batzuekin komunikatzeko tresna gisa baloratzeko.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai ote diren eleaniztasuna gizarterako aberasgarria den elementu gisa baloratzeko, eta berezitasun soziokulturalak identifikatzeko gauza diren.

Hirugarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

Etaparen honetan zehar, ikasleak ikasi behar du testuinguru batzuetan egoki adierazten, edukia eta adierazpenaren forma xedari eta mintzakideei egokituz. Halaber, ikasi behar dute beste egoki erantzuten, esandakoaren haria eta mintzakideak erabilitako hizkuntza gordez. Halaber, ikasleek ikasi behar dute hizketaldietan parte hartzen, txandak errespetatuz eta aztergaiari buruzko ekarpenak eginez. Pixkanaka, hizkuntzaren erabilera formalenak sartzen joanen dira.

–Entzutea eta ulertzea. Hitz egitea eta hizketan aritzea

• Ahozko mezu gero eta konplexuagoak entzutea eta ulertzea; esate baterako, jarraibideak edo azalpenak, ahozko elkarreragin gidatuak edo multimedia grabazioak ikus-entzunezko euskarrian eta euskarri informatikoan, informazio orokorrak eta informazio zehatzak ataratzeko.

• Ahozko elkarreragina egoera erreal edo simulatuetan, gero eta autonomia, eraginkortasun eta konplexutasun handiagoaz baliatuz erabiltzeko adierazpideetan.

• Ahozko testuak sortzea gero eta autonomia, eraginkortasun eta konplexutasun handiagoarekin; betiere ezagutzen diren ereduak eta egitura linguistikoak erabiliko dira, eta interesa erakutsiko da gauzak ahoz adierazteko banakako eta taldeko jardueretan.

• Oinarriko strategiak erabiltzea ahozkoaren ulermenean eta adierazpenean laguntzeko: ikusizko testuinguru eta hitzez besteko testuinguru erabiltzea eta gaiari edo egoerari buruzko alde aurreko ezagupenak –ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik euskarara transferitutakoak– erabiltzea.

• Banakako edo taldeko jardueretan (abestiak, dramatizazioak, taldeko lanak...) gauzak ahoz adierazteko interesa, gero eta modu autonomoagoan.

• Komunikazioan sortu ohi diren zailtasunak gainditzeko jarrera, ezagutzen diren hizkuntzetako komunikazio estrategiez baliatuz.

• Hizkuntza komunikatzeko tresna gisa baloratzeko.

–Testuak:

• Ordena kronologikoaren arabera narrazio-testuak, azalpen testuak (beste irakasgaietako edukiak), jarraibideak eta deskribapenak. Argudiozko testuaren hasiera.

–Trebetasunak eta strategiak

• Entzutea eta ulertzea

• Ulermenaren estrategia nagusiak ezagutu eta aplikatzea: aurre-satea, aurreratzea, inferitza... Lan bat egiteko ideia orokorra eta informazio muntaduna ateratzea.

• Ahozko testuen berariazko informazioa harrapatzea ikasgelako lanak egiteko, adierazitako ideien artean ezartzen diren oinarriko erlazioak eta komunikazio egoeraren ezaugarriak ulertuz: mintzakideen kopurua eta mota, komunikazioa noiz eta non gertatzen den, komunikazioaren asmoa (informazioa, umorea...).

• Ulermenaren estrategia nagusiak aplikatzea: aurre-satea, aurreratzea eta inferentzia.

• Ahozko adierazpena eta elkarreragina:

• Eguneroko gaietara eta gai ezagunei buruzko edo gelan maiz landutako gaietara buruzko hizketaldiak izatea.

• Istorioak eta gertaerak narrazioa ikusizko eta ahozko laguntzekin, ikasgelan aurretik landutako ereduak erabiliz.

• Ezagutzei buruzko azalpen laburrak egitea.

• Prozesu bat azaltzea.

• Deskribapen errazak egitea (pertsonak, animaliak, gauzak eta lekuak).

• Ziurtasuna, aukera, iritziak adieraztea, arrazoiak ematea, baimena ematea, aginduak ematea, lehenaldian eta geroaldian hitz egitea.

• Testu bat ahoz laburtzea.

• Ikaskideei elkarrizketak egitea beren gustu eta zaletasunei buruz, aurretik landutako gidoi bat erabiliz.

• Ezarritako jarraibide batzuekin, elkarrizketak asmatzea.

• Eguraldiari buruzko iragarpenak egitea

hipotesiak egitea, eta egiaztatzeak aurreko egunean eginiko iragarpenei buruz.

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

2.1. Idatzizko testuak ulertzea.

Irakurtzeko –testua deskodetzea– eta irakurketa funtzionalerako –adierazkorrak eta isilekoa– behar diren trebetasunak eskuratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berariazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narrazioak baloratzeko).

–Idatzizko testuak irakurtzea eta ulertzea

• Paperean nahiz euskarri digitalean idatzitako testu mota desberdinak irakurri eta ulertzea, betiere ikaslearen gaitasun linguistikoari egokituak, informazio orokorra eta berariazkoa erabiltzeko, lan edo proiektu bat garatzen ari denean edo irakurketaz gozatzeko.

• Irakurtzeko estrategien erabilera gero eta autonomoagoa (ikusizko testuinguruaren elementuak eta ezagutzen diren hizkuntzetatik transferitutako gaiari edo egoerari buruzko aurretiko ezagutzak erabiltzea), informazio nagusia identifikatuz, ezagutzen ez diren hitzen edo adierazpideen esanahia deduzituz, hiztegiak erabiliz.

• Irakurketa baloratzeko. Ikaslearen gaitasun eta intereserako egokiak diren testuak irakurtzea, irakurketaz gozatzeko.

• Komunikazio egoera desberdinetan berezkoak diren testuak osatzea –hiztegian eta egituretan gero eta zabalagoak eta aberatsagoak–, informazioa transmititu eta konpartitzeko eta komunikazio asmo desberdinekin.

• Testu produktzioaren oinarriko strategiak erabiltzea (hartzailea hautatu, helburua, plangintza, zirriborroa egin, testua berrikusi eta amaierako bertsioa) oso egituratuta dauden ereduak erabiliz.

• Giza harremanetan eta komunikabideetan berezkoak diren testuak eta ikasteko eta informatzeko testuak irakurri eta idaztea.

• Informazioaren eta komunikazioaren teknologiarik erabiltzea testuak eta aurkezpenak egiteko eta informazioa transmititzeko.

• Euskara komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa baloratzeko.

• Testu idatzizko zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa, eta testuek komunikazio beharrak asetzeko betetzen duten eginkizuna baloratzeko.

–Testuak:

• Narrazioak (ipuinak, gutunak, deskribapenak, posta elektronikoa...).

▪ Azalpen testuak (gai jakin bati buruzkoak, gidoi bat oinarri hartuta, edukiak azaltzea, albisteak, iragarkiak, oharak, deiak, jaietarako programa, telebistako programazioa, gonbidapenak...).

▪ Jarraibide testuak (jokoetarako eta kirolerako arauak, errezetak...).

▪ Argudiozko testuen hastapenak (arrazoiak ematea gai edo jarrera bati buruz).

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Ulertuzko irakurketa

▪ Ikasgelan landutako testuak nolabaiteko arintasunez eta ebakera eta intonazio egokiak irakurtzea.

▪ Idatzizko testu esanahidunen esanahia harrapatzea, eta hiztegiaren laguntzaz informazio berariazkoa identifikatzea.

▪ Ulermen estrategiak erabiltzea, irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren: ezagutzen diren hizkuntzetatik transferitutako gaiari edo egoerari buruzko aurretiko ezagutzak erabiltzea, ikusizko testu inguruaren elementuak erabiltzea (ilustrazio bateko elementuak identifikatzea: kolorea, forma, osaera... gaiari buruzko hipotesi bat formulatzeko); hipotesi horiek egiaztatzea edo errefusatzeko irakurketaren bidez; galdera irekiei erantzutea; testu baten zatiak ordenatzea; laburpena egitea eskemak erabiliz.

▪ Irakurritako testuen laburpen osatuagoak eta egokiagoak egitea.

▪ Irakurtzeko egoerarako egokiak diren testuak eta liburuak irakurtzea, ezagutza iturri gisa eta irakurketarekin gozatzeko bitarteko gisa.

▪ Idatzizko adierazpena.

▪ Testu idatziak sortzea, kasuan kasuko testu-egitura eta testuari kohesioa emateko oinarritzko prozedurak erabiliz (loturak erabiltzea, aditzaren denborari eustea, oinarritzko puntuazio egokia, galdera ikurra eta harridura ikurra eta abar), eredu oso egituratuetatik abiatuta.

▪ Testu idatziaren plangintza egitea: ideiak eta haien ordena, hiztegia, eskatzen diren egiturak, hartzaila eta testuaren helburua, zirriborroa idaztea, testua berrikustea eta amaierako bertsioa. Testuari kohesioa emateko elementuak erabiltzea (loturak, aditzaren denbora, oinarritzko puntuazioa eta abar).

▪ Narrazio, deskribapen, jarraibide eta azalpen testuen oinarritzko elementuak ezagutu eta erabiltzea.

▪ Irakurritako testuen laburpen osatuak eta egokiak egitea.

▪ Testuak idaztea oinarritzko arau ortografikoak erabiliz eta maiz erabiltzen diren hitzen ortografia zainduz; halaber, aurkezpen alderdiei eta testuaren irakurgarritasunari erreparatuko zaie.

▪ Testu idatzi errazak egitea haiek aberasteko komunikazio baliabide batzuk erabiliz (adjektiboren bat, testu-lokailuak, sinonimoren bat...).

▪ Testuak zuzentzea bukatutzat eman baino lehen, ondokoei buruzko galderak eginez: koherentzia, irakurlearentzako egokia den, adierazpideetan edo hiztegiaren aldaketa batzuk eginez hobetu ote daitezkeen; ortografia eta puntuazio-markak.

▪ Landutako testua idatziz baloratzea, ikasitakoari buruz gogoeta eginez eta testuak egin dizkigun ekarpenez iritzia emanez.

▪ Internetez baliatzea informazio iturri gisa eta posta elektronikoa erabiltzen hastea.

3. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

▪ Puntuazio zaindua, erritmo, intonazio eta azentu egokiak, bai ahoko elkarreragin eta adierazpenetan, bai errezitatzean, dramatizatzean edo ozenki irakurtzean.

▪ Euskararen berezko forma eta egitura oinarritzko batzuk, lehendik erabilitakoak, ezagutzea eta erabiltzen jakitea.

▪ Sekuentzia didaktikoekin loturiko hiztegia: ogibideak, gorputzaren atalak, animaliak, komunikabideak, komunikazioaren teknologia, ohiko tresnak eta jarraibideekin, informazioarekin eta narrazioarekin loturiko edukiak.

▪ Sinonimoak eta antonimoak

▪ Konparaziozko adjektiboak eta adjektibo superlatiboak.

▪ Izenordain pertsonalak, kasuak: nor, nork, nori, norekin, norena.

▪ Aditz aspektuen oinarritzko ezagutza.

▪ Aditz trinkoak indikatiboko orainaldian: izan, ukan, egon, joan, etorri, ibili.

▪ Indikatiboko lehenaldiko singularreko lehen eta hirugarren pertsona, aditz aspektu burutuak (nor, nor-nork, nor paradigmak 3. pertsonan).

▪ Izan eta ukan aditzen indikatiboko lehenaldiko singularreko lehen eta hirugarren pertsona, aditz aspektu burutugabea.

▪ Nor-nori paradigmaren ikasketa eta erabilera (nor 3. pertsonan), indikatiboko orainaldian, aditz aspektu burutugabea.

▪ Deklinazio formak singularrean: nongoa, nori, norentzat.

▪ Noren kontra postposizioa.

▪ Nominalizazioa (-tzea, -tzero, -tzero...).

▪ Baiezko perpaus osagarria.

▪ Ezezko esaldien ordena. Ezezkoa eta partitiboa.

▪ Euskarazko jarraibide kontzeptuak erabiltzea: pisua, neurria, abiadura, bolumena.

▪ Denborazko markagailu eta lokailuak. Behin batean, egun batean, handik gutxira, laster, orduan...

▪ Adostasuna eta desadostasuna adierazteko, iritzia eta arazoak emateko, sentimenduak eta gustuak eta ezjakintasuna adierazteko komunikazio funtzioak: ados nago, ez nago ados, uste dut, ez dut uste, -(e)lako, gustuko dut, ez dut gustuko, gogoko dut, ez dut gogoko, ez dakit etorri den.

▪ Transferentziak identifikatzea eta euskaren eta beste hizkuntza batzuen arteko interferentzia morfologiko eta sintaktikoak ezagutzea.

▪ Euskara egoera desberdinetan zuzentasunez erabiltzeko interesa, gero eta denbora gehiagoz, adierazpideen zuzentasunari eta egokitasunari erreparatuz.

▪ Ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik abiatuta, euskararen funtzionamenduari buruzko konparaketa eta gogoeta.

▪ Testu produkzioaren oinarritzko estrategiak erabiltzea (hartzaila hautatu, helburua, plangintza, zirriborroa egin, testua berrikusi eta amaierako bertsioa) oso egituratuta dauden ereduak erabiliz.

4. multzoa.–Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia

▪ Euskara eta euskalkiak eta gainerako hizkuntzak komunikatzeko eta harremanak izateko bitarteko gisa baloratzea, eta komunikabideen bitartez –telebista, irratia, egunkaria edo aldizkariak– informazio berriak lortzeko bide gisa.

▪ Norberaren kultura baloratzea, beste kultura batzuen ezagutzatik eta baloraziotik abiatuz.

▪ Eguneroko ohiturak eta giza harremanetako moduen erabilera ezagutzea (jokoak, bertako kirola...).

▪ Hizkuntzarekiko eta kulturarekiko jarrera harbera izatea eta balorazio positiboa egitea.

▪ Euskal hiztunekin teknologia berriak eskaintzen dizkiguten bitartekoak erabiliz harremanak izateko eta komunikatzeko interesa izatea.

▪ Bertako literatur eta arte produkzioak ezagutzea esate baterako, bertsoak, atsoitzak, leloak, olerkiak, abestiak, aho-korapiloak, asmakizunak eta narrazioak.

5. multzoa.–Ikaskuntzari buruzko gogoeta.

▪ Trebetasunak eta prozedurak erabiltzea –errepikapena, buruz ikastea, hitzak eta adierazpideak keinuekin eta ikusizko elementuekin erlazionatzea eta ereduak behatzea, testuak irakurtzea, multimedia euskarriak erabiltzea– hitz berriak eta hizkuntzaren egiturak barnertzeko.

▪ Ikaskuntzaren kontzientzia eta autonomia gero eta handiagoa. Gogoeta ikaskuntzari berari buruz eta lanaren antolamenduari buruz, eta akatsak onartzea ikaskuntza, autozuzenketa eta autoebaluazio prozesuaren atal gisa.

▪ Ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik abiatuta, euskararen funtzionamenduari buruzko konparaketa eta gogoeta.

▪ Kantsularako eta informaziorako bitarteko grafikoei eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak gero eta gehiago erabiltzea.

▪ Internet erabiltzera jotzea ikasgelan proposaturiko jarduerak garatzeko eta hizkuntzari buruz dauzkagun ezagutzak zabaltzeko behar den dokumentazioa lortze aldera.

▪ Konfiantza izatea euskara ikasteko norberak daukan gaitasunean eta lankidetzan aritzea baloratzea.

▪ Baloratzea hizkuntza ikasteko, antolatze eta ezagutzak transmititzeko tresna bat dela.

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Internetez baliatzea informazio iturri gisa eta posta elektronikoa erabiltzen hastea.

▪ Taldean lan egiteko estrategietan aurrera egitea eta sakontzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Komunikazio egoera desberdinetan emandako ahoko testuetan esanahi orokorra harrapatzea eta berariazko informazioak identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da neska-mutilak gai diren beren inguruneari, oinarritzko informazio pertsonal eta familiarri, jokoei, kirolei, beste arlo batzuetako edukiei eta intereseko beste gai batzuei buruz hitz egitean maiz erabiltzen diren adierazpideak eta hiztegia ulertzeko, eta mezu, informazio eta elkarrizketa argi eta errazak ulertzen ote dituzten.

2. Auresateko moduko komunikazio egoeretan gai ezagunei buruzko eguneroko elkarrizketa familiarrik izatea, elkartrukearen oinarritzko arauak errespetatuz; esate baterako, entzutea eta hitz egiten duenari begiratzea.

Irizpide honekin egiaztatzen nahi da ikasleak gai ote diren eguneroko egoeretan ezagutzen diren edo alde aurretik landu diren gaietan komunikatzeko eta berehalako beharrik adierazteko; esate baterako, eskariak egin, jarduera antolatu, taldean lan egin eta argitasunak eska-

tzea. Ebaluatu nahi da familiari eta beste pertsona batzuei buruz, eguraldiari, jantziari, liburuari, jokoei eta arlo desberdinetako edukiei buruz modu errazean hitz egiterakoan adierazpide eta esaldiak erabiltzeko gaitasuna.

Irizpide honekin baloratuko da, halaber, ikasleak elkartrukeetan parte hartzeko duen jarrera, eta interesa erakusten duen gainerako esku-hartzei buruz.

3. Irakurri eta berriazko informazioa aurkitzea, zuzeneko inferentziak egitea eta intereseko gaietarako buruzko testu desberdinak ulertzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da gero eta hiztegi zabalagoa eta adierazpide konplexuagoak dituzten testu mota desberdinak irakurtzeko eta ozenki irakurtzeko gaitasuna; horretarako erabiliko dira ipuin eta olerki egokituak edo benetakoak, errezetak, menuak, liburuxkak, publikitateak, arauak, gutunak..., eta idatziaren ulermenaren oinarriko estrategiek landuko dira. Baloratuko da ikasleak gai diren testuetan informazio edo ideia esanahidunak detektatzeko eta ulertzeko, eta gauza ote diren azaleko esanahiaz haratago joan eta testuan oinarrituriko zuzeneko inferentziak ateratzeko. Halaber, ebaluatuko da idatziaren ulermenarekin loturiko funtsezko estrategiak nolabaiteko autonomiaz erabiltzen diren, esate baterako, testuinguru linguistikoko eta ez-linguistikoko elementuak erabiltzea eta ezagutzen diren beste hizkuntza batzuetatik ezagutzak transferitzea.

4. Testu idatziak lantzea hartzailea, testu mota eta xedea aintzat hartuz, bai paperean, bai euskarri digitalean.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek, ereduetatik abiatuta, testu laburrak sortzeko gaitasuna duten, betiere komunikazio egoera osatzen dutenen arabera. Xedea da ebaluatzea ikasleak gai diren, lagunduta, testu desberdinak egiteko, beren intereseko gaietarako buruz eta alde aurretiko ezagutzei buruz –bereziki lehen hizkuntzetako transferentziatik heldutakoak–; Honako testuak, esate baterako: eskariak, jarraibideak, gutunak, egunerokoak, deskribapenak eta narrazio laburrak. Testu baten produkzio faseetan jarritako arreta berriaz baloratuko da: plangintza, testugintza eta berrikuspena.

5. Euskaraz berezko dituen oinarriko forma eta egiturak erabiltzea, esanahi bat komunikatuz, testuinguru desberdinetan, horren barne direla eritmo, azentu eta intonazio alderdiak.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da neska-mutikoak gai ote diren jardura desberdinetan aktiboki parte hartzen dutenean –esate baterako, jendaurreko azalpen laburrak, berdinen arteko elkarrizketak edo ozenki irakurtzea– soinu, eritmo, azentu eta intonazio alderdiak ezagutzeko eta berriz egiteko, zuzentasun gehiagorekin, ereduetatik abiatuta betiere.

6. Euskaraz hitz egiten den lekuetako ezaugarri, ohitura eta tradizio batzuk identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren euskaraz hitz egiten den lekuetako berezitasun, ohitura eta tradizio ezagunenak identifikatzeko eta elementu soziokultural horiek erlazionatzeko.

7. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea; besteak beste, informazioa lortzeko galdera egokiak egitea, argitasunak eskatzea, hiztegi elebidunak eta elebakarrak erabiltzea, komunikazioa keinuekin laguntzea, euskarri desberdinetan gai ezagunei buruzko informazioa aurkitzea, biltzea eta antolatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa alderatu eta egiaztatzea eta hobeki ikasten lagunduko dioten alderdi pertsonal batzuk identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten oinarriko estrategien erabilpena, hala nola ikusizko eta keinuen bidezko baliabideen erabilpena, ikasleek laguntza eta argibideak eskatzea eta hiztegiak eta oinarriko bitarteko teknologiko batzuk erabiltzea. Halaber, ebaluatuko da ikasleak gai ote diren beren aurrerapenak baloratzeko, eta forma eta egitura erraz eta egunerokoak modu espontaneoan erabiltzeko nolabaiteko autonomia barneratzeko. Helburua da hizkuntzaren erabilpena hari buruzko gogoetarekin laguntzea (lehen hizkuntzan eta besteetan barneratutako pauso eta kontzeptuei jarraituz), testuen produkzioa eta berrikuspena hobetzeko, betiere komunikazio hobea lortze aldera.

8. Interesa erakustea norberaren hizkuntza ez den beste hizkuntza batean hitz egiten duten eta bestelako kultura bat duten pertsonen harremanak izateko, eta euskara beste pertsona batzuekin komunikatzeko tresna gisa baloratzeko.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai ote diren eleantiztasuna gizarerako aberasgarria den elementu gisa baloratzeko, eta euskal hiztunen berezitasun soziokulturalak identifikatzeko gauza diren. Halaber, baloratuko da hizkuntza pertsonen arteko harremanetarako erabiltzeko egiten den ahalegina (eskola barneko gutunak erabiliak dira); harreman horietarako, teknologia berriak, ahozko elkarreragina edo idatziko komunikazioak erabiliak dira.

INGELES (L2)

Sarrera

Erkidego honetan, haur hezkuntzako etapan Europar Batasuneko hizkuntza bat ikasten hasiko dira ikasleak, eta hizkuntza hori ulertzeko eta horretan hitz egiteko lehenbiziko urratsak egiten dituzte; sistema fonetikoak, lehenbiziko hitzak eta adierazpideak ezagutzen hasiko dira, eta hizkuntzak ikasteko metodologia bera ere bai. Oraingoan, prozesu horretan aurrera egitea dagokigu, lehen hizkuntzaren ikaskuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna garatzen lagunduz.

Halaber, azken urteetan, ingeleseko edukien irakaskuntza sartu da; horren funtsezko helburua da ikasleek hizkuntzen ikaskuntza indartzea.

–hizkuntza egoera mota gehiagotan erabiltzeko aukerak zabaltzen dituelako,

–curriculum arlo desberdinetako edukien ikaskuntza sendotzen duelako,

–hizkuntzaren erabilerari helburu errealistagoak ematen dizkio –hizkuntza modu praktikoagoan erabiltzen da, zeren eta, ikaslearen interesekoak izan daitezkeen gaiez baliatuz, entzuteko, irakurtzeko eta antzeko jarduerak egitea inplikatzeko baitu.

Zeregin edo lan jakin batzuk aurrera eramateko beharrak eta gainerakoekin lankidetzan aritzearen garrantziak ikaslea bultzatzen dute arazoak konpontzera, konponbideak aurkitzera eta emaitzak komunikatzera. Prozesuan inplikaturiko komunikazio lanen eragin moduan ikasten da hizkuntza. Eskolako zeregin guztiak –jarraibideak, azalpenak, iruzkinak...– irakatsi nahi den hizkuntzan egiten dira. Eskola hizkuntza ikasteko eszenatokia eta egoera izaten hasiko da.

Curriculum honen helburuen artean ingelesezko curriculum eduki ez-linguistikoak sartzeko gomendagarri egiten du gai horri buruzko intereseko gaiak zehaztea; hori dela eta, Hezkuntza Departamentuak beste irakasgai batzuetako gaien hautapen bat egiten ahal du, ikasteko ikuspegi horren ezarpena eraginkor egiteko, betiere irakasleek jarduerak, testuak eta prozedurak ezartzeko daukaten ekimena eta askatasuna errespetatuz, Hezkuntza Departamentuak landutako English Through Contents (ETC) proposamen didaktikoan jasotakoaren ildotik.

Helburuak

Etapan honetan, ingelesaren irakaskuntzak helburu izanen du komunikatzeko oinarriko gaitasuna garatzea, eta hori honako gaitasun hauetan jasota dago:

Mezuak entzutea eta ulertzea era askotako hitzezko elkarreraginetan, hizkuntza estandarrean, eta testu horien bidez transmititutako informazioak erabiltzea lan esperientziarekin loturiko lan zehatz eta askotarikoak egiteko.

Gauzak ahoz adierazteko eta elkarreragiteko gauza izatea eduki eta garapen ezagunak dituzten egoera erraz eta ohikoetan, hitzezko eta hitzezkoen besteko prozedurak erabiliz eta errespetuzko eta laguntza jarrera edukiz: gustuak, desioak, irizkiak, sentimenduak edo gai bati buruzko informazio soilak adieraztea.

Testu askotarikoak eta egokiak ulertuz irakurtzea, eta haietatik informazio orokorra eta berriazkoa ateratzea alde aurretik ezarritako xede jakin batekin. Irakurketa entretentzeko eta informatzeko iturri gisa baloratzeko.

Era askotako testuak, xede desberdinekin, idaztea, ikasgelan aurretik landutako gaietarako buruzkoak, ereduaz baliatuz.

Adierazpen egokia lortzeko behar diren hitzak barneratzea, hiztegia eta teknika lagungarriak erabiliz, eta liburutegiaz oinarriko baliabide gisa baliatuz.

Atzerriko hizkuntzaren alderdi fonetikoak, eritmoari doakionak, azentuek eta intonazioa identifikatzea; egitura linguistikoak eta alderdi lexikoak ere ezagutzeko, eta haiek komunikazioaren oinarriko osagai gisa erabiltzea.

Dimentsio soziokulturala ezagutu eta lantzea.

Atzerriko hizkuntzaren bidez informazioa lortzeko eta komunikatzeko eskura dauden bitarteko guztiak, teknologia berriak barne, gero eta autonomia gehiago erabiltzen ikastea.

Hizkuntzak jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen arteko komunikaziorako eta horiek elkar ulertzeko bitarteko gisa baloratzeko.

Harbera izatea, interesa agertzea eta norberaren buruarekiko konfiantza jarrera edukitzea hizkuntza ikasi eta erabiltzeko gaitasuna dela eta.

Beste hizkuntza batzuen alde aurretiko ezagutza eta esperientziez baliatzea hizkuntza modu azkarrago, eraginkorrago eta autonomoago batez barneratzeko.

Ikaskuntzarako azalekiak eta trebetasunak barneratzea eta komunikaziora buruzko ezagutzak eta estrategiak beste hizkuntza batzuetara transferitzea. Hizkuntza hau gero eta gehiago erabiltzea arloetako edukien ikasteko bitarteko gisa.

Lehen zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

▪ Ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea. Horren barrenean sartzan da ulermena eta ahozko adierazpena artikulatzeko ezinbestekoa den sistema fonologikoaren ezagutza.

▪ Ikasleek ikasten dute ahozko hizkuntza oinarriko lanetan erabiltzen: beren buruari buruz hitz egitea, gainerakoek adi entzun eta uler dezaten lortzea, arazoei konponbidea ematea, interesatzen zaion informazioa eskatu eta ematea... bai eskolako giroan, bai gizarteko egoeretan. Bere ahalmenean arabera, honakoak egitea lortuko du: deskribatzea, azaltzea, kontatzea, arrazoiak, ideiak, iritziak ematea, iragartzea, galdetzea, argitzea, iritzia izatea. Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaile moduan landuko dituzte, batez ere.

▪ Ahozko mezu errazak ulertzea ikasgelan lanak egiteko.

▪ Ikus-entzunezko euskarrietatik eta euskarri informatikoetatik heldu diren mezu errazak entzun eta ulertzea.

▪ Ahozko elkarreragina egoera errealean edo simulatuetan, komunikazio errutinen bidez lortutako ahozko eta ahaz besteko erantzunak erabiliz.

▪ Aldez aurretik ezagutzen diren ahozko testuak produzitzea, errutina, antzespen konpartituak, abesti, errezitate eta dramatizazioetan aktiboki parte hartuz.

▪ Oinarriko estrategiak erabiltzea ahozko adierazpenean laguntzeko: ikusizko testuingurua eta hitzez bestekoa erabiltzea, eta gaiari edo egoerari buruzko aldez aurreko ezagupenak –ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik ikasten ari den hizkuntzetara transferitutakoak– erabiltzea.

▪ Taldeko jardueretan (abestiak, dramatizazioak, errutinak...) ahaz parte hartzeko interesa.

▪ Hizkuntzak komunikatzeko tresna gisa baloratzea.

–Testuak:

▪ lpuinak

▪ Azalpenak

▪ Deiak eta jarraibideak

▪ Deskribapenak

▪ Irakaslearekin hizketaldian jardutea.

▪ Galderei erantzutea, galderak egitea, hizketaldia.

▪ Olerkiak, abestiak.

▪ Elkarrizketa (dramatizazioa, role play).

▪ Entzutea eta ulertzea

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Aktiboki entzutea (...oharrak, marrazkiak, galderei erantzutea, jarraibideak, fitxak...).

▪ Ahozko testu errazen esanahi orokorra harrapatzea –testuak eskuragarriak eta esanahidunak izanen dira ikasleentzat–; testu horiek lotura bat izanen dute ikasleen ideiekin edo ikasleen interesekoak diren edo ikasleei jakin-mina sortzen dieten esperientziekin.

▪ Oinarriko estrategiak erabiltzea (testuinguruari, ilustrazioei erreparatzea, galderak egitea, keinuen hizkuntza interpretatzea...) ahazko testu errazak ulertzeko.

▪ Erantzun fisikoak ematea ahazko agindu batzuen arabera.

▪ Eguneroko adierazpenei egoki erantzutea

esate baterako: agurrak, materiala banatzea, oinarriko beharrak, eguraldiaren jarraipena, eskolako gorabeherak (ikasleen bertaratzea, urtebetetzeak) ikasgelan jarduerak antolatzeko jarraibideak.

▪ Ahozko adierazpena eta elkarreragina.

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Aldez aurretik ezagutzen diren ahazko testuak errexitatu edo interpretatzea, antzespen konpartituetan, abestietan, dramatizazioetan, jolasetan (ikusi-makusi).

▪ Ahozko testuak sortzea errutinazko lanetan: data, gelako ardura-duna, eguraldiaren fenomenoak...

▪ Elkarrizketetan eta hizketaldietan lagungarri gertatzen diren oinarriko arauak errespetatzea: arreta, kontzentrazioa, itxarotea, txandak, erantzuna mintzakidearen esku-hartzeari egokitzea...

▪ Parte-hartzea gelako ohiko elkarreragin linguistikoa (funtsean, memorizatutako formulak erabiliz): baiezkua edo ezezkoa esatea, galdetzea eta erantzutea... eskatzea, eskerrak ematea, barkamena eskatzea, jarraibide bat ematea, gustua adieraztea...

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

Irakurtzeko behar diren trebetasunen –testua deskodetzea eta irakurketa funtzionala– eskuratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatzizko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berariazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak

eta narratiboak baloratzea). Oso garrantzitsua da irakurzaletasuna bultzatzea, gozamenerako eta prestakuntzarako iturri gisa.

Idatzizko adierazpenaren konplexutasuna dela eta, beharrezkoa da lotura estua ezartzea ahazko hizkuntza eta lehen hizkuntza lantzearekin. Horrek bidea emanen du ikaskuntzak indartu eta barneratzeko. Esaldia deskribatetik eta menperatetik abiatuta, testu laburrak sor daitezke (azalpena, narrazioa) eta idazkiei koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta aberastasuna ematen dieten oinarriko prozedurak barnera daitezke. 4. multzoko ezagutzak bereziki beharrezkoak dira idatzizko adierazpenean nahi den heldutasuna lortzeko, haien aplikazio praktikoa bilatzeko. Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaile moduan landuko dituzte, batez ere.

▪ Ahozko elkarreragin errealean edo simulatuetan aktiboki parte hartuz aurretik ezagututako hitz eta esaldi errazak irakurtzea.

▪ Irakurtzeko estrategiak erabiltzen hastea: ikusizko testuingurua eta hitzeko testuingurua erabiltzea eta gaiari edo egoerari buruzko aldez aurreko ezagupenak –ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik transferitutakoak– erabiltzea.

▪ Irakurketa baloratzea. Ikasleen gaitasun eta interesetarako egokiak diren testuak irakurtzea, irakurketaz gozatzeko.

▪ Ahozko elkarreragineta aktiboki parte hartuz aurretik ezagututako hitz eta esaldiak idaztea, eta gero, haiek irakurri behar diren jardueretan informazioa transmititu eta konpartitzea, edo horrekin jolas egitea.

▪ Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa.

▪ Hezkuntzarako programa informatikoak erabiltzen ikastea, mezu errazak irakurtzeko eta idatzeko.

–Testuak:

▪ lpuinak, deskribapenak, azalpenak.

▪ Deiak eta jarraibideak.

▪ Galderen erantzunak

▪ Olerkiak, abestiak.

▪ Postalak, gonbidapenak, gutunak, zerrendak

▪ Argazki-oina.

–Trebetasunak eta estrategiak

▪ Ozenki irakurtzea, irakurtzen ikastea

▪ Ingelesean irakurtzen hastea, sekuentziekin hasiz (soinuak, hitzak, testuak...) lehenbizi alderdi erregularrenak barneratuz. Maiz erabiltzen diren hitz batzuk nola irakurtzen diren buruz ikastea.

▪ Letren soinuak eta izenak ezagutzea. Jakitea letra batzuek soinu bat baino gehiago izan dezaketela.

▪ Soinuak, letrak, silabak, hitzak eta esaldiak abesti, olerki, istorio edo bestelakoetan identifikatzea. Irakasleak irakurritako azkenaren ondorengo hitzak irakurtzea, irakasleak etenak egiten dituenetan.

▪ Irakasleak irakurtzen duena entzutea, irakurtzen duena seinalatzeko duen bitartean.

▪ Galderen intonazioa.

▪ Irakasleak bere gaitasunaren arabera liburua txikiak irakurtzea.

▪ Ikasteko irakurtzea (ulertzeko irakurketa)

▪ Idatzizko testu esanahidunen esanahia harrapatzea, irakurketaren oinarriko estrategiak erabiliz: izenburuaren garrantzia, testuinguruari eta ilustrazioei erreparatzea, ezagutzen diren beste hizkuntzetatik transferitutako aldez aurretiko ezagutze baliatzea, galderei erantzutea (egia/gezurra, marrazkian marka bat eginez, marrazkiak eginez eta abar).

▪ Eskuragarriak eta esanahidunak diren idatzizko testu egokiak xedea ezagutzea: gelako horma-irudiak, zerrendak, euskarri grafikoak, gutunak...

▪ Lan jakin bat egiteko jarraibideak ulertzea (esaldi bat marrazki batekin, eskuz egin beharreko lan batekin; hitzak bereiztea, idatziz erantzutea testuinguru jakin bateko aginduei...).

–Idatzizko adierazpena. Estrategiak eta trebetasunak

▪ Ahoz ezagututako hitz eta esaldiak idaztea.

▪ Testu errazak jarraibide batzuen arabera eta ereduak idaztea. (postalak, gonbidapenak, zerrendak, deskribapen laburrak, abestien letrak...).

▪ Denbora-pasak ebaztea (gurutzegramak, letra zopak, bokalak eta abar).

▪ Testu errazak idazterakoan, puntuazioa (puntuak erabiltzea esaldiaren bukaeran), garbitasuna eta irakurgarritasuna bezalako oinarriko alderdiei erreparatzea.

3. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

Ikasleek hizkuntza barneratzeko prozesuari jarraipena ematen zaio, menperatze hobea eta handiagoa bideratuko duten erabilerak sustatuz. Gainera, ikasleen artean erabilerak gogoetatsua sustatuko da, pixkanaka proposatuz produkzioak behatzeko, analizatzeko eta manipulatzeko jarduerak; horiek, oinarriko ezagutza linguistikoen eta terminologiaren kontzeptualizatzea eta eskuratzea bideratuko da. Komunikatzeko

gaitasuna hobetzearen ikuspuntutik justifikatzen da, eta esanahia ematen zaio adin hauetan gramatikaren inguruko gogoetari.

- Hizkuntzaren alderdi fonetikoak, erritmoari doazkionak, azentuak eta intonazioa ezagutzea, eta haiek erabiltzea ahozkoaren ulermenerako eta produktiorako.

- Grafia, ebakera eta esanahia orokorrean lotzea, ezagutzen diren ahozko adierazpideak irudikatzen dituzten eredu idatziak erabiliz.

- Soinuen existentzia ezagutzea. Ingelesezko fonemen ebakera imitatzea, ikaslearen hizkuntzaren aldean bestelakoak direnak barne. Hitzen errimak edo soinu berdinak ezagutu, bereizi eta produzitzea hitzen hasieran edo erdian.

- Irakasleak esandako esaldi eta adierazpideak zuzen errepikatzea, ebakera, erritmo, intonazio eta adierazkortasun egokiek. Esaldi bateko intonazioa bereiztea.

- Soinuak, letrak, hitzak eta perpausak (baiezkoak, ezezkoak, galderazkoak) identifikatzea.

- Alfabetoa. Alfabetoa buruz jakitea. Alfabeto hurrenkeraren hastapenak. Hitz batzuk alfabetoaren hurrenkeraren arabera ordenatzea.

- Letra guztiak ezagutzea.

- Atzerriko hizkuntzaren berezko formak eta egiturak, lehendik erabilitakoak, ezagutzea eta erabiltzea.

- Perpausean hitzak bereiztea.

- Perpausean, subjektuaren eta predikatuaren komunztadurak egitea.

- Testuetan ondoko elementuetako batzuk bereizten eta ordenatzen (esanahiaren, eginkizunaren, morfologiaren arabera) eta identifikatzen hastea:

- Izena, arrunta eta berezia, singularra eta plurala.

- Adjektiboa.

- Aditza, adberbia.

- Hitzegia: eremu semantikoak, sinonimoak eta antonimoak.

- Esaldiak manipulatu eta eraldatzea landutako testuetan.

- Testuen produktzioan oinarriko estrategiak erabiltzen ohitzea, eredu batetik abiatuz: helburua eta edukia definitzea.

- Atzerriko hizkuntza egoera desberdinetan erabiltzeko interesa.

4. multzoa.–Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia

Geletan lantzen diren testuek bere baitan daukate ulermena nabarmen baldintzatzen duten elementu soziokultural ugari; elementu horiek bizitza, gizartea eta kultura ikusteko, ulertzeko eta aintzat hartzeko bestelako modu batzuk adierazten dituzte. Ikasleek ikasiko dute desberdintasunak eta antzekotasunak egiaztatzen, haiek ezagutzen, errespetatzen eta aintzat hartzen, kasua bada. Gaur eguneko komunikatzeko erraztasunek aukera ematen dute beste hizkuntzetako hiztunekin harreman gehiago izateko eta harreman horiek era askotakoak izateko. Haiekin komunikatzerakoan, ezinbesteko egiten da nolabaiteko kultur sintonia bat edukitzea. Gure gizarteak gero eta gehiago exijitzen du kulturartekotasuna eta kultura aniztasuna aintzat hartzea.

- Norberarenaz besteko hizkuntzekiko eta kulturekiko jakin-mina eta interesa.

- Atzerriko hizkuntzan giza harremanetarako oinarriko formak ezagutzea eta ikastea.

- Harbera izatea beste hizkuntza batean hitz egiten duten eta norberarenaz besteko kultura bat duten pertsonak.

- Hizkuntza hori hitz egiten den herrialdeetako alderdi soziokulturalak ezagutzea: agurrak, abestiak, jokoak, ohiturak, jaiak...

- Norbera bizi den lekuko alderdi soziokulturalak eta kasuko hizkuntzan hitz egiten den herrialdeetakoak konparatzea.

- Haien bizitzan, kultura anglosaxoiaren elementuak ezagutzea. Adibidez: Halloween ospatzea, Father Christmas, Mcdonalds, futbola, golf...

5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.

Ikasleek lortu behar dute ikasteko eta lan egiteko estilo pertsonal eta eraginkor bat garatzea, gauzak ulertzeko eta adierazteko dauzkaten estrategiak etengabe hobetzera bideratuko dituen; xedea da ikasleek gero eta modu kontzienteagoak jakitea nola eta noiz ikasten duten eta lan egiten duten gehiago eta hobeki. Argi dago lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta, eztabaida eta adibideak eta abar gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez garatu behar direla.

- Trebetasunak eta prozedurak erabiltzea –errepikapena, buruz ikastea, hitzak eta adierazpideak keinuekin eta ikusizko elementuekin erlazionatzea eta ereduak behatzea– hiztegia eta hizkuntzaren funtsezko formak eta egiturak barneratzeko.

- Hizkuntzari, ikaskuntzari berari eta lanaren antolamenduari buruz gogoeta egitea.

- Kontsultarako eta informaziorako bitartekoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak gero eta gehiago erabiltzea.

- Konfiantza izatea norberak hizkuntzak ikasteko duen gaitasunean.

- Baloratzea hizkuntza gauzak egiteko eta ikasteko tresna bat dela.

- Lanak (fitxak, marrazkiak, liburuak, eskulanak) garbitasunez eta ordenaz egitea, eta haietan xehetasunak zaintzea.

- Erabiltzen diren tresnak eta materialak ordenatzea eta zaintzea.

- Lanak arazoizko denbora batean bukatzen saiatzea.

- Hizkuntza erabiltzea gainerakoekin komunikatzeko, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo.

- Hitz eta adierazpide gehiago ikasteko interesa adieraztea.

Ebaluazio Irizpideak

Ebaluazio irizpideek ziklo bakoitzerako ezarritako oinarriko helburu orokorrak adierazten dituzte. Irizpide horietako bakoitzak eskatzen du kasuan kasuan helburua lortzeko behar diren trebetasun eta estrategia batzuk barneratzea.

1. Ahozko testuen ideia orokorra harrapatzea eta berariazko osagai batzuk identifikatzea, testuinguruaren osagai linguistikoak eta ez-linguistikoak erabiliz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea neska-mutilak gai diren ahozko mezu baten ideia orokorra gero eta hobeki harrapatzeko, aurrez aurreko komunikazio egoeretan, keinuen eta mimikaren laguntzarekin eta behar beste errepikatuz, eta gai diren gako hitzak eta oinarriko adierazpideak ezagutu eta ulertzeko, hain zuzen ere gelako jarduerekin eta eskolako testuinguruarekin lotura dutenak.

2. Ahozko elkarreragin oso zuzenduetan parte hartzea, gai orokorre buruzkoetan, erraz aurreikus daitezkeen komunikazio egoeretan.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai diren modu errazean erantzuteko egindako eskaerei edo jarraibideei, eta informazioak emateko. Elkarreraginak ezagutzen diren gaiei, aldez aurretik landutako gaiei edo berehalako komunikazio beharrek loturiko gaiei buruzkoak izanen dira; esate baterako, agur egitea, nor bere burua aurkeztea, gustuei buruz hitz egitea, komunikazio egoera ezagunetan, esate baterako errutinak, ohiturak, gelako hizkuntza, antzezpenak, errezitateak edo abestiak. Baloratuko da, halaber, ikasleek gelako jardueretan aktiboki parte hartzeko duten gaitasuna.

3. Ohiko komunikazio testuinguruetan agertzen diren adierazpideen soinu, erritmo, azentu eta intonazio alderdiak ezagutu eta egitea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak, adierazpideak entzuten, errepikatzen eta aurrez aurre aktiboki parte hartzen dutenean, eta ozenki irakurtzeko jardueretan, soinu, erritmo, azentu eta intonazio alderdiak ezagutzeko eta berriz egiteko gauza ote diren, ereduetatik abiatuta bertutea.

4. Aurretik ahoz aurkeztutako hitzak eta esaldi errazak, gai ezagunei eta interesekoei buruzkoak, irakurri eta identifikatzea.

Irizpide honekin irakurtzeko eta era guztietako jardueren bidez ahoz ezagututako hitzak eta esaldiak ulertzeko gaitasuna ebaluatu nahi da. Irakurketak ikusizko eta hitzezko elementuak hartuko ditu oinarri, adierazpide horiek agertzen direneko testuinguruari buruzkoak, eta jolas eta komunikazio jardueren atal bat izanen da.

5. Hitz eta adierazpide ezagunak idaztea ereduak erabiliz eta xede jakin batekin.

Irizpide honekin ebaluatuko da ea ikasleak gai diren ahoz eta maiz erabilitako hitzak eta esaldi errazak, jarduera aniztan errepikatutakoak, idazteko. Eredu bat behatuz hasiko dira, eta funtzionaltasun jakin bat daukan lan zehatz bateko –esate baterako ohar bat idaztea, horma-irudi bat egitea, urtebetetzea zoriontzea edo abesti edo olerki bat osatzea– atal bat izan behar du.

6. Interesa eta jakin-mina erakustea hizkuntzak ikasteko, eta ulertzeko hizkuntzen aniztasuna aberasgarria dela.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek atzerriko hizkuntza ikasteko parte hartzen duten, ahaleginak egiten dituzten eta interesa erakusten duten. Halaber, baloratuko da ea leku desberdinetako pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ezagutzearen garrantziaren kontzientzia hartzen duten, eta hizkuntzen aniztasuna guztientzat aberasgarria den elementu gisa aintzat hartzen duten.

7. Segmentazioen bitartez, ordenan eginiko aldaketak, kenketak eta txertaketak, hitzak, esakuneak eta testuak behatzea, ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena hobetzeko.

Helburua da ebaluatzea ordena-aldaketek, segmentazioek, kenketek eta txertaketek esakuneetan eta testuetan sortzen dituzten eraginak behatzeko gaitasuna, halako moduan non identifikatuko diren bai idazketan eta ahozko adierazpenean gertatzen diren arazoak, bai ulertzeko zailtasun batzuen jatorria; azken batean, gogoeta hori jarduera horiek hobetzeko erabiltzea bilatu nahi da.

8. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten oinarriko estrategien erabilpena, hala nola ikusizko eta keinuen bidezko baliabideak erabiltzea, ikasleek laguntza eta argibideak eskatzea, ikusizko hiztegiak erabiltzea eta egiten dituzten aurrerapenen balorazioa –oso oinarrikoa bada ere–.

Halaber, baloratuko da nolabaiteko autonomia eskuratzea forma eta egitura erraz eta egunerokoak modu espontaneoan erabiltzeko. Helburua da hizkuntzaren erabilpena hari buruzko gogoetarekin laguntzea (lehen hizkuntzan eta besteetan barneratutako pauso eta kontzeptuei jarraituz), testuen produkzioa eta berrikuspina hobetzeko, betiere komunikazio hobea lortze aldera.

Bigarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

1.1. Ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea. Horren barnean sartzen da ulermena eta ahozko adierazpena artikulatzeko ezinbestekoa den sistema fonologikoaren ezagutza.

Ikasleek ikasten dute ahozko hizkuntza oinarritzko lanetan erabiltzen: beren buruari buruz hitz egitea, gainerakoek adi entzun eta uler dezaten lortzea, arazoei konponbidea ematea, interesatzen zaion informazioa eskatu eta ematea... bai eskolako giroan, bai gizarteko egoeretan. Bere ahalmenen arabera, honakoak egitea lortuko du: deskribatzea, azaltzea, kontatzea, arrazoiak, ideiak, iritziak ematea, iragartzea, galdetzea, argitzea, iritzia izatea. Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaile moduan landuko dituzte, batez ere.

- Ahozko mezu gero eta konplexuagoak entzutea eta ulertzea; esate baterako, jarraibideak edo azalpenak, ahozko elkarreragin gidatuak edo multimedia grabazioak, informazio orokorra eta informazio zehatzen bat ateratzeko.

- Ahozko elkarreragina egoera erreal edo simulatuetan, hitzeko eta hitzez besteko erantzunak ematen; erantzun horiek aukera gutxi batzuen artean hautatzekoak izanzen dira, gidatuak izatetik gero eta urrunago dauden testuinguruetan.

- Aldez aurretik ezagutzen diren ahozko testuak sortzea, parte-hartze aktiboa edukiz antzezpen konpartietan, abestietan, errezitateetan, dramatizazioetan, elkarreragin gidatuetan... edo bestela, laguntza eta eruduekin aldez aurretik prestatutakoetan.

- Oinarritzko estrategiak erabiltzea ahozkoaren ulermenean eta adierazpenean laguntzeko: ikusizko testuinguru eta hitzez besteko testuinguru erabiltzea, eta gaiari edo egoerari buruzko aldez aurreko ezagupenak –ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik transferitutakoak– erabiltzea.

- Banakako edo taldeko jardueretan (abestiak, dramatizazioak, taldeko lanak...) gauzak ahoz adierazteko interesa.

–Testuak:

- Aurreko etapan aipatutakoetatik, batez ere: ipuinak, olerkiak, azalpenak, deskribapenak; eta gainera:

- Elkarrizketak

- Inkestak

- Albisteak

- Errezetak

- Arauak (joko batenak, gelakoak...).

- Entzutea eta ulertzea

–Trebetasunak eta estrategiak

- Hitzun desberdinek euskarri desberdinetan sortutako ahozko testu esanahidunen esanahia harrapatzea, eta ulertzeko oinarritzko estrategiak erabiltzea.

- Entzundakoaren aurretik, entzun bitartean eta entzun ondoren (testuinguruari erreparatzea, izenburuaren esanahia ezagutzea edo ideia nagusia laburtuko duen izenburu bat ematea, galderei edo lanei erantzuna emateko gai izanez).

- Informazioaren garrantzia baloratzea:

- orokortzeak, adibideak, egitateak/iritziak, gako hitzak, zuzeneko inferentziak. Gai edo ideia nagusia harrapatzea ahozko testu batean. Testu bati izenburu egokia jartzea.

- Elkarrizketetan parte hartzen dutenak identifikatzea eta haien esku hartzeko txandak bereiztea.

- Ahozko adierazpena eta elkarreragina.

–Trebetasunak eta estrategiak

- Ahozko testu errazak buruz ikastea, antzeztea eta errepikatzea, ikasgelako lanetan eta jolasetan jardun ahal izateko: jarraibideak eman edo galderak egitea, elkarrizketetan parte hartzea (arreta erakartzea, entzutea eta hitz egiteko txanda errespetatzea, hizketaldia hastea eta amaitea), informazio pertsonala eskatzea.

- Ahozko testuak sortzea, komunikazio egoeraren ezaugarriak identifikatuz eta, betiere, intonazio egokia erabiliz: galdetzea; zorianak ematea, onartzea, gaitzestea, deitoratzea, eguraldia aurreratzea, arrazoiak ematea, iritzia ematea.

- Ahozko testuak sortzea gidoi baten, ereduaren laguntzarekin... errutinak erabiltzen diren testuinguru batean; esate baterako: jarraibideak eta deskribapenak (pertsonak, gauzak, animaliak, eszenak) ereduaren laguntzarekin.

2. multzoa.–Irakurtzea eta idaztea.

Irakurtzeko behar diren trebetasunen –testua deskodetzea eta irakurketa funtzionala– eskuratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatziko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio berariazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narratiboak baloratzea). Oso garrantzitsua da irakurzaletasuna bul-tzatzea, gozamerako eta prestakuntzarako iturri gisa.

Idatziko adierazpenaren konplexutasuna dela eta, beharrezkoa da lotura estua ezartzea ahozko hizkuntza eta lehen hizkuntza lantzearekin. Horrek bidea emanen du ikaskuntzak indartu eta barneratzeko. Esaldia deskribatetik eta menperatetik abiatuta, testu laburrak sor daitezke (azalpena, narrazioa) eta idazkiei koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta aberastasuna ematen dieten oinarritzko prozedurak barnera daitezke. 4. multzoko ezagutzak bereziki beharrezkoak dira idatziko adierazpenean nahi den heldutasuna lortzeko, haien aplikazio praktikoa bilatzekotan. Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaile moduan landuko dituzte, batez ere.

- Testu mota desberdinak irakurri eta ulertzea, betiere ikasleen gaitasun linguistikoari egokituak, informazio orokorra eta berariazkoa erabiltzeko, lan bat garatzen ari direnean edo irakurketaz gozatzeko.

- Irakurtzeko estrategiak erabiltzen hastea: ikusizko testuinguruaren elementuak eta ezagutzen diren hizkuntzetatik transferitutako gaiari edo egoerari buruzko aurretiko ezagutzak erabiltzea, informazio nagusia identifikatuz, ezagutzen ez diren hitzen edo adierazpideen esanahia deduzituz.

- Irakurketa baloratzea. Ikasleen gaitasun eta interesetarako egokiak diren testuak irakurtzea, irakurketaz gozatzeko.

- Eredu desberdinak erabiliz, testu errazak egitea, haiek egiteko ahoz nahiz haien irakurketara ohitzea inplikatzeko duten jardueren bitartez ongi ezagututako adierazpide eta esaldiak erabiliz, informazioa transmititzeko eta konpartitzeko, edo komunikazio asmo desberdinekin.

- Testu produkzioaren oinarritzko estrategiak ezagutzen eta erabiltzen hastea (hartzailea hautatu, helburua, plangintza, zirriborroa egin, testua berrikusi eta amaierako bertsioa) oso egituratuta dauden ereduak erabiliz.

- Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa.

–Testuak:

- Aurreko etaparako aipatutakoetatik, batez ere: ipuinak, olerkiak, azalpenak; eta gainera:

- Adiskidantza gutunak

- Albisteak, iragarkiak

- Kontaerak (biografia) eta azalpen luzeak

- Deskribapen luzeagoak eta sistematikoak

- Errezetak

–Trebetasunak eta estrategiak

- Ozenki irakurtzea

3. multzoa.–Hizkuntzaren ezagutza.

Ikasleek hizkuntza barneratzeko prozesuari jarraipena ematen zaio, menperatze hobea eta handiagoa bideratuko duten erabilera sustatuz. Gainera, ikasleen artean erabilera gogoetatsua sustatuko da, pixkanaka proposatuz produkzioak behatzeko, analizatzeko eta manipulatzeko jarduerak; horiekin, oinarritzko ezagutza linguistikoaren eta terminologiaren kontzeptualizatzea eta eskuratzea bideratuko da. Komunikatzeko gaitasuna hobetzearen ikuspuntutik justifikatzen da, eta esanahia ematen zaio adin hauetan gramatikaren inguruko gogoetari.

2.1. Hizkuntzari buruzko gogoeta

- Atzerriko hizkuntzaren alderdi fonetikoak, erritmoari doazkionak, azentuak eta intonazioa ezagutzea, eta haiek erabiltzea ahozko testu txikiak ulertzeko eta sortzeko funtsezko alderdi gisa.

- Ezagutzen diren eta maiz erabiltzen diren hitzen azentua (stress) ezagutzea.

- Grafia, ebakera eta esanahia lortzea, idatziko ereduetatik eta ezagutzen diren ahozko adierazpideetatik abiatuta, eta grafia-soinua erlazio analitiko seguruak ezartzea.

- Atzerriko hizkuntzaren lehendik erabilitako berezko hiztegia, formak eta egiturak ezagutu eta erabiltzea, eta haiek lotzea ezagutzen dituen hizkuntzetan erabiltzen dituenekin.

- Hitzak kategoriatan morfosintaktikotan sailkatzea:

- Izenordainak –narrazioa 1. eta 3. pertsonan–, deskribapena eta elkarrizketa.

- Aditz laguntzaileak ezagutzea.

- Aditzen denbora ezagutzea. Denborazko adberbio ohikoenak identifikatzea.

- Preposizioak, juntagailuak.

- Esaldiak galderazko, ezezko bihurtzea.

▪ Oinarrizko puntuazioa: puntua, koma, galdera eta harridura ikurrak.

▪ Esaldi baten egitura ezagutu eta menperatzea (subjektua, aditza, adjektiboak izenarekiko duen lekua...). Esaldia esanahia duen unitate gisa. Testu idatzi bateko perpaus bakunak identifikatzea. Perpaus batean elementuen ordenak duen garrantzia ezagutzea, perpausa koherentea izan dadin.

▪ Perpaus mota desberdinak zuzen egitea.
▪ Adjektiboak (konparaziozkoak eta superlatiboak) eta adberbioak egoki erabiltzea, egitura biziagoa edo zehatzagoa egiteko.

▪ Hiztegia: eremu semantikoak, hitzen familiak sinonimoak eta antonimoak. Norberaren produkzioetan sinonimoak eta antonimoak zuzen eta egoki erabiltzea. Polisemia. Hizkuntza figuratua.

▪ Erreferentziako iturriak erabiltzea hitzen esanahia argitzeko.
▪ Testu zatiak manipulatu eta eraldatzea. Egindako behaketak sistematizatzea.

▪ Bitarteko desberdinak erabiltzea irakurtzen diren liburuak hobeki ulertzen saiatzeko: glosarioa –liburuak halakorik badu–, ilustrazioak (picture dictionaries), irakasleari, ikaskideei galdetzea.

▪ Hizkuntza egoera desberdinetan zuzentasunez erabiltzeko interesa.

▪ Irakurtzerakoan, gelan maizen landutako hitzen azentu fonikoa (stress) ezagutzea. Ingeleseko kontsonanteen soinua ohikoen duten grafiarekin lotzea. Ezagutzea zein diren ingelesez bereizgarriak edo ohikoenak diren erregulartasun edo letra-multzokoak (clusters, digraphs, blends...) eta nola ahoskatzen diren: ph, ch, ght, sh, sp, st, eta abar.

▪ Ozenki irakurtzea eta ebakera eta intonazio egokiarekin, gelan aurretik prestatutako testu laburrak. Olerkiak, elkarrizketak edo irakurritako antzezlanak interpretatzea.

▪ Ikasteko irakurtzea (ulertzeko irakurketa)
▪ Irakurtzeko estrategien erabilera gidatua (ikusizko testuinguruaren elementuak erabiltzea, irakasleak irakurritakoa entzutea, ozenki eta isilik irakurtzea eta ezagutzen diren hizkuntzetatik transferitutako gaiari edo egoerari buruzko aurretiko ezagutzak erabiltzea), informazio nagusia identifikatuz, ezagutzen ez diren hitzen edo adierazpideen esanahia deduzituz, testuinguruan, gaien, egoeran, hitzaren funtzioan eta atziki eta aurrizkietan bermatuz. Izenordain bat ordeztzen duen pertsonarekin edo gauzarekin lotzea.

▪ Berezitea testu bateko aditzak lehenaldia, orainaldia edo geroaldia diren.

▪ Testu bat ulertzea, haren gakoak inferituz eta galdera batzuei erantzunez.

▪ Testu batean berariazko informazioa aurkitzea, galderei egia/gezurra erantzunez, edo aukera anitzeko galderei erantzunez, edo geziez erantzun beharrekoak, edo sekuentziak kronologikoki ordenatzea... eta galdera irekiei erantzutea.

▪ Narrazioaren oinarrizko elementuak ezagutzea: pertsonaiak, lekua, denbora, gertaeren sekuentzia, egituraren sekuentzia: aurkezpena, arazoa, korapiloa eta amaiera.

▪ Irakurritako testuen laburpenak egitea.
▪ Idatzizko adierazpena. Estrategiak eta trebetasunak
▪ Testu bat irakurtzerakoan bameratutako hiztegia idaztea eta buruz ikastea.

▪ Idazki laburrak egitea (deskribapenak eta gutunak, batez ere), ereduak imitatuz eta haietan aldaketa txikiak sartuz. Semantikoki eta gramatikalki zuzenak diren esaldiak osatzea, ilustrazio bat deskribatuz... (ereduzko esaldiez, aukera desberdinak eskaintzen dituzten taulez eta abarrez baliatuz).

▪ Gutun bat idaztea dagokion egitura errespetatuz: data, agurra, aurkezpena, eskaria, bukaerako agurra eta sinadura. Gutun-azalean agertzen diren datuak idaztea: igorlea eta hartzailea.

▪ Datu pertsonalei buruzko informazioa biltzea, alde zuzeneko eza-ritako gidoi bati jarraituz.

▪ Errezeta baterako behar diren osagai eta tresnen zerrenda idaztea.

▪ Idatzitako testu errealetatik jasotako informazioa interpretatzea (iragarkiak, telebistako programazioa...), geroko ekintza bat programatzeko.

▪ Norberaren eta beste ikaskide batzuen testuetan akats ortografikoak zuzentzea. Puntua, koma...

▪ Informazioaren eta komunikazioaren teknologiez baliatzea sekuentzia didaktikoetan landutako ezagutzak indartzeko edo zabaltzeko.

4. multzoa.–Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia

Gelatan lantzen diren testuek bere baitan daukate ulermena nabarmen baldintzatzen duten elementu soziokultural ugari; elementu horiek bizitza, gizartea eta kultura ikusteko, ulertzeko eta aintzat hartzeko bestelako modu batzuk adierazten dituzte. Ikasleek ikasiko dute desberdintasunak eta antzekotasunak egiaztatzen, haiek ezagutzen, errespetatzen eta aintzat hartzen, kasua bada. Gaur eguneko komunikatzeko erraztasunek aukera ematen dute beste hizkuntzetako hiztunekin ha-

rreman gehiago izateko eta harreman horiek era askotakoak izateko. Haiekin komunikatzerakoan, ezinbesteko egiten da nolabaiteko kultur sintonia bat edukitzea. Gure gizarteak gero eta gehiago exijitzen du kulturartekotasuna eta kultura aniztasuna aintzat hartzea.

▪ Hizkuntzak ikasteko interesa izatea eta kasuko atzerriko hizkuntzan hitz egiten den herrialdeetako pertsoneri eta kulturari buruzko informazioa ezagutzea.

▪ Norberaren kultura baloratzea, beste kultura batzuen ezagutzatik eta baloraziotik abiatuz.

▪ Eguneroko ohituretan dauden antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea eta giza harremanetako oinarrizko formak erabiltzea kasuko hizkuntzan hitz egiten den herrialdeetan eta gurean.

▪ Jarrera harbera izatea beste hizkuntza batean hitz egiten duten eta norberarenaz besteko kultura bat duten pertsonetara.

▪ Gaztelaniara sartzen ari diren ingelesezko hitzak ezagutzea. Adibidez: fútbol, güisqui, stop....

▪ Benetako materialetatik informazio nabarmenena eta zuzenena ateratzea: etiketak, produktuen zehaztapenak (osaketa, pisua, tamaina eta abar), txanponak, liburuxkak, web orriak...

▪ Atzerriko hizkuntzan hitz egiten den erkidegoetako elementu soziokultural bereizgarri batzuk ezagutzea, esplizituki edo inplizituki agertzen direnak ikasgelan landutako hizkuntza-laginetan.

5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.

Ikasleek lortu behar dute ikasteko eta lan egiteko estilo pertsonal eta eraginkor bat garatzea, gauzak ulertzeko eta adierazteko dauzkaten estrategiak etengabe hobetzera bideratuko dituena; xedea da ikasleek gero eta modu kontzienteagoak jakitea nola eta noiz ikasten duten eta lan egiten duten gehiago eta hobeki. Argi dago lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta, eztabaida eta adibideak eta abar gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez garatu behar direla.

▪ Ezagutzen dituen hizkuntzetan erabiltzen dituen estrategiak konparatzea.

▪ Trebetasunak eta prozedurak erabiltzea –errepikapena, buruz ikastea, hitzak eta adierazpideak keinuekin eta ikusizko elementuekin erlazionatzea eta ereduak behatzea, testuak irakurtzea, multimedia euskarriak erabiltzea eta bestelakoak– hitz berriak eta hizkuntzaren forma eta egiturak barneratzeko.

▪ Kongsultarako eta informazioarako bitartekoak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak gero eta gehiago erabiltzea.

▪ Gogoeta ikaskuntzari berari buruz eta lanaren antolamenduari buruz, eta akatsak onartzea ikaskuntza prozesuaren atal gisa. Autozuzenketaren eta autoebaluazioaren hastapenak.

▪ Konfiantza izatea norberak hizkuntzak ikasteko duen gaitasunean.

▪ Baloratzea hizkuntza gauzak egiteko, antolatzeke, ikasteko, jolasteko eta gozatzeko tresna bat dela.

▪ Maiz parte hartzea eta elkar eragitea. Hizkuntza modu espontaneoan erabiltzea gainerakoekin komunikatzeko, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo.

▪ Taldean lan egitea, ezagutzen eta gaitasunen ekarpena eginez eta gainerakoekin eraginkortasunez lan eginez.

▪ Lanak (fitxak, marrazkiak, liburuko ariketak, eskulanak...) garbitasunez egitea, eta xehetasunak zaintzea. Gelako koadernoak, egindako fitxak eta abar ordenatzea, alde zuzeneko eza-ritako irizpideei jarraituz.

Ebaluazio irizpideak

Ebaluazio irizpideek ziklo bakoitzerako ezarritako oinarrizko helburu orokorrak adierazten dituzte. Irizpide horietako bakoitzak eskatzen du kasuan kasuko helburua lortzeko behar diren trebetasun eta estrategia batzuk barneratzea.

1. Haurrendako ezagunak eta interesekoak diren ahozko testuetan, esanahi orokorra harrapatzea eta berariazko informazioa identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai diren ahozko mezu baten esanahi orokorra harrapatzeko, komunikazioko egoeran presente dauden elementu linguistikoen eta ez-linguistikoen laguntzarekin. Adierazpen zabalagoetan agertzen diren hitz eta adierazpen ezagunak ezagutzeko gaitasuna ere neurtu nahi da, baita testu osoa ulertzen ez den kasuetan ere.

2. Aurrerako moduko komunikazio egoeretan gai ezagunei buruzko zuzendutako ahozko elkarreraginetan parte hartzea, elkartrukearen oinarrizko arauak errespetatuz; esate baterako, entzutea eta hitz egiten duenari begiratzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da berehalako beharrak adierazteko gaitasuna; esate baterako, baimena eskatzea, eguneroko gauzak mailerik eskatzea, gauzak edo pertsonak aurkitzea, eguraldiari buruz edo gustu eta trebetasunei buruz hitz egitea. Eguneroko egoeretan ikasleek duten parte-hartzea baloratuko da, hain zuzen ere erudituetan, azturetan, gelako hizkuntzan edo simulazioetan, antzezpenetan, abestietan

edo errezitatzeetan. Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak elkartrukeetan parte hartzeko duen jarrera, bai eta interesa erakusten duen ere gainerako pertsonen esku-hartzeei buruz.

3. Atzerriko hizkuntzak berezko dituen forma eta egitura errazak erabiltzea, esanahi bat komunikatuz, testuinguru desberdinetan, horren barne direla soinu, erritmo, azentu eta intonazio alderdiak.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da neska-mutikoak, adierazpideak entzuten, errepikatzen eta aurreratu aktiboki parte hartzen dutenean, eta ozenki irakurtzeko jardueretan, soinu, erritmo, azentu eta intonazio alderdiak ezagutzeko eta berriz egiteko gauza ote diren, ereduetatik abiatuta betiere.

4. Xede jakin bat duten gai ezagunei buruzko testu errazak irakurri eta esanahi orokorra eta berariazko informazio batzuk harrapatzeko gai izatea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren testu desberdin batzuk irakurtzeko (baita ozenki ere), betiere daukaten komunikazio gaitasunaren araberrakoak; esate baterako, oharrak, gelako arauak, gutunak, horma-irudiak edo ipuinak, hiztegi eta adierazpide ezagunak dituztenak. Haietatik informazio orokorra eta berariazkoa aterako dute, idatziaren ulermenarekin loturiko funtsezko estrategien laguntzarekin; esate baterako, testuinguru linguistikoko eta ez-linguistikoko elementuak erabiltzea eta ezagutzen diren beste hizkuntza batzuetatik ezagutzak transferitzea.

5. Esaldi eta testu laburrak idaztea, xede jakin batekin eta ereduetatik abiatuta eta ezarritako formatu batekin, bai paperean bai euskarri digitalean.

Irizpide honekin baloratu nahi da ikasleak gai diren era askotako testuak idazteko; esate baterako, oharrak, jarraibideak edo arauak, gutunak, horma-irudiak, liburuxkak, komikiak edo deskribapen errazak. Ebaluatuko da testu bat nolabaiteko autonomiarekin sortzeko eredu erabiltzeko gaitasuna, eta ebaluatuko da, halaber, ereduak behatuz eta soinuaren eta grafiaren arteko erlazioak ikasiz barneraturiko zuzentasun ortografikoa.

6. Baloratzea atzerriko hizkuntza tresna bat dela beste pertsona batzuekin komunikatzeko, eta atzerriko hizkuntza hori hitz egiten duten pertsonetako jakin-mina eta interesa erakustea. Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak jakin-minera duten atzerriko hizkuntzan edo haienaz besteko hizkuntza batean hitz egiten duten pertsonetako; halaber, begiratuko da ikasleek gaitasuna duten hizkuntzen aniztasuna gizartearentzako aberasgarria dela baloratzeko eta gai diren beste hizkuntza batzuetako hiztunen berezitasun soziokulturalak aintzat hartzeko.

7. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako eguneroko bizitzaren alderdi batzuk identifikatzea eta norbera bizi den herrialdekoekin konparatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek gaitasuna ote duten ingelesez hitz egiten den herrialdeetako eguneroko bizitzaren alderdi batzuetan antzeman daitezkeen desberdintasunak eta antzekotasunak ikusi eta identifikatzeko, ordutegi, janariei, tradizioei, jaiak eta pertsonak elkarren arteko harremanak izateko moduei dagokienez.

8. Txertaketen, kenketen, ordena aldaketan, segmentazioen edo berrosatzen bitartez, hitzak, esakuneak eta testuak behatzea, ulermena eta adierazpena hobetzeko.

Helburua da ebaluatzea txertaketen, kenketen, ordena-aldaketek, segmentazioek eta berrosatzeek esakuneetan eta testuetan sortzen dituzten eraginak behatzeko gaitasuna, halako moduan non identifikatu diren bai idazketan eta ahozko adierazpenean gertatzen diren arazoak, bai ulertzeko zailtasun batzuen jatorria; azken batean, gogoeta hori jardura horiek hobetzeko erabiltzea bilatu nahi da.

Analisi prozedura horiek bidea eman behar dute testuaren edukari buruz gogoeta egiteko, eta haren egitura, hizkuntzaren erabilera eta adierazpen baliabideak aintzat hartzeko eta ebaluatzeko.

9. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea; besteak beste, argitasunak eskatzea, komunikazioa keinuekin laguntzea, ikusizko hiztegiak eta hiztegi elebidunak erabiltzea, euskarri desberdinetan gai ezagunei buruzko informazioa aurkitzea eta biltzea, eta hobeki ikasten lagunduko dioten alderdi pertsonal batzuk identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten oinarriko estrategien erabilpena, hala nola ikusizko eta keinuen bidezko baliabideak erabiltzea, ikasleek laguntza eta argitasunak eskatzea, eta hiztegi elebidunak eta oinarriko bitarteko teknologiko batzuk gero eta autonomia gehiagoz erabiltzea. Eta ebaluatuko da ikasleak gai ote diren beren aurrerapenak baloratzeko, hobeki ikasteko erabiltzen dituen estrategiei buruzko adibideak jartzeko eta forma eta egitura erraz eta egunerokoak modu espontaneoan erabiltzeko nolabaiteko autonomia barneratzeko. Helburua da hizkuntzaren erabilpena hari buruzko gogoetarekin laguntzea (lehen hizkuntzan eta besteetan barneratutako pauso eta kontzeptuei jarraituz), testuen produktioa eta berrikuspena hobetzeko, betiere komunikazio hobea lortze aldera.

Hirugarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.—Entzutea eta ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea.

1.1. Ulertzea, hitz egitea eta hizketan aritzea. Horren barrenean sartzen da ulermena eta ahozko adierazpena artikulatzeko ezinbestekoa den sistema fonologikoaren ezagutza.

Ikasleek ikasten dute ahozko hizkuntza oinarriko lanetan erabiltzen: beren buruari buruz hitz egitea, gainerakoek adi entzun eta uler dezaten lortzea, arazoei konponbidea ematea, interesatzen zaion informazioa eskatu eta ematea... bai eskolako giroan, bai gizarteko egoeretan. Bere ahalmenen arabera, honakoak egitea lortuko du: deskribatzea, azaltzea, kontatzea, arrazoiak, ideiak, iritziak ematea, iragartzea, galdetzea, argitzea, iritzia izatea. Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaile moduan landuko dituzte, batez ere.

- Ahozko mezu gero eta konplexuagoak entzutea eta ulertzea; esate baterako, jarraibideak edo azalpenak, ahozko elkarreragin gidatuak edo multimedia grabazioak ikus-entzunezko euskarrian eta euskarri informatikoan, informazio orokorra eta informazio berariazkoa ateratzeko.

- Ahozko elkarreragina egoera erreal edo simulatuetan, gero eta autonomia, eraginkortasun eta konplexutasun handiagoaz baliatuz erabiltzeko adierazpideetan.

- Ahozko testuak sortzea gero eta autonomia, eraginkortasun eta konplexutasun handiagoarekin; betiere ezagutzen diren ereduak eta egitura linguistikoko erabiliko dira, eta interesa erakutsiko da gauzak ahoz adierazteko banakako edo taldeko jardueretan.

- Oinarriko estrategiak erabiltzea ahozkoaren ulermenean eta adierazpenean laguntzeko: ikusizko testuinguru eta hitzez besteko testuinguru erabiltzea, eta gaiari edo egoerari buruzko alde aurreko ezagupenak —ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik transferitutakoak— erabiltzea.

- Banakako edo taldeko jardueretan (abestiak, dramatizazioak, taldeko lanak...) gauzak ahoz adierazteko interesa, gero eta modu autonomoagoan.

- Komunikazioa behar beste menperatzen ez denean sortu ohi diren zailtasunak gainditzeko jarrera, ezagutzen diren hizkuntzetako komunikazio estrategiez baliatuz.

—Testuak:

- Aurreko etapan aipatutakoetatik, batez ere: olerkiak, elkarrizketak. Oraingoan ondokoetan lehenetsutako arreta jarri eta gehiago sakonduz:

- Narrazio testuak (ordena kronologikoa, edukaren progresioa): ipuina, albistea, bizipen baten kontaketa.

- Azalpen testuak (beste irakasgai batzuetako edukiak).

—Entzutea eta ulertzea

—Trebetasunak eta estrategiak

- Lan bat egiteko ideia orokorra eta informazio muntaduna ateratzea.

- Ahozko testuen berariazko informazioa harrapatzea ikasgelako lanak egiteko, adierazitako ideien artean ezartzen diren erlazioak eta komunikazio egoeraren ezaugarriak ulertuz: mintzakideen kopurua eta mota, komunikazioa noiz eta non gertatzen den, komunikazioaren asmoa (informazioa, pertsuasioa, umorea...).

- Ulermenaren estrategia nagusiak aplikatzea: aurreratzea, inferentzia.

- Ahozko adierazpena eta elkarreragina

—Trebetasunak eta estrategiak

- Eguneroko gaiak eta gai ezagunei buruzko edo gelan maiz landutako gaiak buruzko hizketaldiak izatea.

- Ezarritako jarraibide batzuekin, elkarrizketak asmatzea.

- Adieraztea: ziurtasuna, posibilitatea. Egitateak, iritziak.

- Adostasuna, desadostasuna. Baimena ematea, debekatzea, aginduak ematea....

- Lehenaldia/geroaldia erabiliz hitz egitea.

- Arrazoiak ematea, azaltzea.

- Deskribapen errazak egitea (pertsonak, animaliak, gauzak eta lekuak). Ezagutzei buruzko adierazpen laburrak egitea.

- Istorioak eta gertaerak narratzea ikusizko eta hitzezko laguntzekin, ikasgelan aurretik landutako ereduak erabiliz.

- Ikaskideei elkarrizketak egitea beren gustu eta zaletasunei buruz, aurretik landutako gidoi bat erabiliz.

2. multzoa.—Irakurtzea eta idaztea.

Irakurtzeko behar diren trebetasunen —testua deskodetzea eta irakurtzea funtzionala— eskuratzea lehen zikloan landuko da, baldin eta aurreko etaparekin koordinatzen bada. Geroko zikloetan, idatziko hizkuntzaren ulermena gero eta gehiago menperatzea bideratuko duten ezagutzak eta trebetasunak garatu eta barneratuko dira (informazio

berriazkoa kokatzea, inferentziak, interpretazioa, testu informatiboak eta narratiboak baloratzea). Oso garrantzitsua da irakurzaletasuna bultzatzea, gozamenarako eta prestakuntzarako iturri gisa.

Idatziko adierazpenaren konplexutasuna dela eta, beharrezkoa da lotura estua ezartzea ahozko hizkuntza eta lehen hizkuntza lantzearekin. Horrek bidea emanen du ikaskuntzak indartu eta barneratzeko. Esaldia deskribatetik eta menperatetik abiatuta, testu laburrak sor daitezke (azalpena, narrazioa) eta idazkiei koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta aberastasuna ematen dieten oinarriko prozedurak barnera daitezke. 4. multzoko ezagutzak bereziki beharrezkoak dira idatziko adierazpenen nahi den heldutasuna lortzeko, haien aplikazio praktikoa bilatzekotan. Letra lodiz agertzen diren testuak dira ikasleek produzitzen jakin beharrekoak. Gainerakoak, hartzaille moduan landuko dituzte, batez ere.

- Testu mota desberdinak irakurri eta ulertzea, betiere ikasleen gaitasun linguistikoari egokituak, informazio orokorra eta berriazkoa erabiltzeko, lan bat garatzen ari direnean edo irakurketaz gozatzeko.

- Irakurtzeko estrategien erabilera gero eta autonomoagoa: ikusizko testuinguruaren elementuak eta ezagutzen diren hizkuntzetatik transferitutako gaiari edo egoerari buruzko aurretiko ezagutzak erabiltzea, informazio nagusia identifikatuz, ezagutzen ez diren hitzen edo adierazpideen esanahia deduzituz, hiztegiak erabiliz.

- Irakurketa baloratzea. Ikasleen gaitasun eta interesetarako egokiak diren testuak irakurtzea, irakurketaz gozatzeko.

- Giza harremanetan eta komunikabideetan berezkoak diren testuak eta ikasteko eta informatzeko testuak irakurri eta idatzea.

- Komunikazio egoera desberdinetan berezkoak diren testuak osatzea –hiztegian eta egituretan gero eta zabalagoak eta aberatsagoak–, informazioa transmititu eta konpartitzeko eta komunikazio asmo desberdinekin.

- Testu produkzioaren oinarriko strategiak erabiltzea (hartzaillea hautatu, helburua, plangintza, zirriborroa egin, testua berrikusi ea amaierako bertsioa) oso egituratuta dauden ereduak erabiliz.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea testuak eta aurkezpenak egiteko eta informazioa transmititzeko.

- Testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa, eta testuek komunikazio beharrak asetzeko betetzen duten eginkizuna baloratzea.

- Bigarren hizkuntza komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa baloratzea.

–Testuak:

- Aurreko etaparako aipaturakoetatik, batez ere: olerkiak, elkarrizketak. Oraingoan ondokoetan lehentasunezko arreta jarri eta gehiago sakonduz:

- Narrazio testuak (ordena kronologikoa, edukiaren progresioa): ipuina, albisteak, bizipen baten kontaera –gutuna–.
- Azalpen testuak (beste irakasgai batzuetako edukiak).

–Trebetasunak eta strategiak

- Ikasgelan landutako testuak arintasunez eta ebakera eta intonazio egokiek ozenki irakurtzea.

- Ikasteko irakurtzea (ulertzeko irakurketa)

- Idatziko testu esanahidunen esanahia harrapatzea, eta hiztegiaren laguntza informazio berriazkoa identifikatzea.

- Ezagutzen dituen hizkuntzetatik transferitutako irakurketa strategiak erabiltzea; esate baterako, ikusizko testuinguruaren elementuak (ilustrazioak interpretatzea gaiari buruzko hipotesiak egiteko, hipotesi horiek egiaztatzeko edo ezeztatzeko...), gaiari edo egoerari buruzko alde aurretiko ezagutzak...

- Irakurritako testuen laburpen osatuak eta egokiak egitea.

- Idatziko adierazpena. Estrategiak eta trebetasunak

- Testuen produkzioan oinarriko strategiak erabiltzea, eredu oso egituratuak abiapuntu hartuta.

- Testu idatziaren plangintza egitea: ideiak, behar den hiztegia, behar diren egiturak eta ideien ordena. Hartzaillea eta xedea hautatzea. Zirriborroa egitea. Testuari kohesioa emateko elementuak erabiltzea (loturak, aditzaren denbora, oinarriko puntuazio egokia eta abar).

- Testuaren berrikuspena eta amaierako bertsioa.

- Aurkezpena, irakurgarritasuna zaintzea.

- Narrazio, deskribapen, jarraibide eta azalpen testuen oinarriko elementuak ezagutu eta erabiltzea.

- Testuak zuzentzea bukatutzat eman baino lehen, ondokoei buruzko galderak eginez: koherentzia, irakurlearentzako egokia den, adierazpideetan edo hiztegiaren aldaketaren bat eginez hobetu ote daitekeen (erreferentziak), ortografia, puntuazio-marka oinarrikoak.

3. multzoa.–Hizkuntzaren ezaguera.

Ikasleek hizkuntza barneratzeko prozesuari jarraipena ematen zaio, menperatze hobe eta handiagoa bideratuko duten erabilerak sustatuz. Gainera, ikasleen artean erabilera gogoetsua sustatuko da, pixkanaka proposatuz produkzioak behatzeko, analizatzeko eta manipulatzeko

jarduerak; horiekin, oinarriko ezagutza linguistikoaren eta terminologiaren kontzeptualizatzea eta eskuratzea bideratuko da. Komunikatzeko gaitasuna hobetzearan ikuspuntutik justifikatzen da, eta esanahia ematen zaio adin hauetan gramatikaren inguruko gogoetari.

2.1. Hizkuntzari buruzko gogoeta

- Ebakera zaindua, erritmo, intonazio eta azentu egokiak, bai ahozko elkarreragin eta adierazpenetan, bai errezitatzean, dramatizatzean edo ozenki irakurtzean.

- Grafia, ebakera eta esanahia lotzea, idatziko ereduetatik eta ezagutzen diren ahozko adierazpideetatik abiatuta, eta grafia-soinua erlazio analitiko segurua ezartzea. Nabarmentzekoak diren irregular-tasun batzuk ezagutzea.

- Silaba bat baino gehiago dituzten hitzen azentua (stress) ezagutzea eta aplikatzea.

- -ed /d/, /t/, /id/ (phoned, cooked, landed) bukaera duten lehenaldiko aditzen bukaerak bereiztea.

- Hasierako, erdiko eta amaierako lekuan dauden errimak, antzekotasunak (homofonoak: our / hour) eta kontrasteak bereiztea.

- Gehien erabiltzen diren letra mutuak identifikatzea: know, knee, hour, lamb, palm, comb...

- Atzerriko hizkuntzaren berezko forma eta egitura oinarriko batzuk, lehendik erabiltzekoak, ezagutzea eta erabiltzen jakitea.

- Olerkigintzaren hizkuntza: errepikapenak, metaforak, errima, irakurleari zuzentzea.

- Zuzeneko estiloa.

- Aditz denboren (orainaldia, lehenaldia eta geroaldia) koherentziari eustea ahozko eta idatziko produkzioetan.

- Esakuneak berridaztea ekintzetan beste denbora bat adieraziz.

- Osagarri lana egiten duten izenordainak erabiltzea.

- Perpausak konbinatzea perpaus elkartu bat osatzeko. Kohesio bermatzeko oinarriko baliabide linguistikoak deskubritzea. Koherentzia, kohesio, egokitasun akatsak detektatzea.

- Hiztegia erabiltzea testu batean dauden hitz ezezagunen esanahia ezagutzeko. Hiztegiaren ematen diren definizioetatik, testuingururako egokiena den esanahia hautatzea.

- Hizkuntza egoera desberdinetan zuzentasunez erabiltzeko interesa, adierazpide gero eta luzeagoak erabiliz eta adierazpide horien zuzentasunari eta egokitasunari erreparatuz.

4. multzoa.–Alderdi soziokulturalak eta kulturarteko kontzientzia

Geletan lantzen diren testuek bere baitan daukate ulermena nabarmen baldintzatzen duten elementu soziokultural ugari; elementu horiek bizitza, gizartea eta kultura ikusteko, ulertzeko eta aintzat hartzeko bestelako modu batzuk adierazten dituzte. Ikasleek ikasiko dute desberdintasunak eta antzekotasunak egiaztatzen, haiek ezagutzen, errespetatzen eta aintzat hartzen, kasua bada. Gaur eguneko komunikatzeko erraztasunek aukera ematen dute beste hizkuntzetako hiztunekin harreman gehiago izateko eta harreman horiek era askotakoak izateko. Haiekin komunikatzerakoan, ezinbesteko egiten da nolabaiteko kultura sintonia bat edukitzea. Gure gizarteak gero eta gehiago exijitzen du kulturartekotasuna eta kultura aniztasuna aintzat hartzea.

Baloratzea hizkuntzak beste herrialde batzuetako ikaskideekin komunikatzeko eta harremana izateko bitartekoa direla, informazio berriak lortzeko aukera bat direla, eta kultura eta bizimodu desberdin eta aberasgarriak ezagutzeko tresna direla.

- Norberaren kultura baloratzea, beste kultura batzuen ezagutzatik eta baloraziotik abiatuz.

- Atzerriko hizkuntzan hitz egiten den herrialdeetako eguneroko ohiturak ezagutzea eta harreman sozialetarako berezko formak erabiltzea.

- Jarrera harbera eta balorazio positiboa izatea beste hizkuntza batean hitz egiten duten eta norberarenaz besteko kultura bat duten pertsonetara.

- Atzerriko hizkuntzako edo beste hizkuntza batzuetako hiztunekin komunikazioaren teknologiek eskaintzen dizkiguten bitartekoak erabiliz harremanak egiteko eta komunikatzeko interesa izatea.

- Atzerriko hizkuntzako hiztunen erkidegoen elementu kultural batzuk ezagutzea: geografia, historia, artea...

5. multzoa.–Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.

Ikasleek lortu behar dute ikasteko eta lan egiteko estilo pertsonal eta eraginkor bat garatzea, gauzak ulertzeko eta adierazteko dauzkaten strategiak etengabe hobetzera bideratuko dituena; xedea da ikasleek gero eta modu kontzienteagoak jakitea nola eta noiz ikasten duten eta lan egiten duten gehiago eta hobeki. Argi dago lan egiteko eta ikasteko moduari buruzko gogoeta, eztabaida eta adibideak eta abar gainerako eduki multzoetan aipaturiko lan eta jarduerekin lotura estua gordez garatu behar direla.

- Ikasleak ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuetatik abiatuta, atzerriko hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko konparaketa eta gogoeta.

▪ Trebetasunak eta prozedurak erabiltzea –errepikapena, buruz ikastea, hitzak eta adierazpideak keinuekin eta ikusizko elementuekin erlazioatzea eta ereduak behatzea, testuak irakurtzea, multimedia euskarriak erabiltzea– hitz berriak eta hizkuntzaren forma eta egiturak barneratzeko.

▪ Ikaskuntzaren kontzientzia eta autonomia gero eta handiagoa. Gogoeta ikaskuntzari berari buruz eta lanaren antolamenduari buruz, eta akatsak onartzea ikaskuntza, autozuzenketa eta autoebaluazio prozesuaren atal gisa.

▪ Kontsultarako eta informaziorako bitartekoak eta teknologia berriak eskaintzen dituzten aukerak gero eta gehiago erabiltzea.

▪ Konfiantza izatea hizkuntzak ikasteko norberak daukan gaitasunean, eta lankidetzan aritzea baloratzea.

▪ Baloratzea hizkuntza ikasteko, antolatze eta ezagutzak transmititzeko tresna bat dela.

▪ Internetez baliatzea informazio iturri gisa eta posta elektronikoa erabiltzen hastea.

▪ Taldean lan egiteko estrategietan aurrera egitea eta sakontzea.

Ebaluazio irizpideak

Ebaluazio irizpideak ziklo bakoitzerako ezarritako oinarriko helburu orokorrak adierazten dituzte. Irizpide horietako bakoitzak eskatzen du kasuan kasuko helburua lortzeko behar diren trebetasun eta estrategia batzuk barneratzea.

1. Komunikazio egoera desberdinetan emandako ahozko testuetan esanahi orokorra harrapatzea eta berariazko informazioak identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak gai diren beren inguru-neari, oinarriko informazio pertsonal eta familiarrari, jokoei, kirolei, beste arlo batzuetako edukiei eta intereseko beste gai batzuei buruz hitz egitean maiz erabiltzen diren adierazpideak eta hiztegia ulertzeko, eta mezua, informazio eta elkarrizketa argi eta errazak ulertzen ote dituzten.

2. Aurrerako moduko komunikazio egoeretan gai ezagunei buruzko eguneroko elkarrizketa familiarrak izatea, elkarrukearen oinarriko arauak errespetatuz; esate baterako, entzutea eta hitz egiten duenari begiratzea.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleak gai ote diren eguneroko egoeretan ezagutzen diren edo alde zurretik landu diren gaietan komunikatzeko eta berehalako beharrik adierazteko; esate baterako, eskariak egin, jarduera antolatu, taldean lan egin eta argitasunak eskatzea. Ebaluatu nahi da familiari eta beste pertsona batzuei buruz, eguraldiari, jantziari, liburuei, jokoei eta arlo desberdinetako edukiei buruz modu errazean hitz egitekoan adierazpideak eta esaldiak erabiltzeko gaitasuna. Irizpide honekin baloratuko da, halaber, ikasleak elkarrukeetan parte hartzeko duen jarrera, bai eta interesa erakusten duen ere gainerakoan esku-hartzei buruz.

3. Atzerriko hizkuntzak berezko dituen forma eta egitura oinarrikoak erabiltzea, esanahi bat komunikatuz, testuinguru desberdinetan, horren barne direla, erritmoa, azentua eta intonazioa.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da neska-mutikoak gai ote diren jardura desberdinetan aktiboki parte hartzen dutenean –esate baterako, jendaurreko azalpen laburrak, berdinen arteko elkarrizketak edo ozenki irakurtzea– soinu, erritmo, azentu eta intonazio alderdiak ezagutzeko eta berriz egiteko, zuzentasun gehiagorekin, ereduetatik abiatuta betiere.

4. Irakurri eta berariazko informazioa aurkitzea, zuzeneko inferentziak egitea eta intereseko gai buruzko testu desberdinak ulertzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da gero eta hiztegi zabalagoa eta adierazpide konplexuagoak dituzten testu desberdinak irakurtzeko eta ozenki irakurtzeko gaitasuna; horretarako erabiliko dira ipuin eta olerki egokituak edo benetakoak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak..., eta idatziaren ulermenaren oinarriko estrategiekin landuko dira. Baloratuko da ikasleak gai diren testuetan informazio edo ideia esanahidunak detektatzeko eta ulertzeko, eta gauza ote diren azaleko esanahiaz haratago joan eta testuan oinarrituriko zuzeneko inferentziak ateratzeko. Halaber, ebaluatuko da idatziaren ulermenarekin loturiko funtsezko estrategiak nolabaiteko autonomiaz erabiltzen diren, esate baterako, testuinguru linguistikoko eta ez-linguistikoko elementuak erabiltzea eta ezagutzen diren beste hizkuntza batzuetatik ezagutzak transferitzea.

5. Testu idatziak lantzea hartzailea, testu mota eta xedea aintzat hartuz, bai paperean, bai euskarri digitalean.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak, ereduetatik abiatuta, testu laburrak sortzeko gaitasuna duten, betiere komunikazio egoera osatzen dutenen arabera. Xedea da ebaluatzea ikasleak gai diren, lagunduta, testu desberdinak egiteko, beren intereseko gai buruz eta alde zurretiko ezagutzei buruz –bereziki lehen hizkuntzetako transferentziatik heldutakoak–; Honako testuak, esate baterako: eskariak, jarraibideak, gutunak, egunerokoak, deskribapenak eta narrazio labu-

rrak. Testu baten produkzio faseetan jarritako arreta berariaz baloratuko da: plangintza, testugintza eta berrikuspena.

6. Baloratzea atzerriko hizkuntza tresna bat dela beste pertsona batzuekin komunikatzeko eta ikasteko, eta atzerriko hizkuntza hori hitz egiten duten pertsonetako jakin-mina eta interesa erakustea.

Irizpide honekin baloratu nahi da ikasleek gaitasuna duten baloratze atzerriko hizkuntza ikasteko eta komunikatzeko tresna bat dela. Halaber, begiratu da ikasleek baloratzen ote duten hizkuntzen aniztasuna gizartearentzako aberasgarria dela. Orobat, baloratuko da pertsonen arteko harremanak ezartze aldera hizkuntza erabiltzen egiten den ahalegina –eskola barneko gutunak erabiliko dira horretarako–; harreman horietarako, teknologia berriak, ahozko elkarreragina edo idatzeko komunikazioak erabiliko dira.

7. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako ezaugarri, ohitura eta tradizio batzuk identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ea ikasleak gai diren atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako berezitasun, ohitura eta tradizio ezagunenak identifikatzeko eta kanpoko elementu soziokultural horiek erlazioatzeko norberaren herrialdekoekin, kulturarteko kontzientzia izatera iristeko.

8. Txertaketen, kenketen, ordena aldaketen, segmentazioen edo berrosatzeen bitartez, hitzak, eskuneak eta testuak behatzea, ulermena eta adierazpena hobetzeko.

Helburua da ebaluatzea txertakete, kenketek, ordena-aldakete, segmentazioek eta berrosatzeek eskuneetan eta testuetan sortzen dituzten eraginak behatzeko gaitasuna, halako moduan non identifikatuko diren bai idazketan eta ahozko adierazpenean gertatzen diren arazoak, bai ulertzeko zailtasun batzuen jatorria; azken batean, gogoeta hori jardura horiek hobetzeko erabiltzea bilatu nahi da.

Analisi prozedura horiek bidea eman behar dute testuaren edukia buruz gogoeta egiteko, eta haren egitura, hizkuntzaren erabilera eta adierazpen baliabideak aintzat hartzeko eta ebaluatzeko.

9. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea; besteak beste, informazioa lortzeko galdera egokiak egitea, argitasunak eskatzea, hiztegi elebidunak eta elebakarrak erabiltzea, komunikazioa keinuekin laguntzea, euskarri desberdinetan gai ezagunei buruzko informazioa aurkitzea, biltzea eta antolatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea informazioa alderatu eta egiaztatze eta hobeki ikasten lagunduko dioten alderdi pertsonal batzuk identifikatzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasteko prozesua errazten duten oinarriko estrategien erabilpena, hala nola ikusizko eta keinuen bidezko baliabideak erabiltzea, ikasleak laguntza eta argibideak eskatzea, hiztegi egokitu elebakarrak erabiltzea, eta paperean nahiz euskarri digitalean informazioa bilatzea. Eta ebaluatuko da ikasleak gai ote diren beren aurrerapenak baloratze, eta hobeki ikasteko erabiltzen dituzten baliabideak eta estrategiak identifikatzen dituzten.

Halaber, ebaluatuko da ikasleak gai ote diren beren aurrerapenak baloratze, eta forma eta egitura erraz eta egunerokoak modu espontaneoan erabiltzeko nolabaiteko autonomia barneratzeko. Helburua da hizkuntzaren erabilpena hari buruzko gogoetarekin laguntzea (lehen hizkuntzan eta besteetan barneratutako pauso eta kontzeptuei jarraituz), testuen produkzioa eta berrikuspena hobetzeko, betiere komunikazio hobe lortze aldera.

F0705063

1.1.3. Foru Aginduak

106/2007 FORU AGINDUA, apirilaren 16koa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana, produktu fitosanitarioen eta bestelako plagizidien erabilera buruzko argibideak erregistratzeko fitxa ereduak ezartzen duena.

1991ko uztailearen 15eko 91/414/EEE Zuzentaraua, produktu fitosanitarioen merkaturatzeari buruzkoa, azaroaren 4ko 2163/1994 Errege Dekretuaren bidez bildu zen Espainiako legerian. Errege dekretu horren bidez, produktu fitosanitarioak merkaturatu eta erabiltzeko baimena emateko Europar Batasuneko sistema harmonizatua ezarri zen. Zuzentarau hark xedatzen duenez, Batasuneko kide diren estatuak behar diren neurriak hartuko dituzte produktu fitosanitarioak zuzentasunez erabili daitezkeen eta haien erabilera kontrolatua izan dadin, ezarriko betebehar guztiak betetzen direla egiaztatua ahal izateko.

Europar Batasuneko legeria berria Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko urtarrilaren 28an eman 178/2002 EE Erregelamenduan biltzen da. Horren bidez, elikagai buruzko legeriaren orotariko irizpide eta betebeharrik ezarri, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortu eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak zehaztu ziren. Xedapen batzuen bidez elikagaien eta pentsuen higie-nearen arloa garatu ziren. Elikagaien kateko operadorei dagozkien eginbeharrak indartu eta sistematizatu dira, elikagai seguru eta osasungarriak ekoizten dituztela bermatzeko.